

---

# EUSKADI AURRERA

Hauteskunde Egitaraua  
2012

---



[urkullu.eu](http://urkullu.eu)

ej  
PNV





Idazki honen bidez, EAJ-PNVk EUSKADI aurrera eramateko duen konpromisoa aurkezten dugu. Euskal gizarteak urte hauetan galdu den denbora berreskuratu behar du. EUSKADlrengan sinesten dugunez, hiritarren partaidetza sustatzen duen gobernu-egitarau konprometitua eta errealista aurkezten dugu, lehentasunak argiro zehazturik dituena.

### **PARTAIDETZA SUSTATZEN DUEN GOBERNU-EGITARAUA**

3.500 pertsonak baino gehiagok bidali dituzte euren ekarpenak eta iradokizunak [www.urkullu.eu](http://www.urkullu.eu) web orrialdearen bidez.

### **GOBERNU-EGITARAU KONPROMETITUA**

175 konpromiso ezarri ditugu euskal hiritarrek; horiez gain, konpromiso horiek guztiak betetzeko 610 ekimen ere planteatzen ditugu, 31 gobernu-arlotan multzokaturik.

### **GOBERNU-EGITARAU ERREALISTA**

Arlo hau bi estrategia osagarriren bidez jorratuko dugu:

- Gastu publikoa zentzuzkotzeko estrategia bideratuz; horretarako, lehentasunak ezarri behar dira, eta gastu arruntak kontrolatu, Euskadik behar dituen gizarte-politikei eta inbertsio emankorrei eutsi ahal izateko.
- Enplegua eta jarduera ekonomikoa sustatzeko estrategia bideratuz.

### **HIRU LEHENTASUN DITUEN GOBERNU-EGITARAUA**

- Enplegua eta jarduera ekonomikoa.
- Zerbitzu publikoen defentsa, eta bereziki, osasun arloa, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak.
- Euskadiren nortasun ekonomikoa eta kulturala munduan zehar islaraztea.





## **EUSKADI DA GURE KONPROMISOA.**

INDARKERIARIK GABEKO EUSKADI.

ENPLEGUAREN ALDEKO EUSKADI.

EKONOMIA PRODUKTIBOAREN  
ALDEKO EUSKADI.

MUNDUARI ZABALIK DAGOEN  
EUSKADI.

ETORKIZUN IRAUNKORRA IZANGO  
DUEN EUSKADI.

EUSKADI SOLIDARIOA.

OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOAN  
AITZINDARIA DEN EUSKADI.

KULTURAREN ETA GAZTERIAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUEN  
EUSKADI.

EUSKARAREN  
ETA HIZKUNTZA-BIZIKIDETZAREN  
ALDEKO EUSKADI.

BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN  
EUSKADI.







# EUSKADI DA GURE KONPROMISOA

## PSEren ETA PPren ARTEKO ITUNAREN PORROTA

PSEren eta PPren arteko itunaren itzalpeko Jaurlaritza izan dugu azken 3 urteotan. EAJ-PNVk 2009ko hauteskundeak erruz irabazi arren, "alderdien legea" aplikatzean kalkulu politikoa erabili izanak eta berez bateraezinak diren bi alderdiren (PSEren eta PPren) arteko ituna, xede bakartzat abertzaleok Eusko Jaurlaritzatik kanpo uztea zuena, sinatu izanak, Euskadirentzako aro beltza ekarri dute.

Aro beltz horretan, ondokoa izan da itun horren asmo nagusia: apurka-apurka Euskadi sistema konstituzionalean murgilaraztea, Euskadi Estatuko erkidego arrunt eta huts bilakarazi nahiz.

**Euskal izaera bereizgarria ezabatzeko asmo hori xedezat hartuz**, PSEren gobernu honek, PPren babesarekin, alde batera utzi du herri honek duen arazo nagusia, hots, krisi ekonomikoa eta langabezia konpontzeko erantzukizuna eta ardura, ez baita horiei irtenbiderik ematen saiatu ere egin.

**Hiru urte galdu dira.** 3 urte hauetan desgobernua da nagusi, bai eta kontu publikoen kontrolik eza ere. 3 urte hauetan ez da enplegua sortzeko estrategiarik edota gure zerbitzu publikoak kudeatzeko eredurik egituratu, ez eta herrialdea eraikitzeko eredurik ere.

**Zaila izango da hiru urte hauetan galdutakoa berreskuratzea**, zeren eta, politikaren alorrean, arloak ez jorratzea garesti ordaintzen baita azkenean. Hauteskundeetan ordaintzen da, baina okerragoa ere bada kontua: norabiderik gabe eta egitarau barik ibili den gobernua jasan behar izan duen gizarteak ere garesti ordaintzen baitu hori guztia.

## PSEren ETA PPren GOBERNUAREN JARAUNSPENA

---

PSE-PPren gobernu honek utzi digun jaraunspena ezin txarragoa da:

- **Defizit publikoak ez du kontrolik.** Zorrik gabeko Eusko Jauriaritza utzi genien, gure konpromisoari eusteko gauza zena, inbertitzeko ahalmena zuena, eta orain, berriz, hagitaz azkar igotzen ari den defizita dugu begien aurrean; are, eta hori aurrekoa bezain larria da, gobernu honek ez du gure Herriaren etorkizunaren alorrean ezelako inbertsiorik egin.
- **Ekoizpen-egitura antzutu egin da.** Enpresa txikiek zein handiek arazo itzelak dituzte. Barruko eskaria behea jota dago, finantzabiderik eskuratzeko aukerarik gabe. Eta aldi honetan, enpresok krisi ekonomiko eta finantza-krisi honi aurre egiteko behar duten laguntza eskaintzeko gai izan ez den Eusko Jauriaritza izan dute bidelagun.
- **Langabezia izugarri igo da.** Aspaldi ahaztuta genituen langabezia-mailetara itzuli gara ostera ere. Gure gazteek, horietako askok eta askok prestakuntza ezin hobea izaki, ez dute inolako aukerarik aurkitzen eta herritik alde egiteko aukera baloratu behar dute. Eta adinez nagusiagoak diren pertsonak ere lan bat berriro izateko aukerak zeharo urriak direla ikusten dute.
- **Osasun arloak motibazioa galdu du.** Beti erreferentziazko osasun-sistema izan zena osasun-sistema arrunt bilakatu da orain, hots, beste sistema bat, besterik ez. Sistema horrek antolaketaren alorreko arazo handiak ditu, eta horrek eraginkortasunik eza dakar; izan ere, norabiderik ezean, osasun arloko profesionalak ez dute motibaziorik, eta pazienteen asebetea ere askozaz baxuagoa da.
- **Zerbitzu publikoek okerrera egin dute.** Arestion aipatu dugun egoera hori gainerako zerbitzu publikoetan ere islatzen da. Hain zuzen ere, behera egin dute hezkuntza publikoaren kalitate-estandarrek, Lanbideak ez die irtenbiderik ematen ez langabetuei ez enpresei, geldiarazi egin dira funtsezko zerbitzu publiko batzuk, etxebizitza eta metroa, barbarako. Azken buruan, 3 urte hauetan zerbitzu publikoek okerrera egin dutela ikusi dugu.
- **Gizarteak ilusioa galdu du.** Etsipena antzematen da euskal gizartearen zati handi batean. Gure hiritarrek egungo krisiaren larriaz jabetzen dira, baina ez dute ulertzen Jauriaritza honek krisi hori aurre ez egitea. Euskal gizarteak aitzindaritza berria behar du, gardentasuna eta partaidetza abiaburu izango dituen buruzagitza, alegia, gure herriaren arazoak konponbideari ausardiaz eusteko eta etorkizunari adonez begiratzeko.

Funtsean, PSE-PPren Gobernuak aldaketa agindu zuen, bai, eta hala gertatu da. Baina txarrerako aldaketa izan da.

## AURRERA ATERAKO DUGU EUSKADI

---

Hiritarren ongizatea da gobernu ororen zereginik garrantzikoena, eta areago egungo krisi egoera honetan, albiste ezkorrek nonahi eta eten gabe iristen zaizkigun abagune larri honetan. Horregatik, hazkundera eta gizartearen ilusioa xede dituen dinamika positiboa sorrarazi behar dugu gurean.

Hori da, hain zuzen ere, EAJ-PNVk betidanik izan duen konpromisoa eta eginbeharra, une honetan ere berretsi beharrekoa. Aurrera aterako dugu Euskadi. **Laurogeiko hamarkadako krisitik atera-  
ratzen aitzindari jardun genuen, ekoizpen-ekonomiaren, suspertze ekonomikoaren eta Euskadin ongi-  
zatearen estatua eraikitzearen aldeko apustua eginez, eta gauza bera egingo dugu berriro ere.**

Ondokoa da planteatzen dugun helburua: gure ekonomiaren lehia-gaitasunari eustea eta gaitasun hori hobetzea. Xede horrek eguneroko bizitzan bereizten gaituzten alderdiei eustea eta bero-





riek hobetzea ahalbidetuko digu: gure hezkuntza eredua, Osakidetzaren zerbitzuak, mendeko pertsona nagusienganako laguntza, egoera larrian diren familienganako laguntza... eta gure gizarte-sarea osatzen duten zenbait eta zenbait alderdi garrantzitsu gehiago. Euskal eredua, EAJ-PNVk sorrarazi eta garatu zuena, ekonomia lehiakorra, solidarioa eta iraunkorra oinarri dituen gizartearen eraikitzen laguntzen duen eredua da, eta justiziarik eta gizarte-berdintasunari dagozkien baloreak dira haren funts nagusiak. Izan ere, eredu hori hogeita hamar urte luzetan herri honen garapenerako eta kohesiorako bermea izan da.

Euskadik, bertako gizon-emakumeek osatzen duten aktibo nagusia ez ezik, arestian aipatu dugun guztia erdiesteko behar diren borondatea eta autogobernurako tresnak ere baditu. Besteak beste, Kontzertu Ekonomikoa, barne finantzaketarako eredua eta Euskadik zerga arloa antolatzeke duen ahalmen arauemailea dira tresna horiek. Tresnok nabarmenki lagundu zuten 80ko hamarkadako industri beheraldia gainditzeko, eta egungo egoeran ere gauza bera egingo dute, euskal gizartearen beharrezkoen eta asmoen neurrirako izango den eraldaketa ekonomikorako eredua taxutzen lagunduko baitute. Horrezaz gainera, EAJ-PNVren ekimenez eta haren negoziatzeorako eta konpromisorako gaitasunez landu diren tresnak dira.

Garapen Adimentsu, Integratzaile eta Iraunkorrari dagokion eredua eraiki nahi dugu:

• **Garapen Adimentsua:**

- Ekoizpen-egituraren aldeko apustua egiten duena.
- Berrikuntza eta Nazioartekotzea bultzatzen dituen.

• **Garapen Integratzailea:**

- Enplegua sortzea helburu argizat duena.
- Gizartearen Kohesioa bilatzen eta Solidaritatea erakartzen duena.
- Pobreziaren eta Bazterkeriaren aurka kementsu borrokatzen duena.
- Zerbitzu Publikoek kalitate gorena izatea erdietsi nahi duena.

• **Garapen Iraunkorra:**

- Energiaren alorreko Iraunkortasunerantz aurrera egiten duena.
- Ingurumenaren arloko Iraunkortasuna bermatzen duena.

## EUSKARAREKIN ETA HIZKUNTZA-BIZIKIDETZAREKIN KONPROMETITURIK DAGOEN EUSKADIREN ALDE EGITEN DUGU.

**Hizkuntza Politika** gobernu-jardueraren erdigunean kokatuko du EAJ-PNVk. Hizkuntzen bizikidetzaren euskal gizartearen beraren bizikidetzarako funtsezko zutabeetarikoa denez, herritarren hizkuntza-aukerak eta hizkuntza-askatasuna egiazki bermatu ditzakeen elebitasun ahalik eta berdinkide eta orekatuena bultzatuko dugu. Gaur egun bi hizkuntza ofizialek bizi duten egoera aintzat hartuta, euskararen erabateko normalizaziora gerturatzeko jarraitzeko hizkuntza-politika sustatzailea eta eraginkorra gauzatuko dugu. Hartara, agenda politikoan izan beharreko tokia berreskuratuz. Jaurlaritzako sail guztien ohiko jardunean txertatuko dugu hizkuntza pluraltasunaren iraunkortasuna bermatzeko bi hizkuntza ofizialen erabilera.

Beraz, Jaurlaritzaren jardunean zehar-lerro nagusietakoa izango da hizkuntza-politika.

Hizkuntza politikaren transbertsaltasuna sendotzeko, gaur egungo egituraren arabera hizkuntzen kudeaketan berriazko zeregina duten organo eta zerbitzu guztiak sarean eta modu osagarrian jardutea bermatuko dugu, hizkuntza politikaren ardurak izango duen organoaren gidaritzapean. Orobat, Jaurlaritzaren eta foru aldundi nahiz udalen arteko lankidetzaren estua ahalbidetzen saiatuko gara, euskara biziberritzeko denen ahaleginek ahalik eta emaitzarik eraginkorrenak izan ditzaten.



## **GURE GOBERNU-FILOSOFIA: ZORROZTASUNA, BERMEA ETA HAZKUNDEA. "KONTUA EZ DA GEHIAGO AURREZTEA, HOBETO INBERTITZEA BAIZIK"**

Aurrekontu-oreka jadesteko hartzen den konpromisoak ez du esan nahi murrizketak soilik planteatu behar direnik; konpromiso horrek gizarte arloko oinarrizko zerbitzuak eta prestazioak bermatzearekin eta hazkundera xede nagusitzat duen politika ekonomikoa bideratzearekin bateragarria izan behar du.

Kontua ez da gehiago aurreztea, hobeto inbertitzea baizik. Horretarako, EAJ-PNV buru izango duen Jaurlaritzak ondoko arlo hauek jorratuko ditu:

- **Gastu arruntetan zorrotz jokatzea:**

- Lehenengo eta behin, kontuak arazi behar dira, argitu. Auditoretza lokabea abiaraziko dugu, sozialisten gobernuak Eusko Jaurlaritza uzten duen benetako egoera jakite aldera: egun dagoen defizita eta Jaurlaritzak eta beronen sozietate publikoek pilatu duten zorra.
- Aurrekontu arloan egonkortasuna erdiesteko konpromisoa hartzea. Finantza publikoak aurrekontu-egonkortasunaren bidera ekartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta aldi berean, oinarrizko gizarte-zerbitzuak zainduko ditugu eta inbertsio produktiboei eutsiko diegu.
- Gobernuaren azkeneko hilotan sinatu diren eta 100.000 eurotik gorakoak diren kontratuak aztertuko ditugu.
- Ibilgailu ofizial gutxiago baliatuko ditugu.
- Gastu arruntak eta transferentzia arruntak doitu ditugu.
- Sozietate publikoei egiten zaizkien transferentziak eta erakunde-bilbea aztertuko ditugu, bikoiztasunak ekiditeko asmoz.

- **Gizarte arloko gastua bermatu eta babestea:**

- Gauzarik presazkoena bermatuko dugu: alargunek eta pentsiodunek euren pentsioak jasotzeari dagokion segurtasuna.
- Abalen eta bermeen aparteko egitaraua abiaraziko dugu, etxebizitzaren utzarazpenak ekiditeko.
- Gizarte-laguntzako soldata jasotzen duten pertsonentzako laguntzak finkatuko ditugu.
- Osasun eta Hezkuntza arloko zerbitzu publikoak babestuko ditugu.

- **Enplegurako hazkundera:**

- Enplegua zuzenean sortzea xede duten egitarauak, eta bereziki, gure gazteek lan arloan lehenengo aukera edukitzeko egitarauak garatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Gure enpresa-egitura aldezteko ekimenak bultzatuko ditugu, enpresen finkapena, hazkundera eta enplegu berriak sortzeko aukerak erraztu asmoz. Enpresa txiki eta ertainei (ETEEi) eta autonomoei laguntzeko ekimen bereziak jorratuko ditugu.
- Berrikuntza arloko inbertsioa ugalduko dugu, harik eta BPGren % 3ko helburura iritsi arte, Europa 2020 Estrategian ezarriarik dagoenaren arabera.
- Gure enpresak nazioartekotzearen aldeko apustua egingo dugu, munduan geroz eta gehiago agertzeko eta gure marka, hots, "Euskadi marka", agerrarazteko estrategia bultzatuz.

Hori guztia zuzentasun osoz eta gardentasun osoz jorratuko dugu.



## ERAIKI NAHI DUGUN EUSKADI

---

**EAJ-PNVk beregan konfiantza jartzeko eskatzen dio euskal gizarteari, gobernu-ekintzen bidez denok nahi dugun eta sinesten dugun Euskadi eraikitzen aurrera egiteko, hori berori baita euskal gizartearen gehiengoak eraiki nahi duen eta sinesten duen Euskadi:**

- Indarkeriarik gabeko Euskadi.
- Enpleguaren aldeko Euskadi.
- Ekonomia produktiboaren aldeko Euskadi.
- Munduari zabalik dagoen Euskadi.
- Etorkizun iraunkorra izango duen Euskadi.
- Euskadi solidarioa.
- Osasun eta hezkuntza arloan aitzindaria den Euskadi.
- Kulturaren eta gazteriaren aldeko apustua egiten duen Euskadi.
- Euskararekin eta hizkuntza-bizikidetzarekin konprometiturik dagoen Euskadi.
- Bere etorkizunaren jabea den Euskadi.



I. ATALA.	<b>INDARKERIARIK GABEKO EUSKADI</b> 1. BAKEA, GIZA ESKUBIDEAK ETA ADISKIDETZEA 2. HERRITARREN SEGURTASUNAREN EREDU BERRIA 3. HERRITARREN ZERBITZURAKO JUSTIZIA	<b>15</b>
II. ATALA.	<b>ENPLEGUAREN ALDEKO EUSKADI</b> 4. ENPLEGUA, GURE LEHENTASUNA 5. AUTONOMOAK, SALTEGI TXIKIAK ETA EKONOMIA SOZIALA 6. GARAPENERAKO ETA ENPLEGURAKO AZPIEGITURAK	<b>41</b>
III. ATALA.	<b>EKONOMIA PRODUKTIBOAREN ALDEKO EUSKADI</b> 7. INDUSTRIA POLITIKA BERRESKURATZEA 8. EKINTZAILEEI ETA ENPRESA BERRIEI LAGUNTZEA 9. BERRIKUNTZA, GURE ETORKIZUNAREN GILTZA	<b>65</b>
IV. ATALA.	<b>MUNDUARI ZABALIK DAGOEN EUSKADI</b> 10. ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA, HERRIALDE APUSTUA 11. EUSKADI, DESTINO TURISTIKOA 12. EUSKADI MUNDURA HEDATZEA ETA LANKIDETZA ESKAINTZEA	<b>91</b>
V. ATALA.	<b>ETORKIZUN IRAUNKORRA IZANGO DUEN EUSKADI</b> 13. LEHEN SEKTOREA, GARAPEN IRAUNKORRAREN OINARRIA 14. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA 15. INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA	<b>115</b>
VI. ATALA.	<b>EUSKADI SOLIDARIOA</b> 16. ADINEKO PERTSONEKIN 17. PERTSONA BEHARTSUENEKIN 18. ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN PERTSONEKIN 19. ETORKINEKIN 20. BERDINTASUN POLITIKEKIN 21. FAMILIEKIN	<b>139</b>
VII. ATALA.	<b>OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOAN AITZINDARIA DEN EUSKADI</b> 22. PRESTIGIO ETA KALITATEZKO OSASUN SISTEMA BERRESKURATZEA 23. BIKAINASUNA, HEZKUNTZA SISTEMAREN MOTORRA	<b>175</b>
VIII. ATALA.	<b>KULTURAREN ETA GAZTERIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUEN EUSKADI</b> 24. EUSKAL KULTURA IREKIA ETA PLURALA 25. GAZTERIAREN ALDEKO GURE APUSTUA 26. KIROLA, JARDUERA FISIKOA ETA GARAPEN PERTSONALA	<b>197</b>
IX. ATALA.	<b>EUSKARAREKIN KONPROMETITURIK DAGOEN EUSKADI</b> 27. BIZIKIDETZARAKO ETA KOHESIO SOZIALERAKO HIZKUNTZA-POLITIKA	<b>221</b>
X. ATALA.	<b>BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN EUSKADI</b> 28. ADMINISTRAZIO ERAGINKORRA 29. EUSKADI PARTE-HARTZAILEA 30. HERRITARREN ZERBITZURA EGONGO DEN LURRALDE ARTIKULAZIOA 31. EUSKADI, EUROPAKO NAZIOA	<b>231</b>





EUSKADI BERPIZTU

## INDARKERIARIK GABEKO EUSKADI

---

1. BAKEA, GIZA ESKUBIDEAK ETA ADISKIDETZEA
2. HERRITARREN SEGURTASUNAREN EREDU BERRIA
3. HERRITARREN ZERBITZURAKO JUSTIZIA







## INDARKERIARIK GABEKO EUSKADI

BAKEA, GIZA ESKUBIDEAK  
ETA ADISKIDETZEA

HERRITARREN  
SEGURTASUNAREN EREDU  
BERRIA

HERRITARREN  
ZERBITZURAKO JUSTIZIA

## GUZTIOK PARTEKATU BEHAR DITUGUN PRINTZPIOAK

### 1. Indarkeria baztertzea eta Giza Eskubideak defendatzea.

- ETak jarduera armatua behin betiko etengo zuela iragarri ondoren, euskal erakundeek, euren aniztasun osoa berreskuratu ondorik, bizikidetzatza gauzatuko den etorkizun berria finkatzeko arduratzen eta erantzukizuna dute; horretarako, bakea finkatzeari, humanizatzeari eta gizartearen adiskidetzeari buruzko politikak jorratu behar dira gatazka suntsitzaile batek markatutako hamarkada askoren ondoren.
- Indarkeria egoteak sortu duen tentsio politikoa dela-eta, zaila izan da, askotan, errespetuari buruzko koherentzia etikoari eustea giza duintasunean eta giza duintasun honetatik ondorioztatzen diren giza eskubide guztietan hutsunerik izan gabe.
- Euskal gizartearen protagonista nagusi duen prozesuak, indarkeriaren esanahiari buruzko kontzientzia maila altuagoa eta hura baztertzeko jarrera argia ezaugarritzat dituenak, aukera eman digu biktimen guztien -edozein atxikitze politiko izaki ere- sufrimendu bidegabearekin bat egiteko beharraren kontzientzia eskuratzeko.
- Giza eskubide guztien defentsak, bizitzarako eskubideak eta pertsonen segurtasunak, eskubide zibil eta politikoek, oinarritzeko printzipio etikoa eratzen dute bake eta adiskidetzeko agertokia eraikitzeko.
- Bake eta adiskidetzeko kultura eraikitze aldera, hemendik aurrera, iraganari buruzko kontaketa ugariak gaineratu beharko dira eta etorkizunari ikuspegi demokratiko batetik aurre egin beharko zaio, adostasun sozial eta politikorik handienarekin.

### 2. Printzipio etikoa, bakearen eta bizikidetzaren motorra

- Gure Herrian bakearen eta bizikidetzatza humanizatu eta adiskidetzaren bilaketa osoa jasotzen duen **ardatz-printzipioa dago** eta iragana ikusteko, orainaldia bideratzeko eta etorkizuna eraikitzeko modua iradoki behar digu: **giza duintasuna onartzea eta duintasun horren aldeko gure aho-batezko konpromisoa.**

- Honako **printzipio etikoa** onartu behar dugu denok: giza duintasunaren balioa **ideia edo proiektu politiko ororen, Estatuaren arrazoiaren**, haren defentsaren edo bidegabekeria baten salaketaren aurretik eta horiek guztiak baino gorago dagoela.

### 3. Balio demokratikoak, bakea eta bizikidetza sustatzen dutenak

- Bakearen eta bizikidetzaren eraikuntzaren dimentsioak zeharkatzen dituen **beste printzipio eragile bat errespetu demokratikoari dagokiona da**. Ban Ki-Moonek, NBEko Idazkari Nagusiak, Bakearen Nazioarteko Eguna zela-eta, ondoko hau esan zuen: "demokrazia ezinbestekoa da giza eskubideetarako eta ezberdintasunak konpontzeko bideak eskaintzen ditu", baina "demokrazia ez da bere baitan, beste barik, mantentzen; sustatu eta babestu egin behar da".
- Bakea eta bizikidetza bultzatzen duten eta herritarrengan konfiantza sortzen duten balioekin sustatu eta babestu behar dela uste dugu, hau da, iraganaren eta etorkizunaren inguruan erantzukizunak gureganatuz eta konpromisoak adostuz **egun elkarrekin erabaki partekatua bilatu ahal izateko, bakea eta bizikidetza eraikitze aldera**.



- Printzipio horren babesean, gainontzeko alderdi politikoekin eta euskal gizartearekin honako **konpromisoak eta ekimenak** partekatzea proposatzen dugu.

## 1. KONPROMISOA. BIDEZKO BAKE OROIMENDUNA ERAIKITZEA.

- Bakea eta bizikidetzaren herri baten adiskidetzaren jadedesteko ezinbesteko baldintzak dira eta oinarri partekatuak behar dituzte erdizkako egia, egia amnesikoak edo itoarazitako egia saihesteko. Benetako oroimen partekatu batek giza eskubide guztien urraketa orori dagozkion egia islatu beharko ditu.
- Baldin eta indarkeriazko iragan horri buruzko erantzukizunak behar bezalako oinarri gabe ixten badira, arrazoirik gabe baztertzen eta lurperatzen dugun errealitateak inoizkotan aurpegi oldarkor, suntsitzaile eta erruduneslea erakusteko arriskua daukagu.
- Era berean, gizarteari eta biktimei giza eskubideak urratzeagatik sortutako sufrimendu bidegabetik askatzea galarazten dien eta bakea eta kontzientzia berriaren eraikuntza geldiarazten duen dinamika saihestu behar da.
- Iragana oroitzea oinarriko helburua lortzeko bitartekoa izan behar da: bakea jadedestea eta gure Herri honetan bizikidetzaren birstortzea. Hutsuneak dituen oroimenak edota xede bakartzat mendeku hartzea duen oroimenak ere ez dute laguntzen bidezko bakea eta bizikidetzaren osasuntsua ehuntzen.
- Hori esanda, oroimen sendagarria eta barnea osatzen duen ahanztura bateratuz, iragan mingarriaren ateak ixteko eta herri osoarentzat etorkizun itxaropentsurako ateak irekitzeko unea iristea bilatu beharko dugu.
- Konpromiso hori egikaritu nahiz, indarkeria deslegitimatze eta biktimekiko elkartasuna barneratzeko, honako **ekimenak** proposatzen ditugu:

### 1. EKIMENA: Indarkeriaren erabilera zuzenean edo zeharka legitimatzen dituzten arrazoibideak eragozteak.

- "Udalerriak bizikidetzaren alde" izeneko kanpaina diseinatzea, bizikidetzarako udal ekintza planifikatzeko gida metodologiko batean oinarriturik, indarkeriazko arrazoibide eta jarrerak berrikusiko dituen eta eguneroko gatatzak bide baketsu eta konstruktibo bidez konpontzea sustatuko duena.
- Kazetaritza eta komunikabideen arloko ikasleak zein sektore horretako langile profesionalak indarkeriak deslegitimatzen dituen eta elkarrizketa sustatzen duen ahozko eta ikusizko mintzairaren erabilera alorrean trebatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Europako Batzordeak sustatzen duen Bakea Eraikitzearen Europako Sarean sartzea.

### 2. EKIMENA: Euskadin pairatu izan diren indarkerien ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimekiko aitortpen eta erreparazioarako konpromiso etikoa bideratzen aitzindari izatea.

- Terrorismoaren Biktimei Aitortpena eta Erreparazioa emateko Legearen arauzko garapena osatzea.
- Gehiegikeria polizialen biktimei aitortpena eta erreparazioa egiteko beharrezkoak diren legeko tresnak sustatzea, nazioarteko legezkotasunaren printzipioen babesean, giza eskubideen urraketa berdinei tratua eskainiz.

## 2. KONPROMISOA. **BAZTERKERIARIK GABEKO ELKARRIZKETARAKO FOROA BULTZATZEA BAKEA ETA ADISKIDETZEA FINKATZEKO.**

- EAJ-PNVk euskal alderdi politiko guztien artean, bazterkeriarik gabe, elkarrizketarako foro bat sustatuko du Bake egoera finkatzeko eta Euskadin adiskidetzarako bidea abiarazteko, funtsezko bi oinarriren gainean:
  - Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat aintzatestea.
  - Elkarizketa barneratzailea bideratzea, bizikidetzari eta adiskidetzeari doakien kultura sustatzeko.

### 3. EKIMENA: **Giza duintasunaren lehentasuna defendatzeko konpromisoarekin bat egitea.**

- Horrek esan nahi du gizakia ezin dela kolektibo-egitatean disolbatu –dela talde-egitatean, dela nazio-egitatean–, ez eta haren gizarte-dimentsioa kendu ere; izan ere, pertsona bakoitza norbanako izateak ez du esan nahi izaki isolatua denik, eta beraz, ezin da ahaztu gizakiak, pertsona gisa errealizatzeko, zeharo zaindu beharreko talde-errealitate jakin bat behar duela, gizakiaren eta gizartearen beraren eskubideak sustatu gura badugu eta bake integrala erdietsi nahi badugu.

### 4. EKIMENA: **Giza eskubide guztiekiko konpromisoarekin bat egitea.**

- Giza duintasunetik sortzen diren eskubideak jagotea, errespetuzko eta horien berme eraginkorreko mekanismoak bideratuz.

### 5. EKIMENA: **Edozein indarkeria modurekiko aurkakotasunarekin bat egitea**

- Konponbideak bilatzeko ezar litezkeen elkarrizketa eta negoziazio prozesuak edo egoera politikoa nahasteko edozein indarkeria motarekiko edo hori erabiltzeko mehatxuarekiko aurkakotasunarekin bat egitea.

### 6. EKIMENA: **Bakearen lorpena gatazka politikoen konponketatik bereizteko irizpidearekin bat egitea.**

- Ondorioz, indarkeria ez da erabiliko arazo politikoekiko konponbideen bilaketa justifikatzeko, ez eta saihesteko ere.

### 7. EKIMENA: **Giza eskubide guztien urraketen erantzukizunak aitortzearen aldeko konpromisoarekin bat egitea**

- Izan ere, aitopen horrek bakearen eta adiskidetzaren alde adosten diren politikak abiaraztea eragingo duten bideak irekitzeko aukera eskainiko du.

### 8. EKIMENA: **Egia iraganaren oroimen etiko eta kritikoaren oinarriaren gainean eraikitze-ko konpromisoarekin bat egitea**

- Giza eskubideen urraketa ororen biktima guztiekiko babesa aldarrikatu behar dugu, edozein jatorri izanik ere, bizikidetzaren humanizatu eta adiskidetu baten lehentasunezko helburu baitira.

### 9. EKIMENA: **Euskal Herria osatzen duen gizarte honen bizikidetzaren alde egiteko borondatearekin bat egitea.**

- Alde batetik, herri osoa da –eta haren izenean ordezkari politikoak– bakearen eta adiskidetzaren subjektua eta, bestetik, gizarte bera, Herri gisa, giza eskubideen aurkako indarkeriaren eta horrek sortu izan duen kulturaren biktima ere izan da.



---

#### 10. EKIMENA: Eskubide, askatasun eta berme demokratikoak murriztu dituzten legegintza-gehiegikeriak eta gehiegikeria judzialak zuzentzeko asmoarekin bat egitea

---

- Hain zuzen ere, pertsona, talde, alderdi politiko, komunikabide eta politika eta erakunde buruen eskubide, askatasun eta berme demokratikoak urratu izan dira, eta horiek guztiek Euskadi asaldatu dute eta gizarteak politikarekiko duen konfiantza urrarazi.

### 3. KONPROMISOA.

## ELKARRIZKETA ETA PARTAIDETZAREN ALDEKO KONPROMISOA BULTZATZEA.

---

#### 11. EKIMENA: Elkarrizketaren aldeko konpromisoarekin bat egitea

---

- Norberaren pentsamoldea libreki adierazteko, ideiak defendatzeko eskubidea errespetatzeko, gatazkak gainditzeko eta proposamenak demokrazia eta aniztasuneko tesuinguruan erabakitzeko ezinbesteko bitarteko gisa.

---

#### 12. EKIMENA: Elkarrizketaren inguruko elkargunea sustatzea.

---

- Jarrera eta ariketa zorrotza da. Gurea bezalako errealitate anizkoitzean, elkarrizketa barneratzailea eta guztion artean konponbideak bilatzeko bitarteko izan behar da. Guztion errespetuzko parte-hartzea beharrezkoa da. Bazterkeria bidegabeen eta justifikaziorik gabeko autobazterketen dinamikak baztertu egin behar ditugu. Bakearen interes orokorra alderdien interesen eta onura partikularren aurretik jarri behar da.

---

#### 13. EKIMENA: Elkarrizketaren indarra sustatzea.

---

- Erakunde, talde politiko eta gizarte erakundeen energia oso handia da zintzotasunez, modu irekian, eskuzabaltasunez eta elkarren arteko konfiantza landuz hitz egiteko gai direnean; berriz, energia hori murriztuta geratzen da itxikeriak eta fanatismoak elkarrizketan lehenesten badira eta bakoitzak bere ahotsa bakarrik entzunarazi nahi badu, mintzakidearena entzun gabe.

---

#### 14. EKIMENA: Elkarrizketa arduratsua bultzatzea.

---

- Elkarrizketak fruituak emango ditu, baldin eta bakea eraikitzeke benetako nahia badugu. Osterantzean, jolas engainagarri eta frustragarria izango da, ondorio maltzur eta arriskutsua izango duena: ezberdintasunak eta adostasunak modu zibilizatzaile eta giza-tiarrean kudeatuz demokrazian eta bakean elkarrekin bizitzen ikasteko oinarritzeko bitarteko horri sinesgarritasuna kentzea.

---

#### 15. EKIMENA: Errespetuzko elkarrizketa sustatzea.

---

- Indarkeriazko gatazka suntsitzaileez beteriko urteek menderatze, aurreiritzi eta gorrotozko jokabide eta jarrerak sorrarazi dituzte. Elkarrizketak indarkeriazko kultura hori neutralizatzeke balio behar du, eta beste ariketa batzuen artean, diskurtso politikoan oraindik ere agerian dagoen hitza desarmatzen eta mintzaira liskartia desaktibatzen ikasi behar dugu, gertutasun, ulergarritasun eta konfiantzazko giroa sortze aldera.

---

#### 16. EKIMENA: Elkarrizketa demokratikoa onartzea.

---

- Denen artean eztabaidatzen den erabakia hartzea izaten da beti gauzarik egokiena, baina beti ere ez da posible izaten. Gatazketan jarrera heldua izateko gehiengo eta gutxiengoaren jolas demokratikoarekiko konpromisoa behar da, betiere egiaren eta justiziaren balioak zainduz.

#### 4. KONPROMISOA. **BAKERAKO, GIZA ESKUBIDEETARAKO ETA BIZIKIDETZA DEMOKRATIKORAKO HEZKUNTZA SUSTATZEA.**

##### 17. EKIMENA: **Bakerako, Giza Eskubideetarako eta Bizikidetza Demokratikorako III. Euskal Plana onartzea.**

- Euskadin bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren egoeraren diagnostika eguneratzea eta "Bizikidetza demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa (2010-2011)" deritzon planean biltzen diren ekintzen burutzapena modu kuantitatiboan eta kualitatiboan ebaluatzea.
- Bakerako eta giza eskubideetarako III. Euskal Plana partaidetza eta hitzarmen bidez burutzea, dagoeneko dauden koordinazio eremuen (Aholkularitza Kontseilua, Sailarteko Batzordea, Elkarleen Foroa, etab.) finkapena bereziki azpimarratuz.
- Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren berrikuspenaz bultzatutako esperientzia pilotuak hezkuntza sare guztian hedaraztea.

##### 18. EKIMENA: **Herritarren artean gatazkak bide baketsuen bitartez konpontzeko kultura orokortzea.**

- Balioen hezkuntzaren, bitartekaritzaren eta gatazken konponketa baketsuaren alorretan arduradunak prestatzea, udalen arloan elkarren kontra dauden interes-taldeen artean gerta daitezkeen gatazka-egoerei erantzute aldera.
- Alor honetako maila ezberdinen politika publikoak definitu eta baloratzeari dagokionez, herritarrek zuzenean parte hartzeko bideak ezartzea.

#### 5. KONPROMISOA. **ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN DEFENTSA ETA ADISKIDETASUNERAKO OROIMENA.**

##### 19. EKIMENA: **Eskubide zibil eta politikoaren defentsa. Eskubide zibilak eta politikoak murrizten dituzten legezko arau eta neurri judizial guztien erreforma proposatzea.**

- Sakabanatzearen amaiera ekarriko duen zigor-politika berriaren garapena bultzatzea.
- Atxilotutako pertsonen arretarako protokoloa aplikatzean giza eskubideen nazioarteko erakundearen partaidetza sartzea.

##### 20. EKIMENA: **Adiskidetasunerako oroimena**

- Oroimen, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Erakundearen sorrera gauzatzea, gerra zibilaren, diktadura frankistaren, terrorismoaren eta motibazio politikoa duen indarkeriaren testuinguru batean pairatutako giza eskubideen bestelako urraketek biktimizei buruzko politika publikoaren koordinazio eraginkorrerako nahikoak diren ekonomia eta giza baliabidez hornituz.
- Erakunde horren bidez, oroimena jagoteko politikak eta giza eskubideak sustatu eta defendatzeko politikak koordinatzea.



## INDARKERIARIK GABEKO EUSKADI

BAKEA, GIZA ESKUBIDEAK  
ETA ADISKIDETZEA

HERRITARREN  
SEGURTASUNAREN EREDU  
BERRIA

HERRITARREN  
ZERBITZURAKO JUSTIZIA

## GURE PRINTZIOAK

- Segurtasun politikak zaindu eta bultzatzeko ardura duten botere publikoen segurtasun politiken oinarritzko eginkizunak dira, besteak beste, pertsonak eta ondasunak babestea, eskubideak eta askatasunak libreki baliatu ahal izatea bermatzea, herritarren segurtasunari eustea, eta delitua prebenitzea eta pertsegitzea.
- Segurtasun politikak jarduera publikoen xede garrantzitsuenetako baten gisara eratzen dira, ez soilik gizarte lasaitasuna eta ordena bermatzeko, baita komunitate mailako zerbitzuak emateko eta larrialdi egoeretan herritarrei laguntza eskaintzea bermatzeko ere; horrenbestez, sektore anitzeko izaera hartzen du. Horregatik, segurtasunari dagokion prestazio publikoa oso auzi sentikorra da herritarrentzat, eta gainera, hedabideek modu bizian jorratzen duten gaia da. Herritarra produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile, bezero, erabiltzaile bihurtu da, baita polizia edo segurtasun zerbitzua bera ere.
- Hortaz, segurtasuneko zerbitzu publikoak gero eta eginkizun konplexuagoak eta erantzukizun handiagokoak ebatzi behar ditu, eta horrek, bidenabar, egokitzeko etengabeko esfortzua eskatzen du, are gehiago euskal gizarteak dituen ezaugarrien testuinguruan, etengabe aldatzen eta eboluzionatzen baitago, ez soilik ETA erakundeak ekintza armatuak egiteari utzi diolako, baita krisi ekonomikoak gizartearen sare osoan duen eraginagatik ere, eta globalizazioa modu geldiezinean hedatzen ari delako; horren ondorioz, segurtasunaren esparruan adierazpen zehatzak agertzen dira, bai delituei dagokienez, bai delitugintza desagerrarazteko segurtasunerako estatuko espazioen artean sortzen diren lankidetzaren sareetan.
- Deskribatutako agertokian, EAJ-PNVk uste du segurtasunaren euskal ereduak zilegitasuna izateko, euskal gizartearen konfiantza eta sinisgarritasuna behar dituela, egunero gainditu beharreko azterketa baita, gizartearen eta gizartearen segurtasuna zaindu behar duen erakundearen artean bereizketarik egon ez dadin. Legezko agente gisa, konfiantza egunez egun irabazi behar dugu, txertatuko den gizartearen etengabeko laguntza zerbitzua eskainiz.
- Ertzaintza euskal gizartearen segurtasun zerbitzu publiko gisa integratzeko postulatuarekin bat etortzeko, gaur egungo euskal gizartearen errealitatera egokituko den eredu batean aurrera egin behar dugu. Gure gizarteak bere hizkuntza propioa du, baita kidetasun sentimendu nabarmena ere; hezkuntza maila altua eta gizarte kohesio handia du; parte hartzailea da, demokratikoa eta plurala, berdintasun sen-

timendu tinkoa du, eta sektore publikoa zerbitzu gisa ulertzen du, botere gisa ulertzearen ginetik. Horrelako gizarte bati zerbitzua emango dion polizia anitza eta malgua izan behar du, poliziaren ohiko eginkizunez gain segurtasun arloko beste adierazpen batzuetan ere inplikatu den polizia, zentzu zabalean, besteak beste, babes zibilean, bide segurtasunean, gizarte laguntzan eta segurtasunarekin lotura estua duen beste edozein arlotan, bereziki etorkizunean delituak egitea eragotziko duten arloetan.

- EAJ-PNVren aburuz, euskal gizartearen integratuko den polizia eredu erabat legezkoa garatzeko, prebentzio arloko polizia gisa eratu behar da, polizia erreaktibo gisa eratzea bigarren mailan utziz. Gizarte plural baten zerbitzura egongo den polizia demokratikoa. Euskadiko hizkuntza ofizialak erabiltzeko gai izango den polizia. Indarra erabiltzean, premia, egokitze eta proportzionaltasun printzipioen arabera jokatu duen polizia. Beste erakunde batzuekin kolaboratuko duen polizia. Polizia teknifikatua eta eraginkorra. Herritarren eskubideak zainduko dituen polizia, Giza Eskubideekin bat etorri jokatuko duena. Aurrez ikus eta kontrola daitekeen polizia, egindakoaren erantzule izango dena. Polizia anitza eta malgua. Bikaintasunerantz bideratuko den polizia, prozesuak kudeatuz eta etengabe hobetuz. Segurtasun politikak prestatzean herritarrek eta aginte publikoek elkarlanean parte hartzea bultzatuko duen segurtasun eredu.
- EAJ-PNVrentzat, polizia eredu hori berreskuratzea esan nahi du herritarrek izan behar dutela segurtasun zerbitzu publikoaren zio eta erdigune. Horregatik, botere publikoen estrategiak herritarren bizi kalitatea sustatu eta hobetza bideratu behar dira, eta hala, herritarren konfiantza lortuko dute. Helburu horri jarraiki, honako eskakizun hauek bete dira:
  - Komunitateari begira eratu duen polizia eredian sakontzea, prebentzio izaeraduna, informazioa kudeatzean oinarrituko dena, eta inguruko elkarteekin aliantzak eta kidetasunak bultzatuko dituen.
  - Bikaintasunerantz bideratutako kudeaketa, prozesuak kudeatuz eta etengabe hobetuz, estrategia berritzaileak garatuz eta aldaketa eta teknologia berrietara uneoro egokituz.
  - Pertsonen garapena bultzatuko duen giza prestakuntza eta prestakuntza teknikoa, eta lidergo parte hartzailea, erakundearen balioekin, eginkizunarekin eta ikusmoldearekin identifikatu eta parte hartzea sustatuko duena.
- Printzipio horiekin bat etorri, EAJ-PNVk bere konpromisoa berretsi eta alderdi hauetan oinarrituko den segurtasun eredu berria abiarazteko asmoa agertu du:
  - Polizia integralaren eredu bat garatzea
  - Ertzaintzaren eta euskal gizartearekin arteko loturan sakontzea.
  - Zilegitasun demokratikoa eta herritarren zilegitasuna indartzea.
  - Kudeaketa eredu berria ezartzea, berritzailea eta parte hartzailea.

- Printzipio horiek betetzeko, EAJ-PNVk **konpromiso eta ekimen** hauek planteatu ditu:

## 1. KONPROMISOA. POLIZIA INTEGRALAREN EREDUA GARATZEA.

### 1. EKIMENA: Estatuko segurtasun indarrak egokitzeko eta atzera egiteko eskatzea

- Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak Euskadin egokitzeari berehala ekin behar zaio, dagozkien eginkizunen irismenarekin bat etor daitezzen bai erakundeari, bai agentei dagokienez, betiere zentzuzko ratio konparagarrien arabera.
- Gai honek Euskadiko autogobernuaren eskumenen alorrari ere erasaten dio.
- Segurtasun Batzordeak egokitzeko irizpideak ezarri beharko ditu, eta garapenaren berri izan beharko du.
- Hala ere, Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak eta Ertzaintza bera koordinatu eta elkarlanean aritu beharko dira Segurtasun Batzordearen bitartez; batzordeari, honenbestez, dagokion bultzada politikoa emango zaio.

### 2. EKIMENA: Ertzaintza Europako Segurtasun Espazioan erabat integratzeko eskatzea.

- Euskal erakundeak (Eusko Jaurlaritza eta Ertzaintza) Europako segurtasun espazio berrian erabat eta mugarik gabe izatea eskatzen du EAJ-PNVk, Alemaniako l nderrek egiten duten gisan.
- Espazio horretan gaur egun bizi dugun bazterketa mehatxu argia da Ertzaintza polizia integral gisa ulertzeko. Ertzaintza ezin da kualitatiboki oso garrantzitsuak diren polizia informazio fluxuetatik kanpo geratu, eta ezin da, ezta ere, kolaborazio eta lankidetzaren mekanismo transnationaletatik at geratu, ofizialak eta ofiziosoak. Izan ere, ezinbestekoak dira zenbait delitu antolatu tratatzeko, prebentzioz zein modu erreaktiboan, Europako polizia estandarra eratzeko eta, funtsean, segurtasun publikoa bermatzea eraginkorra izateko.
- Gauza bera esan behar da Frantziarekin mugen gainetik lankidetzan aritzeko gaur egungo mekanismoetan Ertzaintza erabat txertatzeari dagokionez; bidenabar, Eusko Jaurlaritzak parte hartu behar du segurtasunerako estatuarteko batzordeetan, segurtasun arloan eskumenak dituen Europako komisariaren planetan eta proiektuetan, eta Europako Parlamentuaren eztabaidetan.
- Horrez gain, eskumenen ondorioetarako, Europako esparrua ez da nazioartekoa, baizik eta barne esparrua (berretsitako jurisprudentzia konstituzionalaren arabera, bereziki Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 26ko 165/1994 Epaiari jarraiki); horregatik, gai bati dagokionez barne esparruan eskumena izanez gero, Europako politiken esparruan ere eskumena izango dugu, bai nahia sortzeko fasean (goranzkoa), bai betearazpen fasean, Europako politiken estatu barruko esparruan (beheranzkoa).

### 3. EKIMENA: Nazioarteko foroetan Ertzaintzaren presentzia garatzea

- Polizia integrala izanik, Ertzaintzak nazioarteko foro guztietan egon behar du, bere ezagutza helarazteko zein bereganatzeko; herritar-bezeroek gure erakundearen gainean duten pertzepzioa bereziki aztertuko da, eta beste erakunde batzuen gainean duten ikuspegiarekin erkatuko da. Hartara, hobetu beharreko elementuak identifikatuko ditugu, eta informazio sareak, harremanak eta aliantzak eratuko ditugu.

- Horregatik, Herrizaingo Saila eta Ertzaintza Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko garapen guztietan integratzeko programa artikulatuko dugu.
- Horretarako, Ertzaintza nazioarteko harremanetarako egitura batez hornituko da, nazioarteko hedapena izango duten jarduketei lotutako gai guztietan erreferente izango dena.

## 2. KONPROMISOA.

### ERTZAINZA EUSKAL GIZARTEAN INTEGRATZEA SENDOTZEA, HORRI EMATEN BAITIO ZERBITZUA.

- Konpromisoa betetze aldera, EAJ-PNVk ekimen hauek planteatu ditu:

#### 4. EKIMENA: Duintasuna eta irudi korporatiboa berreskuratzea

- Duintasun korporatiboa alderdi nagusietako bat da Ertzaintza dagokion komunitatean etengabe integratuta egon dadin.
- Horregatik, Ertzaintzaren nortasunaren zeinuak dira, besteak beste, erakunde eta langileen aurkezpena, berehala erantzutea, tratu bikaina eskaintzea eta hizkuntza ofizialak errespetatzea. Xede horri jarraiki, uniforme dotazioa bera eta horren erabilera berrikusiko dira, erakundea euskalduntzen jarraituko dugu, itxaronaldiak eta erantzuteko denborak neurtuko dira, eta botere publiko eta herritarrei emandako tratuari buruzko jarraibideak ezarriko dira.

#### 5. EKIMENA: Ertzain-etxeak berrantolatuko ditugu herritarrentzako segurtasunerako laguntza- eta zerbitzu-bulego gisa.

- Ertzain-etxeen eginkizuna indartu egingo da. Segurtasuna eta babesa emateko eginkizuna dute, betiere dagokien lurraldearen mugapearen barruan. Horregatik, ertzain-etxe guztiak berraztertuko ditugu, instalazioak "gertukoak" izateko, eta ez daitezten gailendu soilik beldurra edo arbuioa eragiten duten segurtasun neurriak. Herritarrentzat, eskatzen dituen zerbitzuak eskainiko dizkion "bulegoa" izan behar du ertzain-etxeak.

#### 6. EKIMENA: Prebentzio aparatua indartzea

- Prebentziorako lehen mailako polizia aparatua indartu egingo ditugu, tartean uniformez jantzitako patruilak, bereziki oinezkoak, herritarrei arreta eskaintzeko, babesteko, eta segurtasun sententzio sendoa sentiarazteko.
- Landa eremuko patruilak hobetzeko programa abiaraziko dugu, eta inguru horietako eta herri txikitako berezitasun guztiei erantzuteko jarraibide zehatzak sortuko dira.

#### 7. EKIMENA: Herritarrengandik gertuago eta lankidetzeta estuagoa

- Ertzain-etxe guztietan aliantza sare zabalak ezarriko ditugu, informazio gardentasunean, konfiantzan eta elkarrengandiko errespetuan oinarrituz. Sare horietan lan bateratua jasoko da, onura partekatutako lortzeko. Horretarako, ertzain-etxe guztietan aliantza eta harremanetarako programak ezarriko ditugu, herritarrekin eta elkarteekin, erakunde publikoekin eta pribatuekin, hedabide sozialekin eta egitura ekonomikoarekin harremanak izateko, prebentzio kanpainak egin, eta parte hartzeko eta kolaboratzeko mekanismoak ezartze aldera. Hala, xedea herritarren bizikidetzaren aurkako ekintzak eragozteko izango da, informazioa biltzea erraztea, baita herritarrekin eta erakundeetako agenteekin eta agente sozialekin konplizitate eta aliantzak sortzea ere. Halaber, horri esker hobeto ezagutuko dira giza eta erakundearen ingurunea eta ingurune fisikoak, eta dagokien esparruan delituen kausen berri ere izango da.



**8. EKIMENA: Ertzain-etxeen jarduna segurtasun publikorantz bideratzea**

- Ertzain-etxe guztietan bereziki aintzat hartuko da ordena eta segurtasun publikorako interesekoa izan daitekeen informazio oro identifikatu, jaso eta aztertzea. Horrez gain, ordena publikoa eta herritarren segurtasuna mantentzeko eta prebentziorako metodo eta teknikak aztertu, planifikatu eta betearaziko ditugu, delitugintza prebenitzeko eta delituak erreprimitzeko.

**9. EKIMENA: Informazio gardentasuna**

- Ertzain-etxeek informazio gardentasunerako politika beteko dute, segurtasuneko zerbitzu publiko diren aldetik, eta xedeak eta baliabideak zehaztuko dituzte.
- Horregatik, aliantza bidez lankide gisa dituzten agente pribatu eta publikoei dagokien lurraldeko delitugintza indizea eta segurtasunerako bloke estrategikoetan ezarritako xedeak jakinaraziko dizkiete urtero, esaterako prebentzio lanetarako esleitutako agente kopurua, erantzuteko denbora, bereziki jarraitu beharreko delituak, bide segurtasuna, etab. Halaber, datu horien urtez urteko bilakaeraren berri ere emango diete.

**10. EKIMENA: Arreta berezia ematea gizartean garrantzia bereganatzen duten delituei**

- Gizartean garrantzia bereganatu duten delituetako biktimei arreta eta informazioa etengabe emateko programa sortuko da Ertzaintzan, segurtasuna hautematen eragina duelako edota objektiboki garrantzitsua delako.

**11. EKIMENA: Komunitate bizitzan integratzea**

- Ertzaintza mota guztietako foro eta elkarteetan egotea eta parte hartzea bultzatuko dugu; bidenabar, ertzainen giza kapitala eta kapital profesionala baliatzeko politikak finkatuko ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresa eta erakundeen segurtasun alorretan integratuz.

**3. KONPROMISOA.****ZILEGITASUN DEMOKRATIKOA ETA HERRITARREK EMANDAKO ZILEGITASUNA INDARTZEA.**

- Gizartearekin hartu dugun konpromiso hori betetzeko, EAJ-PNVk ekimen eta ekintza hauek proposatu ditu:

**12. EKIMENA: Barne kontrolerako zerbitzuak berrikustea eta doitzea**

- Gure inguru kultureko edozein polizia zerbitzu publikoren eginkizun nagusia diziplina araubide serio eta bermatzailea izatea da. Horretarako, Euskal Herriko Polizi Kidegoko gaur egungo diziplina araubidea berrikusi eta oraingo garaietara doituko dugu.
- Ertzaintzan arreta berezia jarriko diogu bertako kideen jokabideen barne kontrola zain-tzen duen zerbitzuari, izaera estrategikoa baitu.
- Egindako faltetarako zehapen proportzionalak proposatzeaz gain, ikuskatzeko barne zerbitzu horren eginbeharren artean dago eraginkorra eta inpartziala izatea, agentearen eskubideak babestea, baita herritarren kezak aztertu eta zuzen erantzungo direla bermatzea ere. Horrez gain, hedabideen bidez jokabide irregularrak salatuz gero, edo horien berri izanez gero, zerbitzuak aztertu egin beharko ditu, eta kontrol ekintzei hedapen zabala eman beharko zaie, gizartearen aurrean erakusteko faltak ez dituela erakundeak egin eta autoreek dagokien zehapena jasotzen dutela.

---

**13. EKIMENA: Kanpo kontrolerako tresnak ezartzea**

---

- Gure inguruko herrialde aurreratuenetan, polizia kontrolari dagokionez beste sentsibilitate bat agertu da, eta horrek polizia eginbeharrari buruzko kanpo kontroleko beste modalitate bat sorrarazi du, orain arte zeuden ohiko kontrolei gehitu zaiena (orain artekoak botere legegilea, botere judiziala, botere betearazlea eta herritarren defentsa ziren). Poliziatik kanpoko batzordeek eratzten dute kanpo kontroleko modalitate berri hori; izan ere, batzorde horiek ez dira integratzen ohiko kanpo kontrola baliatzen duten organo eta botereetan.
- Herrialde aurreratuenen lan ildo horri jarraiki, polizia jarduna kontrolatzeko batzorde bat ezartzea bideragarria den aztertuko dugu, gizartean alarma larria pitzarazi duten jarduerak ikertzeko.
- Batzordea zuzenbidea, kriminalistika, osasungintza eta beste arlo batzuetako profesional independenteek osatuko dute. Hala eskatzen zaionean, Ertzaintzaren barne kontrolerako zerbitzuak beharrezko laguntza emango du batzordeak esku har dezan.

---

**14. EKIMENA: Kode deontologikoa aplikatzea zaintzea**

---

- Ertzaintzako kide eta burutza guztien eginbeharra da segurtasun zerbitzu publikoaren jarduera oro kode deontologikoarekin bat datorrela zaintzea. Nolanahi ere, Ertzaintzako funtzionarioen jokabideak ikertzeko, koordinatzeko eta garatzeko egitura ezarriko da Ertzaintza barruan, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak izango dituen, aintzatetsi daitezkeen jokamoldeak gailentzeko eta etika profesionalaren aurkakoak prebenitzeko.

**4. KONPROMISOA.****POLIZIA ERAGINKORRAGOIA SUSTATZEA.**

- EAJ-PNVk ekimen eta jarduera hauek planteatu ditu konpromiso hau betetzeko:

---

**15. EKIMENA: Lau urteko Segurtasun Plana ezartzea**

---

- Segurtasunaren esparruan xedeak eta lehentasunak ezartzeko segurtasunerako erakunde publikoen konpromisoa jendaurrean agerraraziko da, publikoki; horrez gain, betetze mailaren berri ere emango da.
- Xede eta lehentasun horiek autonomia erkidego osorako orokorrak izango dira; horrez gain, ertzain-etxe eta lurralde historiko bakoitzera egokitu eta horietara bideratuko dira.
- Xede eta lehentasun horiek istiluak prebenitzeko eta neutralizatzeko jarduketari buruzkoak izango dira; horrez gain, gizarte mailan garrantzitsutzat joko diren delituak ebazteko ikerketa jarduerak eta horiei buruzko eginbideak izapidetzea ere jorratuko dute.

---

**16. EKIMENA: Gertutasun eta prebentziorako polizia zerbitzuak indartzea**

---

- Herritarren segurtasuna zaintzeko eta polizia eraginkortasunerako politikak delituak prebenitzean oinarritu behar dira, delituak modu egokian argitzean bainoago. Printzipio hori onartzeak poliziak esku hartzeko unea aldatzea dakar; horren haritik, erantzuteko ekin-tzen ordez, aurretiaz beste ekintza bat abiarazi beharko da, herritarren segurtasuna aztoratzeko edo delitua bera egiteko aukera eragoziko duena.

- Prebentzioa eraginkorra izateak, segurtasun erreala sorrarazteaz gain, segurtasuna hautematea ere eragiten du, eta hori erabakigarria da gizarteak segurtasun zerbitzuengan konfiantza izan dezan, agintaritza zilegitasunez.
- Horretarako, gertuko polizia zerbitzuak indartuko ditugu, ertzain-etxeak nukleo gisa artikulatuz, agente uniformedunen presentzia areagotuz, bereziki oinezkoen patruilak. Bideanbar, gizartearen eta bertako norbanakoen beste adierazpen publiko eta pribatu batzuekin beharrezko aliantza oro modu antolatuan artikulatuko da.

---

### 17. EKIMENA: **Herritarrei modu aktiboan entzutea. Parte hartzea.**

---

- Ertzain-etxe guztietan, dagokien lurralde eremuetan, segurtasun zerbitzu publikoari buruzko ekimenak eta polizia jarduketei buruzko keak jasotzeko zerbitzua ezarriko da; ekarpenak bertara joz zein hedabide sozialen bidez aurkeztu ahalko dira. Iradokizun guztiak aztertu eta ebaluatuko dira, eta bidaltzaileek modu pertsonalizatuan jasoko dute proposamena zerbitzu publikoan ezartzeko aukerari buruzko erantzuna.
- Horrez gain, gizarteak bere esparruetan helarazitako eskaerak ere bilduko dira, esparru bakoitzeko jardueretan txertatzeko. Kanpo agenteei eskainiko zaien arreta aliantza bidez ezarriko da, eta harreman jarduera prozedura bidez bideratuko da; esparru guztietara hedatuz.
- Gainera, ertzain-etxe guztietan gizarteak parte hartzeko prozesu zehatzak artikulatuko dira, gizarteak aukera izan dezan segurtasunaren alorrean garrantzitsutzat jotzen dituen gaietarako iritziak helarazteko.

---

### 18. EKIMENA: **Koordinazio zabalagoa udaltzaingoekin eta foru zerbitzuekin**

---

- Ertzain-etxe guztietan, dagozkien esparruetan, foru zerbitzuekin eta udaltzaingoekin koordinatzeko eta elkar osatzeko harremanak indartzea bultzatuko da; hala, ertzain-etxeen jarduteko programetan aipatutako kidegoen segurtasun analisiak, jarduteko programak, eskaerak edota oharrak jasoko dira. Hala, dagozkien eskumenak elkarrekin indartzea lortuko da.

---

### 19. EKIMENA: **Inteligentzia eta ikerketa sistemak garatzea**

---

- Segurtasun erakunde publikoen konpromisoen artean egongo da modu estrategikoan eta operatiboan jardutea gidatuko duen inteligentzia ereduaren zehaztea, eta Ertzaintza-aren barruan ezartzea, delituak prebenitzeko ez ezik, delituak eragin edota indartzen dituzten aldagaien berri izateko. Erabakigarria izango da, halaber, delituak ebazteko eta prebentzioz eragotzi ezin izan diren delituen autoreak atxilotzeko.
- Inteligentzia kriminalerako arlo horrek landuko ditu informazioa biltzeko fasea, (antolaketa-aren eta aliatuen maila guztietatik), azterketa fasea (inteligentzia zentzu zorrotzean), delituei zein delituak sorrarazten dituzten kausei dagokienez, eta banaketa fasea. Inteligentzia kriminalak erabakiak hartzeko gaituta egon beharko du, maila orokorrean eta maila zehatzetan, erabaki taktikoak zein estrategikoak izan.

---

### 20. EKIMENA: **Polizia zientifikoa indartzea**

---

- Polizia zientifikoa arreta berezia jasoko du giza baliabideak, baliabide materialak eta ezagutza hornitzeari dagokionez, kriminalistika, identifikazio, analisi eta ikerketa tekniko jardueretan, delituak egiterakoan sortu edo erabiltzen diren froga materialak aztertzeko.

**21. EKIMENA: Plangintza eta kudeaketa hobetzea**

- Ertzain-etxeen jardueran eragina duten faktoreei buruzko azterlana egingo da, eta, besteak beste, gai hauei erreparatuko zaie: lan kargak dagozkien eginkizunetan, agente kopurua, arreta jasotzen duten herritarrak, eta sakabanatuta edo bilduta dauden, lurralde hedadura, komunikazioak, egitura ekonomikoaren lurraldearen gaineko osaera, dimentsioa eta proiektzioa, bertako natura, etab. Azterlan horri esker, ertzain-etxeetan homogeneizatze lana egingo dugu, herritarrei zerbitzua ematea planifikatzeko eta kudeatzeko parametro eraginkorragoak eta efizienteagoak ezarri ahal izateko.

**22. EKIMENA: Erakunde berria, sinpleagoa eta eraginkorragoa**

- Ertzaintzaren erakundeari egitura eta antolaketa sinplea, malgua eta bateratua emango zaizkio; ingurunera egokituko da, eta polizia jardueren oinarritzko eginkizunen arabera aintzatetsi ahal izango da.

**23. EKIMENA: Parte hartzea sustatzea, eraginkortasuna hobetzeko.**

- Lidergo parte hartzailea sustatuko da, baita pertsonen garapena bultzatuko duen giza prestakuntza eta prestakuntza teknikoa ere; erakundearen balioekin, eginkizunarekin eta ikusmoldearekin identifikatu eta parte hartzea bultzatuko du.

**5. KONPROMISOA.****KUDEAKETA BERRITZAILERAKO EREDU BERRIA FINKATZEA.**

- EAJ-PNVk ekimen eta jarduera hauek garatuko ditu aipatutako konpromisoa betetzeko:

**24. EKIMENA: Etengabe hobetzean oinarritutako kudeaketa eredua.**

- Ertzaintzak kudeaketa formula berriak ezarriko ditu, etengabe hobetzeko, herritarren asmo eta itxaropenei hobeto erantzuteko, eta langile guztiek inplikazio aktiboa izateko. Horretarako, jarduera hauek abiaraziko dira:
  - Barne komunikazioa, erabakiak hartzean irizpide teknikoetan oinarritzea, gardentasuna eta etengabeko prestakuntza bultzatuko ditugu, Ertzaintzaren eraginkortasuna eta efikazia hobetzeko.
  - Gobernu onari dagozkion printzipioak eta printzipio etikoak definitzea eta praktikan jartzea.
  - Hausnarketa parte hartzaileak egiteko prozesuak bideratzea, ekarpen desberdinak erkatu ahal izateko, eta arriskuen eta aukera estrategiko desberdinen analisisa egitea.
  - Bilerak eta bestelako komunikazio motak sistematizatzea eta maila guztietara hedatzea.
  - Interes talde desberdinen (pertsonak, gizartea, Legebiltzarra, etab.) premiak eta asmoak orekatzea, baita epe laburreko eta epe luzeko premiak ere.
  - Estrategia egia bihurtzeko prozesu erabakigarrien eskema eta antolaketa egitura lerrotzea; hala, interes taldeei begira balio erreala gehituko du, eta eraginkortasun eta efikazia arteko oreka egokia lortuko du.

**25. EKIMENA: Emaitzak ebaluatzean oinarritutako kudeaketa eredua**

- Hartara, ekintza hauek gauzatuko ditugu:
  - Eskatutako azken emaitzak eta horien errendimenduaren adierazleak definitzea; xedeak ezarriko dira, aintzat hartuta erakundearen eginkizuna eta ikusmoldea, eta beste erakunde batzuen errendimenduarekin erkatuz.

- Definitutako xedeak eta estrategiak maiztasunez berrikustea, zuzen eguneratuta izateko. Bideanabar, gertaeretan eta datuetan oinarritutako kudeaketa ahalbidetuko duten eraginkortasun eta efikazia adierazleak definitu beharko dira.
- Emaitzen arteko kausa-ondorio loturak ezarriko dira, baita Ertzaintzaren prozesu, proiektu eta jardueren artean ere, baldin eta lortu nahi diren emaitzak eskuratzeko horietan esku hartu behar bada.
- Bizi dugun egoera eta lortutako aurrerapen maila modu fidagarrian adieraziko dizkiguten ebaluazio sistemak eta neurri eraginkor eta efikazak baliatzea, bereziki etorkizunera begiratzea ahalbidetzen badute.
- Interes taldeei dagokienez (Legebiltzarra, erakundeko pertsonak, bezeroak, hornitzaileak, aliatuak, gizartea...), lortutako emaitzetan orekari eustea, erakundeari eustea bermatzeko.

---

## 26. EKIMENA: Baliabideen kudeaketa arrazionalizatzea

---

- Ekimena garatzeari ekiteko, jarduera hauek egin behar dira:
  - Erakundearen funtsezko eskumenak ulertzea, baita horiek gizaritari, oro har, nolako onurak eragingo dizkieten ulertzea ere.
  - Iraunkortasun ekonomikoa eta soziala erreferentzia gisa hartzea.
  - Erakundea lehiakorra izan dadin eta aurrerantzean ere hala jarrai dezan, baliabideak esleitzea epe luzeko premien arabera, ez soilik epe laburreko errendagarritasunaren arabera.
  - Operazio eta zerbitzuek gizaritean eta segurtasunean izan duten eragina aintzat hartu dela erakustea.
  - Etorkizuneko agertokiak ulertzeko eta arrisku estrategikoak kudeatzeko mekanismo eraginkorrak eskuratzeko.
  - Emaitza guztiak modu orekatuan lantzea erakundearen kudeaketa bilakaeraren jarraipena egiteko; interes talde garrantzitsuenen aurrean epe laburreko eta luzeko lehentasunen multzoa aurkeztuko da, kausa-ondorioa harremana argi definituz.

---

## 27. EKIMENA: Antolamendua eta egitura egokitzea

---

- Ertzaintzak lidergo eskema berria aplikatuko du, erantzukizunak argituko ditu eta jokatzeko moduak estandarizatuko ditu. Xede horri begira, ekintza hauek gauzatuko dira:
  - Egitura hierarkikoa egokitu egingo da kudeaketa bikaineko antolaketa liderren parametroetarantz.
  - Erakundea egitura askoz horizontalago baterantz bideratzea, pertsonen erantzukizunetan oinarritutakoa.
  - Erakundeko pertsonen artean lidergo gaitasuna garatzea.
  - Aginte postuen ardurak aplikatzerakoan, eskumenak garatzea erraztea.
  - Erabaki zuzenak eta ongi arrazoituak hartzeko gai dela erakustea, oinarri gisa hartuta eskura dagoen informazioa, aurretik izandako esperientzia eta erabakien eraginaren analisia.
  - Malgua izatea. Erakundearen norabidea berrikusi, egokitu eta zuzendu egingo da, beharrezkoa izanez gero; uneoro konfiantza helaraziko da, eta berehala erantzungo da lan egiteko modu berriekin.
  - Maila guztietan, hobetzeko, inplikatzeko, partaide sentitzeko kultura sortzea, ekintzailatza kultura, delegazio eta erantzukizuneko.
  - Pentsatzeko ideia eta modu berriak sortzea eta garatzea bultzatzen duen kultura sustatzea, Ertzaintza barruan garapena eta berrikuntza indartzeko.

- Erakundearen balioak bultzatzea eta erreferentziazko eredu bihurtzea osotasunean, gizarte erantzukizunean eta jokabide etikoan, bai barruan, bai kanpoan. Horri esker, erakundearen ospea garatu eta areagotu egingo da.
- Lidergoa baliatzea balioestea, beste edozein irizpideren gainetik, ibilide profesionalaren garapenean.

---

## 28. EKIMENA: **Profesionalki gaitzea, barne koordinazioa eta taldean lan egitea bultzatzea**

---

- Ertzaintzak kidegoa osatzen duten pertsonen gaitasunak bultzatuko ditu:
  - Ertzainen lana gidatu behar duten balioak, arau etikoak edo jokatzeko printzipioak aplikatuko dira.
  - Komunikazioa eta lankidetzaren indartuko duten mekanismoak ezarriko dira.
  - Pertsonen erabakiak hartzea, eta haien gaitasunak eta ahalmenak garrantzitsuak erraztuko dugu.
  - Prestakuntza premiak identifikatuko ditugu, diseinatzean parte hartuko dugu eta emaitzak ebaluatuko ditugu.
  - Ertzaintzaren xedeak zabaldu egingo dira, antolatze modu berrien bidez, lan zelula edo taldeetan oinarrituz; autonomiaz funtzionatuko dute, pertsona bakoitzak egingo duen ekarpena identifikatzeko aukera izan dezan eta horiekin identifikatzeko.
  - Pertsonen esfortzua eta lorpenak behar bezala aintzatetsiko dira, eta pertsonen kudeaketan mailaka parte hartzea bultzatuko da.
  - Gizartearen esperientzia ona izan dadin, pertsonen beharrezko tresnak, gaitasunak, informazioa eta eskuordetza maila egokia dutela bermatuko da.
  - Norbanakoen eta taldearen xedeak erakundearen helburu estrategikoekin lotzeko ditugu, eta bermatu egingo da pertsonen eta taldeen haien ekarpena handiagotzeko gaitasuna dutela.
  - Maila igoerak eta gaitzeak kudeatzeko datu objektiboak erregistratu eta erabiliko dira.

---

## 29. EKIMENA: **Jokatzeko prozedurak eta prozesuak hobetzea**

---

- Ertzaintzak herritarrekiko garatuko dituen jarduketan homogeneotasuna bermatuko du, edozein dela jarduketaren hartzailea, tokia edo agente arduraduna. Horretarako, ondoko jarduketak hauek proposatu dira:
  - Prozesuak kudeaketarako sistema globaleko atal gisa aztertu, sailkatu eta lehenetsiko dira, eraginkortasunez kudeatzeko eta hobetzeko ikuspuntu egokiak aplikatuz, erakundearen mugetatik kanpo doazen prozesuak barne.
  - Prozesuei begira, errendimendu eta emaitzen adierazle garrantzitsuak ezartzea, xede estrategikoekin lotura argia izango dutenak.
  - Berrikuntza identifikatu eta sortzeko prozesuen gaur egungo errendimenduari eta gaitasunei buruzko datuak eta informazioa erabiltzea.
  - Pertsonak inplikatzeko prozesuen eraginkortasun eta efikazia berrikusteko eta etengabe hobetzeko lanetan.
  - Prozesuak hasieratik amaierara kudeatzea, erakunde barruan eta kanpoan, lortu nahi diren emaitzak eta errendimendua eskuratzeko.



---

**30. EKIMENA: Berrikuntzaren kultura bultzatzea**

---

- Ertzaintzak berrikuntza ekimenak garatuko ditu; horretarako:
  - Ertzaintza barruan zein kanpoan sor daitezkeen berrikuntza aukerak identifikatzeko sareak ezarri eta kudeatuko ditu.
  - Etengabe ikastea, sormena, arriskuak hartzea, ekintzailtza eta berrikuntza babestuko dituen barne testuingurua eta kultura sustatuko ditu.
  - Aldaketa teknologikoetatik harago joango den gisan erabiliko da berrikuntza, herritarrei balioa emateko moduan, lan egiteko modu berriak eta alianzak, baliabideak eta eskumenak aprobetxatzeko bide berriak.
  - Herritarrekin eta kanpoko beste pertsona eta erakunde batzuekin sarean lan egingo du, gaitasunak, ahalmenak eta sormena aprobetxatzeko eta, bide batez, "berrikuntza irekiaren" kontzeptua garatzeko.
  - Zerbitzu edo proiektu berritzaileen zorroa kudeatuko du, eta garatzea gidatzeko pertsona egokienak hautatuko ditu.
  - Berrikuntza erabiliko du erakundearen ospea eta irudia hobetzeko, eta bezeroak, kide berriak eta talentua erakartzeko.
  - Berrikuntzen eragina ebaluatuko du, eta kultura indartuko duten esperientzia arrakastatsuak hedatuko dira.





## INDARKERIARIK GABEKO EUSKADI

BAKEA, GIZA ESKUBIDEAK  
ETA ADISKIDETZEA

HERRITARREN  
SEGURTASUNAREN EREDU  
BERRIA

HERRITARREN  
ZERBITZURAKO JUSTIZIA

## PRINTZIOIAK:

- Gaur egungo Justizia Administrazioaren oinarriko erronketako bat herritarrei gehiago gerturatzea eta gero eta arinagoa, eraginkorra- goa eta gardenagoa den justizia ezartzea da. Horretarako, Justizia Administrazioan lan egiten duten profesionalen artean herritarrentza- ko zerbitzuaren espiritua sustatuko da.
- Horri dagokionez, EAJ-PNVrentzat Espediente Elektroniko Judizialari behin betiko bultzada ematea lehentasun behinetariko bat da. Izan ere, bulego judiziala eta fiskala modernizatzeko prozesuan funtsez- ko tresna bat da. Helburua jardueren gardentasuna bermatzea eta interesdunei legez dagokien informazio guztia eskuratzeko aukera ematea da.
- EAJ-PNVk uste du Justizia Administrazioa euskalduntzea gure erkide- goko hizkuntza-normalizazio prozesuaren zati atxikia dela. Hizkuntzen ofizialtasun partekatua aitortu izanak esan nahi du herritarrei botere publikoen aurrean hizkuntza aukeratzeko eskubidea aitortu edo ain- zatetsi zaiela. Hori dela-eta, EAJ-PNVk uste du Justizia Administrazioa- ri dagokiola pertsona bakoitzaren hizkuntza aukerari egokitzea eta ez alderantziz.
- EAJ-PNVk baliabiderik ez duten pertsonentzat gaur egungo doako justizia zerbitzu publikoaren eredia bermatzearen eta sustatzearen aldeko apustu argia egin du. Hori publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren adierazlea da, Abokatuen Elkargoek eskaintzen duten zerbitzu publikoari dagokionez.
- Gazteen justiziaren arloan, adingabeak hizpide dituzten esku-har- tzeen emaitzak modu eraginkorrean lortzeko ikuspegitik, erakundeen esku-hartzea berriro bideratzeko beharra sumatu dugu, berrerortze -mailak murrizteko xedearekin.
- EAJ-PNVk alor jurisdikzional guztietan bitartekotza areagotzeko beha- rra defendatu du.
- EAJ-PNVk Autonomia Estatutua oso-osorik bete dezaten eskatu du; beraz, behin eta berriro eskatuko du espetxeen arloan dagozkion es- kumen guztiak eman diezazkieten.
- Azkenik, EAJ-PNVk Autonomia Estatutuaren 10.5. artikuluan ezarritako eskumen autonomikoa garatzeko eta gauzatzeko konpromisoa har- tu du. Eskumena foru eskubide zibila edo berezia kontserbatzeari, aldatzeari eta garatzeari buruzkoa da. Zentzu horretan, euskal foru eskubide zibilaren aldaketa sustatuko du oinordetza-zuzenbidearen alorrean, aurrerapenari, modernizazioari eta eraikuntza nazionalari lotutako ekimena dela uste baitu.

- KONPROMISOAK ETA EKIMENAK.

## 1. KONPROMISOA. HERRITARREN ZERBITZURA DAGOEN BULEGO JUDIZIAL BERRIA.

### 1. EKIMENA: Bulego judizialen barruko antolakuntza sistema berria garatzea

- Bulego judizial eta fiskaletan lanaren barruko antolakuntza sistema berria behin betiko ezartzea, espezializazioan eta zerbitzuaren arrazionalizazioan oinarritutakoa.
- Antolakuntza judizial berriari egokitutako langileen egitura diseinatzea, erantzukizun handia barne hartzen duten lanpostuei arreta berezia eskainiz.

### 2. EKIMENA: Herritarrentzako arretari dagokionez, kalitatea eta eraginkortasuna bultzatzea.

## 2. KONPROMISOA. BITARTEKOTZAREN ALDE EGITEA JUSTIZIA LEHENERATZAILEAREN EREDU GISA.

### 3. EKIMENA: Dagoen bitartekotza sistema eraginkortasunaren parametroetatik abiatuta aztertzea, ebaluatzea eta berriro antolatzea.

### 4. EKIMENA: Bitartekotza sustatzea justizia leheneratzailearen eredu gisa alor jurisdikzional guztietan.

### 5. EKIMENA: Bide judizialaren barruan zein kanpoan bitartekotza zerbitzuen arteko koordinazioa, bikoiztasunak eta irizpide desberdintasuna saihesteko helburuarekin.

### 6. EKIMENA: Lan Harremanen Kontseiluarekin lankidetzatza sustatzea, gizarte jurisdikzioan bide judizialaren barruko bitartekotzaren alorrean.

## 3. KONPROMISOA. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN HIZKUNTZA AUKERATZEKO ESKUBIDEA GULTZIZ BERMATZEA.

### 7. EKIMENA: Hizkuntza normalizazioa bultzatzea.

- Eraginkortasunez eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankide jardunik, gure erkidegoaren titulartasunekoak diren hizkuntza eskumenak gauzatzea eta Justizia Administrazioako lanpostu guztietan hizkuntzaren plangintza eta normalizazioa burutzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, epaileen, magistratuen, fiskalen eta idazkari judizialen lanpostuak barne.

### 8. EKIMENA: Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketa bultzatzea

- Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketa bultzatzea hizkuntzen ofizialtasun bikoizta duten autonomia erkidegoetan lan egiten duten epaileek, magistratuek, fiskalek eta idazkari judizialek tokiko hizkuntzaren behar bezalako ezagutza eta ezagutza nahikoa egiaztatzeke duten betebeharraren irismena eta edukia zehazte aldera.

---

**9. EKIMENA: Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan berri bat onartzea.**

---

- Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan berri bat onartzea langileriaren euskalduntzea eta euskara-agirien normalizazioa bultzatzeko eta suspertzeko xedearekin.

**4. KONPROMISOA.****ADINGABE ARAU-HAUSLEAK BERRIRO GIZARATERATZEAREN ETA BERRIRO SOZIALIZATZEAREN ARLOAN, EUSKADI ESTATUAREN ABANGOARDIAN KOKATzea.**

---

**10. EKIMENA: Erkidegoko gazteen justiziarako hezkuntza zentro bakoitzean hezkuntza proiektuen eraketa sustatzea.**

---

- Modu bateratuan, hezkuntza proiektu globala eta integratzailea egitea, adingabe arau-hausleak berriro gizarateratu eta berriro sozializatu daitezzen.
- Erkidegoko gazteen justiziarako zentro bakoitzean hezkuntza proiektuak egitea.

---

**11. EKIMENA: IV. Gazteen Justizia Planaren eraketa bultzatzea**

---

- III. Gazteen Justizia Planaren emaitzak ebaluatzea.
- IV. Gazteen Justizia Planaren eraketa bultzatzea, funtsean berrerortze-mailak murriztera zuzenduta dagoena.

---

**12. EKIMENA: Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez, erakundeen arteko lankidetzak suspertzea.**

---

- Erakundeen arteko leialtasuna abiapuntutzat hartuta, foru aldundiekin, fiskaltzekin eta epaitegiekin modu koordinatuan lan egingo dugu, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazoaren ondoriozko beharrei erantzun bateratua emate aldera.

---

**13. EKIMENA: Adingabe atzerritarrentzako doako laguntza juridikoa erraztea adina zehazteko izapideen hasieratik.**

---

- Doako laguntza juridikoa arautzen duen dekretuaren aldaketa mahai gainean jarri genduen, kolektibo horrengan eragina duen prozesu judizialari tratamendu hobea emate aldera.

---

**14. EKIMENA: Buruko desorekak dituzten gazte arau-hausleentzat zentroetan sartzeko eta tratamendu terapeutikoa jasotzeko neurriak ezartzea bultzatzea.**

---

- Desoreka terapeutikoak dituzten gazte arau-hausleentzat zentro terapeutikoetan sartzeko plazak sortzea.

---

**15. EKIMENA: Adingabeekin Bide Judizialaren barruko Bitartekotza Zerbitzua ezartzea.**

---

---

**16. EKIMENA: Gazteei lotutako justizia hobetzea.**

---

- Euskal Autonomia Erkidegoan gazteen justizia zirkuitutik pasa diren gazte arau-hausleen berrerortzearen gaineko ikerketa garatu nahi dugu, gazteen zigorren gauzatzearen funtzionamenduari dagokionez, hobetzeko proposamen bat egite aldera.

5. KONPROMISOA.  
**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ARLOAN, TEKNOLOGIA ELEKTRONIKOAK,  
INFORMATIKOAK ETA TELEMATIKOAK GAINERATZEA.**

---

17. EKIMENA: **Espediente elektronikoko judizialari behin betiko bultzada ematea.**

---

18. EKIMENA: **Justizia Administrazioak erabiltzen dituen sistemen eta aplikazioen elkarrekiko lotura erraztea, koordinazio eta eraginkortasun judizial hobea lortzeko.**

---

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan elkarrekintza eta komunikazio elektronikoko sistemak sustatuko ditugu sistema judiziala arintze aldera.
- 

19. EKIMENA: **Justizia hobetzeko beharrezkoa eta nahitaezkoa den tresna gisa teknologia berrien erabilera orokorra bultzatzea.**

---

6. KONPROMISOA.  
**JUSTIZIAREN DESZENTRALIZAZIOA BULTZATZEA.**

---

20. EKIMENA: **BJLO aldatu dezaten premiatzea, Eusko Jaurlaritza izan dadila oinarri judiziala eta urteko programazioak diseinatzen dituen eta Euskadiko epaitegien sorrera zehazten duena.**

---

21. EKIMENA: **Espetxeen transferentzia eskatzea, Gernikako Estatutua betez.**

---

7. KONPROMISOA  
**AUTONOMIA ESTATUTUAREN 10.5. ARTIKULUAREN ESKUMEN AUTONOMIKOA  
GARATZEA ETA GAUZATZEA. ESKUMENA FORU ESKUBIDE ZIBILAREN EDO  
BEREZIAREN KONTSERBAZIOARI, ALDAKETARI ETA GARAPENARI BURUZKOA DA.**

---

22. EKIMENA: **Euskal foru eskubide zibila aldatzea oinordetza-zuzenbidearen alorrean.**

---

23. EKIMENA: **Euskal foru eskubide zibila aldatzea ezkontzen araubidearen alorrean.**

---







EUSKADI BERPIZTU

## ENPLEGUAREN ALDEKO EUSKADI

---

- 4. ENPLEGUA, GURE LEHENTASUNA
- 5. AUTONOMOAK, SALTEGI TXIKIAK ETA EKONOMIA SOZIALA
- 6. GARAPENERAKO ETA ENPLEGURAKO AZPIEGITURAK





## PRINTZIOAK:



### ENPLEGUAREN ALDEKO EUSKADI

ENPLEGUA,  
GURE LEHENTASUNA

AUTONOMOAK, SALTEGI  
TXIKIAK ETA EKONOMIA  
SOZIALA

GARAPENERAKO  
ETA ENPLEGURAKO  
AZPIEGITURAK

- Euskadi pairatzen ari den krisi ekonomikoaren ondorioz dramatikoa da milaka euskal familiari eragiten ari den lanpostuen galera. EAJ-PNV-rentzat enplegua sortzea jarduera politikoaren oinarriko ardatza izango da. Krisi ekonomikoaren ondotik politika publikoei lehenetasuna eman behar zaie eta, bereziki, enplegua sortzeko helburu maximoa duen politika ekonomikoari. EAJ-PNV-rentzat enpleguaren gaia premiazkoa eta garrantzitsua da, alegia, jorratu beharreko lehenengoa.
- Gure ustez, enplegua diru-sarrerak sortu eta bizitzako premiei erantzuna emateko formula bat baino harago doa; gizarte modernoetan, pertsonen garapenerako eta harremanetarako tresna bat da. Horregatik, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du enpleguaren defentsari eta pertsonen enplegagarritasunaren sustapenari dagokienez. Etengabeko ikaskuntzaren alde dauden pertsonak. Pertsona kualifikatuak eta gaituak lan merkatuan modu aktiboan egon daitezten haien laneko bizitza osoan zehar.
- Enplegua ez da dekretu bidez sortzen. Dena den, politika publikoek lanpostu berriak sortzeko aukera emango duten legezko eremuak eta baldintza publikoak gara ditzakete eta garatu behar dituzte. EAJ-PNVk lan egingo du enplegua sortzeko inbertsioa ahalbidetuko duen eremu publikoa sortzen, Euskadin enplegua egon eta sor dadin lagunduko duten ekimen publiko eta pribatu horiei lehenetasuna emanaz eta horiek sustatuz.
- Horretarako, funtsezkoa da enpleguaren politika aktibo eta pasiboen gaineko eskumen osoa edukitzea, bi horien konbinazioa oinarriko tresna baita langabeziaren kausen eta ondorioen aurkako borrokan. EAJ-PNVk lortutako enpleguaren politika aktiboen transferentziak lagun badezake ere aipatutako lan ereduak eraikitzen, EAJ-PNVk enpleguaren politika pasiboen transferentzia eskatzen jarraituko du, Euskadin gizarte eta lan arloko eredu berezia osatu ahal izateko.
- Euskadin enplegua sortu eta hobetzerakoan lan harremanen euskal sistema sendotu behar da, langileen eta enpresen interesen arteko orekarako bidea emango duena. Modu iraunkorrean enpresak behar duen lan malgutasuna barne hartzen duen sistema bat, lan egiten dutenen lan segurtasuna eta langabezian daudenen gizarte babesa. Gizarte eragileen arteko etengabeko elkarizketaren kultura eta negoziatzaioa Euskadiko lan harremanen ardatz izan behar da.
- Euskadik bere espiritu eta gaitasun ekintzailea indartu behar du enplegua eta ongizatea sortzeko bide gisa. Euskal gizartean kultura ekintzailea sustatuko duten politika publikoak berreskuratu, bereziki, gazteei eta autoenpleguari dagokienez, eta ekimen berriak eta enpresa proiektuak abian jarriko dituztenak.
- Euskadiko gizarte kohesioak politika publikoak behar ditu, hain zuzen, euskal lan merkatuan gizartean ahulen diren talde horiek sartzeko (degaitasunen bat duten pertsonak, 45 urtetik gorakoak eta iraupen luze-ko langabeak), baita lanbidea eta familiako bizitza bateratzen laguntzeko neurriak sustatzeko ere. EAJ-PNVk lehenetasunez jotzen ditu bi ardatz horiek.



- Printzipio horiek garatze aldera, honako konpromiso eta ekimen hauek proposatzen ditugu:
- **GURE KONPROMISOAK ETA EKIMENAK.**

## 1. KONPROMISOA. EUSKADIN ENPLEGUA DEFENDATZEA.

### 1. EKIMENA: Enpleguaren aldeko elkartasun fondoa.

- Lau urterako txoke-plana proposatzen dugu, erakunde arteko izaera duena (Eusko Jaur-larritza, foru aldundiak eta udalak), enpleguaren aldeko elkartasun fondo berezia sortuz.
- Elkartasun fondoa hornitzeko, honako hauetan eginiko aurrezkitik lortuko diren kopuruak erabiliko dira: gastu arruntak, transferentzia arruntak, Lanbideren aurrekontua eta zuzkidura finalistak. Horren helburua izango da 12 hileko batez besteko iraupena izango duten kontratuen bidez 10.000 langaberen zuzeneko kontratazioa egitea.
- Planak gizarteratzeko arazo gehien dituzten taldeen laneratzea errazteko berariazko ekintzak hartuko ditu aintzat: krisi ekonomikoaren ondotik luzaroan langabezia dauden pertsonak, laneratze gaitasuna duten taldeak (gizarte bazterkeria-egoeran geratzeko arriskuan daudenak eta egun diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak), emakumeak, 45 urtetik gorakoak eta gainerako biztanleria aktiboak baino langabeziaren eta lan-ezgonkortasunaren batez besteko tasa handiagoak dituzten taldeak.
- Horrez gain, planak bermatuko du langabeek inbertsio publikoko programen eta Eusko Jaur-laritzako programen bitartez sortutako enplegu-eskariak eskuragarri izan ditzaten.

### 2. EKIMENA: Gazteen enplegu plana

- Gazteen enplegarritasuna eta laneratzea bideratzeko asmoz, hiru jardun-ildo jorratu-ko dituen Gazteen enplegu plana garatuko dugu:
- *Enpleguaren sustapena:* lan-arloko lehenengo aukera ematean datza, 30 urtetik behar-koentzat praktikaldiko kontratu berriak aktibatze programak bat abian jarri, horien ondoriozko kostuen % 30 diruz lagunduta.
- *Autoenpleguaren sustapena* euskal gazteen artean, 5.000 mikroenpresa berri eta negozio txiki abian jartzea lagunduz.
- *Talentuaren sustapena:* gure gazteen bikaintasun-prestakuntza honako honen bidez bultzatuz:
- Lanbide perfektionamendurako bekak, prestigiozko euskal zentroetan eta nazioarteko erakundeetan eginiko espezializazio-ikastaroen, master eta graduondoko espezializatu-ten bitartez.
- Nazioartekotze programak, nazioarteko esparruan lana eta lanbide esperientzia eskuratzeko euskal enpresen eta erakundeen eskutik.
- Euskal talentua sustatzeko programak, lanbide eta lan orientazioko ekintzen bidez, enpresetara gerturatu eta bertan praktikak eginez, ikasketak eta lana uztartuz, nazioartekotze mugimenduen programen bitartez, etab.

### 3. EKIMENA: Enpleguaren eskualdeko berraktibazioa.

- Jarduera ekonomikoari eta enpleguari bultzada berria emateko programa bereziak garatzea langabezia tasa euskal batez bestekoa baino % 50 handiagoa duten eta krisi ekonomikoaren ondorioz larrienak jasaten ari diren euskal eskualdeetan.

- Lanbidek, Eudelek eta Garapenerako Euskal Agentziek lankidetzaz hitzarmenak sinatuko dituzte eremu bereziki behartsuetan eta krisi ekonomikoak gogor jo dituen eta sare ekonomiko eta industrialak galdu duten eremuetan enplegarritasuna sustatuko duten berriazko neurriak garatze aldera, tokiko egoera bakoitzeko enplegu-nitxoak eta aukerak aprobetxatuz.

---

#### 4. EKIMENA: **Autonomoen enplegurako laguntza eta autoenplegua.**

---

- EAJ-PNVk honakoa aintzat hartuko duen Autoenplegurako laguntza plana abiaraziko du:
- Autoenplegurako ekimen berriak eta mikroenpresak abian jartzeko programak.
- Makinen, tresnen, ibilgailuen, sistema informatikoen, lokalen, eta abarren inbertsioa eta eraberritzea ahalbidetzeko finantzaketa programak.
- Enplegua sortzeko programak, langile berrien kontratazioa bultzatzeko talde horren eskutik.

---

#### 5. EKIMENA: **Enplegu-erregulazioko espedienteen ondofik kaltetuak izan diren pertsonak laneratzeko programa.**

---

- Krisi ekonomikoaren ondorioz, iraungitze enplegu-erregulazioko espedienteek kaltetutako hainbat pertsona lanik gabe geratu da, eta pertsona horiek esperientzia eta lanbide gaitasun handia daukate. Talde horrentzako prestakuntzako eguneratze eta laneratzeko programa pilotua planteatu dugu, pertsona horien giza eta harreman kapitala gal ez dadin.

---

#### 6. EKIMENA: **Desgaitasunen bat duten pertsonen enplegurako laguntza.**

---

- Enplegurako zentro bereziak desgaitasunen bat duten pertsonentzako erreferentziako lekuak dira, horien bidez lan merkatuan sar baitaitezke. Eusko Jaurlaritzak, alor horretako eragile espezializatuekin batera, modu aktiboan sustatuko ditu ekimenak talde hori lan merkatuan sar dadin eta bertan jarrai dezan.

## 2. KONPROMISOA. LANBIDE BERRI BAT EUSKADIRENTZAT.

---

#### 7. EKIMENA: **Lanbideren eredu berria, hots, dinamikoa, eraginkorra eta euskal herritarrek baloratutakoa, abian jartzea.**

---

- Euskadik euskal enplegu-zerbitzu publiko eraginkorra, dinamikoa eta euskal herritarrek ondo balioesten dutena behar du. Euskadik beste Lanbide bat, Lanbide berri bat, merezi du. Benetan euskal biztanleria aktiboaren enplegarritasun eraginkorra eta iraunkorra handitzea xede duen Lanbide bat.
- Lanbide berriak Europako iparraldeko herrialdeetako enplegu-zerbitzu publikoak izango ditu oinarri, horiek guztiak kasuan kasuko herrialdean lan-arloko orientazio, prestakuntza eta bitartekaritza lanetan duten efizientziagatik nabarmentzen baitira.
- Horretarako, Lanbide langile egokiz hornitu behar da eskariei erantzuna eman ahal izateko. Beharrezkoa da lan-arloko orientazio eta bitartekaritza organoa eskuduna eta aditua izatea, lan merkatuko eskariak ezagutzeko eta, hala, eskaintza eta eskariaren artean bitarteko aritu ahal izateko.

- Halaber, 2012ko urtarrilaren 1etik Lanbideek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskumenak dituela kontuan hartuta, foru aldundiekin eta euskal udalekin koordinazio eta lankidetzaren egonkorreko mekanismoak ezarri behar ditu, urte askoan foru aldundiek eta udalek izapidetu baitituzte aipatutako espedienteak eta arlo horretan esperientzia gehien baitute.
- Lanbideren egungo kudeaketa eredua berriro egitea proposatzen dugu, hain zuzen, esku hartzeko hiru ildoren inguruan:
- Eredua azkarra:
  - Bulegoen sistema irekia eta modernoa. Hain burokratiko ez den, azkarra eta efizienteagoa den sistema bat.
  - Bulego sistemaren eskualdeko antolamendua, eragileak batzeko ahalmenarekin, baita eskualde mailan lan-arloko orientazio, prestakuntza eta bitartekaritza ekintzak planifikatu eta garatzeko ere.
  - Bulegoen espezializazioa talde eta premia berezien arabera, oso jendetsuak diren Euskadiko eremu metropolitarran.
- Enplegarritasunerako eredua:
  - Sistemaren zentralitatea oro har biztanleria aktiboaren enplegarritasuna hobetzean datza, langabezia dauden pertsonen arreta berezia eman behar badie ere. Lanbide langabezia dauden pertsonen eta pertsona horiek kontratatu ahal dituztenen premiak konpontzeko gertuko laguntzaile eraginkortzat hartu behar da.
  - Enplegarritasunak lan orientazioko politikak, etengabeko prestakuntza eta prestakuntza okupazionala eta enplegurako bitartekaritza behar ditu. Nolanahi ere, beharrezkoa da enpresari zuzendutako orientazio handiagoa eta ez bakarrik langabeei edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzailei zuzendutakoa.
  - Enpresak zeregin aktiboa izan behar du sisteman, lan kontratazioarako eta prestakuntza premiak aurreratzeko oinarrizko eragilea baita.
  - Enpresaren partaidetza bultzatu behar da lehen mailako prestakuntza-eragile gisa, Lanbide Heziketako zentroekin, unibertsitateekin eta eragile pribatu espezializatuekin batera.
- Lankidetzaren eta partaidetzaren eredua:
  - Ekonomia eta gizarte eragile guztien partaidetzarekin.
  - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Industria Sailen partaidetzarekin.
  - Foru Aldundien partaidetzarekin.

### 3. KONPROMISOA. PERTSONA OSO TREBATUAK DITUEN EUSKADI, ENPLEGAGARRITASUNAREN BERMERIK ONENA.

- Euskal biztanleria aktiboaren lanbide prestakuntza eta trebakuntza areagotzea enplegu politika aktiboaren etengabeko helburua izan behar da. Prestakuntzan egindako inbertsioa etorkizuneko inbertsioa da eta langileen enplegarritasunaren berme nagusia. Konpromiso hori garatzeko, EAJ-PNVk honako ekimen hauek sustatuko ditu:

#### 8. EKIMENA: Etengabeko ikaskuntzaren aldeko apustua laneko bizitza osoan zehar

- Enpresan etengabeko prestakuntza jasotzen duten langileen proportzioari lotutako adierazleak oraindik ez dira Europako batez bestekora heltzen eta Europako iparraldekoetatik oso urrun daude.



- EAJ-PNVk Lanbide berri baten bitartez etengabeko ikaskuntzaren programak abian jarzea eta Euskadiko biztanleria aktiboaren prestakuntzako eguneratze okupazionala sustatu nahi ditu.
- Helburu hori lortzeko, enpresen, lanbide-heziketako zetroen, unibertsitateen eta beste eragile pribatu batzuen partaidetza bultzatuko da prestakuntza programa eta ikastaroen diseinuan, eskaintzan eta garapenean.

---

#### 9. EKIMENA: Nazioarteko eremuari egokitutako lanbide profilak sustatzea.

---

- Globalizazioak geroz eta lanbide profil gehiago eskatzen ditu eta, kalitatezko lana emateaz gain, nazioartean jarduteko gai izan behar dira. Lanbide garapena geroz eta globalagoa da.
- Gauzak horrela, euskal langileek lanbide trebatze eleaniztuna eta kulturantzuna behar dute, Euskadin eta munduan aintzatetsi eta ezagutuko dena.
- Oso trebatuta eta nazioartera egokituta egongo diren profesionalen prestakuntza sustatuko dugu, "Basque Profesional" marka euskal profesionalen prestigioaren sinonimoa izan dadin European eta munduan. Hala, bere profesionaltasunagatik aintzatetsia izango den ekonomia- eta enpresa-ingurunea sortu nahi dugu, Euskadin pertsonak fidelizatzeko aukera egon dadin, nazioartean markaren irudia proiektatu dadin eta munduko beste leku batzuetako profesional berriak, talentudunak, erakar daitezten.

---

#### 9. EKIMENA: Bigarren aukerako programak.

---

- Azken hamarkadan Euskadin izandako sektore-birmoldaketa prozesuak (industrian eta zerbitzu jakin batzuetan) kontua hartuta, pertsona askok ezagutza eta lanbide esperientzia handia dute baina une honetan langabezian daude.
- Horregatik, Bigarren Aukerako Programa Pilotuak abian jarzea planteatzen dugu, belaualdi arteko ezagutzaren eta esperientziaren transmisioa sustatzeko; izan ere, horrela, belaualdi berrien prestakuntza bizkortuko da, eta orain lan merkatutik deskonektatuta dauden profesionalak aktibatu egingo dira.

## 4. KONPROMISOA.

### ETENGABEKO GIZARTE-ELKARRIZKETAREN ETA GIZARTE KOHESIOAREN ALDE.

- Gizarte eragileekin elkarrizketa mantentzea funtsezkoa da euskal lan merkatuak funtziona dezan, hori osatzen duten aldean arteko akordioan oinarritua, hain zuzen ere. Hori, bereizketarik gabe kolektibo guztientzako aukera-berdintasuna sustatzen duten neurriekin batera, gizarte modernoetan gizarte kohesioa modu aktiboan bultzatzen duten elementuak dira.

---

#### 11. EKIMENA: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Lan Harremanen Kontseiluari bultzada berria ematea

---

- Benetako gizarte elkarrizketa bultzatuko dugu, EGAB eta LHK topaketa-erakundeak indartu eta sendotuko dituen. Horietatik abiatuta, euskal gizarte eragileek modu aktiboan egingo diete aurre Euskadiko lan merkatuan eta lan harremanen sisteman eragina izango duten etorkizuneko erronka estrategikoei.







## ENPLEGUAREN ALDEKO EUSKADI

ENPLEGUA,  
GURE LEHENTASUNA

AUTONOMOAK, SALTEGI  
TXIKIAK ETA EKONOMIA  
SOZIALA

GARAPENERAKO  
ETA ENPLEGURAKO  
AZPIEGITURAK

### PRINTZIOAK:

- Euskal enpresa txiki eta ertainek Euskadiko enpleguaren % 80 eta enpresa sarearen % 95 ordezkatzeko dute. ETEak, eta bereziki pertsona autonomoak, saltegi txikiak eta Ekonomia Sozialeko enpresak, enpleguaren esparruan oreka mantentzeko eta enpresa sare dinamikoa babesteko bermea dira.
- Enpresa txiki hauen ezaugarri bereizgarriak direla medio, enpresa jarduera guztiek dituzten berezko zailtasunak benetako oztopo bilakatzeko dira enpresa hauentzat. Zailtasun hauen adibide batzuk honakoak ditugu: finantza euskarriak aurkitzea, inbertsio egitasmoei edota ekipamendu hobekuntzei ekitea, eta, pertsona autonomoen eta merkatari txikien kasu berezietan, alderdi profesionala eta familia bizi bateratzea lortzea.
- Horrez gain, gaur egun enpresa txikiak eta autonomoak aurkako abagune ekonomikoak eragindako arazoak pairatzen dituzte, barne eskaerak nabarmen egin duelako behera eta finantza egoera zailak larriagotutako diruzaintzaren egoera nahasia delako. Likidezia falta, krediturik eza, berankortasuna edo presio fiskala ETE eta autonomoentzat arazo larri bilakatu dira. EAJ-PNVk uste du beharrezkoa dela enpresa hauen garapena bultzatuko dituzten neurriak hartzea, baita krisia saihesteko eta, enplegua mantenduz, hortik baldintza hobetan irteteko neurriak hartzea ere.
- Pertsona autonomoen kasuan, funtsezkoa da euren dinamismoa eta moldaketa gaitasuna azpimarratzea; izan ere, urtero Euskadiko Autonomoen Erregimenak alta eta baje artean bizi duen gorabehera % 10 ingurura iristen da.
- Bestalde, hiriko merkataritzaren edo hurbileko merkataritzaren sektoreak berebiziko garrantzia du Euskadin, aberastasuna sortzen baitu eta familia lanaren egonkortasunerako oinarritzeko elementua baita. Orobat, hiriko diseinu kontuei eta gizarte harreman kontuei dagokionez, erabakigarria da gure herri eta hirietako espazio antolaketarako, hiri eredu oparo, adeitsu, seguru eta bizikidetzarako eredu irudikatuz.
- Hiri eta herri trinko, bizi eta sozialki kohesionatuetan txertatutako merkataritzaren europarraren ereduari inspiratutako Hiriko Merkataritzaren aldeko apustua egiten dugu, ingurumenari dagokionez iraunkoragoa den espazio antolamendua ahalbidetzen duten hiri eta merkataritzaren inguruneak, eta joan-etorriak eta bideetan pilaketak sortzea saihesteko dituztenak.

- Merkataritza hirigintzaren ikuspuntutik, EAJ-PNVk tokiko merkataritza txikia defendatzen du. Egia esan, merkataritzak betetzen ditu hiriak bizitasunez, dibertsitatearen eta pertsonalizatutako tratua alderdi apustua egiten du, tolerantzia eta bizikidetzaren sustatzen ditu, gizarte trinko eta integratzaileak sortzen ditu, gizakien arteko harremanak errazten ditu lehen mailako harreman ekonomikoak eragiten dituen bitartean, bizileku ingurunean eta ohiko ingurunean zerbitzu guztiez goza dezaketen hirien kontzeptua sendotzen du.
- EAJ-PNVk merkataritza eredu hori finkatzearen alde egingo du lan, iraganekoa izatetik urrun dagoen ereduaren alde, egungoa eta etorkizuneko den ereduaren alde, aniztasuna eta espezializazioa nabarmentzen dituen ereduaren alde, hain zuzen ere.
- Ekonomia Sozialeko enpresei dagokienez, EAJ-PNVk uste du sistema sozioekonomikoen funtsezko zatiak direla eta krisialditik modu bideragarrian irfetezko aukera ematen dutela. Enpresa mota hauek gizarte balioa, hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortzen laguntzen duen antolaketa alternatibodun eredu irudikatzen dute. Ezaugarriek aurrerapena dakarte negozioak ulertzeko moduan, eta lan mota desberdinen bilakaera eragiten dute, baita ideiak sortzeko modua eta gizarte talde guztiek parte hartzea ere. Testuinguru honetan, ziur gaude Euskadiko enpresa sozialak tresna garrantzitsuak direla desberdina eta baztertzailerik izango ez den eredu sozial eta ekonomikoa eraikitzeko.
- Euskadin enpresa soziala aski ezaguna da; izan ere, euskal enpresaburuen gizarte erantzukizuna eta kooperatzeko tradizioa negozioak egiteko gure ereduaren sustraituta daude. Horren erakusgarri dira EAEko Ekonomia Soziala osatzen duten erakunde guztiak, enpleguaren % 6,3 sortzen dutenak.
- Labur esanda, ahaleginduko gara pertsona autonomoak, hiriko merkataritzari eta Ekonomia Sozialeko enpresei laguntza emateko berariazko plan eta programak zehazten eta garatzen, betiere ikuspuntu integral batetik. Proposamen honetan sartutako ekimen desberdinen bitartez, enpresa mota hauen lehiakortasuna eta indarra sustatzea eta bultzatzea bilatzen da.

- EAJ-PNVk autonomoen, saltegi txikien eta Ekonomia Sozialaren defentsa proposatzen du, ondorengo **KONPROMISO ETA EKIMENEN** bitartez:

## 1. KONPROMISOA. PERTSONA AUTONOMOEI BABES INTEGRALA EMATEKO PROGRAMA.

### 1. EKIMENA: Autonomoen eta mikroETeen finantzaketa babesteko berariazko plana.

- Autonomoen eta mikroETeen kapital zirkulatuaren finantzaketa babesteko berariazko programa garatuko dugu, "finantza aldetik itotzea" eragozteko.
- Pertsona autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei zuzendutako berariazko ekimenak abian jarriko ditugu ekoizpen inbertsioko egitasmoak finantzatzeko, diru laguntzen bitartez, kredituen interesak babestuz.
- Lehiakortasuna eta enpresa jardueraren kalitatea hobetzera bideratutako programa publikoak egokituko ditugu, autonomoak eta mikroenpresak ere hauen onuradun izan daitezen.
- Pertsona autonomoentzako abal eta mikrokredituen programa sustatuko dugu.

### 2. EKIMENA: Pertsona autonomoentzako fiskalitatea hobetzea.

- Foru aldundiekin elkarlanean, pertsona autonomoen jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri pizgarriak martxan jarriko ditugu; horretarako, zerga betebeharrei erraztasun eta lasaiera handiagoz aurre egitea ahalbidetuko duen marko fiskala ezarriko dugu, eta hala, euren etekinen zati bat lana sortzera bideratuko dute.

### 3. EKIMENA: Autoenplegua Babesteko Plana.

- Planak neurri hauek bilduko ditu: izapide burokratikoak murriztea, prestakuntza neurriak, eta enpresa jarduera abian jarri ahal izateko laguntza ekonomiko eta fiskalak. Planak ezaugarri berritzaileak edota hazteko eta enplegua sortzeko indar handia duten egitasmoak lagunduko ditu batez ere.
- Negozioa abian jartzen duten 35 urtetik beherako pertsonen kasuan, autonomoen kuotaen zati bat diruz lagunduko dugu bi urtez.
- Zehazki, lan autonomoko enpresak sortzera bideratutako lanbide heziketa eta unibertsitateko ikasketak antolatzea babestuko dugu.
- Autoenplegu egitasmoak eta enpresa txikiak sortzeko indarra duten sektore estrategikoko esparruetako langabetuei zuzendutako enplegurako berariazko prestakuntza programak sortzea.
- Bazterketa arriskuan dauden pertsonen edo prestakuntza maila txikia duten pertsonen zuzendutako autoenplegurako laguntza eta mikrokredituak babesteko Laguntza Programa Trinkoa sustatuko dugu.

### 4. EKIMENA: Familia enpresei laguntzea.

- Familia enpresen gaineko babesa bultzatuko dugu, kudeaketa profesionalizatzea sustatuz eta ondorengotza edo salmenta prozesuetan lagunduz.

### 5. EKIMENA: Kooperaziorako eta enpresak garatzea laguntzeko espazio berriak.

- Pertsona autonomoak biltzea, eta haien arteko kooperazioa eta elkartegintza erraztuko dituzten espazio berriak babestuko ditugu, enpresen garapenerako mesedegarri izate aldera eta, aldi berean, hauen presentzia eta aintzatespen sozial eta kulturala handitzeko.



- Pertsona autonomoei zuzendutako co-working espazio berriak sustatuko ditugu.
- Sareak, plataforma teknologikoak eta truke espazioak sortzea bultzatuko dugu, langile autonomoak kalitatezko zerbitzuetara iristea errazteko, betiere arrazoizko prezioetan (erosketa zentralak, zerbitzu kooperatibak).
- Enpresa autonomoak sortzeko eta teknologia berrien erabilera sustatzeko laguntza logistiko eta teknologikorako zerbitzu berriak zehaztuko ditugu.
- Eragile desberdinen arteko itun publiko-pribatuak sustatuko ditugu (tokiko administrazioak, garapen agentziak, merkataritza ganberak, enpresa elkarteak, gizarte eragileak), autonomo eta mikroenpresentzako zerbitzuak bultzatu eta garatzeko.

---

#### 6. EKIMENA: **Pertsona autonomoentzako leihatila bakarra.**

- EAEko eskualde guztietan leihatila bakarra abian jartzea pertsona autonomoen eskura egongo diren laguntza, diru laguntza eta azpiegituri buruz informatzeko.

## 2. KONPROMISOA.

### **HIRIKO MERKATARITZA INGURUAK HOBETZEA: MERKATARITZA HIRIGINTZAREN KUDEAKETA ESTRATEGIKOA.**

---

#### 7. EKIMENA: **EUDELen bitartez, udal ordenantza desberdinak koordinatzea sustatzea eta hurrengo alderdiak helburu izango dituzten Merkataritza Hirigintzaren Kudeaketa neurriak garatzea:**

- Udalerrietan irisgarritasun eta mugikortasun irizpideak ezartzea.
- Karga eta deskarga irizpideak modu arrazionalen arautzea.
- Hornidura eredu berriak garatzea.
- Kaleak soilik oinezkoentzat jartzea, edo "kale partekatu" bihurtzea.
- Aparkalekuak arautu eta eraikitzea.
- Garraio publikoa erabiltzea errazten duten politikak sustatzea.
- Salgaien udal azokak dinamizatzea.
- Herriz herriko salmenta espazioak eta moduak berritzea.
- Lizentziak izapidetzeko prozesuak sinplifikatzea eta erraztea, gure udalerrri eta hirietan enplegua eta bizia sorraraziko duten negozio berriak bultzatzeko.

---

#### 8. EKIMENA: **Udal Merkataritza Kontseiluak ezartzea.**

- EUDELekin eta tokiko erakundeekin elkarlanean, merkataritza mahaiak edo Udal Merkataritza Kontseiluak sustatuko ditugu, honako esparruetan jardungo duten lantalde bate-ratuak garatzeko: merkataritza sustapena eta marketina, merkataritza berrikuntza eta modernizazioa, eta hiriko merkataritza garapena (hirigintza, obrak eta zerbitzuak, irisgarritasuna, aparkatzeko erraztasunak, mugikortasuna, zirkulazioa, garraioak eta espazio publikoa okupatzea).

---

#### 9. EKIMENA: **Merkataritza Orientaziorako Udal Planak sustatzea.**

- Hiriguneetako merkataritza garatzeko planak ezartzea, arreta, batez ere, eskualdeetako herri nagusietan, hirigune historikoetan eta eremu behartsuenetan jarritz.

---

#### 10. EKIMENA: **Hiriko merkataritza zentroetako kudeaketa eredu berriak diseinatzea.**

- BIDak (*Business Improvement Districts*) edo Hiriko Enpresa Ekimenak Sustatzeko Guneak oinarri hartuta, "hiri sustapenerako guneak" abian jartzeko esperientzia pilotuak garatuko ditugu, hiriko gune zehatzen lehiakortasuna eta erakargarritasuna areagotzeko helburuarekin. Hiriko gune hauek tokiko komunitatea, inguruko enpresak eta merkataritza



tzaren interesak batzea ahalbidetzen dute, inguruneko dinamizazio ekonomiko eta komertzialerako, komunikazio, marketin, erakargarritasun eta hiriko espazioa hobetzeko baterako jarduerak garatuz.

---

#### 11. EKIMENA: **Merkataritza Ekipamenduen Lurralde Plan Sektoriala betetzen dela zaintzea.**

---

- Merkataritza establezimendu handien instalazioa mugatzea.
- Indarrean dagoen euskal legedian aurreikusitako mugak betetzea.

### 3. KONPROMISOA.

## **EUSKAL TXIKIZKAKO MERKATARITZA HOBETZEKO ETA INDARBERRITZEKO PLANA ABIAN JARTZEA.**

---

#### 12. EKIMENA: **Merkataritza enpresetan modernizazio ekimenak garatzea.**

---

- Honako esparru hauetan:
  - enpresen produktibitatea hobetzea.
  - kalitatea gehitzea, merkataritza enpresa eraldatzeko eta bikaintasunerako faktore gisa.
  - kontsumitzaileari zuzendutako sari eta zerbitzu berriak sustatzea.

---

#### 13. EKIMENA: **Enpresetarako egokitzapen prozesuak ezartzea.**

---

- Berrikuntza eta modernizazio teknologikoa erraztuz.
- Kudeaketa hobetuz eta online merkataritza, sare sozialak erabiltzea eta tresna teknologikoak baliatzea bultzatuz (QR kodeak, marketin aplikazioak, fideltasuna eta kokapena, smartphonentzako aplikazioak...).

---

#### 14. EKIMENA: **Txikizkako Merkataritza Teknologia Berrietara Egokitzeko Plana.**

---

- Teknologia Berrien Renove Plan berria garatuko dugu merkataritzan.
- Merkataritzako langile eta kudeatzaileei IKTei buruzko prestakuntza eskainiko diegu.

---

#### 15. EKIMENA: **Belaunaldien arteko Ordezkatze Plana.**

---

- Merkataritzan, belaunaldien arteko beharrezko ordezkatze prozesua lagundu eta erraztuko dugu, enpresen jarraitasuna sustatuko duten ekintzen bitartez.
- Bai jabeentzat, bai maizterrentzat, hutsik dauden merkataritza saltegiak alokatzea sustatuko dugu, berriazko sustapen programa baten bidez.

---

#### 16. EKIMENA: **Merkataritzan berrikuntza sustatzea.**

---

- Sektorea profesionalizatzea erraztuko dugu, prestakuntza eta laguntza teknikoa babes-teko berriazko programen bitartez.
- Merkataritza ikerketarako egitasmoak sortzea bultzatuko dugu itun zientifiko-teknologiko eredu berriaren barnean, bikaintasun ikerketak egiteko merkataritzaren sektoreari aplikatutako teknologia berriei lotutako gaitan.
- Merkataritza Berdea bultzatuko dugu, merkataritza sektoreko iraunkortasuna laguntzeko eta sustatzeko tresnen bitartez eta sozialki arduratsuagoak eta ingurumenarekin atseginagoak diren kudeaketa eredu berriak hedatzeko tresnen bitartez: birziklapena, eco-packaging, bidezko merkataritza, EGE, etab.

---

**17. EKIMENA: Enpresen arteko kooperazioa bultzatzeko tresnak erraztea, bai espazio eta lurraldekoa, bai enpresen artekoa. Helburuak honakoak ditugu:**

---

- Merkataritzaren atomizazioak eragindako ondorioak arintzea.
- Lehiakortasuna eta negozioen konbinazioa hobetzeko proiektu bateratuak garatzea.
- Hauen egituren errendimendua erraztea.
- Lankidetzaren hitzarmenak sustatzea merkataritza elkarten federazio eta taldeekin.
- Kooperazio programak bultzatzea honako helburuekin:
- Merkataritza formatuak berrorientatzea.
- Harremana hornitzaileekin.
- Negoziazio prozesu onuragarriak eta erosketak zentralak.

---

**18. EKIMENA: Gure saltegietan kontsumitzea sustatzeko erakunde kanpainak garatzea.**

---

- Hurbileko merkataritzak hurbilen dauden inguruetan eragiten dituen onuren berri ematea: lanpostuei eustea, konfiantza, baztertzalea ez den hirigintza mantentzea...

---

**19. EKIMENA: "Merkataritza txartelen" programak.**

---

- Kultura txarteekin egin bezala, merkataritza txartelen programa bultzatuko dugu, saltegi txikietako kontsumoa dinamizatzeko.

---

**20. EKIMENA: Krediturako sarbidea erraztea.**

---

- Entitateekin eta elkarrekiko berme elkarteekin akordio markoa erraztuko dugu, saltegi txikiek kreditu kontuetara sarbidea izan dezaten baldintza onuragarriekin.

---

**21. EKIMENA: Tokiko euskal merkataritzaren kokalekua indartzea.**

---

- Irudi kanpaina berriak eta EAEko merkataritza sustatzeko kanpaina berriak abiaraziko ditugu, bereziki hurbileko merkataritzan, bai Administrazioetik bertatik, bai sektoreak berak sustatutako ekintza zehatzetan kolaboratuz.
- Saltegi txikien irudia indartuko dugu, erakartzeko eta turismoa garatzeko faktore garrantzitsu gisa.
- Merkataritza Hobetzeko eta Orientatzeko Planak bultzatuko ditugu, degradatutako guzuetan, eskualdeetako herri nagusietan eta hirigune historikoetan arreta berezia jarritz.

#### 4. KONPROMISOA.

### **PRESTAKUNTZA, MERKATARITZA PROFESIONALIZATzea ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ORDEZKATZE PROZESUA BABESTEA, BAITA ELKARTEGINTZA ERE.**

---

**22. EKIMENA: Merkataritzari laguntza teknikoa eskaintzeko programak garatzea.**

---

- Laguntza teknikoa eskaintzeko programak prestatuko ditugu, bai "merkagune" zonaka kooperatzeari lotutakoak, bai "elkargune" sektoreka kooperatzeari lotutakoak.

---

**23. EKIMENA: Elkartegintza babesteko neurriak sustatzea.**

---

- Gure ahaleginak enpresen arteko kooperazio tresna berriak erraztera bideratuko ditugu, merkataritza elkarten federazioekin eta taldeekin lankidetzaren hitzarmenak sinatuz. Horrez gain, elkartegintza lagunduko dugu honako ekintza desberdinen bitartez:
- Merkataritza sektorea elkartegintzaren alde sentsibilizatzea.
- Elkarteek merkataritza babesteko prestatutako programetan ageriko diskriminazio positiboa.
- Erakundeek jada existitzen diren elkartei balioa ematea.

---

**24. EKIMENA: Merkatarien arteko elkarguneak erraztea.**

---

- Foro egonkorak abiaraztea esperientzia arrakastatsu eta berritzaileak transmititu eta ikasteko, eta berrikuntza eta kideen lehiakortasuna hobetzeko zentroetan.

**5. KONPROMISOA.****MERKATARITZA ARAUTZEN DUEN MARKO BERMATZAILEA EGUNERATZEA BABESTEA, LANKIDETZAREN BITARTEZ ETA SEKTOREA ADITUZ.**

---

**25. EKIMENA: Euskadiko Merkataritzaren Kontseilua osatzea.**

---

- Kontseilu hori sortzea sustatzea, sektorearen interes orokorren defentsan elkarrekin lan egiteko.

---

**26. EKIMENA: Euskadiko Merkataritzarako Aholkularitza Batzordea eguneratzea.**

---

- Euskal Merkataritza Sektorearen indarra eta dinamismoa berreskuratzen laguntzen duten erakundeak eta/edo eragile publiko-privatu adierazgarriak sartzea.

---

**27. EKIMENA: Autonomia Estatutuak merkataritza kontuetan aurreikusten dituen eskumen osoak eta eskusiboak defendatzea.**

---

- Oinarrizko lege gisa inposatu nahi diren neurri liberalizatzaileak onartzeko behararen aurka jardungo du EAJ-PNVk. Gernikako Estatutuan merkataritza kontuetan aurreikusitako eskumen osoen eta eskusiboen defentsari eutsiko diogu.

**6. KONPROMISOA.****KONTSUMITZAILEAK BABESTEA.**

---

**28. EKIMENA: Kontsumitzaileak babestu eta informatzea.**

---

- Kontsumitzailea aktiboki defendatzea sustatuko dugu, informazio eta prestakuntza ekin-tzen bitartez.
- Kontsumitzaileei merkataritza modalitate berriei buruzko informazioa, prestakuntza eta hezkuntza ematea bultzatuko dugu.
- Erakundeei sustapen eta laguntza berezia eskainiko diegu kanpainak abiaraz ditzaten merkataritza arduratsua, merkatu soziala eta iraunkorra eta bidezko merkataritza gaitzat hartuta.
- Pertsona kontsumitzaileen elkartearen eginkizuna zabalduko dugu eta hauek eskainitako zerbitzuak hedatzen lagunduko dugu (osoko aholkularitza juridikoa, hitzeko epaiketetara bertaratzera...).
- Bezeroen arretarako eta enpresak fidelak izateko sistema berriak txertatzea sustatuko dugu, baita kontsumo gaitetako gatazkak konpontzeko berezko mekanismoak sartzera ere (bezeroa defendatzeko zerbitzu zentralizatuak).
- Merkataritzan kalitatea garatzea eta sustatzea bultzatuko dugu, sektorerako berariazko arauak diseinatuz eta garatuz.
- Merkatuan gertatutako praktika txarren gaineko kontrola areagotuko dugu, ikuskapen kanpainetan tokiko erakundeak inplikatur, baita banaketa enpresa handiak ere, produktu ez seguruak bazter ditzaten.

## 7. KONPROMISOA. EKONOMIA SOZIALA SENDOTZEA ETA SUSTATZEA.

### 29. EKIMENA: **Ekonomia Soziala sustatzea.**

- Euskadiko Ekonomia Sozialeko enpresak elkartzeko egiturak sortzea eta sendotzea babestuko dugu, berariazko laguntza programa abian jarritz.
- Mugimendu kooperatiboa sustatzeko aurrerapausoak ematea bilatuko dugu, Kooperatiben Kontseilu Gorenaren eta Ekonomia Sozialeko sektorearen gizarte eta erakunde ordezkartzaren funtzioak indartuz.
- Laguntza berezia eskainiko dugu zailtasunak dituzten edo krisian dauden sektoreetan diharduten enpresei zuzendutako Berreskuratze Planen bitartez.
- Herritarrak sentsibilizatzeko programa berriak sustatuko ditugu Ekonomia Sozialetan kontuetan, eta bereziki, hezkuntza kontuetan, irakasleen prestakuntza bultzatuz eta curriculumean kontsumo arduratsurako hezkuntza, gizarte ekintzailtza eta ekintzailtza solidarioa, finantza etikoak, bidezko merkataritza eta abarri lotutako edukiak sartuz.
- Gure gizartearen erronka sozialei aurre egiteko estrategia berritaille berriak definitu, lagundu eta abian jarriko ditugu, ikuspuntu sistematiko baten bitartez.

### 30. EKIMENA: **Ekintzailtza babestea Ekonomia Sozialean.**

- Berrikuntza eta gizarte ekintzailtza sustatzea, jada dauden laguntzak indartuz eta berri-tuz, eta laguntza ildo berriak martxan jarritz.
- Gizartearen espirtu ekintzailtza babestuko dugu eskolatik, gizartearen aintzatespena eta gizarte ekintzailtzearen irudia sustatuz.
- Ekonomia Sozialaren sektorean ekintzailtza garatzea indartzen saiatuko gara, finantza-ke-tarako sarbidea erraztuko duten tresnak sortuz eta enpresa mota hauek laguntzak eskuratzeko dituzten zailtasunak ezabatuz.

### 31. EKIMENA: **Ekonomia Sozialeko enpresak elkartzea sustatzea.**

- Ekintzak, bitartekaritza egitasmoak eta pizgarri fiskalak abiaraziko ditugu enpresak biltzea erraztu eta sustatzeko, Ekonomia Sozialeko enpresak hazteko eta aukera berriak baliatze-ko mekanismo gisa.

### 32. EKIMENA: **Ekonomia Sozialeko kooperazioa laguntzea.**

- Ekonomia Soziala sustatuko dugu elkarlanerako kooperatibekin eta lan sozietate anoni-moekin lankidetzan jardunez, eta Ekonomia Sozialeko enpresa berriak sortzea bultzatuko dugu.
- Ekonomia Sozialean kooperazioa eta berrikuntza babesteko berariazko programak sus-tatuko ditugu, jada dauden ekimenak indartzeko eta esperientzia berriak abian jartzeko.



## ENPLEGUAREN ALDEKO EUSKADI

ENPLEGUA,  
GURE LEHENTASUNA

AUTONOMOAK, SALTEGI  
TXIKIAK ETA EKONOMIA  
SOZIALA

GARAPENERAKO  
ETA ENPLEGURAKO  
AZPIEGITURAK

## PRINTZIOAK

- Garraioaren azpiegiturak hazkunde ekonomikorako eta lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko beharrezkoak diren elementuak dira.
- Euskal administrazioek Euskadiko garraioen azpiegiturak hobetu eta modernizatzeko egindako inbertsio-ahalegina oso garrantzitsua izan da eta euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzen, lurraldea egituratzen, enpresen lehiakortasuna hobetzen eta garapen iraunkoragoa lortzen lagundu du.
- Ez da inbertitzea besterik ez, ondo inbertitzea baizik, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik, iraunkortasun eta errentagarritasun handiena duten garraiobideen azpiegiturei lehentasuna emanez.
- Neurri zehatzak hartu behar ditugu krisiari aurre egiteko, eta ez bakarrik epe motzean. Horregatik, azpiegituren aldeko eraginak ekoizkortasunaren arloko hobekuntzekin eta agente ekonomiko ezberdinen eta herritarren kostuen murrizketarekin batera agertu behar dira. Azpiegiturek gizarte ongizatean laguntzen dute gizarte onurak gizarte kostuak baino handiagoak direnean eta, zentzu horretan, mugikortasunaren kostua murrizten, petrolioarekiko mendekotasuna gutxitzen, berotegi efektuko gas-isurketak txikitzen eta herritar guztien bizi-kalitatea hobetzen lagundu behar dute. Bestalde, benetan beharrezkoak diren azpiegiturak zehaztea beharrezkoa da, lehentasun eta eraginkortasun irizpideekin. Beharrezkoak diren azpiegiturak, bideragarriak izateaz gain, denboran moldagarriak eta inbertsio osagarriak jasateko gai izan behar dira.
- Azpiegiturek eragin zuzena dute lurralde eta hiri garapenetan, eta alderantziz. Lurzorua erabiltzeko politika mugikortasun beharren hazkundearen eta ibilgailu pribatuaren erabileraren hazkundearen erantzule da; beraz, hiri eta ekonomia garapeneko lurralde politikak mugikortasun politikekin bateratu behar dira. Lanpostuetarako, kultura, osasun edo hezkuntza intereseko guneetara... heltzea erraztu behar da ahalik eta ingurumenarekiko eragin txikienarekin, mugikortasun iraunkorarekin, kostu gutxiagorekin eta modu fidagarri eta zurrean.

- Euskadik, gainera, mugikortasun handia hartzen du, barne eskaeratik zein kontinenteko iparralde-hegoalde eta penintsulako ekialde-mendebalde iragaite mugikortasunetik datorrena; izan ere, fisikoki Europako Arku Atlantikoko "funtsezko kate-mailan" dago. Horregatik, mugikortasuna garraio iraunkorreko erantzunekin kudeatzea beharrezkoa da, garraio sistemaren oreka handiagoa, garraio ziurra, prebentziozkoa eta kalitatezkoa erdietsiz.
- EAJ-PNVk pertsonen mugikortasun fisiko eta profesionalaren beharrei erantzun hobekak emateko lan egingo du, Euskal Herrian lan merkatu zabalago baten garapena sustatuko duten erantzunak.
- EAJ-PNVk garraio azpiegiturak Euskadira ekartzeko lehenetsiko du: portuak, aireportuak, trenbideak eta AP-68 autobidea, garraiobide mota guztiak eraginkortasunez garatu eta kudeatu ahal izateko; izan ere, denboran zehar, Euskadin eta Euskaditik hobeki kudeatzen dela bermatu da.
- Azpiegiturak euren zerbitzuean dauden herritarrak kontuan izanik diseinatu eta kudeatu behar direla ziur gaude eta, horretarako, ez dago euskal administrazioak baino erakunde aproposagorik, zerbitzua eskainiko dutenak, diseinu, garapen eta kudeaketa alorretan eskumenak dituztenak.



- Printzipio horien babesean honako **konpromiso eta ekimena hauek** garatu behar ditugu:

## 1. KONPROMISOA. LURRALDE EREDU IRAUNKORRA GARATzea, EUSKADIKO BEHARRETARA EGOKITUTAKO AZPIEGITURA LEHIAKORREKIN.

### 1. EKIMENA.- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) berrikustea EAEn barneratuta dagoen lurralde estrategia globala garatzeko.

- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen eguneratzea bultzatzea, lurraldea garatzeko helburu hauek argi jaso daitezten:
  - Pertsonentzako eremuak berreskuratzea (arreta pertsonengan jartzen duen hirigintza).
  - Lurralde oreka bultzatzea, erabilera mistoko hiri-eremuak eraikiz.
  - Lurraldearen elkarrekiko lotura sustatzea, kalitatezko bide eta trenbide sareen bidez.
  - Inguruan ederki barneratutako ekonomia-jarduerako zonaldeen garapena bultzatzea.
  - Hondaturik dauden zonaldeak berreskuratzea.
  - Aldez aurretik dauden azpiegiturak berreskuratzea, eremu berriak erabili behar izan gabe.
  - Mugikortasun iraunkorrerako aukera ematea.

### 2. EKIMENA.- Euskadiko lurralde oreka sustatzen duten azpiegituren eraikuntza bultzatzea.

- Mugikortasun iraunkorreko sistema baten garapena sustatzea kalitatezko trenbide garraioaren oinarriaren gainean, inguru ezberdinen beharretara egokituz eta errepide bidezko garraio zerbitzu on, fidagarri eta eraginkor batekin osatuz.
- Aldiriko tren zerbitzuaren kudeaketaren alorrean eraginkortasuna hobetzea, maiztasun kopurua handituz.

### 3. EKIMENA.- Enpresen lehiakortasuna sustatzen duten azpiegituren eraikuntza bultzatzea.

- Enpresen beharrak asetzen dituzten inbertsio berriak planifikatu eta programatzea, betiere lehiakortasunaren muina errespeturik handienarekin, ingurumeneko neurri zuzentzaileekin eta lurzorua eta lurraldearen erabilera egoki eta sakabanatze orokorrarekin bateratuz.
- Enpresen nazioartekotzea sustatzen duten azpiegitura eta zerbitzu sare baten eraikuntza eta garapena bultzatzea.

### 4. EKIMENA.- Euskadiko turismo jarduera bultzatzen duten azpiegitura berrien garapena sustatzea.

- Garraio sistemaren garapena eta balioztatzea sustatzea Euskadiko turismoa bultzatzeko tresna gisa.
- Turismoaren arloko azpiegitura berrien garapena babestea gizarte eta ekonomia garapenerako tresna gisa eta horien barneratzea sustatzea garraio zerbitzu fidagarri eta eraginkor batekin.

### 5. EKIMENA.- Garraibide iraunkorren erabilera bultzatzen duten azpiegituren garapena sustatzea.

- Une honetan dagoen sareari lotutako bidegorri eta bide berde kilometro berrien sorrera sustatzea, Euskadi iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera bizikletarentzat gordetako bideetatik zeharkatu ahal izateko.

- Kotxe elektrikoaren erabilera sustatzea karga gune berriak ezarriz.
- 6. ekimena.- Lurzoruaren erabilerari eta plangintzari buruzko politikak handitzea garraio beharrak kontuan hartuta gizarte, ekonomia eta ingurumenari dagokionez lurralde iraunkorragoa diseinatu ahal izateko.
- Ondorio horretarako, lurralde antolamenduaren eta garraio sistemen plangintza integral baten garapena proposatzen dugu.

## 2. KONPROMISOA.

### ZORROZTASUNA AZPIEGITURA PROIEKTUEN PLANGINTZAN ETA GARAPENEAN.

#### 7. EKIMENA: Barneko eta kanpoko kostuen aldez aurretiko ebaluazioa egitea azpiegitura berrietan inbertsioen inguruko erabakiak hartzeko prozesua gidatzeko.

- Arrazionaltasun handiagoa gaineratzea eta adostasun gehiago lortzea garraio azpiegiturei buruzko inbertsio publikoaren alorreko erabakietan.
- Garraio azpiegituren proiektu orok bideratu beharreko proiektua eta inbertsioa justifikatzen duen kostu/onura azterketa osoa izango du. Eta inbertsio orok bideragarritasuna bermatzen duen finantza plana izan beharko du.

## 3. KONPROMISOA.

### GARRAIO POLITIKA KOORDINATUA.

#### 8. EKIMENA: Euskadiko garraio politikaren plangintza eta antolamendua koordinatzea.

- Garraioa koordinatzen duten Lurralde Agintaritzak sustatzea eta garatzea.
- Garraioaren enpresa sektorearekin, ekoizpen sektorearekin eta gizartearekin orokorrean adostutako garraio iraunkorreko politikak babestea.
- Garraio Behatokia (OTEUS) sustatzea gizarte guztiarentzako informazio sistema publiko gisa.
- Garraioaren bilakaeraren noizbehinkako etorkizuneko simulazioak eta diagnosiak egitea komunitate barneko eta kanpoko esparruan.
- Udalekin eta EUDELekin lankide jardutea mugikortasun iraunkorreko praktikak garatze aldera.

#### 9. EKIMENA: Garraio Iraunkorraren Plan Zuzendari berria onestea 2013-2020 epealdirako.

- Eusko Jaurlaritzak 2002an onetsitako plana, 2002-2012 eperako "Euskadiko Garraioen politika komuna" ezari zuena, ebaluatu eta berrikusteko prozesuari ekitea.
- 2020ko testuinguruan euskal erakundeek garatu beharreko garraio politikaren inguruko erakunde arteko adostasun politiko handia lortzea.
- Ekonomia, gizarte eta ingurumenaren ikuspuntutik garraio sistema iraunkorra garatzeko erreferentziatzko esparrua ezartzea.

#### 10. EKIMENA: Mugikortasun eta zerbitzu eskaera kudeatzeko sistemak abian jartzea.

- Garraio Sistema Adimendunak (GSA) sustatzea trafikoen kudeaketan hiri, metropoli, eskualde eta herrialdeko esparruan.
- Garraio iraunkorrari buruzko informazio sistema herritar guztien eskura jartzea.
- Trenbide, metro eta tranbia geltokien inguruan aldirietako aparkalekuen garapena sustatzea.

---

**11. EKIMENA: EAE guztian abian jarri nahi diren garraio publikoaren arloko zerbitzuak zehaztea.**


---

- Garatu beharreko azpiegitura berriak eta egun daudenentzako hobekuntzak identifikatzea.
- Ordutegi koordinatu eta integratuko egitura definitzea, informazio sistema eraginkorrekarekin EAEko lurralde guztietan.

---

**12. EKIMENA: EAE guztian Txartel Bakarra abian jartzea garraiobide publiko guztietarako.**


---

- Lurralde Garraio Agintaritzekin eta Euskadiko Garraio Agintaritzarekin batera, tarifa politika bakarra ezartzea, garraio publikoaren erabiltzaileen fideltasuna lortze aldera.

#### 4. KONPROMISOA. "EUSKAL Y-a" TRENBIDE SARE BERRIAREN GARAPENA.

---

**13. EKIMENA: "Euskal Y-a" trenbide sare berriaren gauzapena babestu eta sustatzea, paisaia, ingurumen eta gizarte alorretan integratuko dela bermatuz.**


---

- Euskal Y-a ezarritako epeen arabera burutzeko prozesua sustatzea eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko geltokietara heltzeko proiektuak garatzea.
- Trenbide sare berriaren geltokien garapen intermodala sustatzea.
- AHTaren geltokiak zehaztea, formatua, egitura, zerbitzuak eta lotura intermodalak.

---

**14. EKIMENA: Nafarroa eta Frantziarekiko lotura sustatzea.**


---

- "Euskal Y-a" Nafarroarekin lotzeko adarraren gauzapena bultzatzea.
- "Euskal Y-a" Hendaia-Paris abiadura handiko sarearekiko loturaren gauzapena bultzatzea.

---

**15. EKIMENA: Intercity zerbitzuak Eusko Jaurlaritzak egitea.**


---

- EAE barneko garraio zerbitzuak (eskualde artekoak) Eusko Jaurlaritzak eta horren enpresa publikoek planifikatu eta eskainiko dituzte.
- Trenbide sare berrian garatu beharreko eskualde arteko eta nazioarteko zerbitzuen plangintzan parte hartzea.

#### 5. KONPROMISOA. EUSKADI-AKITANIA KOMUNIKAZIOA HOBETZEA.

---

**16. EKIMENA: Komunitateez gaindiko garraio politikak garatzea.**


---

- Akitaniarekin garraioaren kudeaketa, koordinazio eta baterako plangintzan lankidetzan aritzea.
- Akitaniako tokiko eta eskualdeko agintaritzekin lankidetzan aritzea Hondarribia eta Biarritzeko aireportuen zerbitzu-eskaintza hobetzeko eta osatzeko.
- Donostia eta Baiona arteko trenbide garraioko zerbitzuak sustatzea.
- Euskadi-Akitania kirol portuen eskaintza eta zerbitzuen baterako sustapena.

---

**17. EKIMENA: Bilbo-Bordele komunikazio ardatza garatzea eta finkatzea garraioen Atlantikoko Europa barneko sare funtsezko kate-maila gisa.**


---

- Erakunde arteko lankidetzaren mekanismoa bateratuak ezartzea Europar Batasunaren aurrean dauden interes komunen defentsarako.

## 6. KONPROMISOA. GARAPEN LOGISTIKOA ETA MERKATUGAIEN GARRAIOARENA.

### 18. EKIMENA: Merkatugaien Garraiorako Sare Intermodal eta Logistikoaren Sistema.

- Lurralde politikan sare intermodal eta logistikoaren sistema gaineratzea.
- Garraio bateratuaren eta logistikaren garapena babesteko egitarauak sustatzea.
- Balio gaineratua duten proiektu logistiko berritzaileak babestea.
- Lezo eta Jundizeko plataforma logistikoak sustatzea.

### 19. EKIMENA: Euskal portuekiko trenbide loturak.

- Bilbo Metropolitarrako hegoaldeko trenbide saihesbidearen eraikuntza sustatzea, Estatuarekin egindako hitzarmenaren bidez, "Euskal Y-a" eraikitzeke hartutakoa bezalaxe.
- Lankidetzeta publiko/pribatua sustatzea Bilbo, Pasaia eta Bermeoko portuetan merkatugaiak sartu eta ateratzeko trenbide zerbitzuen garapenean.
- Pasaia portua Hendaiarekin lotzeko proiektuaren gauzatzea sustatzea UIC zabalerako trenbide sare baten bidez.

## 7. KONPROMISOA. HIRIKO, METROPOLIKO ETA HIRIARTEKO TRENBIDE SISTEMAREN GARAPENA.

### 20. EKIMENA: Bilboko metropoli-trenbidea.

- Metroa Urdulizen barneratzea.
- 4. eta 5. lineen garapena.

### 21. EKIMENA: Trenbide sistemaren garapena.

- Txingudiko Tranbiaren proiektuaren garapena.
- Bilboko tranbia sarearen hedakuntza.
- Gasteizko tranbia sarearen hedakuntza.

### 22. EKIMENA: Gipuzkoan Euskotrenaren metrizazioarekin jarraitzea.

- Banatze berrien garapenak, geltokietako inbertsioak eta Donostiako trenbide igarobidea sustatzea.

## 8. KONPROMISOA. EUSKADIRENGATIK ETA EUSKADIRENTZAT DISEINATUTAKO AIREPORTU-EREDUA.

### 23. EKIMENA: Estatuari euskal aireportuen transferentzia eskatzea euskal aireportu-sistemaren kudeaketa deszentralizatuko eredia bideratzeko.

- EAeko hiru aireportuak Euskaditik kudeatzea.
- Biarritz eta Noaingo aireportuekin lankidetzan aritzea aireportu zerbitzuen osagarritasunari dagokionez.

### 24. EKIMENA: Aireportu-azpiegituren eta Euskadiko garraio sistemaren -bai trenbide sistema bai autobus zerbitzu eraginkor eta fidagarria- arteko lotura sustatzea.

- Aireportu azpiegituren garapen intermodala sustatzea.
- Estuari eskatzea Euskadin Aireportuko Kontrol Zentro bat sor dezan, EAJ-PNVk Eusko Legebiltzarrean eta Batzorde Nagusietan aurkeztutako proposamenei jarraiki eta Euskadiko aire-kontrolatzaileen eskaerekin bat eginez.

## 9. KONPROMISOA. EUSKAL PORTUAK SUSTATZEA.

### 25. EKIMENA: Portu Agintaritzak Bakarra sortzea Pasaia eta Bilboko euskal portuetarako.

- Bilbo eta Pasaia portuen kudeaketa Eusko Jaurlaritzara bideratzea eskatuko dugu.
- Bi portuen kudeaketa bultzatzea agintaritzak bakar baten pean, biek area logistikoekin eta trenbide sistemarekin batera lehiatu eta lankidetzan aritu daitezela. Helburua isurialde atlantikotik Europa guztirako eskaintza lehiakorra finkatzea eta Hegoamerikarantzko zein Europako iparralderantzko garraioa bultzatzea da.
- Plan Estrategikoa bat proposatzea Portu Agintaritzak Bakarra sortu ondorengo egoera berriari erantzuteko (Europa barneko sareak, krisi ekonomikoa, bateratzeko aukerak...).

### 26. EKIMENA: Euskal portuak sustatzea.

- Euskadiko Portuei buruzko Legea onestea.
- Portuen Lurralde Plan Sektorial berriaren idazketa amaitzea eta Plan Bereziaren -halakorik ez duten portuetan- eta portu bakoitzeko Erabilera Planen antolamendua garatzea.

### 27. EKIMENA: Euskal portuen azpiegiturak hobetzea.

- Ondarroako portuaren hazkundea eta lonjaren eraikuntza garatzea.
- Debaren ezkerreko ertzean kirol-dartsena berri bat eta Bermeoko porturako ibilgailu-sar-bide berria eraikitzea.
- Mutrikuko portuko obrak amaitzea arrantzarako eta ur-kiroletarako erabilera sustatze alderara.

### 28. EKIMENA: Pasaia portuaren garapena.

- Pasaia portuaren bideragarritasun eta kudeaketa ereduaren azterketa Gipuzkoako Lurralde Historikoak unekoak dituen mugen mende egongo ez den merkataritza portu bat izan dezan.
- Iparraldeko eta mendebaldeko La Herreraren portu-erabilera indargabetzea.
- Lezo-Gaintzurizketa intermodala eraikitzea.
- Pasaia badia leheneratzea.

## 10. KONPROMISOA. AZPIEGITURA ADIMENDUNAK DINAMIZATZEA.

### 29. EKIMENA: Azpiegitura adimendunen sarea sustatzea eragile pribatuen lankidetzarekin.

- 2.0 azpiegiturak edo azpiegitura digitalak deiturikoen garapena erraztea eta sustatzea.
- e-konektagarritasunean aurreratzea: sare adimendun berriak, abiadura handiko Internet ...
- Datuak prozesatzeko zentro berrien sorrera bultzatzea, 'cloud-computing' zerbitzuak eskaini ahal izateko. Euskal enpresa eta garatzaileen hodei zerbitzuen erabilerearekiko eza-gutza eta prestakuntza sustatzea.





EUSKADI BERPIZTU

## EKONOMIA PRODUKTIBOAREN ALDEKO EUSKADI

---

- 7. INDUSTRIA POLITIKA BERRESKURATZEA
- 8. EKINTZAILEEI ETA ENPRESA BERRIEI LAGUNTZEA
- 9. BERRIKUNTZA, GURE ETORKIZUNAREN GILTZA









## EKONOMIA PRODUKTIBOAREN ALDEKO EUSKADI

INDUSTRIA POLITIKA  
BERRESKURATZEA

EKINTZAILEEI ETA ENPRESA  
BERRIEI LAGUNTZEA

BERRIKUNTZA, GURE  
ETORKIZUNAREN GILTZA

### PRINTZIPIOAK:

- Euskadi Espainia baino hobeto ari da krisia jasaten, batez ere, iraganen EAJ-PNV buru zuten gobernuek garatu zituzten estrategiei esker.
- 80. hamarkadan abian jarri zen euskal ekonomiaren modernizazioaren aldeko apustuak dibertsifikazio ekonomikoa ahalbidetu zuen, sektoreetako krisien aurrean horren ahul ez izateko eta, aldi berean, gure enpresen teknifikazioa eta balio-sortzea, kualifikatutako pertsonen txertatzea eta nazioartekotze-prozesu geldiezina sustatu zituen.
- Gaur egungo inguruabarrek eta krisitik arrakastarekin ateratzeko beharrak hau eskatzen diote Euskadiri: haren industria espiritua berreskuratzea eta ekonomia produktiboarentzako laguntza irmoa ematea.
- Beharrezkoa den enplegu mailen berreskuratzea lortzeko Euskadik erronka handi bati aurre egin behar dio: lehiakortasunari. Gure enpresen eta euskal ekonomia osoaren lehiakortasuna, erakunde, gizarte eta ekonomia eragile guztiak barne hartuz. EAJ-PNVk gure lehiakortasuna hobetzearen alde egin du, betiere, helburu hori euskal gizartearentzat oinarritzkoak diren iraunkortasun eta gizarte babeserako printzipioekin bateragarria dela ulertuta.
- EAJ-PNVk uste du bere industria politikaren eredia berreskuratzeak enpresak ezarri behar dituela ardatz nagusi gisa, haiek baitira jardura eta enpleguen sorreraren arduradun nagusiak. Halaber, ulertzen du botere publikoei enpresek eratzeko eta garatzeko aukera eduki dezaten egokia den ingurunea, testuingurua eta baldintzak ezartzea dagokiela.
- Gure industria politikari lotutako programen helburua hauxe izango da: enpresei laguntzea eta jardura sustatzea garapen sozioekonomikoaren alorreko estrategia gisa. EBko 2020 Estrategia aintzat hartu beharreko erreferentzia da.
- Gure kulturarekin eta gure tradizioarekin bat datorren politika bultzatu behar dugu, ekonomia produktiboaren aldeko apustua eginez herrialdearen garapen ekonomiko iraunkorraren oinarri gisa.

- Modu berean industria politikak hauxe bete behar du:
- Enpresei modernizazio eta mantentze prozesuan laguntzea, bereziki, gero eta helduagoak diren eta industria sektoreen barruan dauden manufaktura-enpresa horiei.
- Trakzio-sektoreetan, iraunkorrak eta EAerentzat interesgarriak diren horietan, enpresa berrien sustapenari eta sorrerari laguntzea. Euskadiko trakzio-enpresen alde egitea; izan ere, enplegu induzitu eta kalitatezko enplegu gehien sortzen duten enpresak dira eta euskal ekonomiak nazioartekotzeko dituen aukerak areagotzen dituzte (start-up deritzenak).
- Ezagutzari, berrikuntzari eta laguntza ekonomikoari lotutako jarduera produktiboen aldeko apustua egitea, bai eta merkaturatze aurreratuaren aldekoa ere.
- Ekintzailetza-berrikuntza binomioa balio kultural gisa berreskuratzea eta, aldi berean, haren gizarte balorazioa suspertzea.
- Kalitate altua duten eta teknologikoki aurreratuak diren produktuak egiteko aukera ematen duten produktuetan eta merkatuetan oinarritutako produkzio eta espezializazio teknologiak erabiltzea, sektore espezializatuentzat eta berritzaileak diren produkzio prozesuak erabiliz.
- Enpleguak gora egin dezan, erakundeen laguntza duen ekonomia lehiakorra behar da. Euskadik frogatu du industria politikako eredu tinko batekin, epe luzeko ikuspegiarekin lan egiten duena, enplegu, aberastasun eta ongizate maila handitu daitekeela.
- EAJ-PNVrentzat industriaren gainean dugun jakintza, gure ezagutza teknologikoa, lurraldea bera eta gure ingurune naturalaren ezaugarriak, bai eta Euskadirentzat lehentasunezkoak diren sektoreak zehazteko eta modu berezian horiei laguntza emateko aukera ematen duen antolamendu ekonomikoa eratzeko dugun ahalmena ere, oso oinarri sendoak dira eta horiei esker industria politika propioa berreskuratuko dugulakoan gaude.

- EAJ-PNVk industria politikaren eredu propioa berreskuratu nahi du ondorengo KONPROMISO ETA EKIMENEN bitartez:

## 1. KONPROMISOA LEHIAKORTASUNAREN ETA INDUSTRIA POLITIKAREN EREDU PROPIOA BERRESKURATZEA.

### 1. EKIMENA: **Ekonomia produktiboan oinarritutako industria politikaren eredu propioa berreskuratzea.**

- EAJ-PNVtik industria politika berreskuratzea defendatu nahi dugu gure garapen ekonomikoaren lehiakortasuna, dibertsifikazioa eta produktibitatea eta balio erantsiaren sorrera hobetzeko.
- Horretarako, lehiakortasun globalaren politika berriro formulatuko dugu, euskal garapen ekonomikorako beharrezkoak diren zientzia, teknologia eta berrikuntza, nazioartekotzea, prestakuntza eta beharrezkoak diren azpiegituren estrategia elkartu ditzan. Lehiakortasun politika hori aldundiekin eta tartean dauden gainontzeko eragile ekonomiko eta sozialekin kontrastatuko da.

### 2. EKIMENA: **Berrikuntza sustatzea sektore estrategikoetan.**

- Sektore estrategikoetan aukerak eta erronka berriak identifikatzea, gure enpresentzako aukera-nitxo errealak zehaztuz.
- Ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan jarduera berriak sustatzea, laguntza estrategia integralak barne hartzen dituzten ekimen publiko-pribatuen bitartez.
- Teknologia berrien erabilera bultzatzea, horien garapena gure produkzio egituraren sektore tradizionalen beharrei eta aurrerapenei lotuz.

### 3. EKIMENA: **Produktibitatea hobetzeko eta enplegua sortzeko lehiakortasun politikak garatzea.**

- Euskal enpresa talde eta/edo korporazioen alde egitea, produktu sorta zabalagoak eta sofistikatuagoak, balio-kate luzeagoak dituztenak, eskaintzeko helburuarekin. Partzuegoak, itunak eta bat-egiteak sustatzea nazioarteko merkatuan euskal enpresen dimensio egokiagoa eta lehiakorragoa lortzeko.
- Ikuspegi partekatua eta interesa duten alderdi guztien erantzukizuna aintzat hartuta, parte hartzean eta lankidetzan oinarritutako enpresa-eraldaketaren euskal ereduaren garapena bultzatzea.
- Kudeaketa aurreratua sustatzeko programak ezartzea, kalitatea eta hobekuntza etengabea bermatzetik harago doazenak, enpresak ingurunearekin batera eboluzionatzen duela bermatzeko.
- Pertsonen eta erakundeen ahalmenak eta ikaskuntza indartzea, berrikuntzarako beharrezkoak diren eskumenak lortze aldera. Horrez gain, zuzendaritza-garapena eta nazioartekotze-prozesuei lotutako gaitasunak bultzatzea.
- Espezializazioko jarraibide berriei erantzuten dien industria-azpiegitura politika garatzea, lokalizaziotik harago, balioa sortzeko lagungarria dena.
- Berrikuntzari, balio erantsia sortzeari eta enpresa-garapenari laguntzea, administrazio publikoarekin "programa-kontratua" formula zabalduz.
- Dagokion Enpresa Lehiakortasun Planean EAEko Laguntzen Mapa sartzea, politikak erakundeen artean integratzeko eta informazioa emateko erabili ahal izateko.
- Enpresen finantza eta lehiakortasun ahalmena indartzeko eta enpresek berrikuntzarekin, enpleguarekin eta nazioartekotzearekin duten konpromisoa sendotzeko zerga-politika bultzatzea.

---

#### 4. EKIMENA: Enpresei modernizazio eta sostengatze prozesuan laguntzea, bereziki, gero eta helduagoak diren teknologiak eta prozesu produktiboak dituzten manufaktura-enpresei.

---

- “Smart factoring” kontzeptua sustatzea. Horrela, produkzio berritzailearen bidez kalitatezkoak diren eta teknologikoki aurreratutakoak diren produktuak egin ahalko dira sektore espezializatuentzat.
- Industria-egituraren lehiakortasuna hobetzeko teknologia berriak erabiltzen dituzten produktu, sistema edo prozesu berrien ikerketa eta garapena bultzatzea.

---

#### 5. EKIMENA: Euskadiko trakzio-enpresei laguntza ematea.

---

- Trakzio-enpresei balio erantsia, enplegu induzitua eta kalitatezko enplegua sortzeko egin-kizunean laguntzea.
- Enpresa horien lehiakortasuna bultzatzea, euskal ekonomiaren nazioartekotzeari eta hornitzaile-katearen dinamizazioari laguntzeko duten ahalmena indartzeko.

---

#### 6. EKIMENA: Euskal enpresen eta lurraldean dituzten erabaki-zentroen mantentzea babestea.

---

- Euskal enpresak lurraldean errotu daitezten laguntzeko tresna berriak definitzea, jabetza-ren konpromisotik, zientzia eta teknologiarekin eta balio-katearekin integratuz. Modu horretan, krisi-garaietan, ez dute doikuntza-rolik izango atzerriko konglomeratuen barruan.

---

#### 7. EKIMENA: Gizarte, ekonomia eta industria garapenean lurralde eta eskualdeen arteko oreka handiagoa sustatzea.

---

- Industriadagokionez ahulak diren eremuak edo industria birsortze prozesuan dauden eremuak dinamizatzeko laguntza plan bat abian jartzea.
- Telekomunikazio, energia, teknologia eta garraio azpiegitura berrien garapena sustatzea. Horiek euskal enpresen zerbitzura dagoen lehiakortasuna handitzen dute eta, eskualde ikuspegitik, garraioaren eta komunikazioaren ondoriozko kostuak optimizatzen dituzte.
- Industria lurzorua garapena areagotzea eta erabiltzen ez den industria lurzoria lehen-goratzeko, enpresa produktu berriak bultzatzeko.
- Administrazio guztiek kudeaketa-praktika egokiak finkatzea, jarduera ekonomikoari eustea bermatzeko eta espekulazio-ahaleginak eta deslokalizazioarekin lotutako enpresa-erabakiak prebenitzeko.

## 2. KONPROMISOA CLUSTER POLITIKA BERRABIARAZTEA.

- 1990. hamarkadatik aurrera EAEn garatutako cluster politikak ospe handia dauka eta zalantzan jarri ezin diren emaitzak lortu ditu. Aurrerapausoak ematen jarraitze aldera, bultzada berri bat emateko unea da. Horretarako, alde guztiek -espezializazioarenak, geografikoak, cluster artekoak- plataformak eratu behar dituzte, lehiakortasun eredua garatzeko.

---

#### 8. EKIMENA: Alde batetik, izaera orokorreko plangintza estrategikoa eta, bestetik, cluster bakoitzeko plangintza zehatza sustatzea, prestakuntzari, garapen teknologikoari, nazioartekotzeari eta lankidetzari lotutako beharrak bideratuko dituen enpresen ikuspegitik.

---

- Euskadiko cluster politikak 20 urte baino gehiago ditu. Michael Porterren nazioen lehiakortasun eredua arrakastarekin egokitzen aitzindariak izan ginen. Gaur egun, Euskadi cluster politikaren garapenean arloan erreferentzia da European zein mundu mailan.

- Etapa berriari ekiteko unea heldu da. Clusterrak eta sektoreak dira euren funtzionamenduaren ebaluazio kritikoa egin behar dutenak, hobetzeko aukerak identifikatuz euren enpresen eta kide diren erakundeen behar aldakorrei erantzun ahal izateko. Euskal administrazioetatik clusterren lana sustatzen jarraituko dugu, betiere, euren heldutasuna errespetatuz eta onartuz. Clusterrak eurak dira ordezkatzeko duten industria-egiturari beharrezkoak diren zerbitzuak eskaini behar dizkietenak, prestakuntza, lankidetzak, berrikuntza eta nazioartekotzearen arloan. Horrela, kide diren enpresek tresna erabilgarri eta preziazatutako joko dute eta gehiago konprometituko dira cluster horien finantzaketari dagokionez.

#### **9. EKIMENA: Enpresen arteko lankidetzarako eta elkarlanerako politikak erraztea eta bultzatzea Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) tamaina eta dimentsio hoberena lor dezaten, modu integralean berrikuntza eta nazioartekotze prozesuetan sartuko direla bermatzeko.**

- Euskal ETEek mundu globalari aurre egin behar diote. Testuinguru berri horretan lehiatzeko ahalmenak filosofia berri bat eskatzen du: lankidetzari lotutakoa. Lehiatzea eta elkarlanean aritzea indartsuago izateko, aukera gehiago edukitzeko, hazteko eta nazioarteko eskaintzan irabazle den produktu-sorta osoa eskaintzeko. Lan filosofia horren barruan, EAJ-PNVK joint venture izenekoak eta enpresen behin-behineko bateratzeak helburu dituzten jarduerak eta neurriak sustatuko ditu. Modu horretan, baterako proiektuak garatuko dira, euskal ETEen berrikuntza eta nazioartekotzea arrakastarako bermeekin jorratzeko xedearekin.

#### **10. EKIMENA: Clusterren arteko harremana bultzatzea kanpora begiratzeko, barruko lankidetzari lotutako estrategiatik abiatuta.**

- Gaur egungo cluster sarea hobetzea.
- Enpresen eta sektoreen lankidetzarako dinamiken zabalkundea babestea, bai horizontalki, bai geografikoki.
- Clusterren eta zentro teknologikoen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren gainontzeko eragileen arteko elkarlana sustatzea.

### **3. KONPROMISOA SUSPERTZE-BIDEAN ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI LAGUNTZEA.**

#### **11. EKIMENA: ETEentzako laguntza integraleko programa bat bultzatzea.**

- Bideragarriak eta enplegu erreala sortzeko lagungarriak diren proiektuak ezin dira bidean geratu finantzaketa-ezaren ondorioz. Horrelakorik ez gertatzea bermatuko da. Horien artean, nazioartekotzeari lotutako proiektuak daude.
- Bat-egite prozesuei, aliantzei eta partzuergoei laguntzea enpresen "tamainaren" beharri erantzuteko.
- Erakundeetan lidergo ahalmenen eta zuzendaritza gaitasunen garapena sustatzea, zuzendariak funtsezkoa den eginkizuna euren gain hartzeko gai izan daitezten. Izan ere, euren zeregina funtsezkoa da erakundeen eraldaketan eta ingurune ekonomiko berriak kudeatzeko prest egon behar dute.
- Euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko lagungarria den zerga arloaren garapena bultzatzea, mikroenpresentzat eta ETEentzat egokia eta onuragarria den testuingurua garatuz, enpresen egitura eta kapitalizazioa sendotuz, ikerketa eta garapen teknologikoen bitartez eta enpresa ekimen berriak sortzearen alde eginez.

#### **12. EKIMENA: ETEek finantzaketa lortu dezaten laguntzea.**

- ETEen finantzaketaren aldeko programak antolatzea, euren erresistentzia sendotzeko eta hazkundera ahalbidetzeko aukera ematen duten tresnak emanez.



- Kooperatiben aldeko programak bideratzea.
- Familia enpresen jarraitutasunaren eta garapenaren alde egitea, belaunaldi ordezkape-nerako programen zabalkundearen bitartez.
- Finantza erakundeekin lan egitea ETEen finantzaketa programa zirkulatzailerako abian jartze-ko. Horretarako eta beharrezkoa izanez gero, euskarri publikoaren laguntza edukiko da.
- Etorkizuneko industria sektoreak bultzatzeko eta nahi den sektoreetan enpresak sortzea sustatzeko inbertsio funtsak erakartzea.
- Inbertsio funtsak neurri handikoak ez diren proiektuetara irekitzeko lanean aritzea, hitzar- men publiko-privatuaren bitartez.
- Elkarrenganako berme sozietateen garapena bultzatzea.
- Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko euskal erakundeen (BGAE) inbertsioak Euskadiko ekonomia produktiborantz bideratzeko aukera ematen duen baterako lan prozesua abian jartzea.
- Euskal finantza erakundeek gure enpresen garapenarekin daukaten konpromisoa mantentzea.
- Administrazio publikoak kredituen bermatzaile gisa duen eginkizuna ziurtatzea.
- Mikroenpresak sortzeko proiektuen finantzaketan, apurka-apurka, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen eredu tradizionalaren ordez, kreditua eta hori eskuratzeko beharrezkoak diren bermeak eskaintzean datzan eredu berria ezartzea.

#### 4. KONPROMISOA

### HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEN DUEN POLITIKA GARATZEA, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREN BITARTEZ.

#### 13. EKIMENA: Industria politika, sustapen ekonomikoa eta etengabeko prestakuntza osatzen duten programa zehatzak bultzatzea.

- Herri administrazioaren (enpleguaren politika aktiboen kudeatzaile nagusia) eta euskal enpresa-egituraren arteko komunikazio mekanismo egonkorak ezartzea.
- EAEko ekonomia eta gizarte sektoreekin koordinazio mekanismoak ezartzea, aldian-al- dian mundu mailako testuinguruan lehiatzeko beharrezkoak diren eskumenak eta profil profesionalak identifika daitezen.
- Horientzako erantzun bizkorra ematen duen enplegurako gaikuntza eta prestakuntza sis- tema baten garapena sustatzea.

#### 14. EKIMENA: Talentua sustatzea, uztartzea eta erakartzea bultzatzea.

- Estrategikotzat jo diren eta hazteko indar handia duten sektoreetan bertoko talentuaren garapenaren alde egitea eta hori sustatzea.
- Euskadi lehentasunezko destino bihurtzea lan bila ari diren eta kualifikazio altua duten gazte atzeritarrentzat eta, aldi berean, prestakuntza bikaina jaso duten eta ahalmen handia daukaten gure gazteei aukera interesgarriak eskaintzea.
- Unibertsitate sistemaren eta industriaren arteko lotura handitzea, hezkuntzaren ikuspuntu- tik zein ikuspegi ikertzailetik ("ikaskuntza fabrikak" izeneko eredu alemana).

#### 15. EKIMENA: Industria politikaren arloan, erakundeen arteko koordinazio eta kudeake- ta organo eraginkorra sortzea.

- Erakundeen arteko koordinazio eta kudeaketa organo eraginkorra sortzea. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eta hiru foru aldundie- tako Ekonomi Sustapen Sailek parte hartuko dute lehiakortasun politika koordinatzeko eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Eskualdeko garapen agentzien erabilera sustatzea, modernizazioaren, lankidetzaren eta enpresen garapen lehiakorraren eragile bultzatzaileak baitira. Horrez gain, euskal eskual- deen garapen orekatua ere sustatu behar da.



## 5. KONPROMISOA SEKTORE EMERGENTEETAN DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEA.

### 16. EKIMENA: **Sektore ekonomiko emergenteen garapenaren aldeko apustua egitea.**

- Europako eta mundu mailako mapa zientifiko-teknologikoan EAE erreferentzia izan dadin, aukera-sektore berrien garapena sustatzea. Halaber, euskal industriarentzat trakzio-motorea izango dira, lehiakortasuna eta garapena erraztuz eta bultzatuz.
- Mundu mailan lider diren enpresa proiektuak identifikatzea eta horien inguruan aukera berriak garatzea, nazioarteko merkatuan nitxo espezifikoak betetzeko.

### 17. EKIMENA: **Euskal enpresentzat aukera berriak sustatzea etorkizuneko alorretan.**

- Bereziki honako alor hauetan:
  - Gizarte berrikuntza.
  - "Bizitzari" lotutako sektorea (osasuna, gizarte laguntza, biztanleria zahartzearen ondoriozko beharrak asebetetzea).
  - Diseinua eta industria kultural eta sortzaileak.
  - Kalitatezko turismoa eta horri lotutako industriak eta jarduerak.

### 18. EKIMENA: **Industria dibertsifikazioaren alde egitea.**

- Industria dibertsifikazioaren politikan eta sektore berriei eta jarduera emergenteei laguntzea; horrela, jarduera berriekin dugun konpromisoa sendotuko dugu.
- Industriari lotutako zerbitzuen sektorea, finantza sektoreei, adituen aholkularitzari, merkataritza zerbitzu aurreratuei, diseinuari eta "smart manufacturing / smart specialisation" kontzeptuaren alde egiten duten fabrikazio teknologia berriei dagokienez.
- Eko-teknologia eta ekonomia berdea.
- Hiri garapena eta Smart Cities kontzeptua
- Itsasoari, itsasertzari eta arrantzari lotutako jarduerak.
- Landa garapena eta kalitatezko nekazaritzako elikagaien ekoizpena.
- On-line zerbitzuen eta telelanaren sektorea.

## 6. KONPROMISOA NAZIOARTEKOTZEA ARDATZ NAGUSI GISA BABESTEN DUEN INDUSTRIA POLITIKA.

### 19. EKIMENA: **Nazioartekotzearen aldeko programak eta pizgarriak sendotzea.**

- "Enpresak Nazioartekotzeko Plan Globala" garatzeko -programaren ondorengo kapitulu batean aipatuko da-, industriaren alorretik, honako ekintza hauek gauzatuko dira:
- Enpresen ikuspegi globala sustatzea. Enpresek euren jarduera artikulatu behar dute mundua eszenatoki gisa irudikatuz eta balio-kate osoan aukerak identifikatuz.
- Enpresari laguntzea nazioartekotzearen gaineko gogoeta-prozesuetan. Enpresek nazioarteko ikuspegia gaineratu behar dute euren negozioarako estrategia globalean, nazioarteko merkatuak ezaugarri propioen (tamaina, ekoizteko ahalmena, finantzaketa...) eta merkatuaren ezaugarrien (lehia, muga-zergak, eskakizun teknikoak...) arabera jorrazteko moduaren inguruan gogoeta eginez.
- Euskal industriari merkatu berriak irekitzen lagundu behar diogu, hainbat alderditan: esportazioa, merkataritza ezarpena eta ekoizpen zentroen kokapena. Ezagutza, finantza-laguntza eta zerga-tresnak eskaintzea atzerrian finkatu daitezkeen eta esportazioak sustatze aldera.

**20. EKIMENA: Lankidetzaren alde egitea, merkatu globaletan sartzeko estrategia gisa.**

- Enpresen artean partzuergoen eta/edo hitzarmen estrategikoen sorrera eta finkatzea bultzatzea. Horri esker, nazioartekotzearen erronkari aurre egiteko gaitasun ezberdinak indartu eta elkarren artean osatuko dituzte.

**21. EKIMENA: Merkatu berrien dibertsifikazioa eta azterketa erraztea.**

- Xede-merkatuen dibertsifikazioa erraztea. Enpresen nazioartekotze-politikarekin oso lotuta dauden merkatu emergente berrien esplorazioa erraztea.
- Negoziorako ahalmen altuagatik gure enpresentzat aukeratutako alorrekin eta merkatuekin harreman ekonomiko-instituzionalak sendotzeko estrategia abian jartzea.

## 7. KONPROMISOA EUSKADI-BASQUE COUNTRY MARKA GARATZEA, BAITA INDUSTRIA POLITIKAN DUEN APLIKAZIOA ERE.

**22. EKIMENA: Industria-egiturarekin parte-hartze prozesu bat sustatzea "Basque Country" markaren irudia aplikatzeko euren produktuak atzerrian merkaturatzen dituztenean.**

- Euskal trakzio-enpresa nagusiekin batera parte-hartze prozesu bat bultzatzea atzerrian markaren irudia aplikatzeko modurik onena identifikatzeko. Marka horrek gure produktu eta zerbitzuak bereizi eta identifikatu egingo ditu eta kalitate, seriotasun, teknologia eta zerbitzuaren parametroekin erlazionatuko ditu.
- Lurraldeko faktore bereizleak (produktuak, ikonoak, tokiak, pertsonaiak, artea, kultura, euskara, enpresak, balioak, erronkak) identifikatzea gure Herriko sektore estrategikoen nazioarteko proiektzioa sendotzeko.
- Barruko komunikazio prozesuen alde egitea. Gure herrialde-markak barrura ere begiratu behar du: euskal gizarte osoak ezagutu behar du, harro egon behar du eta sustatu egin behar du, bakoitzak bere jarduera eremuan.

**23. EKIMENA: Industria sektorean Basque Country markaren posizionatze koordinatua sustatzea.**

- Euskal industria ezin da modu isolatuan aurkeztu; Euskadi lurralde berezi bihurtu duten balioei lotuta posizionatu behar da munduan. Zentzu horretan, mundu mailako presentziaren planteamenduarekin bat eginez, industria eta Euskadi markak proiektatzen dituen gainontzeko sektore eta jarduerak sustatzeko jarduketa osagarriak garatuko dira.

## 8. KONPROMISOA ENPLEGUA SORTZEN DUTEN INBERTSIOAK ERAKARTZEKO INDUSTRIA POLITIKA AKTIBOA.

**24. EKIMENA: Herriaren irudi erakargarria sustatzea enplegua sortzeko ahalmena duten inbertsioak ezartzeko.**

- Ekoizpen-egitura osatzeko eta balioa eta enplegua sortzeko ahalmena duten sektoreetan inbertsioen erakarpina bultzatzea.

**25. EKIMENA: Enplegua sortzeko ahalmena duten inbertsioak ezartzea sustatuko duen arau-esparrua garatzea.**

- Ekoizpen-egitura osatzeko eta balioa eta enplegua sortzeko ahalmena duten enpresak finkatzea sustatuko duen arau-esparrua definitzea.



## EKONOMIA PRODUKTIBOAREN ALDEKO EUSKADI

INDUSTRIA POLITIKA  
BERRESKURATZEA

EKINTZAILEEI ETA ENPRESA  
BERRIEI LAGUNTZEA

BERRIKUNTZA, GURE  
ETORKIZUNAREN GILTZA

### GURE PRINTZIOAK:

- Euskadik kultura ekintzaile garrantzitsua izan du beti, eta horri esker nazioartean gizarte aurreratu eta lehiakor bilakatu da. Hogeita hamar urtean EAJ-PNVk kultura ekintzailearekin izan duen konpromisoaren ondorioz, Euskadi enpresa egitasmoen inkubagailu bikaina izan da, eta laborategi handi honetan ideiek legamia nahikoa izan dute aberastasuna eta enplegua sortzeko gai ziren enpresak erne-tzeko.
- EAJ-PNVren aburuz, kultura ekintzaile horri eusteak eta berau gar-tzeak abantaila lehiakorra dakar: ezin da horrelako abantaila bat inprobisatu, eta, aldiz, aktibo garrantzitsua ordezkutzen du. Euskal gizarteak bere DNAn ekiteko, berritzeko, aukera berriak bilatzeko eta ausartzeko gaitasunari eutsi ezean, munduko herrialde lehiako-rreren artean eta garapen zein gizarte ongizate maila altuenak di-tuzten herrialdeen artean ez egotera kondenatuta egongo da.
- Iraganeko arrakastek ez dituzte etorkizuneko arrakastak bermatzen. EAJ-PNVren ondoz ondoko gobernuek abian jarritako oinarri sen-doen errentei esker bizi izan gara azken hiru urteetan. Galdutako denbora berreskuratu behar dugu.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du gizarte ekintzailearen lidergoa berreskuratzeko, arriskuak hartzeko gaitasuna duen gizartearen li-dergoa, pertsona bakoitzaren garrantzia onartzen duen gizartea-rena. Konfiantza, ahalegina, buru argitasuna, sakrifizioa, gainditzea biltzen dituen Euskadi, inizatiba duen Euskadi. Gureganako konfian-tza berreskura dezagun. Euskadirengan fedea izan dezagun berriro ere.
- EAJ-PNVk lehentasunezko lekua eskaintzen die pertsona ekintzaileei bere gobernu programan. Euskal gizarteak jakin behar du zeinen garrantzitsua den pertsona ekintzaileak edukitzea, jarduten diren pertsonak, euren lan etorkizuna diseinatu eta sortzeko eta, aldi be-rean, beste pertsona batzuentzako lan aukerak sortzeko apustua egiten dutenak.
- EAJ-PNVk jendaurrean agerrarazi nahi du Euskadin ekintzailetzarako onuragarria den ekosistema eratzeko politika publikoak indartzeko konpromisoa hartuko duela. Ekosistema horrek pertsona, enpresa zein entitate ekintzaileak, proiektu berrien sortzaileak direnak, man-tendu eta erakartzeko baldintza egokiak sustatzeko gaitasuna izan-go du. Ingurune horrek lotura izango du nazioarteko nodo nagusie-

kin, eta beharrezko lankidetzak espezializatua eskainiko die pertsona ekintzaileei eta enpresa berriei zientzia, teknologia eta berrikuntza, finantzaketa, enpresa kudeaketa eta profesional gaituei dago-kienez; hala, nazioarte mailan aitzindari bihurtu nahi duten enpresa proiektu lehiakor berriei ekitea erraztuko da.

- EAJ-PNVk ekintzailetza babesteko duen euskal sistema finkatzearen aldeko apustua egiten du. Honi esker, ideia berritzaileak hazkundera eta kalitatezko enplegua sortzeko eta Europako zein munduko gizarte aldaketek eragindako erronkei aurre egiten laguntzeko produktu berri bilakatuko dira.
- Euskadin enpresa sare garrantzitsua daukagu, eta enpresa ekimen berrien motorra izateko eta hazkunde ekonomikoari dagokion gure ereduaren egiturazko aldaketan aurrerapausoak emateko gai da (horretarako, ezagutzan ekintza trinkoak, teknologia berriak eta zerbitzu aurreratuak txertatuko dira; globalki lehiakorra den sare ekintzailea eta, aldi berean, gizarte kohesio handiago batekin konpromisoa duena garatuko da).
- EAJ-PNVk sormena sustatzeko konpromisoa hartzen du, ekintzailetzaren oinarri gisa, sormena berrikuntza teknologiko-zientifiko, artistiko-kultural eta ekonomiko bezala ulertuta. Gizarte aurreratueta sormena gizaratearen eta sareen bitartez eraikitzen da gero eta gehiago, eta enpresa sare berria sortzeko iturri bilakatzen da.
- Pertsona ekintzaileei laguntzeko apustua herrialde osoarena da. EAJ-PNVk uste du ezin dela enpresa berriei eraginkortasunez laguntzeko ekosistema garatu, ez bada erakundearen artean beharrezko elkarlan egokia baliatzen. Helburu honetan ez dago inor soberan, erakunde eta eragile guztiak gara beharrezkoak. EAJ-PNVk pertsona ekintzaileei laguntzeko plan estrategikoa sustatzeko konpromisoa hartzen du, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko elkarlanaren bitartez, eta jarduerak banatzeko eta harremanetarako marko koordinatu eta kolaboratzailea ezarriz.

- GURE KONPROMISO ETA EKIMENAK.

## 1. KONPROMISOA.

### KULTURA EKINTZAILEAREKIN KONPROMETITUTAKO GIZARTEA SUSTATZEA.

#### 1. EKIMENA: **Espiritu ekintzailearen aldeko eta pertsona ekintzaileei laguntzeko gizarte sentsibilizaziorako programa.**

- Plan berria abian jarriko dugu, aberastasuna eta enplegua sortzeko tresna gisa kultura ekintzaileak daukan garrantzia hedatzeko eta espiritu ekintzailea sustatzeko.
- Espiritu ekintzailea sustatzen duten balioak zabalduko ditugu, ekiteko jarrerarekiko eta pertsona ekintzailearen irudiarekiko euskal gizarteak daukan kontzientzia positiboa areagotze aldera.
- Euskal gizartean ikuspen handia duten pertsona ekintzaileak biltzeko programa garatuko dugu, esperientziak trukatzeko eta ekiteko gaitasunari balioa emateko.

#### 2. EKIMENA: **Kultura ekintzailea sustatzea hezkuntza esparruetan.**

- Hezkuntzako talde desberdinen artean (hezkuntzako lehenengo mailak, Lanbide Heziketa eta unibertsitate esparruak) kultura ekintzaileari buruzko prestakuntza zabaltzeko eta gaitasun ekintzaileak (lidergoa, talde lana, arriskatzea eta sormena) garatzeko programak bultzatuko ditugu.
- Hezkuntza esparruko talde eta eragile desberdinen kontzientzia piztuko dugu enplegua, aberastasuna eta ekonomia garatzeko lagungarri gisa enpresen sorrerak dauzkan garrantzi eta onurekiko.
- Irakasleak prestatu eta babestera bideratutako plana martxan jarriko dugu, merkatuaren eta enpresen errealitatearen eskaerak eta joerak hobeto ezagutzeko.
- Curriculum akademikoetan ezagutza eta trebetasun ekintzaileak sartzea bultzatuko dugu, zeharkako antolamenduaren bitartez.

## 2. KONPROMISOA.

### EUSKADI MUNDUAN PROIEKTATZEA LURRALDE EKINTZAILE GISA.

#### 3. EKIMENA: **Euskadi lurralde ekintzaile gisa kokatzea eta ekintzaileenak diren munduko herrialdeekiko lotura sustatzea.**

- Euskadi munduan kokatuko dugu, enpresa berriak sortzeko toki erakargarri gisa. Lurralde sortzailea izango da, ideia eta egitasmo berriei irekia, aniztasunarekiko eta bizi kalitate altuarekiko errespetua daukana.
- Euskadi lurralde adimendun, dinamiko eta ekintzaile bilakatuko duten enpresa proiektu berrien liderrak izateko gaitasuna duten profesionalak hartu eta erakartzeko berriarazo ekimenak garatuko ditugu.
- Euskadi ekintzailetzari buruzko nazioarteko foroetan egoteko neurriak hartuko ditugu, ekintzailetza eta berrikuntza babesterako orduan herrialde dinamikoekiko lankidetzak sustatzeko helburuarekin.



- Euskadiren partaidetza areagotuko dugu ekintzailetzari buruzko programa europarretan, bereziki Europako 2020 Estrategian, hazkunde “adimendun, berde eta biltzailearen” motor gisa pertsona ekintzaileak babesteko ekimen europarren garapenean presentzia aktiboa lortzeko xedearekin.
- Ekintzailetzarako Euskal Sistemaren eta munduko beste herrialde batzuen arteko lankidetzaz hitzarmenak bultzatuko ditugu, sinergiak identifikatu eta baliatzeko eta hazteko ahalmen handia eta nazioarteko bihurtzeko gaitasuna duten enpresa sortu berrien arteko harremanak errazteko.

---

#### 4. EKIMENA: Enpresa ekimen berrien eta ekintzailetzarako euskal sistemaren nazioarteko presentzia sustatzea.

---

- Ahaleginduko gara ekintzailetzaren esparruan esperientzia euskalduna Europako “praktika onenen” adibideen artean kokatzen.
- Nazioarteko enpresa bidaietan enpresa berritzaile sortu berriak egotea eta parte hartzea bultzatuko dugu.
- Bereziki sektore estrategikoetan esportatzeko ahalmen handia duten enpresa sortu berrientzako nazioarteko berariazko topaketak antolatzea sustatuko dugu.
- Ekintzaile gazteak nazioarteko zentroetan egonaldiak egitea babestuko ditugu, enpresa eragintza berriak sustatu eta bultzatzeko.

### 3. KONPROMISOA.

## EKINTZAILETZARAKO EUSKAL SISTEMA ERAIKITZEA, BIZIA ETA ERAGINKORRA.

---

#### 5. EKIMENA: Dagoeneko baditugun baliabide guztiak berriz orientatzea eta koordinatzea, pertsona ekintzaileen aldeko ekimen guztiak bideratuko dituen sistema bizi eta eraginkorra lortzeko.

---

- Dagoeneko baditugun laguntza eta informazio zerbitzuak integratzea eta koordinatzea sustatuko dugu, Ekintzailetzarako Euskal Sistema homogeen, bizi eta eraginkorra garatze aldera.
- Foru aldundiekin, udalekin eta merkataritza ganbarekin koordinatzea babestuko dugu, ekintzailetza sostengatzeko eta informatzeko gaur egun ditugun tresnak birmoldatzeko eta benetako leihatila bakarrean integratzeko.
- Euskadiko eskualde guztietan zehar hedatuko den izapide telematikoak burutzeko puntuen sarea sortuko dugu.
- Euskadin, bai tokiko mailan, bai eskualde mailan enpresa ekimenak babesteko lan egiten duten eragileen sare handiaren lana berrantolatu eta sendotzen ahaleginduko gara.
- Modu esanguratsuan sustatuko dugu enpresak sortzeko beharrezkoak diren administrazio izapideak erraztea, izapidetze telematiko bultzatuz.
- Ekintzailetzarako Euskal Sistema beste sare batzuekin lotuko dugu, pertsona ekintzailea lagunduz enpresa sortzeko eta garatzeko prozesu osoan zehar.

---

#### 6. EKIMENA: Enpresa haztegien sarea indartzea eta ekintzailetza babesteko azpiegitura berriak garatzea.

---

- Unibertsitate esparruan sortutako ikerketa emaitzak esplotatzea ahalbidetzen duten enpresa berritzaileak eta oinarri teknologikoa duten enpresak sortzeko laguntza ematen duten unibertsitateko haztegien sarea finkatzea sustatuko dugu.
- Euskal Teknologia Zentroekin eta hauetan garatutako plataforma teknologikoekin eta haztegiekin kolaborazio aktiboa izatea bultzatuko dugu, proiektu ekintzaile berriak sortzea eta garatzea erraztu eta babesteko.
- Euskal Teknologia Parkeen eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroyen Euskal Sarearen arteko lankidetzak areagotuko dugu, oinarri teknologikodun berrikuntza enpresen ekimen berriak garatzea eta haztea babesteko.
- Koordinazioa eta elkarlana indartuko ditugu udal eta eskualde esparruan Euskadin dagoeneko existitzen diren enpresa berrientzako haztegi, inkubagailu eta zentroyen sarean.
- Espazio berriak abian jarriko ditugu sormena sustatzeko, ideia berriak sortzeko, esperientziak transmititzeko, eta lankidetzak eta enpresa egitasmo berriak garatzeko.

---

#### 7. EKIMENA: Dagoeneko existitzen diren enpresak ekintzaile berriei igortzea erraztea.

---

- Dagoeneko existitzen diren enpresak pertsona ekintzaile berriei igortzeko transmisio baldintzak sinplifikatuko dituzten berriazko laguntza tresnak garatuko ditugu; izan ere, transmisioak arrakastatsuak izanez gero, lanpostu kopuru handia mantenduko litzateke.

---

#### 8. EKIMENA: Enpresa berritzaile berriak lehiaketa publikoetan parte hartzea sustatzea.

---

- Administrazio publikoko erakunde desberdinen eta enpresa berritzaile berrien arteko lankidetzak foroak eta lantaldeak sortuko ditugu, azken horiek lehiaketa publikoetan parte hartzea errazteko eta bideragarritasuna finkatzeko, produktu zein zerbitzuak abiarazi berri daudenean.
- Produktu eta zerbitzu berriak ezagutzera emango dituzten komunikazio bideak ezarriko ditugu.

---

#### 9. EKIMENA: Ezagutza sortzearen eta ekiteko prozesuaren arteko lotura handitzea.

---

- Oinarri teknologikodun enpresa berriak sortzera bideratutako ezagutza sortzea sustatuko dugu.
- Berrikuntzarako euskal sistemaren eta enpresen kudeaketan eskarmentua duten pertsonen eta erakundearen arteko loturak areagotuko ditugu, teknologia zentroetan sortutako ideia berritzaileak enpresa bideragarri eta lehiakor berri bilaka daitezten.

---

#### 10. EKIMENA: Neurri egokiak hartzea Euskadi leku erakargarria izan dadin emakume ekintzaileentzat.

---

- Programa bat jarriko dugu martxan gizarteak emakume ekintzaile euskaldunak aitortzen, baita hauek aberastasuna eta enplegua sortzeko egindako ekarpena aintzatesteko ere.
- Emakume ekintzaileei zuzendutako berriazko programa berriak garatuko ditugu, bereziki enpresa berritzaile berrien eta gizarte ekonomiaren esparruan.
- Emakume ekintzaileek gaitzitu beharreko oztopo gehigarriak antzemateko eta ezabatzekeko mekanismoak ezartzea babestuko dugu.
- Emakume ekintzaileek lankidetzarako sare europarretan parte hartzea sustatu eta erraztuko dugu.



## 4. KONPROMISOA. ENPRESA EGITASMO BERRIAK FINANTZATZEKO TRESNAK GARATZEA.

### 11. EKIMENA: **Enpresa sortu berriak finantzatzen laguntzeko ildo berriak garatzea.**

- Egindako inbertsioak eta enpresa berriak abian jartzeko laguntza finantzariorako mekanismoak indartuko ditugu; horretarako, diru laguntzak, itzul daitezkeen aurrerakinak (Gauzatu) eta gaur egungo abagunera hobeto egokitutako arrisku kapitalen tresnak prestatuko dira.
- Abalen programa berri bat bultzatuko dugu Euskal Finantza Erakundearen bitartez eta Euskadiko finantza erakundeekin elkarlanean, enpresa berrientzat finantzaketa ildo berriak sustatzeko. Finantza sistemaren gaur egungo krisia dela medio, enpresa egitasmo bideragarriek finantzaketa gabe geratzea eragozte da gure helburua.
- EKARPEN elkarte publikoak sektore estrategikoetako enpresa egitasmo sortu berrien finantzaketan parte hartzea areagotuko dugu.
- Azpiegitura fisiko, lurzoru, pabiloi eta bulegoetarako enpresa berrien sarbidea errazteko finantza formula berriak garatuko ditugu.

### 12. EKIMENA: **Arrisku kapital eta hazi kapitalaren erabilgarritasuna nabarmen areagotzea euskal enpresa berrien eskura ipintzeko.**

- Enpresa berritzaile berriak finantzatzeko euskal erakunde publikoetan eskuragarri dauden arrisku kapitalen funtsak areagotzea.
- Arrisku kapitalen funtsak sustatuko ditugu, euskal enpresa traktoreen eta enpresa sortu berrien arteko lankidetzak egitasmoak babesteko.
- Lankidetzak publiko-privatua bultzatuko dugu, Business Angels, Hazi Kapital eta Arrisku Kapitalen bitartez, ekintzailetza proiektuen finantzaketa sustatuko duten ekimen berriak garatzeko.
- Nazioarteko Arrisku Kapitalen Funtsak erakartzen saiatuko gara, Euskadiko enpresa berritzaile berrien finantzaketa aukerak zabaltzeko helburuarekin.

## 5. KONPROMISOA. AUTOENPLEGUA BULTZATZEA, PERTSONA EKINTZAILEEK EUREN LANPOSTUAK SORTZEKO HARTUTAKO KONPROMISOA AINTZATETSIZ.

### 13. EKIMENA: **Autoenplegu egitasmoak sortzeko laguntza azkar eta erraza eskaintzen duen aurrez aurreko programa garatzea, foru aldundiekin elkarlanean.**

- Negozio plana garatzea babestuko dugu, enpresa kudeaketari buruzko prestakuntzaren bitartez eta pertsona sustatzaile bakoitzari eskainitako banakako aholkularitzaren bitartez.
- Laguntza berriak bultzatuko ditugu enpresa abian jartzeko, baita negozio berrien lehenengo urtean ere.

## 6. KONPROMISOA. DAGOENEO EXISTITZEN DIREN ENPRESEN BARRUAN ENPRESA JARDUERA BERRIAK SORTZEA SUSTATUKO DUGU.

**14. EKIMENA:** Laguntza tresnak garatzea, berariaz enpresa traktoreen eta hazteko ahalmen handia duten enpresa sortu berrien arteko kooperazioa sustatzeko, nazioartekotze gaitasun handia dutenean.

- Nazioartean presentzia nabarmena duten euskal enpresa traktore nagusien eta hazteko gaitasun handia duten ekimen berrien arteko elkarlanerako berariazko programak garatuko ditugu, nazioarteko merkatuetarako sarbidea errazteko.
- Hornitzaileak garatzeko programa sustatuko dugu; horren barruan, enpresa traktoreek enpresa berritzaile berriek eskainitako produktu eta zerbitzu berrien berrikuntza eta garapen aukerak babestuko dituzte.

**15. EKIMENA:** Euskal enpresek duten barne ekintzailetzarako gaitasuna ahalik eta gehien indartzea, bereziki enpresa proiektu berriak sortzeko eta garatzeko.

- Egitasmo berriak garatzeko enpresek eta tradiziozko euskal sektore industrialek dituzten indargune eta ezaugarri bereizgarriak indartzera bideratutako jarduerak garatuko ditugu.
- Euskal enpresen nazioartekotze maila altua baliatuko dugu, merkatu global batean balio erantsi handia duten produktu eta zerbitzu berriek beste merkatu batzuetan dituzten aukera berriak identifikatzeko.
- Lankidetzeta publiko-pribatua sendotuko dugu euskal ekonomiako sektore estrategikoe-tan nazioartean erreferentziazkoak diren zentroak garatzeko; enpresa ekimen berriak sortzeko duten ahalmena esplotatuko dugu.

## 7. KONPROMISOA. ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK SORTZeko BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SISTEMAK DITUEN GAITASUNAK INDARTUKO DITUGU.

**16. EKIMENA:** Izaera berritzailea duten enpresa berriak modu espezifikoan babestea.

- Enpresa eta berrikuntza zentro euskaldunen eginkizuna indartuko dugu, enpresa berritzaileak abian jartzeko, hazteko eta finkatzeko laguntza eta osoko aholkularitza emateko erreferente gisa.
- Berariazko zerbitzua martxan jarriko dugu enpresa proiektu berritzaileak aurkezten dituzten atzerriko enpresa eta pertsona ekintzaileei arreta eskaintzeko, euren jarduera Euskadin abiarazi ahal izateko.

**17. EKIMENA:** Berrikuntzarako Euskal Sisteman ekintzailetza eta enpresa ekimen berriak sortzeko joera sustatzea.

- Berariazko programa bat garatzea enpresa berritzaile zein oinarri teknologikodun enpresa berriak sortzeko eta abian jartzeko ezagutza sorrarazten laguntzeko.



- Berrikuntzarako euskal sistemaren eta enpresen kudeaketan eta ekintzailletzan eskarmentu handia duten pertsonen eta erakundeen arteko loturak areagotzea, ideia berritzaileak oinarri teknologikodun enpresa bideragarri eta lehiakor berri bilaka daitezzen.
- Berrikuntzarako Euskal Sistematik ETE-etara teknologia transferitzea sustatzea, ekintzailetza gaitasuna bultzatu eta areagotzeko eta enpresa egitasmo berriak garatzeko.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileengan barne ekintzailletza sustatzeko programa finkatzea, ideia berritzaileen garapena eta enpresa sarearekiko lankidetzatza erraztu eta babestuko dituzten jarduerak bultzatuz.

## 8. KONPROMISOA. SEKTORE BERRIETAN ENPRESA BERRIAK BULTZATZEA, EUSKAL EKONOMIAREN DIBERTSIFIKAZIO INTELIGENTEA ERRAZTEKO.

### 18. EKIMENA: **Enpresa egitasmo berriak sustatzea sormen industrian.**

- Foru aldundiekin elkarlanean, sormenari lotutako industriein harremanetan dauden jarduera berriak (bideo jokoak, punta-puntako ikus-entzunezkoak, modaren industria eta diseinu industrialak) garatzen dituzten pertsona ekintzaileak babesteko berriarazko programak ezarriko ditugu.

### 19. EKIMENA: **Gizarte berrikuntzaren esparruan agertutako enpresa ekimenak babestea.**

- Gizarte berrikuntzari lotutako enpresa ekimenak sustatzeko berriarazko programa abian jarriko dugu. Berrikuntza eta gizarte ekintzailletza sustatzea izango dira programaren helburuak, gizarte euskaldunak aurrez aurre dituen erronka eta desafioei erantzuteko gaitasuna duten ekimen berriak sustatuz eta babestuz. Honi dagokionez, adineko pertsonak zahartzeak eta euren bizi kalitatea hobetzeak eragindako arazoei erantzungo dieten ekimenetan jarriko da arreta batez ere.

### 20. EKIMENA: **Euskadin turismo industriak garatzea babesteko euskal estrategia indartzea.**

- Turismoko enpresa berritzaileak eta sektore honentzat zerbitzu aurreratuak eskaintzen dituzten enpresa hornitzaileak sortzea babestea, teknologia berriak sartuz eta sustapen zein komertzializazio bide berriak garatuz.

### 23. EKIMENA: **Euskadik sare adimendunak (smart grid izenekoak) garatzearen alde eta ibilgailu elektrikoaren alde egindako apustua indartzea.**

- Euskadin presentzia handia duten negozioetan aukera berriak finkatzea eta sortzea ahalbidetuko duten tresna berriak garatuko ditugu. Esaterako, sare adimendunak garatzea, ekonomia berdea eta automozioaren sektoreko joera berriekin lotutako jarduera guztiak, eta batez ere, ibilgailu elektriko berriari lotuak, Euskadiko sektorearen estrategia global baten barnean.



## EKONOMIA PRODUKTIBOAREN ALDEKO EUSKADI

INDUSTRIA POLITIKA  
BERRESKURATZEA

EKINTZAILEEI ETA ENPRESA  
BERRIEI LAGUNTZEA

BERRIKUNTZA, GURE  
ETORKIZUNAREN GILTZA

## GURE PRINTZIOAK:

- EAJ-PNVrentzat hurrengo hamarkadetan gure sare ekonomikoa eta soziala halaberrez eraldatzeko funtsezko gakoak jakintza sortzeko gaitasuna eta enpresek eta gizarteak berritzeko eta Euskadin eta munduaren gainerako tokietan sortzen den jakintza balio ekonomiko eta soziala bihurtzeko duten gaitasuna izango dira.
- Hori oso garrantzitsua da gure industria-sektorean, haren gaitasun esportatzailea produktu, zerbitzu eta prozesuetan jakintza teknologiko aurreratua gehitzearen mende baitago zuzenean.
- Industria-politika lehentasun argia izan da beti eta bada oraindik EAJ-PNVrentzat. Industria gainbeheran badago, sare sozioekonomikoak bat egingo du horrekin, eta ezin izango zaio gaur egungo ongizate-mailari eutsi. Lehiakortasunari eta industria-produktibitateari eusteko funtsezko gakoa berrikuntzaren alde egin dugun apustu estrategikoa indartzea da.
- Berrikuntzaren aldeko estrategia honetan, enpresa handien trakzio-efektua aintzatesteaz gain, beharrezkoa da enpresa txikiak sartzea I+G+Bko balio-katean, etorkizunean tokiko azpikontratazio-sare bikaina izaten jarraitzeko. Izan ere, trakzio-enpresek funtsezko eginkizuna daukate ETEetan berrikuntza dinamizatzeko. EAJ-PNVkook uste dugu ETEen eta trakzio-enpresen arteko lotura hori indartu egin behar dela, berrikuntzaren eta elkarren lehiakortasunaren onerako.
- EAJ-PNVk beharrezkotzat jotzen du aurreko legegintzaldian berrikuntzaren alde egin zen apustuari berriro ekitea, azken hiru urteetan erakunde-buruzagitza eta Herrialdeko apustu-ikuspegia erabat galdu baitira.
- EAJ-PNVk uste du jada daukagunetik abiatuta eraiki behar dela eta, aldi berean, aukera berriak aprobetxatzeko gai izan behar garela. Bi estrategiak uztartu behar ditugu. Alde batetik, orain arte industriak, teknologiak eta ingeniariak ekarri dituzten gure aldeko puntuetan oinarritu behar gara, baina zientzietako eta oinarritzko ikerketako gaitasunak gehitzearen alde ere egin behar dugu, dibertsifikazio-aukera berriak hartzeko.
- Herrialde garatuen XXI. mendeko ekonomia finko abiatzen da Jakintzaren Ekonomiarantz. "Made in Euskadi" goiburuari "Thought in Euskadi" gehitu behar zaio, jakintza industria-garapen lehiakorago baterako erabiliz gure industriaren eraldaketa bultzatuta. Eraldaketa horren lehengaita adimena da, eta tresna, aldiz, berrikuntza.
- Bai jakintza bai berrikuntzaren bidez balioa sortzeko gaitasuna pertsonengan daude. Adimenaren definizioa ez da jakintza zientifiko eta teknologikora mugatu behar: kudeaketara eta berrikuntza ekonomiko eta sozialera ere hedatu behar da.
- EAJ-PNVk uste du beharrezkoa dela gure unibertsitateak, ikerketa-zentroak, teknologia-korporazioak, CICak, BERCak eta abar eralda-

tzeari ekitea Europan lehen postuetan lehiatzeko, gure industriari agertoki berri honetan behar dituen jakintza eta pertsonak hornitzeko asmoz.

- Jaurlaritzaren eskumenen mapak eta haren sozietate publikoek, gainerako erakundeek —Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua eta Innobasque—, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako bitarteko erakundeen multzoak eraldatzeko bultzada eta egonkortasun-esparrua behar dituzte, sistema zuzen gauzatzea bermatzen duten eginkizunak behar bezala garatu ahal izateko. Hori zehaztu zenetik denbora luzea iragan dela-eta, sistemak birformulazioa, ereduaren sinplifikazioa eta eraginkorrago bihurtzen duen gobernantza behar ditu.
- Lankidetzaren eta etengabeko hobekuntzaren bidez gure sistemaren gaitasunak ustiatzen baldin badakigu, gai izango gara Euskadi Berrikuntzako erreferentzia gisa kokatzeko.
- EAJ-PNVk badaki eraldatzeko baliabideak ekarri behar direla. Gure industria eraldatzeko, teknologia eta jakintza sortzeko eta jakinarazteko, eta negozio-eredu berritzaileak egiteko inbertsioa lehentasunezko elementua da. EAJ-PNVren ustez, Euskadik eta haren industriak jakintza teknologiko aurreratuaren erakargune orokorren artean kokatzea lortu behar dute hurrengo urteetan.
- 2015ean I+G+Brako inbertsio-maila BPGd-ren gaineko % 3koa izateko helburua eduki estrategiko handia duen helburua da. Garrantzitsua da I+G+Brako inbertsio pribatuko maila publikoa baino handiagoa izatea (2/3, 1/3ren aurrean) eta inbertsioa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren maila ezberdinak sustatzera zuzenduta egotea erdiestea, ekimenetan palanka-efektu publikoa/pribatua egiten duten helburu zehatzak izaki.
- Alemaniak, AEBek eta Japoniak ez dute posiziorik galdu inbertsioan, hori % 3 ingurukoa dela 2012an. **Europako iparraldeko** herrialdeek edo Israelek are inbertsio handiagoak dituzte, eta beste herrialde batzuek (adibidez, Txinak) % 2,5eko inbertsioa izango dute 2015ean. % 3ko helburua lortzen ez badugu, gure enpresek ezin izango dute lehiatu aukera-berdintasunari eutsita, eta atzeriko unibertsitateek eta ikerketa-zentroek gure adimena erakarriko dute.
- Europan eskala geografikoak (eskualdeak) berrikuntza- eta lehiakortasun-prozesuetarako duen garrantzia aintzatetsi da, eta, horren ondorioz, politikak eta tresnak garatu dira epe ertainerako. Espezializazio adimenduneko estrategiek eginkizun garrantzitsua izango dute hurrengo urteetan. EAJ-PNVk uste dugu ezin dela aukera hori galdu, Europak eskatuko baitu eskualdeek espezializazio adimendunean oinarritutako estrategiak aurkezteko, FEDER fondoak eskuratu ahal izateko.
- Irtenbide berritzaileak lankidetzatik eta guztion ahaleginetik baino ez dira sortuko: herri-administrazioak, eragile zientifikoak eta teknologikoak, eta, azken finean, herritarrak, irtenbideok horien ongi-zatera eta garapenera zuzendu behar direla.

- EAJ-PNVk, gure etorkizunaren giltza den aldetik, berrikuntza bultzatzea proposatu nahi du, ondoko **KONPROMISO ETA EKIMEN** hauen bidez:

## 1. KONPROMISOA. HERRIALDEKO INDUSTRIA AZPIMARRATZEA ETA AHALEGINA INDARTZEA.

### 1. EKIMENA: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea ikerketa aplikatuko egitarauak, tokiko industrian eragina dutenak, egiteko ardaztea.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen eta Herrialdeko enpresen zein trakzio-sektoreen arteko lankidetzak garatu behar dugu, industria-sektorean eragin lehiakorrik handiena duten eremuetan ikerketa-proiektuak ardazte aldera.
- Produkzio-txokoak / zerbitzu berritzaileak sustatuko ditugu, egun gaitasuna eta kokapena dituztenak eta industriaren eta zerbitzuen arloko munduko erreferentzia bihurtu gaituztenak.

### 2. EKIMENA: Sektore pribatuarekin batera, jarduera ekonomikoa eraginkortasunez bultzatzen duten berrikuntzako "trakzio-proiektuak" zehaztu eta bultzatzea.

- Trakzio-enpresek batera ikerketa-proiektuak lagunduko ditugu, haien lehiakortasuna hobetzen dutenak eta tokiko ETEak azpikontratatzeko bultzatzen dutenak.
- Ideia berritzaileak jarduera ekonomikoa eraginkortasunez bultzatzen duten ekimen eta proiektu berritzaileetan islatzea errazteko balio duten proiektuen garapena bultzatuko dugu.

### 3. EKIMENA: Trakzio-enpresen eta ETEen arteko lankidetzarako egitarau teknologikoak sustatu eta indartzea.

- Trakzio-enpresen hornitzaileak diren ETEek I+G+Bko egitarauetan parte hartzea sustatuko da, haien tamaina txikia dela-eta banaka ezin izango luketela egin.
- Enpresa handiek enpresa txiki eta ertain azpikontratatisten sarean duten trakzio teknologikoa lagunduko da, bezeroaren eta hornitzailearen arteko hitzarmenak sustatuz.

### 4. EKIMENA: Espezializazio adimenduneko ('Smart specialization') estrategien alde egitea.

- Euskal enpresen (aurretik daudenak zein hasi berriak) ekimen berri gehienek zein arlo eta eremutan lehiatzen duten ulertu, kokatu eta bereiziko da.
- Gure enpresen/proiektuen kokapen-mapa sortuko da, eta arlo ezberdinetan laguntzeko esparruak eta ekimenak sortuko dira, aurrean dituzten erronken izaera eta horiek eskatzen dituzten laguntza eta irtenbideak ezberdinak baitira.
- Enpresei produktua helarazi beharra jakinaraziko zaie, eta balio-kate osoan esku hartuko dugu. Izan ere, osagarrietan bakarrik espezializatzen bagara, beti egongo gara hirugarrenen mende.

### 5. EKIMENA: ETEei berrikuntza hurbiltzea.

- ETEetarako kontsulta teknologikoaren arloko zerbitzu baten garapena sustatuko da.
- Aurretik dauden ekimenen koordinazioa sustatuko da, eta herri-administrazio guztien ETEetarako berrikuntzarako laguntza-egitarauak leihatila bakar batean bateratuko dira.
- Foru Aldundiekin batera, 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan egin beharreko ikerketarako eta garapenerako berariazko laguntza-egitaraua garatuko da, ETEen eta zentro teknologikoen zein unibertsitateko ikerketa-atalen arteko harremanak errazteko lanean arreta berezia jarrita.
- Merkataritza/marketing-eremuan berrikuntza erraztuko dugu, ETEek merkaturatze-bide berriak erabili ahal izan ditzaten abantaila lehiakor gisa.



**6. EKIMENA: Industria-jabetza eta haren balorizazioa sustatzea.**

- Patenteen Euskal Bulegoa sustatuko da, milioika biztanleko patenteen kopurua gehitze-ko eta Europako mailetan kokatzeko asmoz eragile, zentro teknologiko, unibertsitate eta enpresa guztiak koordinatzeko eta horiei aholkularitza emateko.
- Modu osagarrian, unibertsitateetan, BERCetan eta CICetan dagoen jakintzaren salmenta eta merkaturatzea sustatuko ditugu, haren jakintza industrializatzeko gaitasuna bultzatuta.
- Enpresei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileei lagunduko zaie jabetza intelektuala defendatzen, garatutako berrikuntzen babesa bermatze aldera.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen eta enpresen artean patenteen kudeaketan espezializaturik dauden pertsonak kontratatzea sustatuko da, horien errendimendu handiagoa jadetsi ahal izateko.
- 7. ekimena: Ikerketa sustatzea erosketa publikoaren alorreko egitarauen bidez.
- Euskal enpresa-sarean produktu berritzaileen garapena sustatzen duten erosketa publikoaren arloko egitarauak prestatuko ditugu.
- Hornitzaileen garapen-egitarauak sustatuko ditugu, Euskadiko trakzio-enpresek berrikuntzari lagun diezaioten ETE hornitzaileetan.

**2. KONPROMISOA.****ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SISTEMAREN GOBERNANTZA BIRFORMULATzea. INDUSTRIARANTZ NEURRI HANDIAGOAN BIDERATZEN DEN SISTEMA.****8. EKIMENA: Berrikuntzaren Euskal Agentzia berriro definitzea**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia berriro definituko da, honako helburu hauekin:

- Jaurlaritzaren egungo laguntza-egitarauak, I+G+Bra zuzentzen direnak, sustatu, kudeatu eta bateratzea.
- Egun dauden giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak berriro antolatu, sinplifikatu eta balioa ematea ahalik eta modurik eraginkorrean.
- Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen jarduerak koordinatzea I+G+Bren eremuan.
- Kontua ez da tresna berria sortzea, baizik eta berrikuntzaren zerbitzuan dauden egungo tresna publikoen jarduera berriro bideratzea eta, dauden gainerako eragileekin batera, I+G+Bren estrategia bultzatzea, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak bultzaturik.
- Haren aurrekontua eta ustiapen-kontua helburuak betetzeko irizpideei eta kalitatezko zerbitzuen eskaintzari loturik egungo dira, bidezko ordain ekonomikoa esleituta.

**9. EKIMENA: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea berriro antolatzea.**

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragile bakoitzaren xedea eta horietako bakoitzaren betetze-maila agertzen duten adierazleak berriro zehaztuko dira, gainerako eragileen adierazleekin koordinaturik eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen azken helburuarekin elkarturik.



- I+G+Brako laguntza-egitarau publikoen ebaluazio-sistema lokabe eta gardena orokortzea.
- Sistemako eragileekin batera eta enpresa-sareak argi eta garbi parte harturik, Herrialdeko lehentasunezko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-lerroak zehaztuko dira, baita proiektu bereziak ere.

#### 10. EKIMENA: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen artean lankidetzaren eraginkortasuna ezartzea.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen artean I+G+Bren arloan epe ertain eta luzerako koordinazio-konpromisoak sustatzen dituzten egitarauak sortuko dira.
- Unibertsitate-sistemaren eta industriaren arteko lotura handitu eta indartuko da, bai heziketa-ikuspegitik bai ikerketa-ikuspegitik ("ikaskuntza-lantegiak" deritzen Alemaniako eredua).
- Langileak enpresen, unibertsitateen, zentro teknologikoen eta ikerketa-zentroen artean mugitzea bultzatuko da, enpresei eta zentro teknologikoei / unibertsitate-zentroeiei 5 urteko gutxienezko aldirako konpromisoa harrarazten dieten berariazko egitarauak ezarrita.

#### 11. EKIMENA: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren finantzaketa-eredu berriari, emaitzei begira dagoenari, ekitea.

- Ahalik eta zabalena diren adostasun politikoak bilatuko dira, epe ertain eta luzerako politika egonkorak dakartzatenak, baina beti hartuko dira oinarri inbertsioaren eragin-kortasun handiena eta ezarritako helburuen betetze-maila.
- Eragileekin erabaki bezala finantzaketa-eredua eraldatzeari ekingo zaio. Horretarako, arrazoizko doikuntza-epeak eta eraldatze-helburu zehatzak eta neurgarriak ezarriko dira, eta emaitzak erdiesteari loturik dagoen funts publikoak emateko hainbat urtetarako esparru egonkorrari eutsiko zaio.
- I+G+Bko diru-laguntzaren kultura pixkanaka-pixkanaka gainditzen eta, balioaren kulturatik abiatuz, jakintza sortzeko inbertsioari ekiten laguntzen duten egitarauak sustatuko dira.

### 3. KONPROMISOA. ADIMENA, INDUSTRIA ERALDATZEKO LEHENGAI.

#### 12. EKIMENA: Adimena sortu, hartu, atxiki eta mugitzeko eremu berriak garatzen laguntzea.

- Egitarauak sortuko dira jakintza global onena hartzeko eta Euskadin hori jarduera ekonomiko bihurtzeko, jakintza negozio-aukera bihurtarazita eta gure herrialdetik garaturik.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen arteko lankidetzaren eta koordinazioa sustatuko dira, giza baliabideak eta eremu zientifiko, teknologiko eta akademikoan dagoen adimena eraginkortasunez erabiltzea bultzatzeko asmoz.
- Unibertsitatearen eginkizuna indartuko da. Lana erraztu eta sustatuko da, adimenaren merkatu orokorrari batera ekitea ahalbidetzen duten loturen bidez.
- Euskal enpresa-sarearen beharrezkoak betetzen dituzten Lanbide Heziketako titulazio teknikoaren bokazioak sustatuko dira.

#### 13. EKIMENA: Basque-Talentia sarea

- Adimen zientifiko-teknologikoa duten eta euskal enpresen egungo edo/eta balizko bezeroetan edo munduan dauden zentro teknologikoetan edo ikerketa-zentroetan lan egiten duten euskal pertsonen Europako eta nazioarteko sarea sortuko da.



---

**14. EKIMENA: Jakintza globalizaziora egokitzea.**

---

- Eskala globalean sortzen ari den jakintza aurreratuaren kuota adierazgarria hartzeraz zuzentzen diren planak bultzatu eta lagunduko dira, gure enpresek aprobetxatu ditzaketen aukerak identifikatzeko asmoz.
- Eremu geografikoak eta sektorialak hautatu eta lehenetsiko dira, Euskadi "adimenaren geografia" berria sartzeko eta kokatzea errazten duen estrategia berria konfiguratzeko asmoz.
- Eragile pribatuen eta publikoen artean partekatutako estrategiak ezarriko dira, jakintza globalizaziora egokitzeak dakarren erronkari batera ekitea ahalbidetzen dutenak.

**4. KONPROMISOA.****ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SISTEMAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA.**

---

**15. EKIMENA: Berrikuntzarako Euskal Sistema nazioartean proiektatzeko herrialde marka sustatzea.**

---

- I+G+Brako Euskal Sistemaren marka-irudia nazioartean bultzatuko da, Euskadi osoko adierazle gaitu eta nabarmen gisa.
- **16. ekimena: Nazioarteko sareetan parte hartzea.**
- Sistemako euskal eragileek nazioarteko sareetan parte hartzea sustatuko da, kasu bakoitzean jabetza beharrezko helburuak argi eta garbi ezarrita: proiektu zehatzetarako harremanak, jakintza eskuratzea, kokatze globalerako epe luzearako harremanak eta gure enpresetarako lankidetzak.
- Europako lankidetzaren sareetan (adibidez, 'Enterprise Europe Network') gure agerpena bultzatuko da. Sare horiek euskal ETEen garapena eta horien eta Europako ETEen arteko lankidetzak teknologikoaren alorreko gaitasunak ahalbidetuko dituzte.

---

**17. EKIMENA: Behatoki estrategiko sektorialak.**

---

- Mundu mailako berrikuntzaren behatoki estrategiko sektorialak sustatuko dira klusterren eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen laguntzaz, produktu eta zerbitzu berrien ikerketa aplikaturako baliagarriak izango diren joera teknologikoak eta puntako ikerketa-lerro berriak identifikatzeko asmoz.

---

**18. EKIMENA: Agerpena handitzea Europako proiektu eta egitarauetan.**

---

- Berrikuntzarako Euskal Sistema osoaren helburutzat jo dugu euskal enpresen eta ikerketa-zentroen partaidetza % 30 gehitzea Europako I+Gko egitarauetan.
- Euskal ikerketa-zentroen eta Europako zentro ospetsuen arteko lankidetzak akordioak sinatzea sustatuko dugu.

---

**19. EKIMENA: Zentro teknologikoak multinazionaleri hurbiltzea berrikuntzarako**

---

- Zentro teknologikoak Euskadin dauden atzerriko multinazionaleri hurbiltzea bultzatuko da, gure Herrialdean I+G+Bko proiektuak gauzatu ditzaten.

---

**20. EKIMENA: Gure Know-How ardaztea, nazioarteko erreferentzia izateko.**

---

- Euskadi jada estatuko eta Europako erreferentziatzat hartzen duten proiektuak, zentroak eta bikaintasun-arloak identifikatzeko ahaleginak egingo ditugu, ondoren nazioarteko erreferentzia bilakatu ahal izateko.

- Zenbait ikerketa-gune edo -arlotan onak gara benetan, eta horietan onenak izateko asmoa daukagu-. Hori dela eta, ikerketa-gune edo arlo horiek identifikatzeko gai izan behar dugu, gure sektore ekonomiko nagusien lehiakortasunari eragite aldera.

## 5. KONPROMISOA. PERTSONEK ETA GIZARTEAK BERRIKUNTZAREKIN DUTEN KONPROMISOA SUSTATZEA.

### 21. EKIMENA: **Berrikuntzarekiko sentsibilizazio eta konpromiso sozialeko ekimenak indartzea.**

- Egitarauak hedatzeko prozedurak eta moduak berrituko ditugu, haien hedapena erraztu eta handitzeko eta gizarte osora heltzea eta, etorkizuneko balioa den aldetik, berrikuntzarekin duten konpromisoa sustatzea lortzeko.
- Euskal Irrati Telebistarekin hitzarmenak ezarriko dira, Euskadin egiten den berrikuntzari balioa ematen dioten egitarauak egin eta eman ditzan.

### 22. EKIMENA: **Ikertzaileei ospea ematea gizarte mailan.**

- Ikertzaileen balioak eta merezimenduak sustatuko dira euskal gizartean, ekonomiaren aurrerapenari eta bizi-kalitateari laguntzeko oinarri sendoak baitira.
- Laguntza-egitarauak ezarriko dira, Euskadiko ikastetxeek unibertsitateetako laborategiak, parke teknologikoak eta ikerketa-zentroak bisitatzea sustatzen dutenak.
- Karrera zientifikoaren eta teknologikoaren bokazioa sustatuko da, Euskadin 2016an I+Gn jarduten duten pertsona guztiak jardunaldi osoan lan eginez gero 23.000 pertsona baino gehiago izatea lortzeko asmoz.

### 23. EKIMENA: **Adin goiztiarretatik zenbait balio (adibidez, sormena, autonomia pertsonala, ahalegina eta arriskua) bultzatzea.**

- Enprekin eta hezkuntzaren alorreko profesionalekin batera, hezkuntza-etapa ezberdinetarako egitarauak sortuko dira, horietan etapa bakoitzera egokitutako benetako arazoak nola konpondu landuko dela.
- Gure herrialdeko ikus-entzunezkoen sektorearekin eta sormen-industriekin batera, balore batzuk (adibidez, ahalegina, sormena, arriskuen onarpena, lan pertsonala eta taldeko lana) lantzen dituzten materialak prestatuko dira.

### 24. EKIMENA: **Informazioaren teknologiak gizartearen zerbitzuan aplikatzea sustatzea.**

- IKTen erabilera eta horiei loturik dauden eta beharizan sozial berriei erantzuten dieten zerbitzu berriak bultzatuko dira.
- Beharizan bereziak dituzten pertsona guztiei informazioaren teknologiak eskuratzen lagunduko zaie.
- Eragile ekonomikoaren eta operadoreen laguntzaz, banda zabala euskal etxe guztietara (landaguneak barne) heltzea sustatuko da, "jauzi digitaleko" egoerak desagertzea lortze aldera.
- Administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan Internet erabiltzea sustatuko da. Gure helburua Euskadi Interneten erabileran punta-puntakoak diren Europako herrialdeen maila berean jartzea da.





EUSKADI BERPIZTU

## **MUNDUARI ZABALIK DAGOEN EUSKADI**

---

- 10. ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA, HERRIALDE APUSTUA
- 11. EUSKADI, DESTINO TURISTIKOA
- 12. EUSKADI MUNDURA HEDATZEA ETA LANKIDETZA ESKAINTZEA







## MUNDUARI ZABALIK DAGOEN EUSKADI

ENPRESEN  
NAZIOARTEKOTZEA,  
HERRIALDE APUSTUA

EUSKADI, DESTINO  
TURISTIKOA

EUSKADI MUNDURA  
HEDATZEA ETA LANKIDETZA  
ESKAINZEA

## GURE PRINTZIOAK:

- EAJ-PNVrentzat, Euskadiren etorkizun ekonomikoak bi zutabe funtsezko dauzka: Berrikuntza eta Nazioartekotzea.
- Berrikuntza eta Nazioartekotzea bi estrategia dira, elkarren osagarri, eta Euskadi aurrera ateratzeko asmoz bultzatu nahi ditu EAJ-PNVk. Produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzeko gai bagara bakarrik izango dugu arrakastarako aukera kanpoko merkatuetan. Modu osagarrian, nazioarteko enpresek gaitasun eta informazio handiagoak dauzkate beren lehiakideei aurrea hartzeko eta merkatu berrien beharri zehar erantzuten dieten produktu berriak garatzeko.
- Nazioartekotzea estrategia bideragarri bakarra da, espainiar merkatura hondoratzen ari dela ikusirik. Nazioartekotzea bermerik onena da euskal enpresen arriskuak dibertsifikatzeko eta lehiakortasun orokorra hobetzeko, enpresa esportatzaileak direlako, hain zuzen ere, lehiakorrenak.
- EAJ-PNVk uste du nazioartekotzea ez dela aukera bat, baizik eta premia bat. Euskadik kalitatezko enplegua edukitzea nahi badugu, Herri gisa dugun helburua izan behar da gure enpresarik garrantzitsuenak benetako euskal multinazionalak izan daitezela, eta gure produktuen kalitate-irudia munduan zehar zabal dezatela.
- Nazioartekotzea ez da bakarrik enpresen erronka izan behar, baizik eta herri osoarena. EAJ-PNVren iritzian, Euskadiren nazioartekotzeak kultur aldaketa bat ekarriko du, gaur egun eta etorkizunean eragin handia izango duena. Munduan integratu beharra dugu, baldin eta gure Herriaren posizioa finkatu nahi badugu, gure ingurua gero eta globalagoa delako eta estatuek gero eta garrantzi gutxiago dutelako. Eta ahalegin hau denok batera egin behar dugu, erakunde publiko eta pribatuen artean indarrak eta sinergiak batuz.
- Euskadik kanpo merkatuetara irekitzeko estrategian lehenengo fasea osatu du. Hurrengo zikloan behin betiko jauzia egin behar dugu. EAJ-PNVrentzat, funtsezkoa da etapa berri honetan helburu zail baina egingarria lortzea: hurrengo legegintzaldia amaitu baino lehen 30.000 milioi eurotaraino iristea esportazioetan, inoiz lortutako kopururik handiena (2011koa) %50ean gehituz.
- Exijentzia hau erronka positiboa izan behar da, eta gure ekonomiaren nazioarteko posizioa sendotu behar dugu. Euskadi eta bere erakundeak nazioarteko komunitatean integratu behar ditugu, modu naturalean. Izaera politikoa eta ekonomikoa duten nazioarteko sareetan parte hartze instituzionala, soziala eta ekonomikoa bultzatu behar dugu.



- Helburu hori erdiesteko, gure ustez, beharrezkoa da nazioarteko lankidetzako itunak eta estrategiak asmatzea, batez ere nazioartean enpresa liderrak dauzkagun sektoreetan eta gure politika industria-lean lehentasuna daukaten sektore berrietan.
- EAJ-PNVren ustez, enpresen nazioartekotzea Euskadi kanpoan, Europan eta munduan, nazio berezi gisa proiektatzeko erakundeek daukaten estrategian txertatuta egon behar da. Munduari begiratzeko ikasi behar dugu Euskadi ikusteko.
- Nazioartekotzeak lehentasunak eta enfokea eskatzen ditu. Europa euskal produktu eta zerbitzuen merkatu nagusia da gaur egun. Europa da gure benetako barne merkatua. Europan berrikuntzan, sormenean eta enpresa kulturaren lider diren Europako beste eskualde batzuekiko lotunea izan behar da Euskadi.
- Euskadik bere herrialde-marka sortzeko estrategia integrala eta propioa mendekotasunik gabe garatzeko potentzialtasuna eta lehengaiak dauzka. EAJ-PNVn estrategiatzat hartzen dugu munduaren aurrean irekitzea, zer egiten ari garen erakusteko eta hori hobeto egiteko, Euskadi Markaren (Basque Country) kokapena bultzatuz eta irekitze hori geure balioetatik, geure kulturatik eta geure "egiten jakitetik" planteatuz. Munduari ireki behar gaitzaizkio eta mundua Euskadira ekarri.
- Erronka egina dago: Euskadi munduko agertokian kokatu behar dugu. Gure gizartearen ongizatearen eta etorkizunaren alderdi garrantzitsu bat munduan eta enpresek erronka honi aurre egiteko duten gaitasunean jokatzeko da.

- GURE KONPROMISO ETA EKIMENAK.

## 1. KONPROMISOA. EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEA HERRIALDE-ESTRATEGIA BIHURTZEA.

### 1. EKIMENA: Nazioartekotzearen Euskal Agentzia sortzea:

- Agentzia hau SPRIren gaur egungo jarduerak berregitearen oinarrian eratuko da. Enpresak nazioartekotzeko estrategiari lehentasuna emango dio eta ondoko helburuak izango ditu:
- Enpresak nazioartekotzeko gobernuak ematen dituen laguntzen programak bultzatzea, kudeatzea eta bateratzea.
- Gaur egun dauden giza eta ekonomi baliabideak berrantolatzea, sinpletzea eta baloratzea, ahalik eta modurik eraginkorrenean.
- Eusko Jaurlaritzaren, Merkataritza Ganbaren, Foru Aldundien eta nazioartekotzearen eremuan dinamikoen diren enpresa klusterren jarduketak koordinatzea.
- Euskal enpresentzat benetako leihatila bakarra sortzea, Euskadiko eta estatuko erakunde publiko guztien programen, laguntzen, finantzaketaren eta nazioartekotzeko gainerako tresna lagungarrien inguruko informazio guztia jasotzen eta bateratzen duena.
- Nazioartekotzean emandako zerbitzuen kalitatea kudeatzeko sistema integralak bultzatzea, nazioarteko zerbitzuen Kalitatea eta Eraginkortasuna Ebaluatze Programaren bidez.
- Finean, helburua ez da orain dauden tresnei gaineratzen zaien tresna berria sortzea, baizik eta SPRIren jarduera berrorientatzea, eta nazioartekotzeko estrategia bultzatzea, dauden gainerako agenteekin koordinatuta, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eremuan. Agentziak parametro guztiz profesionaletan egingo du bere jarduna. Beraren aurrekontua eta ustiapen-kontua helburuak betetzeko eta kalitatezko zerbitzuen eskaintzari lotuta egongo dira, kontraprestazio ekonomiko egokiarekin.

### 2. EKIMENA: Euskadi-Basque Country marka garatzea, euskal produktuak kanpoan identifikatzeko elementu gisa.

- Basque Country markaren estrategia gizarteak parte hartzen duen gogoeta-prozesu baten bidez bultzatuko dugu. Prozesua Eusko Jaurlaritzak gidatuko du, eta erakundeek eta ekonomi eta gizarte eragileek arteko gogoeta bateratua izango da.
- Basque Country marka nazioarteko azoka eta erakusketetan hedatze kanpainak eta argitalpenak eginez proiektatuko da, gure herriko talde industrial, enpresa eta erakunde garrantzitsuenekin bat eginez.
- Halaber, Euskadin diseinatzen edota eraikitzen diren eta nazioarteko kalitate-probarik zorrotzenak gainditzen dituzten produktu guztiei logotipo bat jarriko zaie. Euskal produktuen benetako kalitate labela.

### 3. EKIMENA: Europako beste eskualde batzuekiko lankidetzak hitzarmen iraunkorrak bultzatzea, interes komunen sare bat sortzeko.

- Euskadirekin interes komunak dauzkaten europar eskualdeekin teknologiko, hezkuntzako, kulturako, turismoko eta enpresetako lankidetzak akordio iraunkorrak sinatzea bultzatuko dugu. Euskadi Europari begira eraiki nahi dugu, gure merkatu naturala baita.
- Euskadirentzat lehentasuna duten europar eskualdeekin zuzeneko hegaldiak bultzatuko ditugu, harreman iraunkorren plataforma egonkor bat errazteko.



---

#### 4. EKIMENA: **Euskadira atzerriko inbertsioak erakartzeko bulego bat bultzatzea.**

---

- Zuzeneko inbertsioak eta euskal enpresak erakartzeko programa bat sustatuko dugu, Euskadik sektore estrategikoetan dauzkan aukera eta potentzialtasunak aprobetxatzeko jarduketa bereziak eginez.
- "Invest in the Basque Country" unitatearen jarduera eta baliabideak indartuko ditugu, eta atzerriko inbertsioekiko harremanetarako bulego bihurtuko dugu. Bulego hau leihatila bakarra izango da atzerriko inbertsioak Euskadira erakartzeko.
- Bulegoak foru aldundiekin eta gure Herriko klusterrik garrantzitsuenekin elkarlan estua egingo du.

---

#### 5. EKIMENA: **"Global Basque Network" sarea sortzea.**

---

- Kanpoan dauzkagun enpresa-eragileen sarea bultzatu, handitu eta berrantolatuko dugu. Berezi, Kanpo Ekintzako Plan Estrategikoak bulego iraunkorren eta ordezkarietzen sarea berregituratuko du. Haien arteko koordinazioa hobetuko du eta euskal enprekin komunikazio kanal bakarra sortuko du.
- Gainera, Euskadiko bulegoek eta ordezkariak iraunkorrek euskal zentroekin daukaten koordinazioa hobetuko dugu. Helburua 200 eragile eta profesional baino gehiago elkarrekin lotzea eta sarea munduko 100 herrialdetara zabaltzea da.

---

#### 6. EKIMENA: **Euskal Enpresak nazioartekotzeko laguntza-programak indartzea.**

---

- Ibilbide oso eta argia sortuko dugu, esportaziorako eta nazioartekotzerako laguntza guztiak barnean hartzen dituen, hasierako gogoeta estrategikoan laguntzeko programe-tatik, kanpoan ezarpen komertzial eta produktiboak egiteraino.
- Ibilbide horretan dauden eragile eta laguntza guztiak identifikatuko ditugu eta enpresei laguntza horiek eskuratzea eta kudeatzea erraztuko diegu. Helburua denok batera norabide berean lan egitea eta euskal esportazioen kopuruak %50 gehitzea lortzea da.

## 2. KONPROMISOA.

### **EUSKADIKO ENPRESA GARRANTZITSUENekin ETA ENPRESA-TALDE LIDERREKIN LANKIDETZA PUBLIKO ETA PRIBATUA SUSTATZEA.**

---

#### 7. EKIMENA: **Lanerako plataforma iraunkorra sortzea Euskadiko 15 enpresarik edo enpresa-talderik garrantzitsuenekin beren nazioarteko proiektioan.**

---

- Lan plataforma iraunkor bat abiatzea eta dinamizatzea Euskadiko enpresarik edota enpresa-talderik garrantzitsuenekin, lankidetzaren sustatzeko eta nazioartekotzeko aukera berriak identifikatzeko eta aprobetxatzeko.

---

#### 8. EKIMENA: **Baterako jarduketa programa sortzea, enpresa garrantzitsuenen hornitzaile eta azpikontratista diren euskal enpresek bidea beraiekin egin ahal izateko eta merkatu berrietan ezarri ahal izateko.**

---

- ETEen eta nazioartekotu nahi duten enpresarik garrantzitsuenen arteko integrazio berritzaileko lankidetzaren bultzatzea. Horrela, batera, helburu diren merkatuei balio handiagoa eskaini ahal izango da, bestetik, sortutako baliorik gehiena euskal enpresetan geratzea lortuko dugu.

---

### 9. EKIMENA: Nazioarteko eta alde askotako proiektu handietan parte hartzea bultzatze-ko plan estrategikoa.

---

- Euskadik eskualde garapenerako politika publikoak diseinatzen eta aplikatzen daukan esperientzia aprobetxatzea, kanpoan negozio-aukerak sortzeko, batez ere ingeniariartzako eta aholkularitzako zerbitzu aurreratuen sektorean.
- Zehazki, hiri garapen iraunkorrean eta hirien birsorkuntzan sortzen diren aukera guztiak aprobetxatzeko erakundeen arteko lankidetzak garatuko da; berrikuntza eta lehiakortasuna; Ingurumena; Energia eta parke teknologikoen ezarpena eta kudeaketa. Euskadik esperientzia handia eta kontrastatua dauka jarduera eta gai hauetan, nazioarteko eremuan aplikatu ahal izateko.

---

### 10. EKIMENA: Nazioarteko Ingeniaritza eta Aholkularitza Proiektuetarako Euskal Fondoa.

---

- Fondo misto bat abiatuko da, enpresa pribatuekin lankidetzan, euskal enpresek nazioarteko proiektuetan duten presentzia bultzatzeko asmoz, presentzia hori gauzatzeko euskal ekoizpen sarean efektu bultzatzailea eduki dezan.

---

### 11. EKIMENA: Kanpoan enpresa-plataforma berriak abiatzea.

---

- Kanpoan Euskadi plataformak sendotuko ditugu, Euskadiko talde garrantzitsuenekin eta industri sarearekin lankidetzan, munduko lekuri dinamikoetan industrialde berriak eta enpresa plataforma berriak abiatzeko.

---

### 12. EKIMENA: Euskal enpresen nazioarteko garapena bultzatzen duten azpiegitura berriak.

---

- Azpiegituren eta haien erabileraren optimizazioaren kudeaketa koordinatua bultzatuko dugu, gure enpresen kanpo konektibitatea errazteko.
- Euskadi-Akitania Euro-eskualdearen Lurralde Lankidetzako Europar Elkarteak bultzatuko dugu, Euro-eskualdearen potentzialtasun logistikoaren elementu dinamizatzaile gisa.
- Europako korridore atlantikoan hobeto integratzea bultzatuko dugu. Horretarako, iraganbideko azpiegitura handien eraginkortasuna, sektore logistikoan aukera berrien sendotzea eta kokapen eta inbertsioko erakarpenak handituko ditugu.

## 3. KONPROMISOA. EUSKAL ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN (ETE) ESPORTAZIO-OINARRIA HANDITZEA.

---

### 13. EKIMENA: Esportazioan jardun ohi duten ETEei beren merkatuak handitzen eta dibertsifikatzen laguntzea.

---

- Esportazioan diharduten ETEei laguntzeko programak indartuko ditugu, kanpoan duten presentzia indartu dezaten, ordezkariak edo ekoizpen-ezarpenak irekiz, eta orain dauden merkatuetan presentzia dibertsifikatua izan dezaten.
- Helburu zehatza da 3.000 euskal enpresak beren produktuak modu erregularrean esportatzea eta kanpo merkatuetan beren presentzia finkatzea.

---

### 14. EKIMENA: Merkatu berrietan euskal ETEen presentzia handitzea.

---

- ETEei zuzendutako laguntza programak bultzatuko ditugu, merkataritzako ordezkariak irekitzen direnetik funtzionamenduko lehenengo urtean langileriako eta martxan jartzeko gastuetarako diru-laguntzak emateko, batez ere herrialde emergenteetan.



- Gainera, ETEak kanpoko enpresetara errazago iristeko biltegi logistiko berriak martxan jartzea bultzatuko dugu.

---

**15. EKIMENA: Sektoreetako elkarteei eta klusterrei laguntzea, elkarteko kide diren ETEak nazioartekotzen laguntzeko berariazko planak diseinatu, definitu eta gauzatzeko.**

---

- Klusterren eta sektoreetako elkarteen jarduna beren kide diren enpresen kanpo presentzia handitzera bideratuko dugu berariaz. Diskriminazio positiboko tresnak finkatuko ditugu klusterren eta elkarteen bitartez enpresen lankidetzeta eta elkarlanerako mekanismoen bidez bideratzen diren nazioarteko ekimenetarako.

---

**16. EKIMENA: Oinarri teknologikoa duten enpresa gazteei nazioartekotzen laguntzeko berariazko programa, batez ere Zientzia eta Teknologia Planean ezarritako sektore estrategikoekin zerikusia dutenak eta zentro teknologikoen euskal sarean sortutakoak.**

---

- Arreta berezia emango diogu zentro teknologikoen euskal sarean sortutako oinarri teknologikoko enpresa berrien nazioarteko proiektioari, dauden lankidetzeta akordioak aprobetxatuta.

---

**17. EKIMENA: Esportazioko partzuegoak eta enpresak sustatzeko taldeak kanpoan indartzea.**

---

- Kanpo merkatuetaraino iristeko ETEen arteko lankidetzeta indartzeko asmoz, esportazio partzuegoak sustatzeko programa bat ezarriko da, lau urtetarako, kanpoan baterako merkataritzako egiturak eta sustapen taldeak sortuz, nazioartekotzeko baterako jarduerak egiteko akordio iraunkorrak eginez.

---

**18. EKIMENA: "FIRST STEP EXPORT PYMES", esportaziorako lehenengo urratsa.**

---

- Merkataritza ganbarekin eta aldundiekin lankidetzeta akordioak bultzatuko ditugu, oraindik kanpo merkatuetara iristeko jarduerarik egin ez duten ETEei zuzendutako programa berria abiatzeko. Helburua da urtero 250 ETE berrik aukera izatea kanpora irekitzeko lehen urratsa emateko. Programa honetan, ondoko urrats hauek sartuko dira: nazioartekotzeko potentzialaren hasierako diagnostikoa, kanpora irekitzeko plana garatzea, merkataritzako misio zehaztetan sartzea, eta lehenengo urtean esportazioko kanpoko kudeatzaile bat denbora partzalean kontratatuzko gastuak ordaintzeko aukera.

---

**19. EKIMENA: Mikroenpresen plan berezia, merkatu mugakideetara iristeko.**

---

- 15 langiletik beherako enpresentzat, txikiak direlako zuzenean nazioarteko merkatuan sartu ezin badira, berariazko programa bat planteatuko da, beren produktuen tokiko merkatua alboko merkatuetara zabaltzeko, foru aldundiekin eta merkataritza ganbarekin batera.
- Gainera, Internet bidez mikroETEen salmentak bultzatzeko programa planteatuko da. Programa honetan prestakuntza ikastaroak, sistema finkatzeko laguntzak eta gerorako banaketaren logistikari buruzko aholkularitza sartuko dira.

## 5. KONPROMISOA.

### ESPORAZIOARI LAGUNTZEKO FINANTZA-TRESNAK BULTZATZEA.

- 20. ekimena: Esportaziorako kredituko aseguruak indartzea, ETEentzat duten kostua ordaintzeko diru-laguntzak emanez.

- Berariazko hitzarmenak egingo ditugu gaur egun epe laburrerako esportaziorako kreditu-aseguruak eskaintzen dituzten erakundeekin, euskal ETEek finantzaketa eta kostu baldintza abantailatsuekin eskuratu ahal izan ditzaten.

---

#### 21. EKIMENA: **Esportazioko eragiketa handientzako finantza-laguntza.**

- Finantza-erakundeekin batera eta esportazioari finantza-laguntza ematen dioten erakundeekin batera, programa bat sortuko dugu. Programa hau beren-beregi egokituko zaie esportazio eragiketa jakin batzuei, alegia, bolumen handia dutelako edo gauzatzeko epe luzea daukatelako sektore zehatz batzuetan (ekipo-ondasunak, aeronautika edo ontzigintza) finantzaketa berezia behar dutenak.

## 6. KONPROMISOA.

### **GIZA BALIABIDEEN NAZIOARTEKO PRESTAKUNTZA ETA ESPERIENTZIA BULTZATZEA, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN.**

---

#### 22. EKIMENA: **Ikasleen mugikortasuna handitzea European.**

- Erasmus eta Leonardo Da Vinci programak indartuko dira, unibertsitateko eta LH-ko ikasleek kanpoan ikas dezaten.
- Euskadik interesak eta lankidetzako harreman iraunkorrak dauzkan europar eskualdeak lehenetsiko dira ikasketak burutzeko lekuak aukeratzekoan.

---

#### 23. EKIMENA: **Ikasleek praktikak kanpoan egitea bultzatzea.**

- Lanbide Heziketako eskolekin, unibertsitateekin, enpresa-elkarteekin, aldundiekin eta finantza-erakundeekin lankidetzan, beka-programak bultzatuko ditugu, 3 hilabetez kanpoko erakunde eta enpresetan praktikak egiteko, prestakuntza-programaren azken fasea alegia.

---

#### 24. EKIMENA: **Global Training programa. Lehenengo lan esperientzia kanpoan.**

- Enpresa munduarekin koordinatutako programa bat abiatuko da, unibertsitateko eta lanbide-heziketako gazte tituludunari prestakuntza teorikoko denboraldi bat eta kanpoan lehenbiziko lan-esperientzia praktikoa eskaintzeko.
- Programa honetan parte hartzen duten euskal enpresek laguntza jasoko dute gazteen gastuak ordaintzeko kanpoan bizi diren bitartean. Era berean, diskriminazio positiboa eta lehenetsuna izango dituzte euskal erakundeek nazioartekotzea babesteko ematen dituzten diru-laguntzak jasotzeko orduan. Helburua da urtero Euskadiko 500 gaztek lehenbiziko esperientzia bizi dezatela kanpoan.

---

#### 25. EKIMENA: **Atzerriko prestakuntza-zentroekiko akordioa.**

- Merkatu emergenteetan dauden negozio-eskolekin lankidetzak-akordioak eta itunak sinatuko dira, euskal unibertsitateetako ikasleekin trukea egiteko asmoz.
- Era berean, lankidetzak eta itunak bultzatu behar ditugu, bai tokiko unibertsitateekin bai negozio-eskola ospetsuekin, merkatu emergenteetan daudenekin, gure enpresetako zuzendaritzetako pertsoneri herrialde horietako errealitate sozioekonomikoa erakusteko.







## MUNDUARI ZABALIK DAGOEN EUSKADI

ENPRESEN  
NAZIOARTEKOTZEA,  
HERRIALDE APUSTUA

EUSKADI, DESTINO  
TURISTIKOA

EUSKADI MUNDURA  
HEDATZEA ETA LANKIDETZA  
ESKAINZEA

### PRINTZIPIOAK:

- Turismoa, jarduera ekonomikoa eta enplegua dinamizatzen dituen faktorea izateaz gain, gure lurraldea nazioartekotzeko eta irekitzeko prozesua bultzatzeko tresna indartsua da. Bisitatzen gaituzten pertsonak ezagutzea eta haiekin kontaktuan egotea funtsezko urratsa da, gero bestelako lankidetzak aukerei heltzeko enpresaren munduan, teknologian, erakundeen artean edo kulturaren. Horregatik, EAJ-PNV-kook uste dugu turismoaren sustapena Euskadi kanpoan sustatzeko estrategia orokor baten barruan sartzen dela.
- Euskadin turismoa sektore ekonomikorik dinamikoenetako bat da eta haren pisu espezifiko handiagoa da gure egitura ekonomikoan. Hala ere, hiru lurralde historikoetako bakoitzean bere ezaugarriak dauzka, eta hiriburu batetik bestera eragin ezberdina du.
- Euskal turismoaren hazkundeak, 1998tik aurrera, urterik urte izan duen hazkundera etorkizunerako aurreikuspenak baino handiagoa izan da. Horregatik, uste dugu gure industriaren kopuruak 2020. urtean 3,5 milioi sarrera eta 7,5 milioi ostatu-gau izango direla. Kopuru horiek lortzea eta are gainditzea EAJ-PNVren gobernu eginkizunetako bat izango da.
- EAJ-PNVren konpromiso nagusietako bat etorkizuneko euskal turismo industriaren oinarriak finkatzea da. Oinarri horiek euskarri sendoa eduki behar dute, modu antolatuan hazi ahal izateko, merkatuen aukera guztiak aprobetxatuz eta turismo-destino kalitatezko, lehiakor, berritzaile eta batez ere profesionala eskainiz.
- Turismoaren sektoreak koordinazio eta lankidetzak egokiak eskatzen ditu turistei eta bisitariei esperientzia gogoangarriak eta kalitatezkoak eskaintzen dizkieten eragile guztien artean (publikoak eta pribatuak).
- Gaur egungo krisi ekonomikoan, gure potentzialtasun bereizgarriak ahalik eta gehien aprobetxatu nahi ditugu sektore hau bultzatzeko, gure gaur egungo ekonomian pisu handia baitu, aberastasuna eta lanpostuak sortzeko gaitasun itzela daukalako.
- EAJ-PNVk turismoaren sektorea babestu eta eredu iraunkoragoetara bideratu nahi du, ingurumenarekin eta gure herriko eta bisitatzen gaituzten pertsonen herrietako dibertsitate kulturalarekin harmonian eta errespetuz. Uste dugu hori dela denboran zehar ahalik eta garapenik handiena lortzeko modu bakarra. Hori erdiesteko bideetako bat landa inguruneetan turismoa modu berezian zaintzea eta balaratzea da, ingurune hauen eta haien biztanleen biziraupenerako formula gisa.

- Hiri-destinoak eta hirien inguruko destinoak nagusi dira Euskadin, hiri-turismoa turismo guztiaren % 62 baita. Honelako ereduek gero eta zailtasun handiagoak dituzte gainerako hirietatik bereizteko. Hiriak gero eta berdintsuagoak dira. Abangoardiako urbanismoa eta arkitektura izan ohi dituzte, zerbitzuetan oinarritzen dira, eta kultur eta kirol ekimenetarako potentzialtasun handia daukate. Aisialdiko baliabideak eta zerbitzu estrukturalak erabat globalizatuta egon ohi dira. Horregatik, garrantzitsua da destinoek elementu bereizgarriak edukitzea: gauza materialen eta ez-materialen erreferentziak dauzkatenak, eta destino hori nahitaez bisitatu behar izateko plus lehiakor hori eskaintzen dutenak.
- Joan den legegintzaldian aldagai horiek guztiak indargabetzen saiatu dira. Euskadi marka gastronomiaren sinonimo hutsa izan da. Ez da kontuan izan, ordea, gure markaren potentzialtasun handia erakarpen kulturaletan datzala. Erakarpen horiek honaino etorri gero bakarrik goza daitezke, eta ezin dira beste inon ikusi.
- EAJ-PNVk Euskadi destinoaren posizioa bultzatzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du, herrialde-marka estrategiaren bidez. Horretarako, garatutako herrialdearen irudia islatuko dugu: berrikuntza, tradizioa eta antzinako kultura uztartuz, eta turismo iraunkor eta selektiboa bultzatuz.
- EAJ-PNVk uste du beharrezkoa dela Euskadiren multiproduktu izaera bultzatzea, batez besteko egonaldia eta okupazio maila hobetzen dituzten produktu berrien bidez. Produktu horiek touring (herrialdean zehar ibiltzea), eta hondartza eta naturaren inguruko txoko berriak, hala nola surfa, izan daitezke, eremu garatuenean osagarri (kultur turismoa, city breaks, gastronomia, ardoa eta biltzarrak, batzarrak eta pizgarriak).
- Ezinbestekoa da sektore honen aldeko apustu serioa egitea eta haren hazkundea zaintzea. Horretarako, eskaintza egokitu behar da eta sektorea nazioarteko turismo zirkuituetan integratu behar da, turismoko azpiegiturak berrizatu behar dira, profesionalen gaitasuna handitu, modalitate eta joera berriei egokituz, eta gure natur eta ingurumen baliabideen iraunkortasuna zaindu.
- Sektorea garatzeko, uste dugu beharrezkoa dela teknologia berriak erabiltzen hasteko pizgarriak ematea eta teknologi horien erabilera sustatzea, bisitariaren eta destinoaren arteko harreman eredu berrien bilakaera mesedetuz eta komunikazio bideak handituz. EAJ-PNVk ulertzen du honelako industria handian informazioaren teknologiek funtsezko papera jokatzen dutela antolakundearen eraginkortasuna hobetzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du lurralde plangintzan oinarritutako turismo garapen integralaren eredu bat bultzatzeko, ingurumena errespetatzen duen kudeaketa baten bidez, Euskadiko baliabide ugariak (hala naturalak eta paisaiarenak, nola historikoak eta kulturalak) balio erantsi bihurtzeko kapaz dena.

- Printzipio eta helburu horiek betetzeko, konpromiso eta ekimen hauek planteatzen ditugu:

## 1. KONPROMISOA.

### **EUSKAL TURISMO ADMINISTRAZIOA MODU ERAGINKORRAGOAN ANTOLATZEA ETA NEURTZEA, DAUDEN EGITURAK HOBETO ARRAZIONALIZATZEKO.**

#### **1. EKIMENA: Lurralde historiko bakoitzeko eragileen koordinazioa bultzatzea, kudeaketa eraginkorragoa sustatuz eta tokiko interesak defendatuz.**

- Lurralde historiko bakoitzerako turismoko mahai bat sortzea proposatzen dugu. Mahai horretan Basquetour, foru aldundia, lurraldeko udal nagusiak eta turismo industriako eragileen kide esanguratsuak egongo liriteke. Mahai bakoitzak modu zuzenago eta eraginkorragoan defendatu eta ebatziko ditu lurralde bakoitzak dauzkan arazo eta erronkak, bakoitzaren ezaugarriak asimilatuz.
- Turismoko Zuzendaritzaren lurralde ordezkarietzek, Basquetour-en zerbitzutan, protagonismo berezia eskuratu behar dute legegintzaldi berri honetan. Lurralde erakunde hauek partaidetza publiko eta pribatuarentzat, turismo enpresentzat eta destinoaren eskualde-kudeaketako erakundeentzat irekita egon behar dira. Elkarte izaera izan behar dute, eta gai garrantzitsuetan erabakiak hartzeko aukera izan behar dute, esate baterako, merkatu objektiboak aukeratzeko eta tipologiaren eta intentsitatearen arabera egin beharreko sustapen ekintzak erabakitzerakoan.

#### **2. EKIMENA: Basquetour-en paper dinamizatzailea piztea**

- Basquetour, Euskal Turismo Agentzia, turismo jardueraren arduraduna izan behar da Euskadi osoan. Turismoa sustatzeko eta normaltzeko eginkizunetarako zuzendaritza operatibo bakarra.

#### **3. EKIMENA: Foru aldundiekin turismoko eskumenak koordinatzea.**

- Baterako lantalde bat sortzea, turismoko eskumenak foru aldundiekin konpartitzeko eta, bidezkoa balitz, haiei eskuordetzeko, lurralde historiko bakoitzarekin zerikusia duten arazo berezietarako. Euskadi osoan turismoa sustatzeko eta arautzeko administrazio erkidearen jarduna mantenduko litzateke.

#### **4. EKIMENA: MPKBEen euskal merkatua antolatzea eta harmonizatzea**

- Administrazio arteko egitura bat, oso operatiboa dena, artikulatzea, MPKBEren (Meetin-gak, Pizgarriak, Konbentzioak, Biltzarrak eta Ekitaldiak) euskal merkatua antolatzen eta harmonizatzen duena. Horretarako, gure destinoan merkatu horretarako dauzkagun baliabide guztiak (zenbait administrazioen esku egon ohi direnak) behar bezala erabiliko ditugu.

#### **5. EKIMENA: Antolamendu juridikoan jasotako ahalmen legegile guztia garatzea.**

- EAEn Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen garapen osoa proposatzen dugu, gure Herrian turismoa normalizatzeko asmoz.
- Normalizazio horren oinarria turismoko baliabide interesgarrien definizioa izan behar da. Gainera, turismorako eskualdeak zehaztu behar dira eta, horren barruan, azpi-destino bakoitzean zer den turistikoa eta zer ez definitu behar da, ingurune horietan ezarri beharreko lurraldearen arloko planen definizioaren barruan.



---

**6. EKIMENA: Eskualdeen baliabideen, jasandako pisuen eta turismo-zamarako gaitasunen neurketa egokia egiteko.**

---

**7. EKIMENA: Turismoko baliabide bultzatzaileen inbentarioak egitea sustatzea.**

---

- Turismoko baliabide bultzatzaileen inbentarioak egitea eta baliabide horien gaineko balizko jarduketan inbentarioak egitea, etorkizuneko plangintzetarako erreferentzia izan daitezkeenak. Inbentario horien bitartez, dauden turismoko baliabideak, gauza ukigarrien eta ukiezinen (natura eta paisaiak) ondare baliabideak, baloratzeko behar diren esku hartzeak mailakatu eta antolatuko lirateke.
- Atal honen barruan, protagonismo berezia izan behar dute zenbait baliabide motek. Baliabide horiek, nazioartean dituzten garrantziagatik eta oihartzunagatik (batez ere EBn), oso baliotsuak izango dira destinoa sustatzeko eta turismoaren merkatuetan leku egokian kokatzeko. Baliabide horiek Estazio Nautikoak (euskardeko lurraldeetako bakoitzean bat proposatzen dugu), Bide Berdeak eta Europako Kulturaren Ibilbide Handiak (Ruta de la Llana, Hilerrien Ibilbidea eta Donejakue Bidea kostaldetik) dira.

---

**8. EKIMENA: Gure destinoa bultzatzeko ahalmena duten kultur baliabideak eta, oro har, ondare baliabideak, baloratzeko laguntzea, turisten bisitaldiei egokituz.**

---

## 2. KONPROMISOA.

### “EUSKADI” TURISMOKO MARKA NAZIOARTEAN BIRJARTZEA.

---

**9. EKIMENA: Euskal kultura, Euskadi turismoko marka gisa birjartzeko oinarriko osagai.**

---

- Euskadi turismoko marka birjartzea, gure destinoa turismoko beste leku batzuen artean bereizten duten nortasun-osagaiak birbaloratzuz. Euskal kulturarekin eta geure ondare propio eta pribatiboarekin zerikusia duten alderdiak. Gauza ukigarrien eta ukiezinen altxorak, eta tresna ahaltsuak erabiltzea: gure hizkuntza, tradizioak, bizimodua, lan egiteko, berriztatze, hazteko eta eboluzionatzeko moduak.

## 3. KONPROMISOA.

### TURISMOAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA ERRAZTEN DUTEN TRESNAK BULTZATZEA.

---

**10. EKIMENA: Merkatu objektiboak eta haietan sartzeko estrategiak definitzea.**

---

- Merkatuak arakatzeko ekintzak martxan jartzea, gure merkatu helburuak modu egokiagoan definitu ahal izateko.
- Munduko beste alde batzuetako esperientzia arrakastatsuak aztertzea, gure destinoan probatu ahal izateko.
- Gure turismo eskaintzaren balio eta osagai bereizgarriak identifikatzea, sustapen eta merkaturatze estrategiak sortzeko asmoz, identifikatutako merkatuetan sartu ahal izateko.
- Produktu-eremu berritzaileak definitzea. Esparru horietan, gure turismo industriak etengabe berriztatzen den eskaintza prestatu ahalko luke, dagoen eskaeraren arabera.

**11. EKIMENA: Turismoaren ebaluazioa eta jarraipena indartzea.**

- Turismoko adierazlerik garrantzitsuenak eguneratuta mantentzea. Horiek, zalantzarik gabe, turismoko politiketan eta gobernuaren jardunean estrategiak eta jarduerak zuzentzen laguntzen dute. Turismoko Kontu Satelitea, Turismoko Batez Besteko Gastua, sarrierak jatorriaren arabera eta antzeko azterketak. Bereziki aztertu beharko lirateke estrategikotzat jotzen diren merkatuen adierazleek duten eragina.
- Destinoa sustatzeko eta eskaintza merkatuetan aurkezteko formula berriak aztertzea eta etengabeko behaketan mantentzea.

**12. EKIMENA: Teknologia berriak turismoari aplikatuz erabiltzea sustatzea.**

- Aplikazio teknologikoen garapenean sakontzea, zehazki, bezeroek informazioa eskuratzeko eta erosketak egiteko prozesuak errazten dituztenak (B2B2C), eta turismoko kontsumoko ohiko prozesuak errazten eta sinpletzen dituztenak: check-in eta check-out prozesuak (Interpela proiektua), on-line fakturazioa garraiobideetan, turismoko baliabideak erreserbatzea eta eskuratzeko eta abar.

**13. EKIMENA: Euskal diasporako kolektibo guztien turismorako interesa birdefinitzea**

- Euskal diasporako kolektibo guztien turismorako interesa birdefinitzea, batez ere hazkuntza ekonomiko garrantzitsuak dauzkaten herrialdeetan daudenak (Txile, Mexiko eta Brasil, adibidez), xede merkatu turistiko bihur daitezzen.

**4. KONPROMISOA.****TURISMO SEKTOREA BULTZATZEA, EKONOMIA DINAMIZATZEKO ETA ENPLEGUA SORTZEKO ELEMENTUA DEN ALDETIK.****14. EKIMENA: Sektorearen lankidetzaren bultzatzea, turismoko produktu lehiakorren sortzeko osagai lagungarria den aldetik.**

- Euskadiren ezaugarri bereizgarrietan oinarritutako turismoko produktu berrien garapena bultzatzea.
- Euskal kulturarekin eta haren osagai bereizgarriekin zerikusia duten turismoko proposamen berriak garatzea; izan ere osagai horiek dira gure destinoaren benetako erakarpenak, eta gure destinoa bakan eta errepika ezin egiten dute, munduko beste leku batzuetan kontsumitu ezinak baitira.

**15. EKIMENA: Turismoko enpresa berritzaileen sorrera sustatzea.**

- Turismoko enpresa berritzaileen sorreran laguntzea turismoko atal estrategikoetan. Enpresa horiek ez dira bakarrik tamainagatik eta merkatuetan egoteagatik izan behar lehiakorak, baizik eta eskaeraren etengabeko bilakaerari egokitzen zaielako.

**16. EKIMENA: Gure turismo enpresak nazioartekotzeko proiektuak bultzatzea.**

- Gure turismo enpresak nazioartekotzeko proiektuetan laguntzea, batez ere potentzial handiko merkatuetara zuzentzen diren proiektuetan, tamainagatik, egonaldi luzeagoak eskaintzeko gaitasuna dutelako edo gastu handiagoa egiteko gaitasun handiagoa dutelako.

**17. EKIMENA: Sektorearen profesionalizatzea sustatzea eta turismoaren lanbideak babestea.**

- Turismoko gidari diren pertsona guztiak akreditatzea sustatzea, gure destinoan beren jarduera egiteko, destinoa eta hizkuntzak ezagutzen dituztela ziurtatuz.



- Bidaia-agentzia hartzaile berriak bultzatzea (DMC). Agentzia mota hau erabat beharrezkoa da destinoarentzat eta turismoko edozein administraziok babestu behar du.
- Sektoreko erregistroen sorrera sustatzea. Erregistro horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan jarduera profesionalaren garapenerako baldintza orokorrak arautu behar dituzte.

---

#### 18. EKIMENA: **Turismoko baliabideak Euskadira erakartzea.**

---

- Berez turismo eskaera dinamizatzeko eta lanpostuak sortzeko kapaz diren turismo baliabideak kokatzeko behar diren politiken kaptazioa, egokitzapena eta kudeaketa kudeatzea, bai aurrekontuei dagokienez, bai administrazioaren bitartekaritzan.

## 5. KONPROMISOA.

### **GURE TURISMO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO PROZESUETAN BERRIZTAPENA SUSTATzea.**

---

#### 19. EKIMENA: **Merkaturatzeko proposamen berritzaileak garatzea sustatzea**

---

- Destinoko industrien sortutako turismoko produktuak merkatuetara modu azkarrago eta eraginkorragoan iristeko behar diren ekintzak garatzea, bai azken bezeroentzat bai guztzat interesgarriak diren merkatu emisoreetako bitartekarientzat.

---

#### 20. EKIMENA: **Teknologia berrien sarrera bultzatzea, proposamen baliotsu berriak sortzeko.**

---

- Baldintza egokiak sortzea, gure industria turistikoak merkatu fisikoak eta on-line merkatuetan sartzea mesedetzen dutenak.
- Teknologia mugikorren hedapen azkarra kontuan izanik, gure eskaintzaren presentzia teknologia berri horren arabera eskaintzea. Gure destinoa eta bertako agenteek sortutako produktuak ezagutzen laguntzen duten tresnak garatzea, edozein unetan erosi ahal izateko.

---

#### 21. EKIMENA: **Merkaturatzearen prozesu tradizionalak indartzea.**

---

- Merkaturatzearen formatu konbentzionalagoak hartzen dituzten tresnen aldeko apustua egitea, hala nola work-shopak eta B2B azokak, merkaturatze foroak (fisikoak nahiz birtualak), eta merkaturatu aurreko tresnetan posizioa hartzea (konparatzaileak adibidez) eta opari-kutxak bezalako ereduak erabiltzea.

## 7. KONPROMISOA.

### **ESFORTZUAK ARRAZIONALIZATzea ETA ESTRATEGIAK UGARITzea DESTINOA SUSTATZEKO EKINTZETAN.**

---

#### 22. EKIMENA: **Euskadi markaren parte hartzea eta posizio hartzea bultzatzea nazioarteko foro eta azoketan.**

---



---

#### 23. EKIMENA: **Turismo kontsumoko potentzialtasun handiagoa duten merkatuei hurbiltzea bultzatzea eta destino horietan bazkideak lortzea.**

---

**24. EKIMENA: Euskadi destinoa sustatzeko estrategia integrala sustatzea.**

- Gure destinoaren sustapen ekintza arrazionalak, behar bezain dimentsionatuak, egitea, eskura ditugun formatu guztiak erabiliz, adibidez:
  - Zuzeneko ekintzak: destinoaren aurkezpenak, azoketara joatea eta bestelako B2C formatuak, destinoa ezagutzeko ikastaroak, Euskadin Aditua programak etab.
  - Alderantziko ekintzak: Fam eta press trip-ak, bidai agentzietako taldeen ekitaldi handiak egiteko destinoa eskainiz, jardunaldi eta biltzar profesionalak egitea turismoaren eremuan, foroak, lehiaketak etab.
  - Social media eta marketing eta komunikazio ekintzak bitarteko fisiko nahiz birtualetan.

**25. EKIMENA: Destinoak ezagutzeko alde biko programak.**

- Alde biko programak sortzea, turismoko destinoak ezagutzeko, batez ere euskal kolektiboak dauzkaten herrialdeekin.
- SUSTRAIAK bezalako programak proposatzen ditugu, hau da, hitzartutako destinoak bat-bat besteari jakitera ematea. Administrazioaren kudeaketaren ikuspegitik, proiektu hau emisorea izango litzateke, hartzailea bainoago, bidaiaria jasotzen duen industriari nahiz bidaltzen duenari sortutako negozioan oinarritua.

**8. KONPROMISOA.****PRESTAKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA, TURISMOAREN SEKTOREAN GAITASUN BERRIAK EZARTZEKO BITARTEKOA DEN ALDETIK.****26. EKIMENA: Turismoko lanbideetako ikasleen gradu ondoko curriculumak merkatuen benetako eskaerari eta errealitateari egokitzea.****27. EKIMENA: Prestakuntza programa berriak bultzatzea.**

- Prestakuntzako eta motibazioko ekintzak burutzea, bai zuzenekoak bai zeharkakoak, turistarekin zuzeneko kontaktuan dauden eragileentzat. Ekintza hauek egiteko, merkataritza ganbarekin eta elkargo profesionalekin hitzarmenak egingo lirateke.
- Turismo lanbideak birziklatzea, destinoarekin zerikusia duten bestelako turismo produktuak sustatzen eta merkaturatzen dituzten eragileak prestatzeko.
- Destinoa ezagutzeko kanpainak garatzea, profesionala haren garapenean inplikatzeko beharrezko urratsa den aldetik, modu eraginkorragoan sustatuz.

**9. KONPROMISOA.****HAZKUNDERAKO LANKIDETZA.****28. EKIMENA: Turismoko ordezkartzako erakundeetan parte hartzea bultzatzea.**

- Euskadi turismoaren eremuan nazioarteko erreferentzia bihurtzea, ordezkartza erakundeetan parte hartuz, zuzenean edo zeharka (enpresen bidez eta destinoaren berezko beste elkarten bidez), adibidez: OMT, WTTC, AIST, TTRA, IFITT, IPTT, Eurogites, WATA, FUA AV, etab.





- Destinoaren ezagutza dinamizatzeko ordezkartuz gain, nazioarteko iritzi eta kudeaketa erakunde hauetan aktiboki parte hartzeak turismoaren inguruko esperientzia eta ikerketak ezagutzeko iturri agortezina ezagutzeko aukera emango digu.

---

### 29. EKIMENA: Antzeko ezaugarriak dauzkaten inguruneekin lankidetzatza bultzatzea.

---

- Gure destinoaren antzekoak diren lekuekin turismo gaietan nazioarteko lankidetzatza loturak ezartzeko modu aktiboan laguntzea.

---

### 30. EKIMENA: Nazioarteko lankidetzatza eremuetan edota enpresa-ezagutza trukatzeko eremuetan gure enpresen presentzia bultzatzea eta babestea.

---

- Nazioarteko bidaiak eta, oro har, enpresen ezagutzen trukea sustatzea. Azken finean, gure turismo zerbitzuen kudeaketan jardunbide egokiaren ikaskuntza eta berrikuntzarako protokoloak inportatzen dituzten ekimenak bultzatzea.

## 10. KONPROMISOA. DESTINOAREN HOBEKUNTZA TURISTIKOA.

---

### 31. EKIMENA: Seinaleen estrategia komuna.

---

- Gainerako administrazioekin seinaleen inguruko estrategia bakarra diseinatzea. Destinoaren turismo balia bideen norabideari eta kokapenari dagokienez, seinaleztatu behar dena eta nola seinaleztatu behar den definituz.

---

### 32. EKIMENA: Ingeleseko informazioa normalizatzea.

---

- Informazioa nazioartean erabilera zabala duen hizkuntza batean (gutxienez) ematea normalizatzea. Ingelesa da nazioarteko hizkuntza nagusia turismoari dagokionean.
- Informazioaren normalkuntzan errepideak, garraiobideak, turismoko balia bideak eta abar sartu beharko lirateke.

---

### 33. EKIMENA: Gure turismo balia bideen egokitzapena babestea, bai balia bide pribatuetan, bai publikoetan.

---

- Turismo unibertsalaren aldeko apustua egiten dugu, kontu disfuntzionalek baldintzatuko ez dutena. Horregatik, gure turismoko balia bideak (pribatuak nahiz publikoak) egokitzean indar berezia jarriko dugu. Prozesu horiek lurraldearen arloko plan egokietan jasoko dira.



## MUNDUARI ZABALIK DAGOEN EUSKADI

ENPRESEN  
NAZIOARTEKOTZEA,  
HERRIALDE APUSTUA

EUSKADI, DESTINO  
TURISTIKOA

EUSKADI MUNDURA  
HEDATZEA ETA LANKIDETZA  
ESKAINZEA

## PRINTZPIOAK:

- EAJ-PNVren ustez, Euskadik bere lekua aurkitu behar du espazio globalean. Euskadiren proiektzioa nazioartean, nazio gisa, indar-idea horretan, helburu estrategiko horretan, oinarritu behar da.
- Euskadiren nazioarteko proiektzioa funtsezkoa da gure ekintza politikoan. Bai gure kultura eta nortasuna munduan zehar zabaltzeko, bai gure garapen ekonomiko eta sozialarentzat agertoki globalean.
- EAJ-PNVrentzat, Euskadiren kanpo ekintzak norabide hau hartu behar du: gure espazioa lortzea, munduan zuzenean parte hartzea eta eza-gunak izatea, eta gure nortasun ikurrak erakustea eta mantentzea, kanpoan bizi diren euskaldunen kolektiboak bereziki aintzat hartuz.
- Kanpoko esparru honetan, Europa gure ekintza politikoaren erreferente nagusia da. Euskadi Europar Batasunarekin integratzea gure proiektu nazionalaren parte da honezkero. Europar Batasunak badaki barne eta kanpo politika bereziki ezinak direla.
- EAJ-PNVk Europa Batua sortu nahi du, konstituzio federalarekin, subsidiarotasunaren arloko printzipioak gidatua, bere herrien onarpean finkatua, europar demos baten barruan. Europa erreferentea izan behar da beste eskualde batzuentzat mundu globalean. Gaur egungo europar proiektuak ez gaitu asebetetzen. Finantza eta ekonomi krisiak Europar Batasunaren ahultasun estrukturala agerian utzi du. Izan ere, estatuek ez diote beren burujabetza edo subiranotasuna gauzatzeari uko egin nahi, estatuz gaindiko erakunde batek, moneta bakarra duena, eremu politiko, ekonomiko eta fiskaletan eskatzen duen bezala.
- EAJ-PNVk Europako gaur egungo nazioarteko krisia gainditzeko Europar Batasunari ekonomi eta finantza eremuetan eskumen zehatzak ematea proposatzen du, aurrekontu baliabideak emanez eta bereziki haren erakundearen zilegitasun demokratikoa indartuz. Zentzu honetan, estatu-eskualdeek Europaren sorreran parte hartzea faktore garrantzitsua da.
- EAJ-PNVk uste du Euskal Nazioak bere eremu politikoa eduki behar duela Europa berria eratzerakoan. Euskal Nazioa Europa Federal horretako subjektu eta protagonista politiko izan dadin lan egingo dugu. Europa Federal honetan, gure nazioak balizko federazioko gainerako kideekin subiranotasuna konpartituko du, berdintasun osoz.
- Kanpoko ekintzarako egingo dugun politikan, euskal diasporarekin dauden loturak indartzea faktore estrategikoa da, ez bakarrik lotura kultural eta historikoaren arloko tresna gisa, baizik eta erakundearen eta enpresen proiektiorako elementu legez. EAJ-PNVk adierazten du Euskadi munduan zehar barreiatuta dauden euskal jatorriko pertsona guztiekin lotzen sakondu nahi duela etengabe.

- EAJ-PNVk garapenerako lankidetzako estrategia integrala defendatzen du, giza eredu iraunkorra lortzen aurrera egiteko. Garapenaren ikuspegi integralago, bidezkoago eta bideragariagoa. Gizartea eraldatzeko eredu, gizartea osatzen duten pertsonen potentzialtasunetan eta gizartea bizi den ingurunearen zaintzan oinarritua.
- Garapen iraunkorreko eredu ezin da tokiko eskalan eraiki lankidetzaren eta garapenaren dimentsio globala kontuan izan gabe. EAJ-PNVrentzat, herrialde eta eremu behartsuen garapenerako lankidetzaz, beraz, giza konpromisoa eta uko egin ezinezko helburua da mundu bidezkoagoa eta orekatuagoa eraikitze bidean.
- Lankidetzaz deszentralizatuak, bere izaera espezifikogatik eta interes diplomatiko edota ekonomikoekin mendetasun handiagoa duten bestelako lankidetzaz ezinbesteko osagarri delako, balio erantsia ematen du, tokiko garapen prozesu alternatiboekin egiten diren ekarpenari esker eta garapenerako hezkuntza bultzatzen duelako.
- Lankidetzaz eredu bat bultzatuko dugu, zuzentzen zaienen parte hartzetik egin. EAJ-PNVkook uste dugu zuzentzen zaien herrien parte hartzearekin eta onarpenarekin egin behar dela lankidetzaz, nahitaez. Ildo horretan, uste dugu babestutako proiektuekin pertsonen parte hartzerako eta jabeakuntzarako behar diren mekanismoak badaudela bermatu behar dutela.
- Gure ahaleginak lankidetzaz eredu berri bat (kalitatezkoa, parte hartzailea eta itundua) sendotzeko egingo ditugu, garapen ereduaren kalitatea hobetuz, dauden koordinazio eta hitzartze eremuak finkatuz, eta Euskadiko herritarrei gehiago hurbilduz.

- Printzipio eta helburu horiek betetze aldera, konpromiso eta ekimen hauek planteatzen ditugu:

## 1. KONPROMISOA. EUSKADI NAZIOARTEAN PROIEKTATZEKO HERRI-ESTRATEGIA BAT PLANTEATZEA.

### 1. EKIMENA: Kanpo Ekintzako Plan Estrategiko Berria

- Kanpo Ekintzako Plan Estrategiko bat egitea eta garatzea, gizarte eta ekonomi eragileekin eta erakundeekin partekatua, lau urterako, Euskadik kanpoan duen proiektioari modu integralean heltzeko xedez. Planak Euskadiren nazioarteko estrategia osatzen duten alderdiak izango ditu kontuan. Horretarako, ekonomi, gizarte eta politika intereseko itun estrategikoak egiteko, erakundeen proiektiorako, proiektio kulturalerako, lankidetzarako, diasporarekiko harremanetarako, eta europar nazio gisa politikoki proiektatzeko bazkideak eta eremuak fokalizatu eta mailakatuko ditu.

### 2. EKIMENA: Erakundeak eta enpresak sustatzea

- Enpresa-sektorerik dinamiko eta bultzatzailearekin lankidetzan, erakundeak eta enpresak sustatzeko baterako jarduketak egingo dira, interes ekonomiko berezia duten herrialde eta eskualdeetan.

## 2. KONPROMISOA. EUROPAR BATASUNEAN ETA NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN MODU AKTIBOAN PARTE HARTZEA.

### 3. EKIMENA: Euskadik europar eta nazioarteko erakunde eta organismoetan parte hartzea bultzatzea.

### 4. EKIMENA: Euskadiren eta Estatuaren Europar Gaietarako Bi Aldeko Batzordeak berretzea, parte hartzeko eta jarraipena egiteko tresna gisa.

### 5. EKIMENA: Euskadik Europar Kontseiluetan zuzeneko presentzia izatea exijitzea, euskal eskumenen inguruko gaiak aztertzen direnean.

### 6. EKIMENA: Euskal parte hartzea indartzea Europar Batzordeetan.

### 7. EKIMENA: Europan Itun Ekonomikoa defendatzea.

### 8. EKIMENA: Euskadi Europar Nazio gisa onartzea eta euskara Europako hizkuntza ofiziala izatea sustatzea.

### 9. EKIMENA: Euskal eskumenak defendatzea EB-ko garapen legegilean eta haren araudia betearaztean, subsidiarotasun printzipioaren arabera, eta Justiziako Auzitegiaren aurrean euskal gizartearen interesak defendatzea modu aktiboan legitimatzea.

### 10. EKIMENA: Europako beste nazio eta eskualde batzuekin lankidetzara iraukorreko sareak sortzea.

- Euskadiren interes berak dituzten europar eskualdeekin alde biko eta alde ugariko lankidetzarako akordio iraunkorrak egitea proposatzen dugu, kultur, turismo, teknologi eta enpresa trukea bultzatzeko.

- Mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak bultzatuko dugu osagarritasun eremuetan, Kanpo Ekintzako Plan Estrategikoaren arabera eta, bereziki, Europako atlantiar eremuaren barruan.

### 3. KONPROMISOA. GARAPENERAKO LANKIDETZA POLITIKAK SUSTATZEA.

#### 11. EKIMENA: **Garapenerako lankidetzaren politikaren eraginkortasunean sakontzea, eta giza eskubideen sustapenarekin eta defentsarekin duen loturan sakontzea.**

- Ekimen hau garatzeko, ondoko ekintza hauek planteatzen ditugu:
  - Garapenerako Euskal Agentziari balioa ematea, kudeaketa eta plangintza tresna den aldetik, Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren politikarako daukan aurrekontuaren % 0,7ra iristeko konpromisoan aurrera eginez.
  - III. Lankidetzako Plan Estrategikoa onartzea eta gauzatzea, administrazio publiko guztiekin eta gainerako lankidetzaren eragileekin (publikoak nahiz pribatuak) lankide jardunik, helburuak berrantolatze eta jarduketak fokalizatzeko. Horrela, jarduketak arlo zehatzetan sailkatuko ditugu, euskal lankidetzaren ikusgarria izan dadin eta ukitutako herrietan benetako eragina eduki dezan.
  - Kudeaketa informazio tresnak hobetzea. Hartara, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Behatokia sortuko dugu. Gainera, garapenerako baliabide eta eragileei buruzko kudeaketa, koordinazio eta informazio alorretako sistema integrala abiatuko dugu. Gainerako erakundeak bat egitera gonbidatuko ditugu.
  - Garapenerako lankidetzaren Eusko Jaurlaritzaren politika guztietara zabaltzea. Garapenerako lankidetzaren integratutako jarduketetan zerikusia duten sailen koordinazioa eta ikusgarritasuna bultzatzea.

#### 12. EKIMENA: **Lankidetzako "jardunbide egokia" ikastea eta partekatzea, eta elkartegintza sendotzea.**

- "Jardunbide egokiaren" itunak eta ikaskuntza kolektiboa bultzatzea zeharkako ikuspegiak gehitzeari buruz, sareko lanari buruz, eta gizarte eraldaketa eta komunikaziorako hezkuntza prozesuei buruz.
- Antolaketa sendotzea. Gizarte boluntariotzako esperientzien sustapena bultzatzea, kanporantz eta gure hiri eta herrien barrurantz. Horrela, giza garapen iraunkorrerako esku hartzearen osagarri izango dira.
- Antolaketa aldatzeko tresnak berrikustea eta osatzea, genero berdintasunean, emaitzen araberako plangintzan eta ebaluazioaren kulturen, giza eskubideen ikuspegiaren eta iraunkortasun ekologikoaren ikuspegiaren eraginez.
- Lankidetzako euskal eredia beste eskualde batzuetan errepikatu beharreko adibide gisa bultzatzea.

#### 13. EKIMENA: **Koordinazioa indartzea, lankidetzaren hobetzeko.**

- Lankidetzarako Euskal Kontseilua eta Lankidetzarako Erakundearen Arteko Batzordea bultzatzea, foru aldundiekiko eta euskal udalekiko lankidetzaren politikak hobeto koordinatzeko osagai funtsezkoak diren aldetik.
- Lehentasuna daukaten herrialdeetako tokiko garapenerako agentziekin lankidetzaren egindako diagnostikoetan oinarritutako herrialde-estrategiak definitzeko prozesuak babestea.

---

#### 14. EKIMENA: Lankidetzaren eremuan garapen-kidetzako ekintza eta ekimen berriak bultzatzea.

---

- Garapen-kidetzako ekimenak bultzatzea, bai lankidetzak ofizialetik bai hirugarren sektoretik, Euskadiko emigranteak beren jatorrizko herrietan garapen-eragile izan ahal daitezen.

### 4. KONPROMISOA. EUSKAL DIASPORAREKIKO LOTURAK SENDOTZEA.

---

#### 15. EKIMENA: Kanpoan bizi diren euskal etxeak eta kolektiboak babestea.

---

- Euskal etxeei babes ekonomikoa emateko egitarauak sendotzea, haien azpiegiturak mantentzen laguntzea, eta euskal etxeei lotutako gazteak prestatzeko egitarauak ezartzea.
- Diasporaren oroimen historikoa berreskuratzen jarraitzea, argitalpenen, mintegien eta ikus-entzunezko bitartekoen bidez.

---

#### 16. EKIMENA: Euskal etxeetan Euskal Herriaren egungo errealitatea zabaltzea.

---

- Euskal kultur adierazpenen sustapena eta zabalkuntza ekonomikoki laguntzea kanpoko euskal zentroetan.
- Euskal gizartearen gaur egungo errealitate ekonomiko eta teknologikoaren ezagutza piztea eta sustatzea, hitzaldien eta aurkezpenen bidez.

---

#### 17. EKIMENA: Diasporarekin gazte trukea sustatzea.

---

- Gaztemundu egitaraua indartzea, bertan parte hartzen duten gazteen kopurua gehituz.
- Talentuak erakartzeko eta euskal enpresetan praktikak sustatzeko egitaraua garatzea, munduan zehar dauden euskal etxeetako gazteen artean.

---

#### 18. EKIMENA: Munduan bizi diren euskaldunekin harremanak sustatzea.

---

- Interneten komunikazio atari bat garatzea, munduan barrena bizi diren euskal jatorriko pertsona guztiak harremanetan jartze aldera.
- Munduko euskal etxeen arteko harremanetarako berriazko ataria erabiltzea sustatzea.

---

#### 19. EKIMENA: Euskal etxeen sarea zabaltzea.

---

- Euskal etxe berriak irekitzea bultzatuko dugu bost kontinenteetan, batez ere herrialde emergenteetan.
- Euskal jatorria duten enpresen elkarrekin zabaltzea erraztuko dugu, presentzia gehien duten herrialdeetan.
- Euskal Kolektibitateen Munduko Kongresua ospatuko dugu. Kultur alderdiak eta harreman pertsonal eta instituzionalen alderdiak ez ezik, enpresak sustatzearen inguruko eta merkataritzako eta teknologiko trukearen inguruko alderdiak bultzatuko ditugu.

---

#### 20. EKIMENA: Kanpoan dauden euskal etxe, federazio eta heritarrekiko lankidetzak eta babes politikak garatzea, euskal diasporaren kolektiboaren asistentzia, proposamenak eta lankidetzarekin.

---

- Euskal kolektiboak bizi diren herrialde eta zona behartsuenen garapen endogenorako lankidetzako estrategiari hurbiltzeko eta konprometitzeko politika bat proposatzen dugu.





EUSKADI BERPIZTU

## **ETORKIZUN IRAUNKORRA IZANGO DUEN EUSKADI.**

---

- 13. LEHEN SEKTOREA, GARAPEN IRAUNKORRAREN OINARRIA
- 14. ENERGIA BERRITAGARRIEN ALDEKO APUSTUA
- 15. INGURUMEN POLITIKA ARDURATSUA







## ETORKIZUN IRAUNKORRA IZANGO DUEN EUSKADI

LEHEN SEKTorea,  
GARAPEN  
IRAUNKORRAREN  
OINARRIA

ENERGIA  
BERRIZTAGARRIEN  
ALDEKO APUSTUA

INGURUMEN POLITIKA  
ARDURATSUA

### PRINTZIPIOAK:

- Lehen sektoreak eta, oro har, landa-munduak, funtsezko balioa daukate Euskadirako, ez bakarrik ekonomia eta enplegurako ekarpena dakarrelako, baita gure Herriko gizarte-identitatearekin lotura estua daukalako ere. Euskadi, bere gastronomia, ohiturak, paisaiak, ingurumen iraunkortasuna eta kultura sustraiak ezingo lirateke ulertu euskal lehen sektorerik gabe.
- EAJ-PNVk euskal nekazaritzako elikagaien sektorearen hazkundera lortzeko lan egiteko konpromisoa hartu du, sektoreak nekazaritza-abetzaintza produktiorako, ingurumenerako eta ingurua zaintzeko duen funtzioa sustatuz, uraren kudeaketa efizientean lagunduz, lurren higadura saihestuz, mendiak garbitzearen bidez paisaiak balorizatuz eta bioaniztasuna mantenduz.
- Euskadiko lurren % 85 nekazaritza lurra dira eta horrek kudeaketa bikaina egiteko eta arrazoirik gabeko lurzoru-galerak saihesteko inplikazio irmoa eskatzen du.
- Nekazaritza-sektore ekoizleak aurrera egin behar du lehiakortasunari dagokionez, nekazaritzako elikagai-katean produkzio eta negozioz ahalmena sustatuz eta merkaturatze estrategia berrietarantzko eraldaketa bideratuz.
- Nekazaritzako elikagaien sektoreak eta, bereziki, tokiko produktuari lotutako elikagaien industriak, ekonomia hazkunderako aukera eskaintzen du Euskadirako, lehen sektorearen garapen dibertsifikatuagoa, harmonikoagoa eta orekatuagoa izateko aukera eskainiko duena.
- Nekazaritza-administrazioen esku-hartzea nekazaritzako elikagaien politiken garapenean ezinbestekoa da babes tekniko eta teknologikoak dituen eskaintza egituratua proposatzeko. Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien politikek landa-inguru dinamikoari lagundu behar diote modu garrantzitsuan, baina ez eskusiboan.
- Landa-ingurua bizitza soziala eta ekonomikoa duen lurraldearen zati gisa ulertu behar da, gainontzeko lurraldearekin batera jarduten duena. EAJ-PNVren ustez landa inguruko politikek landa eta hiri inguruen arteko biztanle-oreka bilatzeari ekin behar diote.

- Euskal elikagaien sektorea neurri handi batean arrantza-sektorearen bidez hornitzen da eta horrek produktu freskoen zein eraldatu beharrekoen eskaintza iraunkorra egituratzeko antolamendu, egitura eta babes publiko nahikoak behar ditu.
- Arrantza-sektoreak antolamendu indartsu eta egituratuak behar ditu, erauzketa zein merkaturatze prozesuetan, lehiakortasun handiagoa izan ahal izateko.
- Akuikultura behar bezala sustatu behar da I+G ahaleginak handituz, lehengai fresko eta eraldagarriak sustatzeko gai den sektore indartsua lortzeko, erauzketa-arrantzaren eskaintza handituz.
- Arrantza azpiegiturak hobetzea ezinbestekoa da arrantza-sektorearen etorkizunerako eta premiazkoa da horiek guztiak berrikustea eta berpizte-plan bat abian jartzea.
- EAJ-PNVren ustez, barne merkatura bideratutako gure sektore tradizionaletan, hala nola, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta abar, beharrezkoa da modernizazioan eta berrikuntzaren sustapenean aurrera egitea. Berrikuntza, sektore mota hauetan, produktu eta zerbitzuen balioaren hazkunderantz zuzendu behar da, teknologiaren ahalmenaz baliatuz eta merkaturatze estrategia berritzaileak garatuz. Eredu iraunkorreranzko aurrerabidea, IKTen erabilera eta arrantza-sektorean produktu eraldatu berrien garapena, sektore tradizionalen berrikuntzarako bidea erakusten duten adibideetako batzuk dira.



- EAJ-PNVk lehen sektorea sustatzeko konpromisoa adierazten du, garapen iraunkorraren oinarria den aldefik, honako KONPROMISO ETA EKIMENEN bidez:

## 1. KONPROMISOA. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEAN SEKTORE EKOIZLEA INDARTZEA, BERE BALIO ERANTSIA HANDITZEKO.

### 1. EKIMENA: Euskal nekazaritzaren azpisektore ekoizle nagusien diagnosi lehiakorra egi-tea ikuspuntu ezberdinetatik:

- Finantza azterketa eta enpresen antolamendua.
- Jarduten duten merkatuen azterketa (zuzenak: azokak, Internet, ustiaketa...; zeharkakoak: enpresa eraldatzailea, banaketa...).
- Prezioan eragina duten aldagai lehiakorren azterketa.

### 2. EKIMENA: Hobekuntzako sektore programak garatzea.

- Berariazko sektore programekin, enpresa, merkatu eta aldagai lehiakorren azpisektore -diagnosietatik sortutako disfuntzio eta beharrak asetzerara bideratutako proiektuen garapena bultzatuko da.

### 3. EKIMENA: Azpisektoreak babesteko tresna berriak sustatzea.

- Azpisektoreentzako babesak zehazte aldera, administrazioek eskura dituzten arau eta finantza neurri guztiak -inbertsiorako laguntzak, berrikuntzaren eta prestakuntzaren transferentzia, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) erreformaren laguntza berriak- modu koherente eta koordinatuan erabiliko dira.

## 2. KONPROMISOA. LEHEN SEKTOREKO ENPRESAK SUSTATZEA.

### 4. EKIMENA: Enpresa lankidetzak bultzatzea.

- Elikagaien katean barneratzeko jardueretikiko babesak erabakitazuz sustatuko da NPBarren erreforman egindako lankidetzak proiektuen bidez, burutuko den 2014-2020 Eskualde Garapenerako Programan berariazko funtsak gaineratuz.
- Tokiko produktuari lotutako enpresen Elikaduraren Clusterra sustatzea enpresen arteko lankidetzak optimizatze aldera, euren lehiakortasuna hobetuz.

### 5. EKIMENA: Elikagaien Industriaren Plan Estrategikoa.

- Nekazaritzako Elikagaien Industriaren Plan Estrategikoa garatuko dugu euskal BPGd-an duen pisua handitzeko eta elikagaien industria indartsu, lehiakor eta iraunkorra eta tokiko produktuari lotutakoa garatzeko helburu nagusiarekin.

### 6. EKIMENA: Elikadura-sektorearen finantziak babestea.

- HAZILUR enpresa berrien lankidetzak, hedapena eta garapena bultzatzeko finantza tresna gisa sustatzea.

### 7. EKIMENA: Lehen sektorearekin lotuta dauden oinarri teknologikoko enpresa berrien garapena sustatzea eta babestea.

- NEIKER eta AZTI ezagutza-egituren bidez, oinarri teknologikoko enpresa berrien garapena sustatuko da, teknologiaren eta enpresaren arteko integrazioa bultzatzeko eta ezagutza propioan oinarritutako industria lehiakorrek sortzeko helburuarekin.

---

**8. EKIMENA: Nekazaritza Politika Bateratu berria jasotako tresnak erabiltzea lehen sektoreko enpresa-proiektu berrien garapenerako.**

---

- Europako nekazaritza-politikan aurrez ikusitako nekazaritzako elikagaien industriari zuzendutako laguntzen ahalmena aprobetxatzea eta gure behar espezifikoetara egokitzea, berrikuntzaren eta espezializazioaren aldeko apustua egingo duten enpresa-proiektu berriak sustatzeko.

---

**9. EKIMENA: Euskadira elikagaien enpresak erakarri eta hemen finkatzea sustatzea.**

---

- Finantza eta zerga tresnak, industria lurzoruko tresnak eta I+G+B babesteko tresnak garatuko dira, Euskadira tokiko ekoizpenari lotutako elikagaien enpresak erakartzeko.

### 3. KONPROMISOA. BELAUNALDI-ORDEZKAPENA SUSTATZEA NEKAZARITZA-SEKTOREAN.

---

**10. EKIMENA: Sektorean kalitatezko prestakuntza sustatzea.**

---

- Nekazaritza-prestakuntza arautuaren uneko egoera aztertuko da eta hobetzen saiatuko da, nekazaritza eskolak berriro ere Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailera itzuliz edo, hala dagokionean, Hezkuntza Sailarekin adostasun bateratua eginez.

---

**11. EKIMENA: Nekazari gazteentzako Gaztenek Planaren eguneratzea bultzatzea.**

---

- GAZTENEK plan gazteak 2004-2014 bitartean izandako emaitzak aztertu ondoren, plan gazte berri bat egingo da nekazaritza eskolen, kudeaketa zentroen eta nekazaritza sindikatuen lankidetzarekin.

---

**12. EKIMENA: Nekazari gazteei zuzendutako laguntzak sustatzea.**

---

- 2014-2020 NPbaren erreforman (Landa Garapenerako Programa berria) ezarritako gazteentzako laguntza azpiprogramari zuzendutako funtsak sustatuko dira.

---

**13. EKIMENA: Babeserako politika eraginkorra eta aktiboa egitea gazteak nekazaritza jardueran barneratzeko Nekazari Gaztearen Estatutuaren bidez.**

---

- Nekazari Gaztearen Estatutuaren Dekretua garatu eta burutuko da nekazaritzako elikagaien jardueraren garapena babesteko esparru gisa.
- Nekazaritza-sektorearekiko gizarte sentsibilizazio kanpainak eta nekazari gazteak erakartzeko kanpainak bultzatuko dira.

### 4. KONPROMISOA. NEKAZARITZA-SEKTOREA BABESTEA IKUSPUNTU INTEGRALETIK.

---

**14. EKIMENA: Ustiategi profesionalak babesteko erakunde politika ardaztea.**

---

- Ustia keten azken egitura-eroldaren azterketa zorrotza egingo da, ustiategi profesionalak eta, neurri txikiago batean, aldi baterako nekazariak babesteko erakunde politika ardazteko helburuarekin.

---

**15. EKIMENA: Nekazaritza lurraren funtsak sustatzea.**

---

- Foru aldundiekin batera, nekazaritza lurren funtsak sustatuko dira, nekazaritza lur ez aktiboak erakartzeko, unean daudenen dimentsioak garatzeko eta sektorean ezartzen diren gazteei nekazaritza lurra eskaintzeko helburuarekin.

**16. EKIMENA: Euskadin nekazaritza lurra zaindu eta sustatzeko dekretua.**

- Euskadin nekazaritza lurra zaindu eta sustatzeko dekretu bat garatu eta abian jarriko da, eta hori betearazteko beharrezko baliabide ekonomikoak jarriko dira.

**17. EKIMENA: Mendiko zonaldeak berariaz babestea.**

- Mendiko zonaldeetako azpizonak bereiziko dira uneko mendiko konpentsazio-ordainen (MKO) funtzionamendua aztertu ondoren.
- Mendiko konpentsazio-ordainen berariazko azpiprograma bat sortzea bultzatuko da.
- Euskadiko mendiko eskualde ezberdinetan berariazko proiektu pilotuak sustatzea.
- Euskal mendiko eskualdeen presentzia indartuko da Europako Batzordean etengabeko presentzia duten nazioarteko foroetan.

**18. EKIMENA: Nekazaritza-azpiegituren proiektuen babesa zehaztea eta sustatzea.**

- Nekazaritza-administrazio guztien artean, inplikaturako eragile guztien parte-hartzearekin, nekazaritza-azpiegituren proiektu handien azterketa, ebaluazioa eta hautapena egitea legealdirako.
- Hautatutako nekazaritza-azpiegitura berriak martxan jartzeko, kofinantzaketa sustatzea; benetan abian jartzeko jarritako fondo guztien parte-hartzea bultzatuko da.

**19. EKIMENA: Ezagutzaren sorrera eta transferentzia sustatzea zentro teknologikoetatik produkzio-egiturarantz.**

- Berrikuntzako euskal sistemaren zentro teknologikoak nekazaritza-sektoreko garapen proiektuetara lotzea.

**20. EKIMENA: Nekazaritza ustategietako titularrentzako laneko babesa.**

- Emakume Nekazariaren Estatutua garatzea eta hedatzea.
- Sasoikako nekazaritza langileen plan berria burutzea eta abian jartzea, orain arte garatutakoaren ezagutza barne hartuko duena eta erakunde arteko lankidetzak sustatuko duena sasoikako langileen baldintza ahalik eta onenak lortzeko.
- Ordezkapen zerbitzuak eta gure ustategietan lehiakortasun handiagoa eskainiko duen etengabeko prestakuntza plana sustatzea.

**21. EKIMENA: Lehen sektorea babesteko tresna berriak egituratzea eta baliozkotzea.**

- Laguntza-programa sustatzea, landa eremuetako produkzio-egituraren dibertsifikaziora bideratuta, eta aukera berdintasuna duen lurraldea egituratzeko beharrezkoak diren gizarte ekipamenduen azterketa eta ondorengo finantzaketa bultzatzea.
- 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren bidez, hiru lurralde historikoen landa garapenerako esparru estrategiko bateratua egituratzea, foru aldundien parte-hartze aktiboarekin.
- Eusko Jaurlaritzako eta Foru Erakundeetako beste sailen babesen artikulazioa handitzea landa munduaren beharrak bideratzeko helburuarekin, sail sektorial guztien horizontaltasuna eta interesa oinarri hartuta.

**5. KONPROMISOA.****SEKTOREAREN INGURUMEN IRAUNKORTASUNA SUSTATZEA.****22. EKIMENA: 2014-2020 Nekazaritza Politika Bateratuan (NPB) xedatutako ingurumeneko laguntzak bultzatzea.**

- 2014-2020 NPbaren erreformaren ezarritako ingurumeneko laguntzak modu sustatzaile, koordinatu eta koherentean egituratzea: greening, ingurumeneko laguntzak, basoko laguntzak eta nekazaritza ekologikoa.



---

**23. EKIMENA: Ezagutzaren transferentzia sustatzea ingurumen iraunkortasunaren esparruan.**


---

- NEIKERek eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko gainontzeko elkarteek eskainitako teknologiaren bidez ekoizpen-eredu ezberdinak irmoki sustatzea.

---

**24. EKIMENA: Euskadi Genetikoki Eraldatutako Organismoetatik libre dagoen eskualde gisa sustatzea.**


---

- 2007ko otsailaren 20ko Erabakia guztiz berresten dugu. Horren bidez, Euskadi giza edo natura elikadurara zuzendutako labore transgenikoetatik libre dagoen eremu gisa aitortzen da. Zehazki, honako konpromisoak garatuko ditugu:
- Euskadin gizakien edo animalien elikadurara zuzendutako genetikoki eraldatutako laboreen ekoizpena saihesteko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
- Laboreak aldi berean egoteari buruzko berariazko arauak garatzea, ohiko laboreei eta labore ekologikoei babesik handiena eskaintzeko helburuarekin.
- Nekazaritzako elikagaien trazabilitatearen identifikazio, kontrol eta jarraipen sistemak ezartzea.
- Bioteknologiaren inguruko ikerketa babestea.
- Labore transgenikoz libre aitortzen diren Europako Eskualde Sareko ekintzetan parte hartzea.

---

**25. EKIMENA: Karbonoa finkatzen duten basoko eta nekazaritzako espezieen erabilerarako babes publikoa sustatzea eta nekazaritza-sektoreak orokorrean ingurumenean duen ekarpenaren inguruan herritarrak kontzientziatzeko kanpainak bultzatzea.**


---

- Karbonoa finkatzen duten basoko eta nekazaritzako espezieen erabilerarako babes publikoaren beste politikei dagozkien estrategia multzoaren parte izango da, horrela, bada, horiek guztiak Euskadin klima-aldaketaren kontrako ekintzen plangintza eratuko dute.
- Zehazki, honelako ekintzak bideratuko dira:
  - Lur zuhaitzuen basotzea eta basoberritzea.
  - Baso sustapen iraunkorra.
  - Basoko suteen kontrako defentsa.
  - Nekazaritza-baso-artzain sistemak sustatzea.
  - Materialak edo energia ekoizpena ordezkatzeko basoko produktu berriztagarriak erabiltzea.

---

**26. EKIMENA: Baso sektorea sustatzea**


---

- Euskadiko basoen ahalmen produktiboa sustatzea eta egurra merkaturatzeko formula berriei laguntzea.
- Euskadiko basoen baso-biomasaren erabilera bultzatzea energia-baliabide bezala, eta biomasa-galdarak instalatzeari laguntzeko programa abian jartzea.
- Egurra eraldatzeko industriari laguntzea, Euskadiko basoetako egurrari balio erantsi handiagoa emateko, produkzio-prozesuetan hobekuntza eta berrikuntza sustatuta eta eraldatutako produktuak merkaturatzeko merkatu berriak irekita.

---

**27. EKIMENA: Iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua bermatuko dituen ehiza-legea garatzea.**


---

- Foru Aldundiekin lankidetzan, ehiza-legea garatzeko konpromisoa hartzen dugu, iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua bermatzeko irizpide arduratsuekin.

## 6. KONPROMISOA. NEKAZARITZA-SEKTOREAREN GOBERNANTZA HOBETZEA.

### 28. EKIMENA: Erakunde arteko koordinazioa sustatzea.

- Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko eskumen hutsuneak aztertzea, ondoren, baterako hitzarmenean birmoldatzeko.
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Kontseilua eta Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Batzordea abian jarri eta sustatzea, erakunde eta sektore arteko elkarriketak indartzeko helburuarekin.
- Nekazaritza Sailari lotutako sozietate eta erakundeek duten zereginaren eta antolamenduaren azterketa sakona egitea, erakundeetan eta pertsonengan gaur egun dagoen nahasmen egoera baretuko duen berrantolaketa sustatuz.

### 29. EKIMENA: Nekazaritzako elikagaien sistema teknologikoaren eraginkortasuna hobetzea

- Sailean atxikitako eta Tecnaliari loturiko ikerketa zentroen -AZTI eta NEKER- ikerketa eta teknologia ahaleginak bateratzea, euren bat-egitea bultzatzeko, bikoiztasunak saihesteko eta etorkizun sektorialean funtsezkoa izango den nekazaritzako elikagaien sistema teknologikoaren eraginkortasuna hobetzeko.

### 30. EKIMENA: Elikagaigintza Politikaren Legearen arauzko garapenaosatzea eta bertan xedatutako tresna guztiak abian jartzea, ahalik eta eraginkortasun gehien eskaintzeko.

- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legearen arauzko garapenaosatze konpromisoa hartzen dugu. Zehazki, sektorea sustatzeko neurriekin, lizentzia eta baimenen esparruarekin zein ikuskapen, kontrol eta zigor esparruko jardurekin loturiko gaietan aurrera egingo dugu.

## 7. KONPROMISOA. ARRANTZA-SEKTORE EKOIZLEAREN LEHIAKORTASUNA ETA GARAPENA SUSTATZEA.

### 31. EKIMENA: Arrantza-sektore merkaturatzailea sustatzea.

- Merkataritza egitura indartsu eta lehiakorra bultzatzea, erauzketa sektorearekin harreman zuzena duena, arrantza-sektoreko ekoizleen erakundeen bidez, kalitatezko arrain hornidura eskainiko duena, kontsumitzaileari informazio gehiago eskainiz eta produktuen trazabilitatea zorrozki errespetatuz.
- Merkaturatzaileen elkarrekin babestea, "masa kritiko" bat gainditzeko ahalmena duen eskaintza lortuz. Kalitatezko arraina sustatzea, kalitate-labela gaineratzeko aukera eskaintzen duten trazabilitate eta gardentasun praktikak ezarri.
- Enpresa merkaturatzaile eta kontserbagileen eta institutu teknologikoen arteko elkarrekin sustatzea, enpresa merkaturatzaile eta kontserbagileetan I+G+B politikak ezarri ahal izateko.

### 32. EKIMENA: Arrantza azpiegituren hobekuntza.

- Arrantza azpiegitura moderno eta lehiakorak sustatzea eta berrantolatzea, trazabilitate eta kontrol araudi berrietara egokituta, arraina manipulatzeko espazio nahikoarekin, Arrantza Politika Bateratuarekin, Merkatu Antolakunde Bateratuarekin eta arrantza-sektoreko ekoizleen erakundeen eta sektore merkaturatzailearen eskaerekin bat eginez.

- Arrainaren katean gardentasuna babestea, arraina deskargatzeko bitarteko hobeak eskainiz eta lehen salmentako lonjak eta establezimenduak manipulatzeko gehiago erabili daitezkeen egokituz, arraina deskargatzeko eta manipulatzeko establezimenduetan bertan balio erantsiko hazkundera lortzeko.
- Portu, Itsas Arazo, Arrantza, Akuikultura eta Arrantza Produktuen Merkaturatze Zuzendari-tzen arteko koordinazioa, arrantza aisialdiko itsas jarduerekin, itsasoko garraioarekin eta itsasoko prestakuntzarekin batera sustatzeko.

---

### 33. EKIMENA: Gaur egun dauden ekoizleen erakundeak bultzatzea.

---

- Gaur egun dauden ekoizleen erakundeak (OPEGUI, OPESCAYA, OPPAO eta OPTUC) sustatzea euren jarduera esparrua zabaltzeko eta bertan erauzketa-sektorearen koordinazio jarduerak (arrantza eta itsaski-bilketaren harrapaketatik merkaturatzeraino, arrantza-ontzien mantentzea eta sustapena eginda) barneratzeko azpiegitura eskaintzeko helburuarekin.

---

### 34. EKIMENA: Arrantza eskubideak handitzea.

---

- Arrantza eskubideak handitzea, itsas zabaleko zein itsas bazterreko sektorean, arrantza iraunkorra sustatuz, ekoizleen erakundeen bidez, eta arrantza eskubideak eta dagozkien banakako kuota besterengarriak arrantza-sektoreko ekoizleen erakundeek izan ditzatela bultzatuz, horrela, enpresa espekulatuzailetan izan daitekeen kuota metaketa saihestuko baita.

---

### 35. EKIMENA: Ontzien dimentsionatze berria definitzea arrantza-sektoreko ekoizleen erakundeen bidez.

---

- Ontzien birdimentsionatze berria sustatzea Arrantza Politika Bateratuaren eta arrantza iraunkor baterako ezarritako kuoten babesean, kudeaketa planen bidez, dimentsio hobereana lor dezan.
- Artisau arrantza ontzien definizioaren erregionalizatzea sustatzea, itsas bazterreko ontzi guztiak barne har ditzan. Barneko urak itsasertzeko lerroen eta 100 milien artean dagoen eremuan kokatutakoak izan daitezkeen proposatuko da.

---

### 36. EKIMENA: Arrantza ontzietan egindako inbertsioak sustatzea, gehienbat, ontziak egokitzera bideratutakoak, arrainen kalitatea eta ontzi barneko tratamendua eta manipulazioa hobetzeko.

---



---

### 37. EKIMENA: Sektorean prestakuntza eta trebakuntza prozesu berriak sustatzea.

---

- Prestakuntza programa berriak garatu eta bultzatzea, sektoreko profesionalengan gaitasun berriak hobetu eta garatzeko helburuarekin.
- Produktuaren manipulazio eta zaintzari dagokionez arrantza-sektorearen prestakuntza handiagoa sustatzea.

## 8. KONPROMISOA. AKUIKULTURA BULTZATZEA.

---

### 38. EKIMENA: Ezagutza berriaren ikerketa eta garapena sustatzea.

---

- Ikerketa sustatzea arrainak metodo berritzaileekin ekoizteko proiektu pilotuekin, eskala muriztuan kontrastatuz, I+G+Brako inbertsioa bultzatuz eta horien ezarpena eta ezagutza teknologikoa babestuz.
- Itsaso zabaleko akuikultura-ekoizpenaren ikerketa sustatuko da, itsas energia ekoizteko ikerketekiko bateragarritasuna bultzatuz eta enpresa teknologiko berriei bide emanez.



## ETORKIZUN IRAUNKORRA IZANGO DUEN EUSKADI

LEHEN SEKTOREA,  
GARAPEN  
IRAUNKORRAREN  
OINARRIA

ENERGIA  
BERRIZTAGARRIEN  
ALDEKO APUSTUA

INGURUMEN POLITIKA  
ARDURATSUA

### PRINTZIOAK:

- Euskadi duela 30 urte baino gehiagoz geroztik berezko energia eredu garatu duen herrialdea da. Aurrerapauso garrantzitsuak egin dira energiaren esparruan, hurrengo urratsak planifikatzeko oinarri eta erreferentzia legez hartu behar ditugunak, segurtasun eta konfiantzazko testuingurua sortuz.
- Energia eredu ezberdinen arteko aukera Herriaren ezaugarriekin eta garapen ereduaren ikuspegi jakin batekin zuzenean loturik dago. EAJ-PNVrentzat beti denboran ahalegin iraunkorra eskatzen duten epe luzeko apustuak izan dira eta dira, baita agenteei segurtasuna eskaintzen dien esparru egonkorra ere. Zentzu horretan, eta estatuko arauzko esparruari jarraiki, araudian etengabe gertatu diren aldaketek sortutako segurtasun-gabezia eta ziurgabetasuna gainditzeko aukera eskaintzen duen estrategia argia zehaztu dadin eskatzen dugu.
- Europak, hazkunde azkar, iraunkor eta barneratzaileko 2020 Estrategian, erreferentzia bat zehazten du horniduraren segurtasunerako, ingurumenaren babeserako eta lehiakortasunaren alorreko printzipioak biltzen dituen energia eredu iraunkorrean aurrera egiteko, eta honela azaltzen ditu: gure guztizko energia kontsumoaren % 20 energia berriztagarriak izatea, eraginkortasun energetikoa % 20 handitzea eta 1990eko kopuruekin alderatuz berotegi efektuko gasen igorpena % 20 murriztea.
- EAJ-PNVrentzat, politika energetikoa funtsezko pieza da ingurumen politika iraunkor baten garapenean, eta bi politika horiek oinarritzko bi tresnen bidez artikulatu eta osatzen dira: euskal estrategia energetikoa 2020 eta ingurumen garapeneko estrategia 2020.
- Uneko egoeran eta gurea bezalako Herri batean, energia kontsumitzaile handia, ia baliabide naturalik gabe eta kanpoarekiko mendeotasun handiarekin, aurrezpena eta eraginkortasuna gure baliabide energetikorik handiena bihurtzen dira.
- Energia berriztagarri, garbi eta bertakoei dagokienez, horien sorrera eta erabileraren aldeko gure konpromisoa indartuko dugu, epe laburrean, oso populatua dagoen eta baliabide natural gutxi dituen Herri txiki baten berezko zailtasunak ezagutu arren. Epe ertainean, itsas energien aldeko apustua aukera paregabekoa da egoera hau aldatzeko. Epe laburrean, energia berriztagarri txikia eraikinetan, en-

presetan, etab. mailaka gaineratzearen aldeko apustu irmoa egiten dugu, maila kuantitatiboan eragin gutxiago duena baina, sare adimendunekin batera (Smart Grids), eredu aldaketan laguntza eskainiko duena. Eredu horretan uneko sistema zentralizatuak energia sortu eta banatzeko sistema deszentralizatuekin elkarrekin egongo dira.

- EAJ-PNVk gas naturala bultzatzen jarraituko du trantsizio energia gisa. Horretarako, sistemaren hornidura era eraginkortasuna bermatzea beharrezkoa da, hornikuntza dibertsifikazio bidez eta eskaeraren bilakaerarekin bat datorren azpiegitura garapen baten bidez, gas hornidura lehiakorra izateko aukera eskainiko duena.
- Arauzko esparru egonkor eta iraunkor baten sorreraren alde egiten dugu energia berriztagarrien garapena babesteko, garapen teknologiko eta industrial baten trakzio izan daitezkeen energietan ahalegin ardaztua eginez eta izaera berritzailea duten proiektuen aldeko bereizketa eginez. Energia eolikoaren eta metatzea duen eguzki-energia termikoaren garapena horren adibide onak dira.
- EAJ-PNVkook badakigu Euskadik ahalmen eta gaitasun handiak dituela, bai industrialak bai teknologikoak, energiaren sektorearen garapenean laguntza eskaintzeko berezko teknologiarekin eta ikuspuntu globalarekin. Hori ekonomia eta enplegu hazkundea finkatzeko oinarrietako bat konfiguratzeko erabiliko dugun aukera da.
- Euskal Estrategia Energetikoa oinarrizko lau konpromisotan eratzen da: energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea, energia garbi eta berriztagarriak bultzatzea, gas naturalaren aldeko apustua trantsizio energia gisa eta energiaren sektorerako lotutako garapen teknologiko-industrialak sustatzea.

- EAJ-PNVk Euskadirako energia estrategia honako KONPROMISO ETA EKIMENEN bidez proposatzen du:

## 1. KONPROMISOA.

### ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ETA AURREZPENAREN ALDEKO APUSTU IRMOA.

- Gure "baliabide energetikorik" handiena energia eraginkortasuna da. Energiarik garbiena kontsumitzen ez dena da; gure kontsumoa murrizteak gure mendekotasuna murrizten du eta enpresaren eraginkortasuna hobetzea lehiakortasun faktore bat da.
- Amaierako helburua hazkunde ekonomikoa energia kontsumoaren hazkunderetik bereiztea da. Horretarako, garapen teknologikoa eta hazkunderako aukera eskaintzen duten eta, gainera, eta beharbada garrantzitsuagoa, balore eta jokabide aldaketa, benetako gizarte eraldaketa bideratzen duten produktu eta zerbitzuen garapena beharrezkoak dira.
- Ekonomiaren alorreko arazoak daudenean, une honetan bezalaxe, gizarteari mobilizatzeko deialdi bat egiten diogu; baliabideen zarrastelkeria saihesteko erantzukizuna guztiona da.

#### 1. EKIMENA: Eraikin eta etxebizitzetan energiaren alorreko aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea.

- Eraikinak energia aurrezteko ahalmen gehien duten eremuetako bat dira. Europa mailan, amaierako energia kontsumoaren ia % 40 etxebizitzetan, bulego publiko eta pribatuetan, dendetan eta bestelako eraikinetan egiten da. Helburu horrekin, energia aurrezpen eta eraginkortasuneko gure estrategia honako jardueretan oinarritzen da:
  - Eraikigarritasun iraunkorra sustatzea, obra berrian zein birgaikuntzetan.
  - Eraikinen ziurtapen energetikoa garatzea.
  - Eraikuntza sektoreko profesionalak eraikigarritasun iraunkorraren esparruan sentsibilizatu eta prestatzea.
  - Eraginkortasuna hobetzen duten konponbideak identifikatu eta ezartzen laguntza eskaintzen duten zerbitzu energetikoen elkarteak (ZEE) sustatzea.
  - Energia kalitate baxuko etxebizitza zaharretan hobekuntzak bultzatzea.
  - Finantza erakundeen lankidetzarekin, eraikinen energia birgaikuntzarako plana finantzatzeko berariazko finantza tresnak garatzea (energia etekineko kontratua).
  - Eraikuntza publikoetan energia eraginkortasuna hobetzeko plana garatzea.
  - Kontratazio publikoan energiaren alorrean eraginkorak diren ekipamenduak eskuratzea sustatzea.
  - Eraginkortasun handiko ekipamenduen eskuratzea bultzatzea.
  - Heritarrak kontsumo arduratsuaren eta energia aurrezpenarekiko konpromisoaren inguruan sentsibilizatzea.
  - Eraikinetan energia berriztagarriko instalazio txikien (energia fotovoltaikoa, biomasa galdarak, geotermia, etab.) gainerapena sustatzea, eraginkortasun neurriekin batera, energiaren alorrean laguntzarik behar ez duten eraikinak izateko aukera eskainiko dutenak.





---

## 2. EKIMENA: Mugikortasun iraunkorra eta energetikoki eraginkorra sustatzea.

---

- Esparru horri arreta berezia eskaini behar diogu, izan ere, energiaren amaierako kontsumoaren % 35 inguru osatzen du. Gainera, azken urteetan hazkunde nabarmenak izan ditu. Bestalde, garraioaren sektorean, kontsumoaren % 95 baino gehiago petrolioaren deribatuetatik dator.
- Ekimen hau bideratzeko honako jarduerak garatuko ditugu:
  - Mugikortasun iraunkorrari buruzko demostrazio eta sentsibilizazio egitaraua.
  - Ibilgailuen gidatze eraginkorra sustatzea.
  - Enpresa handietan mugikortasun planak garatzea eta ezartzea.
  - Ibilgailu elektrikoaren eresketa eta erabilera sustatzea.
  - Garraioan beste erregaien erabilera sustatzea: bioerregaiak, hidrogenoa, gas natural konprimitua, etab.
  - Ibilgailu elektrikoa kargatzeko azpiegituraren eta petroliotik deribatuak ez diren erregaien erabilerarako beharrezkoa den azpiegituraren zabaltzea babestea.
  - Enpresen flotetan ibilgailu elektrikoaren gaineratzea sustatzea.
  - 'Carsharing' delakoaren hedapena bultzatzea, bereziki ibilgailu elektrikoekin, mugikortasuneko eredu iraunkor gisa.
  - Garraioen elektrifikazioa: trenbidea eta "itsasoko autobideak" erabiltzea errepidea ordezkatzeko merkatugaiak garraiatzerakoan.
  - Trafikoa kudeatzeko sistema aurreratuak gaineratzea garraio modu guztietan.
  - Erakunde publikoen baterako jarduera garraio publikoa eta mugikortasunean eraginkortasun energetikoa babesten duen hirigintza diseinua sustatzeko.

---

## 3. EKIMENA: Sare adimendunen ('smart grids') hedapena sustatzea.

---

- Sareen sorrera berri hau eskaeraren kudeaketan eta sarean sorrera banatua gaineratzen lagungarri izango da. Horretarako, besteak beste, honako jarduerak egingo ditugu:
- Zenbatzaile adimendunen ezarpena sustatzea.
- Sareetan banatutako sorrera berriztagarri txikia gaineratzea.
- Sare mota horretan zerbitzuen garapeneko esperientzia pilotuen garapena babestea.

---

## 4. EKIMENA: Eraginkortasunarekin eta energia garbiekin konpromisoa duten euskal hiri eta udalerriak ('Smart cities').

---

- Gure konpromisoa lurraldean energia garbiak eta eraginkortasun energetikoaren alorreko neurriak hedatzea da, koherentzia eskaintzen dien eta eraginkor bihurtzen dituen eredu baten pean. Maila horretan inplikatu behar dira herritarrak eraginkortasunean eta energia garbietan oinarritzen den eredu energetiko berri batek dakartzan balio eta konpromisoekin. Horretarako, honako jarduera hauek garatuko ditugu:
  - Udal diagnosi energetikoak sustatzea.
  - Toki Administrazioen borondatezko konpromisoak sustatzea energia aurrezpen eta eraginkortasunerako.
  - Udalerrietan energia aurrezteko planen ezarpena eta energia berriztagarrien hedapena bultzatzea eta babestea.
  - Beroa banatzeko sareak ('District Heating') sustatzea, bereziki, bero eta elektrizitate produkzioa bateratzen dutenak (eraginkortasun handiko baterako sorkuntza) eta sorkuntza iturri gisa energia berriztagarriak erabiltzen dituztenak.

### 5. EKIMENA: Aurrezpena eta eraginkortasuna enpresaren lehiakortasun faktore gisa sustatzea.

- Euskadin, bere egitura ekonomikoarengatik, industria sektorea energia gehien kontsumitzen duena da, guztiaren % 44. Sektore horrek aurrezteko ahalegin handia egin du azken urteetan eta egun duela 10 urte baino energia gutxiago kontsumitzen du. Estrategia horretan aurrera egiten jarraitu behar dugu, Kyotoko konpromisoak betetzeko sustapen nabarmena baitakar. Horregatik guztiarengatik, ondoko jarduera hauek bideratuko ditugu:
  - Kontu-ikuskaritza energetikoak eta eraginkortasun planak sustatzea.
  - Energia eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzen laguntza eskaintzen duten ekipo eta prozesu berrien inbertsioak babestea.
  - Baterako sorkuntzarako instalazioak sustatzea.
  - Prestakuntza eta sentsibilizazioa. Enpresetan kontsumo energetikoak murrizteko borondatezko erabakiak.
  - ETEetan kudeaketa eta ziurtapen energetikoaren alorreko sistemen barnertzea babestea.
  - ETEetan eskaera elektrikoa kudeatzeko sistemen ezarpena sustatzea.

## 2. KONPROMISOA. ENERGIA GARBI ETA BERRIZTAGARRIAK SUSTATzea.

- Erregai fosilek euskal mix energetikoan duten partaidetza oraindik ere % 85 ingurukoa da, EAJ-PNVk mendekotasun hori murrizteko konpromisoaren alde egiten du, parte-hartzea murrizten dugun heinean kanpoko mendekotasuna murriztuko dugulako eta, gainera, gure horniduraren segurtasuna hobetuko da eta igorpen maila murriztuko dugu.

### 6. EKIMENA: Instalazio berriztagarri berrien gainerapena sustatzea.

- Energia eolikoaren gainerapena sustatzea taldekako edo banakako sorgailuak dituzten proiektu berrien bidez, edo unean dauden parkeak berrituz eta sustatuz.
- Biomasa proiektuen garapena sustatzea, instalazio berrietan zein taldeko galdaretan, bereziki hondakinen (basokoak, nekazaritzakoak, etab.) tratamenduaren arazoari konponbidea ematen laguntzen dutenak, sektore horien ekoizleentzako errenta osagarri bat izateko aukerarekin.
- Itsas energia sortzeko planta pilotuen sustapena eta ezarketa bultzatzea.
- Instalazio berriztagarri txiki berrien (fotovoltaikoa, minihidraulikoa, mini eolikoa, geotermia, etab.) mailakako gaineratzea babestea.
- Garraioaren azpiegituraren inbertsioa energia mota horren hazkundetik sortzen diren beharrek inbertsioa dagoela bermatzea.

## 3. KONPROMISOA. GAS NATURALAREN ALDEKO APUSTUA TRANTSIZIO ENERGIA GISA.

- Erregai fosilak mix energetikoaren parte izaten jarraituko dutenez, Gas Naturalaren aldeko apustu irmoa egiten dugu trantsizio energia gisa, gure eredu energetikoan hoberen egokitzen den erregaia baita. Ikatzen edo petrolioaren aurrean igorpenak murrizten laguntzen du eta horniduraren segurtasuna hobetzen du, ekoizpena geografikoki horren bilduta ez dagoelako.



---

**7. EKIMENA: Azpiegituren garapenarekin jarraitzea hornidura dibertsifikatu eta lehiakorra bermatzeko.**


---

- Garraioaren sarearen garapenarekin jarraitzea: loturak Kantabria, Asturias eta Galiziarekin.
- Frantziako merkatuarekin gasaren elkarrekiko lotura garatzea, horniduraren segurtasuna handitzeko helburuarekin.
- 'Gaviota' deritzon gas-gordailua handitzea.
- 'Bahía de Bizkaia Gas' delakoaren hirugarren andela.
- Sare kapilarra handitzeko babesa. Biztanleriarengatik eta biztanle gehiago dituzten gu-neetarako distantziarengatik oraindik ere gasik ez duten udalerrietara gasa eramatea.
- Lurraldean dauden baliabideen identifikazioa, ebaluazioa eta kontrol publikoa.

---

**8. EKIMENA: Euskadin Gas Naturaleko merkatu bat (Hub: prezioak finkatzeko gunea) garatzea.**


---

- Ekimen hori garatzeko Gas Naturaleko Hub bat sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, Euskadin dauden garraio azpiegituretan babesturik, merkatuaren gardentasuna hobetze aldera.

#### 4. KONPROMISOA.

### ENERGIAREKIN LOTURIK DAUDEN JARDUEREN GARAPEN TEKNOLOGIKO ETA INDUSTRIALA SUSTATZEA.

- EAJ-PNVk jarduera ekonomikoen garapena eta kualifikazio altuko lanpostuen sorrera bultzatuko du Euskadin energiaren sektorearen inguruan dauden aukerez baliatuz. Eredu energetiko eraginkorrago baten aldeko apustua eta beharra hazkunde ekonomikoa aktibatzen aukera bilakaraztean datza. Apustu hori posible da Euskadin oinarri teknologikoa, lehen mailako hainbat trakzio-enpresa eta industria eta zerbitzu-hornitzaile ehuna ditugulako, politika energetiko aktibo eta sendoko 30 urteren ondoren finkatuz joan diren elementuak.

---

**9. EKIMENA: Energiaren esparruan garapen teknologikoa eta produktu eta zerbitzu berrien sorrera babestea.**


---

- Etorkizunerako indarra duten esparruetan, hala nola, "smart grids" izenekoetan eta sorkuntza banatuan, teknologia eta produktu eta zerbitzu berrien garapena sustatzea.
- Energia berriztagarrien esparruan teknologia eta produktu eta zerbitzu berrien garapena sustatzea: potentzia handiagoko energia eolikoa, offshore eolikoa, eguzki-energia termoelektrikoa eta itsas energiak.
- Energiaren bilketan ahalmenak eta ezagutzak pilatzea.
- Ibilgailu elektrikoaren inguruan produktuak eta zerbitzuak garatzea.
- Energia eraginkortasun eta aurrezpenaren inguruan produktuak eta zerbitzuak garatzea.

---

**10. EKIMENA: Energiaren esparruan enpresen garapena eta sorrera babestea.**


---

- Testuinguru lehiakor baten sorrera bultzatzea sektoreko trakzio-enpresek Euskadiko egoitza mantentzen dezaten eta sektoreari buruzko trakzio-ahalmenarekin jarrai dezaten.
- Enpresa-ehun berri bat sortzea eta unean dagoena finkatu eta handitzea esparru honetan beharrei erantzuna emateko berezko teknologiarekin eta bokazio globalarekin.
- Eskaera publiko sofistikatu sortzea produktu eta zerbitzuen garapenerako aukera eskaintzen duena.
- Teknologia eta industria garapena babestea sorkuntza, garraio, banaketa elektriko eta eraginkortasun energetikoaren esparruan, berezko teknologiaren garapenean lagungarri izango dena eta Euskadin nazioarte mailan puntako industria garatzeko oinarri gisa balioko duena.
- Euskadin industria-ehunaren garapena sustatzea garraioaren eraginkortasun teknologia berrien eta horien elektrifikazioaren inguruan, Euskadik bertan funtsezko zeregina izan baitezake etorkizunari begira.

## PRINTZPIOAK



### ETORKIZUN IRAUNKORRA IZANGO DUEN EUSKADI

LEHEN SEKTOREA,  
GARAPEN  
IRAUNKORRAREN  
OINARRIA

ENERGIA  
BERRIZTAGARRIEN  
ALDEKO APUSTUA

INGURUMEN POLITIKA  
ARDURATSUA

- PNV-EAJrentzat, ingurumenaren kontzeptuak giza bizia baldintzatzen duten faktore guztiak biltzen ditu, ez faktore naturalak bakarrik, baita sozialak, ekonomikoak edo kulturalak ere. Gaur egun ingurumenari buruz hitz egitea gure bizitokiari buruz hitz egitea da, egunero gure jarduerak garatzeko dugun testuinguruari buruz, gu baldintzatzen gaituena eta, aldi berean, geuk baldintzatzen duguna.
- Ikuspuntu horretatik, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpenaren lehen printzipioak xedatu zenez, *"gizakiek garapen iraunkorarekin loturiko kezken erdigunea eratzen dute. Naturarekin harmonian dagoen bizi osasuntsu eta produktiboa izateko eskubidea dute"*; printzipio hura 1992an Nazio Batuek egindako konferentzian ezarri zen, eta duela gutxi Rio+ 20 delakoan finkatu da. Hauxe da, hain zuzen ere, EAJ-PNVren ingurumen politikaren helburu nagusia: pertsona guztiek, gaurkoek eta biharkoek, bizitza duina izateko eskubidea izatea, kalitatezko inguru batean. Xede horrek iraunkortasunaren kontzeptuaren funtsezko muina azaltzen du.
- EAJ-PNVrentzat, denok bizi kalitate hobea izatea ahalbidetuko duen aurrerabidea bermatzea da garapen iraunkorra, betiere ekosistemen mugen barnean. Iraunkortasuna, beraz, funtsezko kontzeptua da gizartearen arazoei aurre egiterakoan iraupena bermatu nahi duen edozein kudeaketa publikotan, arazo horiei modu arduratsuan, bidezkoan eta orekatuan aurre egin nahi badiete.
- Planteamendu horrekin bat etorritik, azken hamarkadetan, EAJ-PNV erakundeetako buru izan denean garapen iraunkorraren kontzeptua barneratzea gidatu du, maila guztietako jarduera politikoan jardun denean. Horrela, bada, Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 gidari izan da euskal Administrazio publikoaren jarduneari arlo horri dagokionez, eta garapen iraunkorrerako Europar Batasunaren Estrategian eta ingurumen alorreko Ekintza Komunitarioko Seigarren Programan ezarritako helburuak garatu ditu.
- EAJ-PNVk badaki ingurumen politikek, zeharkako izaera dutela-eta, erantzukidetasunean oinarritu behar dutela. Horretarako, administrazio guztien esku-hartze koordinatuaz gain, agente sozialen, ekonomikoen, zientifiko-teknologikoen eta, batez ere, herritarren parte hartzea beharrezkoa da.
- Ingurumen politikek zeharkako izaera izateak oso lotura estua du garraio iraunkorraren, energia berriztagarrien, energia aurrezpenaren eta eraginkortasunaren aldeko apustua egingo duen estrategia energetikoa garatzearekin. Ildo beretik, hemen jasotako neurriak euskal estrategia energetikoari buruzko aurreko kapituluan jasotakoen osagarri dira.
- Garapen iraunkorrekiko benetako konpromiso eraginkorreko bide honetan babestuta, EAJ-PNVren ingurumen politika lehentasunezko sei ildo estrategiko hauetan egituratzen da:
  - Inguru naturala lehengoratzeko eta babesteko.
  - Ingurumen prebentzioa eta kalitatea.
  - Baliabideen eta hondakinen kudeaketa iraunkorra.
  - Lurralde oreka eta mugikortasun iraunkorra.
  - Koordinazioa, erantzukidetasuna eta parte hartzea.
  - Iraunkortasun energetikoa.

- Horrenbestez, EAJ-PNVk ingurumen politika arduratsua proposatzen du, honako **KONPROMISO ETA EKIMEN** hauekin:

## 1. KONPROMISOA. EKOSISTEMAK ZAINTEZA ETA BULTZATZEA.

### 1. EKIMENA: Euskadiko kapital naturala babestea eta lehengoratzea.

- EAEn giza ongizaterako ekosistemen zerbitzuak ezagutzea, hobetzea eta indartzea bultzatzea (hornidura, arautzea eta kulturalak), Milurteko Ekosistemen Ebaluazioari buruzko Nazio Batuen proiektuaren esparruan.
- Ekosistemen egituraketa, konektagarritasuna eta funtzionamendua arriskuan jartzen duten arazoak (puntu beltzak bide azpiegiturretan, sare elektrikoak, ...) murrizteko neurri plana egitea.
- Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea amaitzea, aintzatespen juridikoa eskainiz.
- Euskal kostaldeko itsas inguruko eremu babestuen azalera bikoiztea.
- Garrantzi Komunitarioko Lekuen (GKL) mugak egokitzea eta, foru aldundiekin elkarlanean, Natura 2000 Sarearen kudeaketa tresnak ezartzea.
- Arau esparrua eguneratzea natura zaintzeari eta Urdaibai Biosfera Erreserbari dagokienez, foru aldundiekin koordinazioan.
- Ekosistemak lehengoratzeko eta hobetzeko politikak sustatzea.

### 2. EKIMENA: Bioaniztasuna zaintzea.

- EAeko Bioaniztasunaren Estrategia 2009-2014 garatzea.
- Arriskuan dauden Espezieen Katalogoa berrikusi eta eguneratzea eta, foru aldundiekin elkarlanean, galzorian dauden espezie guztien kudeaketa planak amaitzea.
- Foru aldundiekin koordinatuta, inguru naturala gehien kaltetzen duten espezie exotiko inbaditzaileak desagerrarazteko planak bultzatzea.
- Euskadiko Bioaniztasunaren Behatokiaren Sarea eratzea (Madariaga Dorretxea, Urdaibai Bird Centre, Ataria, Playaundi...).

### 3. EKIMENA: Geoaniztasuna bermatzea eta bultzatzea.

- Geoaniztasuna ikertzea, hedatzea eta balioztatzea sustatzea, Euskadiko geoaniztasun estrategia baten bidez.
- Interes Geologikoko Lekuen katalogoak eta estrategiak burutzea, lurralde antolamenduko tresnetan, eremu babestuetan eta hirigintza planetan islatuz.

### 4. EKIMENA: Euskadiko paisaiari balioa ematea.

- Paisaiari dagokion arau esparrua zehaztea, eta hala, Euskadiko paisaiak juridikoki aitortzea, babestea, kudeatzea eta antolatzea bermatuko da, ingurumen, kultura, gizarte eta ekonomia balioei eusteko, betiere garapen iraunkorreko esparru batean.
- Euskadiko paisaia bereziak ikertzea, hedatzea eta balioztatzea sustatzea.
- Ingurumen eragin handiko eremu hondatuak lehengoratzeko ekintzak garatzea, bai hiri, bai landa inguruetan, toki erakundeekin lankidetzan.
- Argi kutsadura mugatzeko ekintza plan bat onestea.

## 2. KONPROMISOA: GURE INGURUAREN INGURUMEN KALITATEA HOBETZEA.

### 5. EKIMENA: Uraren kalitatea hobetzea.

- Toki erakundeei babesa eskaintzea, Euskadiko udalerrri guztietan kalitatezko ur hornidura bermatzeko.
- EAeko Plan Hidrologikoaren saneamendu azpiegiturak amaitzea, uren egoera ekologiko ona lortzeko Uraren 1/2006 Legearen helburuei jarraiki.
- Hornidura eta saneamenduaren alorrean tarifak bateratzea, lurralde elkartasuneko eta kostuak berreskuratzeko printzipioen babesean.
- Ezohiko goraldiengatik gerta daitezkeen uholdeak eragozteko, urpean gera daitezkeen lurrak okupatzea ekidinez eta beharrezkoak diren zaharberritze edo euste lanak eginez.
- Lurrazpiko ur masen aprobetxamendua hobetzea, uraren kudeaketa integrareko sistema hobetzeko eta ibaien emari ekologikoak bermatzeko.
- Kostalderi buruzko Legea itsasertzen benetako kudeaketa baten beharretara egokitzeko erreklamazioa Espainiako Gobernuari, besteak beste, ingurumenaren babes eta lehengoratzeko eraginkorra bermatzen dituen.
- Eusko Jaurlaritzak detergenteetan substantzia fosfatatuak ahalik eta gutxien erabiltzea xedatzen duten araudiak onets ditzan sustatzea, ur masen ongarrizko artifiziala (eutrofizazioa) murrizteko.

### 6. EKIMENA: Airearen kalitatea hobetzea.

- Euskadiko Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea hobetzea eta handitzea, kontrolgune berriak ezarri.
- Airearen kalitatearen ekintza planak sustatzea 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan, bertan informazio atmosferikoko taulak ezartzea bultzatuz.

### 7. EKIMENA: Kutsadura akustikoa murriztea.

- Zuzentarau komunitarioetatik eta Zaratari buruzko estatuko Legetik sortzen diren kutsadura akustikoari buruzko alderdi guztiak arau bidez garatzea.
- Zaratari buruzko mapak eta ekintza planak egitea sustatzea, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.
- Kalitate akustikoari buruzko bulego bat sortzea, herritarrei eta toki erakundeei informazioa eta aholkuak eskaintzeko.

### 8. EKIMENA: Lurzoruaren kalitatea hobetzea.

- Euskadiko 2013-2018 Lurzoru Kutsatuen Plan berria burutzea, lurzoru kutsatu historikoen arazoa behin betiko konpon dezan.
- Lurzoru kutsatuak lehengoratzeko toki erakundeentzako laguntza programan inbertitzea sustatzea.
- EAEn lurzoru kutsatuak kudeatu eta lehengoratzeko planta bat ezartzea bultzatzea.
- Lurzoruaren kutsaduraren kontrol integratua ebaluatzea industria, energia, abeltzaintza eta nekazaritza jardueren esparruan.
- Kutsatutako lurzoruak bestelako jarduera ekonomiko batzuetarako berrerabiltzea, lurzoru gehigarriaren artifizializazioa eragozteko behar ez denean.



### 3. KONPROMISOA. BALIABIDEAK ETA HONDAKINAK MODU IRAUNKORREAN KUDEATZEA.

#### 9. EKIMENA: Baliabideen kontsumoa BPGaren hazkundetik bereiztea.

- Euskal administrazioan erosketaren berdearen irizpideak arautzea.
- Ekodiseinu Gelek garatutako praktika onak eremu industrialean integratzea.
- Euskadiko hondakinak prebenitzeko plana prestatzea eta onestea.
- Ekonomia sozialeko erakundeei babesa eskaintzea berrerabili eta birziklatzeko prestakuntzarako jardueretan.
- Hondakinak sortzea murrizteko informazio eta hezkuntza kanpainak bultzatzea, herritarren artean kontsumo iraunkorreko jarraibideak hedatuz.

#### 10. EKIMENA: Hiri eta industria hondakinen aprobetxamendua maximizatzea.

- Foru aldundiekin elkarlanean, Euskadiko hiri hondakinak kudeatzeko esparru plana prestatzea, hondakinak baliabide gisa aprobetxatzea sustatzeko eta gordinik isurtzea eragozteko.
- Industria eta merkataritza jatorria duten hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko plana eguneratzea, eta aurrez ikusitako birziklatze helburuak lortzeko pizgarriak eta kontrol neurriak gaineratzea.
- Arriskutsuak diren hondakinen kudeaketa plan berria prestatzea.
- Eraketa hondakinak % 100ean berrerabiltzen eta birziklatzen direla bermatzea.
- Industria hondakinen bilketa selektiboa sustatzea aldi baterako biltegiatze sistemetak (garbiguneak) kudeatzaileei laguntza zuzenak eskainiz.
- Hondakinen zati ezberdinak kudeatzeko sistema integratuak egoki ezartzea sustatzea; horretarako, ekoizleekin, kudeatzaileekin eta toki erakundeekin hitzarmenak sinatzea.

### 4. KONPROMISOA. LURRALDE OREKA ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA.

#### 11. EKIMENA: EAEko lurraldearen garapen orekatua eta iraunkorra lortzea, kohesio ekonomiko eta soziala, baliabide naturalak eta kultura ondarea zaintzea eta lurraldearen oreka lehiakorra lotuz.

- Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak zuzen aplikatzea lurralde garapeneko helburu nagusiak lortzeko: pertsonentzako eremuak berreskuratzea, lurralde ordeka, erabilera mistoko hiri eremuak, kalitatezko bide eta trenbide sareen bidez ongi loturiko lurraldea, inguruan ongi integratutako jarduera ekonomikoko zonaldeak, eta erabilera industrialetarako eremu hondatu eta deskontaminatuak edota azpiegiturak berreskuratzea lurzoru berriak artifizializatzeko beharrik gabe.
- Hiri eta herrien egitura trinkoa zaindu eta sustatzera bideratutako politikak bultzatzea.
- Hiri berrikuntza sustatzea lurralde antolamenduko lehentasunezko helburu gisa, udaleko hiri antolamendurako plan orokorren bidez.

**12. EKIMENA: Lurraldearen kudeaketa artikulatzea arau tresna egokien bidez.**

- Euskadiko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/90 Legea berrikustea alorrean eragina duen indarreko araudira egokitzeko.
- Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak eguneratzea.
- Egiteke dauden Lurralde Plan Partzialak onestea eta burutzen amaitzea.
- Indarreko Lurralde Plan Sektorialak berrikusi eta eguneratzea, baita Euskal Lurraren Erabilera, Habitat eta Landaretza Mapak ere.
- Lurralde mugakideetako administrazioekin dagozkion lurralde plangintzak koordinatzea (Donostia-Baiona Eurohiria edo Arabako Lautada-Sakana).

**13. EKIMENA: Garraio sistema iraunkorrak bultzatzea.**

- Mugikortasun iraunkorreko sistema ezartzea, kalitatezko trenbide garraioa bizkarrezur gisa izango duena, inguru ezberdinen beharretara egokituz eta errepide bidezko garraio zerbitzu on, fidagarri eta eraginkor batekin osatuz.
- Aldiriko trenbide sarearen eskumena eskatzea euskal herritarren beharren arabera garraio publiko eta iraunkorrean planifikatu eta inbertitu ahal izateko.
- Aldiriko zerbitzua kudeatzea maiztasuna bikoiztu ahal izateko, tren moderno eta egokituekin.
- Gaur egun dagoen bidegorri eta bide berdeen sarea handitzea, Euskadi iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera bizikletetarako bideetatik zeharkatu ahal izateko..
- Portu, aireportu eta bide eta trenbide sareekin ongi lotutako area logistikoak ezartzea, Euskadin sortzen diren aukerak erabili ahal izateko, igarotze lurraldea den aldetik.
- Ekonomia eta prestakuntzarako laguntza programa bat ezartzea, errepide bidezko garraio sektorean enpresa indartsuak sortu ahal izateko, gaur egun sektorea atomizatuegia dagoelako.
- Garraio pribatuko ibilgailuen eskaera kudeatzeko politikak txertatzea, eta ibilgailu parkearen berrikuntza sustatzea iraunkortasun irizpideekin (ibilgailu elektrikoak eta hibridoak).

**5. KONPROMISOA.****INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN POLITIKA PUBLIKOAK KOORDINATZEA ETA SEKTORE PRIBATUA ETA HERRITARRAK ERANTZUKIDE EGITEA.****14. EKIMENA: Plangintza eta arau tresnak eguneratzea Euskadiko ingurumeneko esku-menak zuzen kudeatzeko.**

- Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorra Europan indarrean dagoen araudira egokitzea, eta bertako gai guztiak oinarrizko izaerarekin arautu eta dekretu bidez garatzea.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) xedatutako konpromisoak garatzea.
- IV. Ingurumen Esparru Programa burutzea 2015-2018 eperako, strategiaren alor bakoitzean burutu beharreko ekintzak zehaztuta.
- Administrazio prozedurak berrikusi eta azkartzea, beharrezkoak ez diren luzapenak saihestuz.



### 15. EKIMENA: Iraunkortasuna bultzatzen duten tresna berriak sustatzea eta polizia eta kontrol lanak bermatzea.

- Inbertsio industrialak bultzatzen dituen ekonomia eta finantza mailako araudi berria sustatzea, izaera ekologikoagoa duten ekipamendu eta teknologian.
- Foru aldundiekin lankidetzan, Zerga Erreforma Ekologikoa zehaztea, enplegu sorrerari zerga kargak murrizteko aukera eskainiko duena eta, baliabide naturalak kontsumitzen dituzten eta ingurumena kutsatzen duten jarduerari, berriz, karga ezarriko diena.
- Euskal administrazio publikoen zerbitzura dauden langileentzako Ingurumeneko Prestakuntza Plana indartzea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin eta foru aldundiekin eta udalerriekin lankidetzan.
- Ingurumeneko fiskaltzen eginkizuna babestea eta Ertzaintzaren ingurumen unitateak indartzea.

### 16. EKIMENA: Toki erakundeak ingurumen kudeaketaren agente nagusi gisa babestea.

- Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea (Udalsarea) euskal udalerrri guztietara zabaltzea, sarearen buruzagitza udalerriei emanez.
- Toki erakundeei babes tekniko eta ekonomikoa eskaintzea Tokiko Agendak 21 burutzeko.
- Udalsarean sartuta dauden udalerrien Tokiko Agendak 21 direlakoan ekintza planen berrikuspenean laguntza eskaintzea.

### 17. EKIMENA: Agente sozial, ekonomiko eta zientifiko-teknikoen eta heritarren erantzukidetasuna sustatzea.

- Ingurumenean eraginda duten proiektuetan ingurumenari buruzko informazioa eta heritarren parte hartzea indartzea.
- Iraunkortasunerako hezkuntza bultzatzea eta Eskolako Agenda 21 euskal hezkuntza zentro guztietara hedatzea.
- Industria sektorearekin kolaboratzea ingurumeneko kudeaketa hobetzeko, borondatezko erabakien bidez eta ingurumeneko ziurtagiriak lortzea babestuz (ISO 14001, EMAS, Ekoskan...).
- Euskal unibertsitateekin eta teknologia zentroekin lankidetzan ildoak indartzea garapen iraunkorra sustatzeko jarduera zientifiko eta akademikoaren bidez.
- Ingurumenaren arloan parte hartzeko eta informatzeko unitateen antolaketa babestea 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztietan.

## 6. KONPROMISOA.

### EUSKADIKO IRAUNKORTASUN ENERGETIKOA SUSTATZEA.

- Estrategia energetikoa funtsezko oinarria da ingurumen politika garatzeko. Hori dela-eta, ondoren aurkezten ditugun neurriak atal energetikoan aipatutako osagarri dira, eta Euskadi 2020 Estrategia Energetikoaren eta Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia 2020 delakoaren esparruan modu bateratuan eta koordinatuz gauzatu dira.

---

**18. EKIMENA: Energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea.**

---

- Euskal Administrazioan eraginkortasun energetikoaren buru izatea, Eusko Jaurlaritzaren mendeko egoitza guztietan energia iraunkorreko ekintza planak ezarriz.
- Foru aldundiekin lankidetzan, energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatuko duten energia iraunkorreko kudeaketa udal planak bultzatzea, Europar Batasunak sustatutako alkateen hitzarmena babestuz energia iraunkorreko politika integral baten garapenerako funtsezko tresna gisa.
- Hiri adimendunen kontzeptua sustatzea, energia aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea ekarriko duena.
- Etekin handia eta galerak murriztea eragingo duten energia sorkuntza deszentralizatuko proiektuak babestea (mikroturbinak, kogenerazioa...)
- Etxebizitzan klimatizazio programa berri bat sustatzea (isolamendu hobekuntzak, A motako etxetresna elektrikoak eta ekipamendua, informazioa eta sentsibilizazioa).
- Ohiko energia garbienak bultzatzea.

---

**19. EKIMENA: Garraio sistema iraunkorragoa sustatzea.**

---

- Garraioaren eta zerbitzuen energia eraginkortasuna hobetzea, garraioko lurralde agintaritzekin koordinatutako programa baten bidez, eta herritarren sentsibilizazioarekin.
- EAEko moto, auto eta autobus elektrikoak ahalik eta gehien ugaritzea, sektore publikoan zein pribatuan.
- EAEko elektrolindegia sarea finkatzea.
- Automozioren sektorean energia alternatiboen enpresa berritzaileak eta zentro teknologikoak babestea (ibilgailu elektrikoak, hidrogenoa, erregai pilak...)

---

**20. EKIMENA: Energia berriztagarriak sustatzea.**

---

- Energia Berriztagarrien Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala zehaztu eta onestea.
- Euskadin energia berriztagarrien iturrien ahalmena identifikatzen duten ikerketa ildoak garatzea (CIC EnergiGune).
- Biomasa edo beste iturrien bidez (eolikoa, eguzki energia, geotermikoa, itsasokoa, minihidraulikoa...) elektrizitatea sortzeko instalazio berriak abiaraztea babestea, Euskadiko Estrategia Energetikoa 2020 (3E2020) estrategiaren helburuekin bat etorritz.
- Hiri hondakinetatik sortutako baliabide energetikoen erabilera sustatzea, baita hondakindegietatik biogasa har





EUSKADI BERPIZTU

## EUSKADI SOLIDARIOA

---

- 16. ADINEKO PERTSONEKIN
- 17. PERTSONA BEHARTSUENEKIN
- 18. ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN PERTSONEKIN
- 19. ETORKINEKIN
- 20. BERDINTASUN POLITIKEKIN
- 21. FAMILIEKIN









## EUSKADI SOLIDARIOA

### ADINEKO PERTSONEKIN

PERTSONA  
BEHARTSUENEKIN

ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN  
PERTSONEKIN

ETORKINEKIN

BERDINTASUN POLITIKEKIN

FAMILIEKIN

## PRINTZIOAK:

- Gure bizi-itxaropena Europako luzeenetakoa da. Euskal emakumeak urte gehien bizi direnak dira Europan. Hori Euskadin ditugun ongizate mailari esker, gizarte babesari, osasunari eta zientziaren eta medikuntzaren aurrerapenei esker da horrela. Gure erronka izan behar da gure adineko pertsonen adina ahalik eta modurik osasuntsuenean eta aktiboan luzatzea.
- Erronka honetan, adineko pertsonen bizi ohitura osasuntsuak eta gizartean parte hartze aktiboa izatea funtsezkoak dira; hau da, mendetasuna prebenitzea.
- Adineko pertsonak gure gizartean egiten duten ekarpena aitortu behar dugu lehenik, eta hortik abiatuta, gizartean parte hartzeko eta laguntzeko aukerak eta mekanismoak sustatu eta eskaini behar dizkiegu. "Zahartze aktiboa" sustatzeko daukagun konpromisoa azpimarratu behar dugu, aktiboki zahartzeko ideia aktiboki bizi-tzea bihurtzeko helburuz.
- Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu adineko pertsonetako askok beste pertsona batzuen babesa eta laguntza behar dituztela bizimodu duina edukitzeko. Azpimarratu behar da, "adineko pertsonak" eta "mendetasuna" lotu ohi ditugun arren, 65 urtetik gorako pertsonen %11k bakarrik duela mendetasun mailaren bat.
- Justizia soziala ezin dezakegu ulertu beraren alde humanoagoa eta hurbilagoa kontuan izan gabe. Pertsonarik ahulenek erakundeen babesa eta laguntza behar dituzte, justizia sozialagatik, baina baita zaintza jasotzeko ere, beraien alboan dauden, laguntzen dieten eta arreta pertsonala ematen dieten pertsonen bitartez.
- Euskadik zaintzaren funtzioa berdintasun gai bihurtu behar du. Ez da bidezkoa familiaren bizkar jartzea zaintzaren betebeharrak guztiak: adingabekoak, adinekoak, gaixoak, mendetasuna dutenak... Erantzukizun publikoko neurri sorta bat sortu behar da, zaintza behar duten pertsonak zaintzea eta zaintzaileen bizitzaren garapen ona bateragarri egiten dituztenak.

- Helburu horiek betetzeko, EAJ-PNVn konpromiso eta ekimen hauek planteatzen ditugu:

## 1. KONPROMISOA. “Bizi-kalitate duina bermatzea adineko pertsoneri”.

### 1. EKIMENA: Pentsiorik txikienen erosahalmena mantenduko dela bermatzea.

- Kolektiborik behartsuenentzako gizarte laguntzak mantentzeko daukagun politikarekin bat etorriz, eta zehazki adineko alargunen kasuan eta gutxieneko soldatari beherako pentsioa jasotzen duten pertsonen kasuan, adierazten dugu beharrezko diren laguntza programa guztiak mantentzeko konpromisoa hartzen dugula, euskal pentsiodun behartsuenen erosahalmena mantentzen dela bermatzeko xedearekin.

## 2. KONPROMISOA. “Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea”.

### 2. EKIMENA: “Gizartean aktiboki parte hartzea, batez ere haiengan eragina duten kon-tuetan”

- Adin guztietako pertsoneri hezkuntza, prestakuntza eta kultur programetan sartzeko aukera emango diegu, eskaintza malgutzuz eta haien beharrezan egokituz, ikaskuntza bizi-tza osoko kontua izan dadin (Delors txostena).
- Adineko pertsonak isolatzea eragozteko programak egingo ditugu.
- Adineko pertsonen lan solidario mardoa egiten dute, eta hala egiten jarraitzea sustatu behar dugu. Adineko pertsonen egiten duten lana eta gizartearekin daukaten konpro-misoa jendaurrean erakutsi behar ditugu.
- Adinekoen ekintza boluntarioa pizteko programak sortuko ditugu haien interes eta gaita-sunen arabera postu eta eginkizunetan.

### 3. EKIMENA: “Adineko pertsonen artean elkartegintza sustatzea”

- Adineko pertsoneri eta beraien elkartei ahotsa emango diegu, zuzenean haien ongiza-tean eragiten duten politikak formulatzean eta aplikatzean.
- Adineko pertsonen artean elkartegintza sustatuko dugu, bai adinekoen kolektibo gisa, bai gizartean parte hartzeko modu berriak sortuz.

### 4. EKIMENA: “Gizarteak adineko pertsonen duen pertzepzioa aldatzea”

- Gizarte komunikazioko bitartekoekin lan egingo dugu, adineko pertsonen irudi positibo eta integratua eman dezaten.
- Adineko pertsonen gure gizartean berez daukaten balioaren ideia zabalduko dugu geu-re mezuetan.

### 5. EKIMENA: “Denekin zahartu, belaunaldi arteko ezagutza mesedetuz”

- Adineko pertsonen belaunaldi gazteagoekin jakintza eta trebeziak konpartitu ahal izate-ko espazioak (hezkuntzakoak, kulturakoak, gizartekoak etab.) sortuko ditugu.
- Belaunaldi ugariaren baterako jarduketak saritzen dituzten diru-laguntza programak sortu-ko ditugu.
- Belaunaldi arteko bizikidetzak hori ahalbideratzen duten famili jarduerak bultzatuko ditugu.
- Eusko Jaurlaritzaren politika sektorialetan “erosotasunaren” zeharkako ikuspegia sustatu-ko dugu, guztiontzako gizartea errealitate bihurtzeko (garraioan, hiri plangintzan, kultur kudeaketan, ...).

## 3. KONPROMISOA

**“Mendetasuna duten adineko pertsonen beharrezanean arreta jartzea”.****6. EKIMENA: “Mendetasunari arreta jartzeko sistema azkar eta eraginkorra sortzea”**

- Udalen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean erakunde arteko ekimenak landuko ditugu, adineko pertsoneri zerbitzu hobea emateko.
- Baliabideen gida egingo dugu, mendetasun egoeran dauden adineko pertsonentzat, erreferentzia gisa eta kontsultetarako erabil ditzaten.
- Administrazioen arteko informazio sistema integratua garatuko dugu, zerbitzuen eta baliabideen arteko trantsizioak mesedetzeko.
- Erakunde eskudun guztiekiko koordinazio prozesua gidatuko dugu, mendetasun egoeran dauden pertsonen balorazioko eta osasun eta gizarte arretako prozesuetan parte hartzen duten administrazio guztiek haiei buruzko informazio esanguratsu guztia eskura dezaten.
- Mendetasun egoeraren balorazioak ez du 40 egun baino gehiago iraungo.

**7. EKIMENA: “Adineko pertsona sistemaren erdigunean jartzea; arreta humanizatzea”**

- Koordinazioa pertsonarengan zentratutako plangintzarako tresna izango da. Koordinazioa sistema guztiek (soziala eta osasuna, batez ere) eta administrazio maila guztiek (udalak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) pertsonentzako zerbitzuak modu koordinatuan eman ditzaten muina izango da.
- Euskadiko gizarte zentro eta zerbitzuetan laguntza-etikako batzordeak sortzea sustatuko dugu.
- Zentro eta zerbitzuetan kudeaketa eta arretako jardunbide egokiko eskuliburuak sortzea sustatuko dugu.

**8. EKIMENA: “Mendetasunari arreta jartzeko zentroen araudia eguneratzea”**

- Mendetasunari arreta jartzeko zentro eta establezimenduek administrazioarekin zerbitzuak hitzartu ahal izateko bete behar dituzten baldintzak finkatuko ditugu (akreditazioak arautzen dituen dekretua).
- Eguneko zentroetan autonomia pertsonalaren funtzio sustatzailea bultzatuko dugu (I. graduako profiletarako). Zahartze osasuntsuko programak eta eragin-ingurune adineko pertsonentzako kultur eta jolas jarduerak egingo ditugu. Gainera, dagozkien zaintza jarduerak egingo ditugu, beste komunitate-zerbitzu batzuekin bateragarri izan behar direnak.
- Mendeko pertsonentzat eguneko zentroen erabilera malgutuko dugu, ahalik eta pertsonarik gehienek baliabide honen onurak jaso ahal izateko.

**9. EKIMENA: “Mendetasunari arreta jartzeko zerbitzu eta prestazioak mantentzea”**

- Euskadirentzat mendetasunari arreta jartzeko zerbitzu-zorro propio bat erabat garatuko dugu.
- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzako eredu mistoan aurrera egingo dugu, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorean arreta berezia jarritz, erantzukizun publikoko sistema baten benetako kudeaketa eredu gisa.
- Gizarte eskubideak modu eraginkorrean gauzatzeko behar diren baliabideak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku jarriko ditugu.
- Sistemaren esku jartzen diren baliabide pertsonal eta ekonomikoak zuzen erabiltzearen jarraipen zorrotza egingo dugu.



#### 4. KONPROMISOA.

### “Nahi duten pertsoneri etxean gelditzeko aukera ematea”.

- Adineko pertsonak euren etxean bizitzeko aukera izan behar dute, ahalik eta urterik gehien. Presio hori ez da soilik familiarengan erori behar; horregatik, beharrezkoa da zaintza behar duten adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsoneri laguntzea (Nazio Batuen Printzipioak Adineko Pertsonen alde).

---

#### 10. EKIMENA: “Zaintzailea laguntzen eta zaintzen duten programak bultzatzea, udalen eta foru aldundien bidez”

---

- Zaintzaileerik garrantzitsuenentzat prestakuntza programak egingo ditugu.
- Atsedeen programak bultzatuko ditugu, zaintzaileek bestelako jarduerak egin ahal izateko (prestakuntza, aisialdia etab).
- Laguntza teknikoaren sistema eraginkor bat diseinatuko dugu, adineko pertsonak etxean egon ahal izateko, etxean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak eginez eta teknologiak hurbilduz.

---

#### 11. EKIMENA: Zaintza konpartituak: administrazioak eta familia

---

- Famili inguruneke zaintzengatik edozein laguntza ekonomiko “zaintzen hitzarmen” bati lotuko diogu, arretako norbanako plana daukana, baita zaintzailearentzako babes eta atsedeen zerbitzuak ere.
- Zaintzaileari etxean laguntzeko zerbitzu profesionalak bultzatuko ditugu. Horrela, adineko pertsona askok beren zuzeneko senideen zaintza ez lukete beraiek bakarrik beren bizkar hartuko.
- Sistema teknologiko unibertsal bat garatuko dugu, mendetasuna duten pertsonen zaintzaileei uneoro laguntzeko, modu telematikoaz eta telefonoz.
- Familiako, laneko eta norberaren bizitzak bateratzeko laguntzak indartuko ditugu, mendetasun goerari dauden adineko pertsonak zaintzeko.

---

#### 12. EKIMENA: Adineko pertsonentzat gizarte eta osasun arretako programa espezifikoak garatzea.

---

- 2013-2017 Gizarte eta Osasuneko Plan Estrategiko berriaren barruan, diziplina askotako zerbitzu eta programa espezifikoak egingo ditugu, adineko pertsonentzat, adineko pertsonen ezaugarri bereziak eta beharrezkoak kontuan izanik.

---

#### 13. EKIMENA: Adineko pertsonentzako arretan ezagutzak duen garrantzia azpimarratzea

---

- Zenbait programa egingo ditugu (unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin lankidetzan) adineko pertsonen gaian, haien etorkizuneko beharrezkoen bilakaerari buruz eta arreta emateko zerbitzuen eskaintzari buruz dakiguna areagotzeko eta kudeatzeko.

---

#### 14. EKIMENA: Adineko pertsonentzako arretan eta zerbitzuak ematean gizarte berrikuntzako programak egitea.

---

- Gizarte berrikuntza eta haren aplikazio sistemak, hirugarren sektorearen bidez edo adineko pertsonentzako zerbitzuak ematen lan egiten duten merkataritzako erakundeen jarduera gero eta handiagoaren bidez, adineko pertsonen beharrianak asetzeko zerbitzu eta produktuen sarea garatzeko funtsezko elementuak izatea nahi dugu. Ildo horretan, etengabe harremanetan izango gara adineko pertsonen elkarteekin, eta bereziki adinekoei zuzendutako gizarte berrikuntzan lan egiten duten irabazasmorik gabeko erakundeekin edo merkataritza erakundeekin.

---

**15. EKIMENA: Adinekoentzako arreta eta komunikazio zerbitzua sustatuko dugu etxean, gainerako erakundeekin koordinatuta, zuzeneko elkarrizketa bidez haien beharrianak behar bezala asetzeko.**

---

---

**16. EKIMENA: Jarduketa plan bat eta protokolo bat abiatuko ditugu, familian adineko pertsonen aurkako tratu txarrak antzemateko.**

---





## PRINTZIPIOAK:



### EUSKADI SOLIDARIOA

ADINEKO PERTSONEKIN

PERTSONA  
BEHARTSUENEKIN

ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN  
PERTSONEKIN

ETORKINEKIN

BERDINTASUN POLITIKEKIN

FAMILIEKIN

- Ongizate ekonomikorako eskubidea eta gizarte proiektu komun bat erabat konpartitzeko eskubidea, bizimodu duin bat biziz, euskal gizartean dauden estandarren araberakoa, oso garrantzitsuak dira gizarte eraikuntzan.
- Uste dugu gizarte zerbitzuak Ongizate Estatuaren laugarren zutabea direla, Hezkuntzaren, Osasunaren eta Pentsio Sistemaren parekoak. Horregatik, beharrezkoa dugu, eskubide honi maila hori ematen dion araugintzako esparrua sortzeaz gain, eskubide hau modu mailakatuaren bermatzen duen bidean aurrera egitea. Bide honi jarraiki, bate-tik, gizarte politikak garatzea eta ezartzea bermatzen duten neurriak hartu behar ditugu eta, bestetik, sistemarenganako norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna eskatu behar dugu.
- Enpleguak funtsezko papera jokatzen du jendea gizarteratzerakoan. Aitzitik, aitortu behar dugu pertsona batzuek zailtasun handiak dituztela, haientzat lan munduan sartzea oso gauza korapilatsua baita. Halere, gure helburu nagusietako bat horixe da: gizarte bazterketan dauden pertsonarik ahalik eta gehien lan merkatuan sartzea erraztea alegia, haien egoera ez dadin izan kronikoa eta itzulezina.
- Ezinbestekoa da onartzea lan merkatuaren gaur egungo egoerak lan egiteko aukera gutxi eskaintzen dizkiela pertsonarik behartsuenei. Horregatik, premiazkoa da gizarte ahultasunean dauden pertsonen prestakuntza ematea, gizarteratze ibilbide iraunkorren bidez. Ibilbide horiek, gerora, laneratzeko prozesuak sorrarazi beharko lituzkete.
- Europar Batasunean azken hamarkadan izan den hazkundeak erakutsi du ez dela nahikoa hazkuntzaren eta garapen ekonomikoaren aldeko apustua; horrez gain, enplegu inklusiboa sortzen duen hazkuntzearen aldeko apustua egin behar da. Pertsonarik behartsuenentzat lanpostuak ekartzen dituen jarduera ekonomikoa sortzea da gakoa, besteak beste.
- Zenbait kolektibok, hainbat arrazoiengatik, bazterketa egoerak pairatzeko joera handia dute. Kolektibo horietako pertsonen oso beharizan ezberdinak dituzte. Oso babes ezberdinak behar dituzte, bai beren egoera arintzeko (laneratzeko prozesua ia ezinezkoa denean), bai bizimodu ahalik eta duinena eta beteena izateko.
- EAJ-PNVk uste du bazterketa egoerak ez betikotzeko oinarriak sortu behar direla. Horregatik, gure ustez pertsona guztientzat benetako aukera berdintasuna bermatzea da lehentasuna, batez ere pobrezia-aren edota bazterketaren gorpil zorotik irten behar duten belaunaldi gazteentzat. Ildo horretan, hezkuntzak oso eginkizun garrantzitsua betetzen du. Oinarritik, gizarte inguruneak adingabekoengan sortzen dituen ezberdintasunak berdindu behar ditu. Osasuna oso kontuan izan beharreko beste faktore bat da. Horregatik, zailtasun handiak dituzten kolektiboak osasun eta hezkuntza sistemetara iritsi ahal izatea bermatu behar da.

- Printzipio eta objektibo hauek erdiesteko asmoz, EAJ-PNVn uste dugu lankidetzan sakon eta estua egon behar dela gaian eskudun diren maila instituzional guztietan, batez ere foru aldundiekin. Horretarako, pertsona behartsuenak laguntzeko estrategia integrala, konpartitua eta batua garatzea proposatzen dugu, ondoko KONPROMISO ETA EKIMENAK abiatuz:

## 1. KONPROMISOA. PERTSONARIK BEHARTSUENENTZAKO GIZARTE LAGUNTZEN BERMEA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETzea.

### 1. EKIMENA: **Pertsonarik behartsuenentzako gizarte laguntzak mantentzen direla bermatzea.**

- 2013-2016ko Gizarteratzeko Erakunde arteko Plana abian jartzea. Plan horretan, gizarte bazterketaren aurkako borrokari heldu behar zaio, pertsonarik behartsuenak gizarteratzen laguntzen duen oinarritzko errentaren bidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen esparruan.
- Gizarte larrialdirako laguntzei eta etxebizitzarako sorospenei eustea, laguntza izaerako diru-laguntza berezi gisa.

### 2. EKIMENA: **Gizarte laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzea bultzatuz eta bazterketa kroniko bihurtzea galaraziz.**

- Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak ezartzea, laneratzeko prozesuetan parte hartzen duen pertsona bakoitzari kalitatezko jarraipena egin ahal izateko.
- Diru-sarrerak bermatzeko sistema jendea gizarteratzeko kontratuak sinatzeari lotzea. Kontratu horietan, prestakuntza eta gizarte ekintza zehatzak ezarriko dira, oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonen eta haien familien gizarte bazterketa betikotzea galarazteko.
- Kontratazio publikoan gizarte klausulak sartzea, enpresak gizarteratzeko eta laneratzeko programen helburuetan inplikaturik.

### 3. EKIMENA: **Gizarte politikak eta emandako laguntzak fiskalizatzea.**

- Diru-sarrerak eta gizarteratzea bermatzeko euskal sistemaren prestazioen ebaluazio sistematikorako eredu diseinatzea, gizarteratzearen aldeko politika publikoen eraginkortasuna neurtzeko.
- Aldian aldiko informazio sistema sortzea, pertsona hartzaileen eboluzioari eta ezaugarriei buruz.
- Ikuskapenak sustatzea, gizarte laguntzak jasotzean gerta litezkeen gehiegikeriak galarazteko, eta laguntza horietan gizarte justiziaren printzipioa eta baliabide publikoak erantzukizunez erabiltzearen printzipioa aplikatzen direla bermatzea.
- Europako antzeko programei buruzko informazioa ematen duten neurriak ezartzea, eta Euskadin programa hauen praktika onenak aplikatzea.

## 2. KONPROMISOA.

**GIZARTE ZERBITZUAK ONGIZATE ESTATUAREN LAUGARREN ZUTABE GISA BERMATZEA.****4. EKIMENA: Gizarte zerbitzuak eskaerari egokitzea sustatzea, eta gizarte eta osasun zerbitzu berriak garatzea bultzatzea.**

- Eragileen artean koordinatzea eta komunikatzea sustatzea, gizarte eta osasun arretaren eraginkortasunean aurrera egiteko helburuarekin.
- Diziplina arteko zerbitzuak eta programak garatzea eta esku hartzeko ibilbide berriak diseinatzea, erabiltzaileen profilen arabera.
- Zerbitzuak pertsonalizatzeko aurrera egitea, erabiltzaile profil berriaren arabera, dibertsitatearen, aukeratzeko gaitasunaren eta parte hartzearen printzipioak sartuz.
- Kudeaketa eredu berriak bultzatzea, hirugarren sektorearen eta ekimen pribatuaren lankidetzaren barnean hartzen dutenak.
- Teknologia berrien potentziala pertsonen ongizatearen alde erabiltzea sustatzea.
- Osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen artean lankidetzaren mekanismoak garatzea, bazterketa arriskuan dauden pertsonen jarraipena egiteko eta laguntza emateko.

**5. EKIMENA: Erakunde arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea, gizarte zerbitzuen eraginkortasuna hobetze aldera.**

- Euskadiko gizarte zerbitzuen garapen araugilea burutzea, udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko erabakiaren bidez, zerbitzu horien benetako zabalkundeari buruz.
- Erakunde arteko lankidetzaren sendotzea, gizarte zerbitzuen euskal sistema homogeneoa edukitzeko autonomia erkidego osoan.
- Eragileen arteko komunikazio kanal berriak sustatzea, egungo zerbitzuen koordinazioa eta eraginkortasuna hobetzeko.

**6. EKIMENA: Gizarte zerbitzuen iraunkortasuna bermatzea.**

- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eredu mistoan aurrera egitea, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorean arreta berezia jarritz, erantzukizun publikoko sistema baten benetako kudeaketa eredu gisa.
- Gizarte eskubideak modu eraginkorrean gauzatzeko behar diren baliabideak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku jartzea.
- Sistemaren esku jartzen diren baliabide pertsonal eta ekonomikoen erabilera egokiaren jarraipen zorrotza egitea.

**7. EKIMENA: Gizarte zerbitzuen aldeko gizarte ituna sustatzea.**

- Oinarri politiko eta sozial zabala duen itun globala adostea Euskadiko gizarte zerbitzuei buruz, gizarte zerbitzuen sistema gorabehera ekonomiko eta politikoetatik at uzten duena.
- Gizarte zerbitzuak gizartean legitimatzeko lan egingo dugu, egoera zailean dauden pertsona guztientzako sistema unibertsala delako eta pertsona guztien duintasuna bermatzen duelako.
- Gizarte zerbitzuei buruzko araudia etengabe berrikustea, sistema bidezkoagoa eta partekideagoa izan dadin.

## 2. KONPROMISOA. PERTSONA GUZTIEN GAITASUN GUZTIAK BULTZATZEA.

### 8. EKIMENA: Hezkuntza, bazterketaren gorpil zoroa eteteko osagai nagusia.

- Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa EAE osora zabaltzea (gaur egun Bizkaian bakarrik dago). Programa horren inguruan udal eta foru gizarte zerbitzuak koordinatuko ditugu, hezkuntza sistemaz gain, absentismoaren tasa eta eskolatu gabeko pertsonen tasa murrizteko.
- Familiarik behartsuenetatik datozen umeei haur hezkuntzan sartzeko aukera ematea (derrigorrezkoa ez dena eta 3 urte baino lehenagokoa), laguntzen bidez edo kuoten hobarien bidez.
- Hezkuntza errefortzu ez formaleko programak garatzea (aisialdia eta astialdia) absentismo maila eta eskola porroteko maila handiak dituzten ingurune edota udalerrri behartsuetan.

### 9. EKIMENA: Gizarteratze eta laneratze prozesuak piztea.

- Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat gizarte laguntzako programa berriak garatzea.
- Adin guztietako pertsonak hezkuntza eta prestakuntza sistemara itzultzea erraztea, beharrezkoa denean birkualifikazio prozesuak egin ditzaten.
- Bazterketa egoeran dauden pertsonentzat babes sare informalak garatzea bultzatzea.
- Bazterketa egoeran dauden pertsonentzat gizarte gaikuntzako zentroen garapena sustatzea (ezintasuna duten pertsonentzako zereginetako zentroen antzean), zereginen bidez lana eskuratzea ahalbidetzen dutenak.

### 10. EKIMENA: Gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzea.

- Lanbideren eta udalen artean koordinazio protokoloak garatzea, bazterketa handiko egoeran dauden pertsonak orientatzeko eta laguntzeko.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak erabat baztertutako pertsonen hasierako orientatzaile gisa sustatzea.

### 11. EKIMENA: Enplegu inklusiboa sortzea bultzatzea.

- Lana aurkitzeko eragozpen bereziak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten erakundeetara administrazioaren kontratuak erreserbatzea.
- Kontratazio publikoan gizarte klausulak sartzeko babestea.
- Eragozpen bereziak dituzten kolektiboetan enplegua sortzen duten finantza laguntzako tresna berriak garatzea.
- Laneratze enpresentzako eta Enplegu Zentro Bereziarentzako laguntzei eustea.
- Gizarte enpresak sustatzeko plan integral berria garatzea eta abiatzea.

### 12. EKIMENA: Bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako arretaren aldeko esparru araugilea garatzea.

- Bazterketa egoeran dauden pertsonen eta ezindutako pertsonen arreta emateko zentroen dekretuak garatuko ditugu.

- Koordinazioa izango da oinarriko eta foru gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen lan-formula.
- Gizarte bazterketaren diagnostikora eta ikerkuntzara orientatutako tresnak erabiltzea sustatzea.
- Gizarte zerbitzuen gaian esfortzuak monitorizatzeko adierazleen panel bat garatzea, gizarte kohesioaren helburu finalistan arreta berezia jarritz.

#### 4. KONPROMISOA. PERTSONA GUZTIENTZAKO BIZIMODU DUINA.

##### 13. EKIMENA: **Etxebizitza, emantzipazioa eta bizitza independentea.**

- Alokairuko etxebizitzak erreserbatzea, gizarte ingurune behartsuetan bizi diren eta 18 urte bete berri dituzten gazteak emantzipatzeko.
- Alokairuko etxebizitzak erreserbatzea adimen gaixotasunak dauzkaten pertsonen bizimodu autonomoa eskaintzeko.
- Alokairuko etxebizitzak erreserbatzea gorputz edota adimen ezintasuna duten pertsonentzat bizimodu independenteko programak egiteko.
- Gizarte eta osasun koordinazioko mekanismoetan aurrera egitea, GIB, adikzioak eta adimen osasuneko gaitz kronikoak dituzten pertsonen arreta emateko.
- Adikzioak, GIB edota adimen gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak garatzea, autonomia mailak eskuratu ditzaten eta, laguntzarekin, beren bizi-proiektua garatu ahal dezaten.

##### 14. EKIMENA: **Denok merezi dugu aukera bat.**

- Exijentzia baxuko etxebizitza eta ostatuen sarea sortzea, etxerik gabeko pertsonak gizarteratzen hasi ahal izateko.
- Ahalegin pertsonalaren bidez erabat gizarteratu nahi duten kolektibo ahulentzat edo baztertuentzat programak eta baliabideak sendotzea (adibidez, prostituzioan diharduten pertsonak, espetxeratuak, etab).
- Gutxien daukaten pertsonen prestazio ekonomikoari eustea, prestazio horiek gizarteratze hitzarmenei lotuz.
- Beka solidarioen sistema bat garatzea, desintoxikazio prozesuak burutu dituzten eta preskakuntzaren bidez beren autonomia prozesuari heldu nahi







## EUSKADI SOLIDARIOA

ADINEKO PERTSONEKIN

PERTSONA  
BEHARTSUENEKIN

ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN  
PERTSONEKIN

ETORKINEKIN

BERDINTASUN POLITIKEKIN

FAMILIEKIN

## GURE PRINTZIOAK:

- Etxebizitza eskuratzea arazo nagusietako bat da oraindik ere euskal gizartearentzat. Etxebizitzaren prezio garestiaz gain, orain finantzaketa lortzeko arazoak daude.
- Etxebizitza eskuratu ezinaren ondorioz, pertsonen garapen arruntaren inguruko arazo asko sortu dira. Zailtasun horiei aurre egiteko, politika eraginkorra bideratu behar da, sortzen diren ezberdintasunak arintzen laguntzeko.
- Azken urteetako egoera ekonomiko larriaren ondorioz, etxebizitza politikak errealitate berri bati aurre egin behar izan diote, ekonomi eta finantza krisi sakona ezaugarri duena. Testuinguru berriaren ezaugarrietako batzuk administrazioen aurrekontuen murrizpena, langabezi handiak sortutako arazoak eta higiezin sektorearen jardueraren beherakada izan dira. Horrek eragozpen handiak sortu ditu finantzaketa eskuratzeko eta zorrak kitatzeko orduan.
- Ezinbestekoa da etxebizitza politika integral, eraginkor eta adostua diseinatzea eta abiaraztea gizarte eragileekin eta erakundeekin. Estrategia berri bat, biztanleriaren segmentu behartsu guztiek (inor ahaztu gabe) etxebizitza eskuratu ahal izateko baldintza errealistak errazten eta sortzen dituen.
- Beharrezkoa da etxebizitzaren gizarte alderdiei heltzea. Uste dugu gaur egungo egoeraren erronkei aurre egin behar zaiela, etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izateko.
- Gure konpromisoa gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzean datza halaber. Laneratzeko eta etxebizitza eskuratzeko arazoak gazteak emantzipatzeko bi oztopo nagusiak dira. Euskal gazteak emantzipatzen diren batez besteko adina 30 urte da horrenbestez, adinik handienetako bat Europan.
- Gure ahaleginak etxebizitza politika publikoaren bidez alokairua sustatzeko eta etxebizitza ereduak dibertsifikatzeko izango dira. Bi estrategia horiek funtsezkoak dira etxebizitza eskuragarriagoa izan dadin.

- Printzipio hauek garatzeko **konpromiso eta ekimen** hauek proposatzen ditugu:

## 1. KONPROMISOA.

### **ETXEBIZITZA ESTRATEGIA BERRIA GARATZEA, BEHARRIK HANDIENA DUTEN PERTSONEK ESKURATUKO DUTELA BERMATZEKO.**

#### 1. EKIMENA: “**Etxebizitzaren aldeko erakunde arteko erabakia**” planteatzen dugu.

- Ahalegin bereziak egingo ditugu Euskal Administrazio Publiko guztien artean etxebizitza kontuetan lankidetzeta eta kolaborazioa sustatzeko. Erakunde publikoen ekimenen osagarritasuna eta koordinazioa bilatuko ditugu.
- Etxebizitzarako Itun berria sustatuko dugu, eragile guztien beharrezko koordinazioa eta parte hartzea ahalbideratzen dituena, etxebizitza duina eskuratu ahal izateko eta Euskadin eraikuntzaren sektorea berpizteko.
- Itun horren ondorioz, Etxebizitzaren Legea proposatuko dugu, herritarrek etxebizitza duina edukitzeko eskubidea bermatzeko, ahal dela babestutako alokairuan.

#### 2. EKIMENA: **Etxebizitza publikoa adjudikatzeko prozesuak berrikusi eta hobetuko ditugu.**

- Adjudikazio prozesuak berrikusiko ditugu, biztanleriaren eskaerei egokitzeko. Ahal den neurrian, zozketen sistema saihestuko dugu, eta lehentasunezko interes kupoak ezarriko ditugu, pertsona eta kolektiborik behartsuenak mesedetzeko.
- Babes publikoko edozein etxebizitza eskuratzeko exijitu ahal diren gehienezko diru-sarreak urtero eguneratzea bultzatuko dugu, aurreko urteko inflazioari egokituz.
- Etxebizitza adjudikatu ondoko urteetan kontrol mekanismoak indartuko ditugu.
- Gazteentzako gutxieneko etxebizitza kupoa sortuko dugu etxebizitza publikoak adjudikatzeko prozesu guztietan.

#### 3. EKIMENA: **Iruzuraren aurkako plan zorrotza garatuko dugu.**

- Ahaleginak egingo ditugu etxebizitza erabiltzean izan daitezkeen balizko iruzurren aurrean. Horretarako, babestutako etxebizitza-parke osoaren ikuskapena bultzatuko dugu, behar bezala erabiltzen dela bermatzeko.
- Etxebizitza babestuen benetako okupazioa kontrolatuko dugu, eta haiek eskualdatzean dagoen iruzurra kontrolatuko dugu, etxebizitza-parkearen funtzio soziala bizialdi erabilgarri osoan bermatze aldera.
- Baterako programa egingo dugu udalekin, foru ogasunekin, notarioekin eta jabetzaren erregistratzaileekin, babes publikoko etxebizitzaren iruzurrezko erabilera eta eskualdaketa galarazteko.

#### 4. EKIMENA: **Etxebizitzaren fiskaltasun berria.**

- Foru aldundiekin batera, neurri fiskal berrien bideragarritasuna aztertuko dugu, babes publikoko etxebizitza berrien eraikuntza suspertzeko, etxebizitza hutsak alokatzea sustatuko dugu, eta 50 urtetik gorako etxebizitzaren parkea birgaituko dugu.

---

**5. EKIMENA: Etxebizitza berrien eraikuntza operazio guztietan babes ofizialeko etxebizitzaren eta tasatutako etxebizitzaren kupo bat bermatuko dugu.**

---

- Proposatzen dugun etxebizitza lege berrian gutxieneko kupo bat ezarriko dugu, babes publikoko etxebizitzaren eraikuntzarako erreserbatu beharrekoa, etxebizitzaren benetako beharrezanaren arabera. Modu berean, sustapenaren bideragarritasun ekonomikoa eta higiezinaren merkatuaren egungo egoera kontuan izango ditugu.

---

**6. EKIMENA: Etxebizitza politikak finantzatzeko formula berriak identifikatzea eta erabiltzea.**

---

- Finantzaketa bultzatuko dugu, nazioarteko organismoen eta finantza erakundeen bidez.
- Alokairuko etxebizitza sozialak eraiki eta kudeatu nahi dituzten erakunde pribatuakiko kolaborazioa mesedetuko dugu.

---

**7. EKIMENA: Sustapen kooperatibak sustatuko ditugu.**

---

- Pizgarrien programa espezifikoko baten bidez, etxebizitzaren kooperatiben bidezko sustapena bultzatuko dugu, baldin eta etxebizitza horiek tasatutako prezioak badituzte, sustapen publikoko etxebizitzaren antzekoak.

---

**8. EKIMENA: Etxebizitza politika beste gizarte politika batzuekin koordinatzea:**

---

- Etxebizitza plan berriaren barruan, eta gutxieneko errenta jasotzen duten pertsonen araudiarekin bat etorritik, ekintza positiboko neurri berriak garatuko ditugu diru-sarrerak bermatzeko prestazioak eta gizarte larrialdiko laguntzak jasotzen dituzten pertsonen alde, alokairuko etxebizitza soziala eskuratzeko orduan.
- Era berean, alokairu sozialeko etxebizitzaren zati baten kudeaketa sustatuko dugu, udal gizarte zerbitzuen eremuko irabazasmorik gabeko erakundeekin berariazko hitzarmenak eginez.

## 2. KONPROMISOA.

### **ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ESKUBIDEA GAUZATZEKO TRESNA NAGUSIA ALOKAIRUA IZATEA SUSTATUKO DUGU.**

---

**9. EKIMENA: Etxebizitzaren funtzio politikoari esleitutako baliabide publikorik gehienak alokairu politikak sustatzera bideratuko ditugu.**

---

- Gure helburua da babes publikoko etxebizitzak alokairuan (edo erosteko aukera dakarren alokairuan) sustatzea, etxebizitza horien benetako eskaerari erantzuteko behar den neurrian.

---

**10. EKIMENA: Alokairuko etxebizitza sozialen egungo parkea indartuko dugu.**

---

- Alokairuko etxebizitzaren sustapen berriak bultzatuko ditugu.
- Etxebizitza eskuragarriak areagotzea mesedetuko dugu, ekimen pribatuarekin itunak eginez.
- Udalerriekin batera lan egingo dugu, alokairuko etxebizitza sozialak areagotzeko, udalerri bakoitzean alokairuko etxebizitza publikoen gutxieneko parke bat egon dadin. Hori hirigintzako eraikigarritasuna lagatzeko betebeharra aplikatuz eta lurzoru ondare publikoen kudeaketa zuzenari esker gauzatuko da.

---

**11. EKIMENA: Esku pribatuetan dauden etxebizitzaren parkea mobilizatzeko programa bat abian jartzea, alokairuan edukitzera bideratzeko.**

---

- Foru aldundiekin lankidetzan, etxebizitza hutsak mobilizatzeko eta haien alokairua bultzatzeko programa bat garatuko dugu, jendeak etxeak hutsik edukitzea saihesten duten bestelako neurriekin batera.
- Bizigune programa bultzatuko dugu, Euskadin hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko.

---

**12. EKIMENA: Zuzeneko laguntzen lerro berriak bultzatuko ditugu, zailtasunak dituzten maizterren errentamenduaren ordainketa babesteko.**

---

- Horretarako, etxebizitza galtzeko arriskuan dauden kasuei arreta emateko larrialdiko laguntzek ahalbideratzen dituzten tresnak eta neurriak erabiliko ditugu.

---

**13. EKIMENA: Alokairu pribatua sustatzeko neurri berriak.**

---

- Etxebizitza alokairuan jarri nahi duten pertsonen babes hobetzen duen araudi bat onestea bultzatuko dugu.
- Jabeen eta eskatzaileen arteko bitartekaritza neurriak dauzkan programa bat sortuko dugu. Errentak kobratzen direla eta etxebizitzaren balizko narriadurak konpontzen direla bermatzen duten arrisku askotako aseguruetarako laguntzak emango ditugu.

### 3. KONPROMISOA. **EUSKADIKO GAZTEEK ETXEBIZITZA ESKURATZEA BULTZATZEA.**

---

**14. EKIMENA: Estrategia berri bat garatuko dugu Euskadiko gazteei emantzipatzen laguntzeko.**

---

- "Ematzipazio-hirukia" deritzon eragingo duten politika berriak bultzatuko ditugu: prestakuntza, lana eta etxebizitza. Politika honek hiru premia horiei erantzuten dieten ekintza integralak hartuko ditu barnean.
- 20 eta 30 urte arteko gazteentzako alokairua errazten duten babes neurriak bultzatuko ditugu, gehienez 10 urtez eta diru-sarreraren %30 baino gehiago ez diren hileko errentekin.

---

**15. EKIMENA: "Gazteentzako abalen programa" abian jartzea, finantzaketan laguntzeko beste tresna batzuetarako.**

---

- Abalen programa bat bultzatuko dugu, gazteei lehenengo etxebizitzaren erosketan finantzaketa jasotzen laguntzeko.
- Aurrezki kutxen gizarte lanarekin kolaborazioa erraztea. Kolaborazio horren bidez babes programa bat sortuko da, lehenengo etxebizitza eskuratzen duten 35 urtetik beherako gazteentzat interes-tasak murrizten dituen.

---

**16. EKIMENA: Adineko pertsonekin konpartitutako etxebizitzaren sustapena.**

---

- Adineko pertsonak bizi diren etxebizitzaren fondo bat sortuko dugu, logela hutsak gazteei konpartitu nahi badituzte, konpainiaren eta etxeko gastuak partekatzearen truke. Administrazioa izango da gastuen ordainketaren erantzule adineko pertsona horien aurrean, eta gazteek etxebizitza behar bezala erabiltzen dutela bermatuko du.

---

**17. EKIMENA: Alokairua, erosteko aukerarekin, sustatzea, batez ere 35 urtetik beherako pertsonentzat.**

---

- Erosteko aukera dakarren alokairua sustatuko dugu babestutako etxebizitzaren kasuan, batez ere etxebizitza jabetzan erosteko zailtasunak dituzten gazteentzat.

#### 4. KONPROMISOA.

### **BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN ETA ETXEBIZITZARIK EZ DAUKATEN PERTSONEI BABESA EMATEA.**

---

**18. EKIMENA: Aldi baterako alojamenduen sare publikoa sortuko dugu zenbait kolektiborentzat (tratu txarrak jaso dituzten pertsonak, ostatu eman behar zaien pertsonak eta etxea utzarazi dieten pertsonak, etorkinak etab).**

---

- Aldi baterako bizilekua duten langileei, sasoiko langileei eta etorkin iritsi berriei ostatu emateko programa bat abiatzea.

---

**19. EKIMENA: Etixerik gabeko pertsonen egonkortasuna, babesa eta integrazioa laguntzen dituen eta etxeak utzaraztearen ondorioak arintzen dituen programa integral bat bultzatuko dugu**

---

- Berriazko ekintzak garatuko ditugu, gizarte bazterketako arriskuan dauden kolektiboetarako etxebizitza eskuratzea errazteko.
- Etxea utzaraztearen ondorioak arintzeko neurri sorta bat garatuko dugu, Eusko Legebiltzarrean behin eta berriro egin ditugun planteamenduekin bat etoriz. Besteak beste, ondare erantzukizun unibertsalaren printzipioa mugatzea proposatuko dugu, etxebizitza ordainean emanez, zorra likidatzeko arau orokor gisa, etxebizitza babestuari dagokionez.
- Era berean, finantza erakundeei konponbideak proposatuko dizkiegu, etxebizitza libreari dagokionez formula hori bera onar dezaten; izan ere, indarrean dagoen legerian ageri da baina gaur egun praktikan ez da gauzatzen.
- Konkurtso-legea erreformatzeko proposamena planteatzen dugu. Horrela, fede oneko zordunaren ondare bahigarria exekutatu ostean, emaitzako pasiboa salbuetsita geratuko da, eta zordun zintzoari berriz hasteko aukera emango zaio.
- Azkenik, etxea utzarazten zaien pertsonen lehentasuna emango diegu alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko baremoetan.

#### 6. KONPROMISOA.

### **ETXEBIZITZEN EGOKITZAPENA ETA BIRGAITZEA MESEDETZEA ETA ERAIKUNTZA IRAUNKORRA BABESTEA.**

---

**20. EKIMENA: Hiri birgaikuntza eta birsorkuntza laguntzeko programa bat abiaraztea.**

---

- Etxebizitzak birgaitzeko babes programak beriztatuko ditugu, datozen lau urteetan 50.000 etxebizitza hobetzeko eta birgaitzeko.
- Hiri birgaikuntzarako eta birsorkuntzarako prozesuak bultzatzen dituzten ekintzak egingo ditugu, etxebizitza zaharrak egungo gizartearen erosotasun-estandarretara egokitzea ahalbidetu eta "getoak" diren eremuak sortzea galarazten dutenak.





- Renove-etxebizitza berriazko programa berria definitu eta garatuko dugu, 50 urtetik gorako etxebizitzaren fatxadak eta etxebizitzak birgaitzeko.
- Hiri birsorkuntzako eta etxebizitzak birgaitzeko jarduketa berriak sustatuko ditugu hiri eremu degradatuetan, udalerraren nortasuna eta autonomia errespetatzen dituzten biziberritze ekintzen bidez.

---

**21. EKIMENA: Premia bereziak dituzten pertsonen egokitutako etxebizitza irisgarrien sustapena lagunduko dugu.**

---

- Mendetasun handiko egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzak egokitzeko plan berezia abiatuko dugu. Gizarte eta osasun babeseko teknologia berrien ezarpena eta erabilera bultzatuko ditugu.
- Ezinduta edota mendetasun egoeran dauden pertsonentzat irisgarri diren eta egokituta dauden etxebizitzak sustapena bultzatuko dugu.
- Egokituta dauden eta irisgarriak diren apartamentuen sare publikoa sortuko dugu, alokairuan, baliabide gutxi dituzten pertsonentzat.

---

**22. EKIMENA: Arkitektura berdeko eta eraikuntza iraunkorreko eredu berriak bultzatuko ditugu.**

---

- Eraikuntza iraunkorra sustatzeko berriazko programa planteatuko dugu. Berezi arkitektura bioklimatikoa, energiaren eraginkortasuna eta uraren erabilera eraginkorra.
- Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen egokitutako etxebizitzaren erabilera eraginkorragoa errazteko neurri berriak abiaraztea, haien benetako okupazioa bermatuz.
- Eraikinen ikuskapen teknika bultzatuko dugu, etxebizitzaren bizialdia luzatzeko eta haien egoera eta erabilera egokiak bermatzeko.
- Eraikuntzako eredu iraunkor berriak sustatzen dituzten berrikuntzen ikerkuntza eta garapena sustatuko dugu sektorean.



## EUSKADI SOLIDARIOA

ADINEKO PERTSONEKIN

PERTSONA  
BEHARTSUENEKIN

ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN  
PERTSONEKIN

ETORKINEKIN

BERDINTASUN POLITIKEKIN

FAMILIEKIN

## PRINTZIPIOAK:

- EAJ-PNVren gizarte politikak giza eskubide guztiak babestea eta pertsona guztien duintasuna lortzea dute xede; horrez gain, elkartasuna eta justizia soziala sustatu eta gizarte inklusibo bat eraiki nahi dute, gizarte horretan pertsona guztiek bizitza normala, erabatekoa eta duina garatzeko aukera izan dezaten, haien jatorria edo izaera edozein dela ere.
- Printzipio eta balio horiekin bat etorrira, EAJ-PNVk uste du etorkinak gure herrialdeko kide aktiboak direla eta kultura eta ekonomia aberastasuna dakartela. Pertsona horiek gainerako euskal herritarren eskubide eta eginbehar berberak dituzten herritarrak dira.
- EAJ-PNVk nahitaezkoztat jotzen du etorkinen gizarteratze eraginkorra eta sendoa sustatzea ongizatearen eta bizikidetzaren berme gisa, baztertzeko eta bereizteko prozesurik abiarazten ez dela zainduta. Halaber, kulturen arteko bizikidetzaren eta errealitate kultural, sozial eta identitarioa onartzearen alde egiten du, gure herrialdera datozen eta hemen batzen diren kulturekin komunikatzearekin eta hitz egitearekin batera. Alde horretatik, beharrezkoa da etorkinei gure kulturen murgiltzea errazten dieten politikak ezartzea.
- EAJ-PNVk edozein jokabide eta jarrera arrazista eta xenofobo baztertzeko du, baita oinarrizko eskubideen eta askatasunen aurkakoak izan daitezkeen ekintza guztiak ere.
- Gure proposamena etorkinei eskainiko zaien arretarako politika Europako ereduarekin bat etorriz garatzea da, estatuak autonomia-erki-degoekin itundu, eta arloan eskumenak dituzten euskal erakundearen artean koordinatuko dena, betiere adostasun sozial zabalaren emaitza izanik.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du etorkinen gizarteratzea eta laneatzea sustatzeko eta lan baldintza duinak dituztela zaintzeko.

- EAJ-PNVk etorkinekin solidarioa den Euskadi proposatzen du, hurrengo **KONPROMISO ETA EKIMENEN** bidez:

## 1. KONPROMISOA. **ARRAZISMOAREN ETA XENOFOTIAREN AURKA BORROKATZEA ETA PERTSONA ETA KULTURA GUZTIAK ERRESPETATZEA SUSTATZEA.**

### 1. EKIMENA: **Informazio eta komunikazio politika berria sustatzea, pertsona eta kultura guztiak errespetatzea bultzatzeko.**

- Informazio eta komunikazio politika komuna diseinatuko da (jarraibide argiak eta datuak etengabe eguneratzen dituen) Eusko Jaurlaritzaren osorako eta gainerako euskal erakundeetarako. Politika horrek immigrazioaren fenomenoari buruz hainbat alditan entzuten diren mitoak eta estereotipoak indargabetzea ahalbidetuko du.
- Etorkinek gure gizartean egiten duten ekarpenari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta garatuko dira, pertsonak berez banaka duten balioa azpimarratuko da, eta ez estereotipoen mende dauden kolektiboetako kide gisa, datu objektibo guztiak euskal gizartearen migrazio esperientziari eta etorkinek erabiltzen dituzten baliabide publikoen errealitateari lotuta.
- Komunikabideekin etengabe harremanetan egoteko bideak ezarriko dira, etorkinei lotutako albisteei batzuetan ematen zaien testuinguru negatiboa eta horren ondoriozko topiko negatiboak saihesteko.

## 2. KONPROMISOA. **ETORKINAK ERABAT INTEGRATZEA BABESTEIA.**

### 2. EKIMENA: **Euskadiko udaletan erroldatzen diren etorkinei arreta emateko protokoloa garatzea.**

- Etorkinei Euskadiri buruzko informazio zehatz eta eguneratua eskuratzen lagunduko zaie, harrerako herrialdea den aldetik.
- Haien eskubide eta eginbehar guztien berri emango zaie, gure gizartean normaltasunez integra daitezen.

### 3. EKIMENA: **Etorkinei zerbitzu publikoak eskuratzen laguntzea.**

- Zerbitzu publikoetan elkarren artean komunikatzeko eta itzultzeko mekanismoak sustatuko dira, oraindik euskaraz eta gaztelaniaz ondo ez dakiten etorkinek beren izapideak egin ditzaten administrazioarekin ahalik eta modu arinenean.

### 4. EKIMENA: **Kirola egitea sustatzea, integratzeko modu gisa.**

- Kirola egitea sustatuko da, elkar ezagutzeko eta integratzeko modu gisa.
- Berriazko proiektuak eta jarduerak abiaraziko dira, adibidez, etorkinek kirol klub eta federazioetan parte hartzea sustatzea, atzerriko ikasleek eskola kiroleko jardueretan parte hartzea, emakume etorkinen artean gorputz eta kirol jarduerak sustatzea, bertako eta etorkinen jaioterrietako kirolak ezagutzeko, edo etorkinak eta bertako biztanleak biltzen dituzten kirol jarduerak sustatzea.

---

**5. EKIMENA: Euskara irakasten laguntzea.**

---

- Euskara irakastea ekonomikoki sustatuko da, Euskadira bizitzera datozonei eta baliabide ekonomikorik ez dutenei ikasten laguntzeko.

**3. KONPROMISOA.****HEZKUNTZAN ANIZTASUNARI DAGOKIONEZ BIZIKIDETZA ETA KUDEAKETA EGOKIAK LORTZEA, BIZIKIDETZARAKO OINARRI GISA.**

---

**6. EKIMENA: Aniztasuna kudeatzeko sentsibilizatzea eta horretan hezte.**

---

- Euskadiko Eskola Kontseiluarekin eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluarekin partekatutako lana zehaztu eta abiaraziko da, aniztasuna kudeatzeko sentsibilizatzeko eta horretan hezteko zein ikasle etorkinen eta haien familien harrera eta partaidetza hobetzeko.

---

**7. EKIMENA: Ikasle etorkinak integratzea laguntzeko programa eta jarduera berriak sustatzea.**

---

- Programa berriak zehaztuko dira ikasle etorkinen artean eskola-arrakastaren indizea handitzeko, eta absentismoa eta eskola uztea murrizteko.
- Eskola ingurunean bertako ikasleen eta ikasle etorkinen arteko gatazkak saihesteko programak garatuko dira.
- Hezkuntza Saitetik ikasle etorkinen jaioterriei (kultura, erlijioa, bizimoduak, ondarea...) buruz ikasle guztiei zuzendutako jarduerak bultzatuko dira, bertako ikasleak horri buruz sentsibilizatzeko eta elkar hobeto ezagutzea sustatzeko.
- Ikasle etorkinen eta haien familien harrera, orientabide eta inklusio prozesuak eta programak ebaluatu, eta, hala denean, hobetu egingo dira.

---

**8. EKIMENA: Irakasleen prestakuntza eta gaikuntza babestea.**

---

- Irakasle sareak bultzatu eta abiaraziko dira, kultura arteko bizikidetzaren eta aniztasunaren eskola inguruneko kudeaketaren arloetan jakintza, esperientziak eta jardunbide egokiak elkarri emateko.

**4. KONPROMISOA.****ETORKINAK LANERATZEA SUSTATZEA ETA LAN BALDINTZA DUINAK IZATEA ZAINZEA.**

---

**9. EKIMENA: Euskal enpresetan aniztasuna kudeatzeko programa abiaraztea.**

---

- Enpresetan aniztasuna kudeatzeari buruzko planak sustatu eta bultzatuko dira, baita arrazismoa eta etorkinak lan eremuan baztertea eragozteko planak ere.
- Langile etorkinen lan baldintza prekarioen eta lan esplotazioaren aurkako ekintza planak ezarriko dira.
- Langile etorkinei berriazko informazioa eta sentsibilizazioa emango zaie laneko osasunari, segurtasun arauari eta higienerari dagokienez, eta laneko arriskuen prebentzioari dagokienez.

- Langileen eskubide eta eginbeharrei buruz atzerriko langileei zein enpresaburuei zuzentzen zaizkien informazio eta sentsibilizazio kanpainak garatuko dira.
- Langile etorkinek sindikatuetan eta enpresa batzordeetan parte hartzea sustatuko da.
- Langile etorkinen ezkutuko enpleguari eta lan esplotazioari aurre egiteko ikuskapenak eta zehapenak gehituko dira.

## 5. KONPROMISOA.

### **LAGUNTZA ETA BABESA EMATEA EMAKUME ETORKINEI ETA BEREZIKI BABESGABEZIA- EDO/ETA BABESGABETASUN EGOERAN DAUDENEI ETA GENERO INDARKERIAREN EDO PROSTITUZIO SAREEN ERAGINA JASO DUTENEI.**

#### **10. EKIMENA: Emakume etorkinari laguntzeko eta babesa emateko programa integrala abiaraztea.**

- Immigrazio zerbitzuen eta Emakunderen artean etengabeko koordinazio mekanismoak ezarriko dira, kultura arteko bizikidetzak, immigrazio eta herritarren arloko zeharkako politiketan berdintasunerako politikak indartzeko (horiek ere zeharkakoak).
- Etorkinen artean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzen ildo bat sortuko da, Emakunde koordinatuko duena; emakume etorkinei zuzendutako prestakuntza jarduerak (mintegiak, ikastaroak...) bilduko ditu, haien eskubideen berri emateko eta horiekiko sentsibilizatzeko.
- Prestakuntza programak eta jarduerak garatuko dira aniztasuna kudeatzeari dagokionez eta kultura anitzeko aldean arloetan, emakumea sustatzen eta berdintasunaren arloan lan egiten dutenei zuzendutakoak.

## 6. KONPROMISOA.

### **OSASUN POLITIKAN IMMIGRAZIOAREN IKUSPEGIA TXERTATZEA BERMATZEA.**

#### **11. EKIMENA: Immigrazioaren ikuspegia txertatzea Euskadiko osasun plan eta estrategietan.**

- Etorkinen osasuna eta aniztasunaren eta kultur aniztasunaren kudeaketa osasun arretan sartzea, osasun plan eta estrategietan zehaztutako helburuen eta jarduera lerroen artean, eta osasunaren alde erabakigarrien gaineko esku-hartze goiztiarra eta sektore askotakoa lehenestea. Halaber, arreta berezia jarriko da emakume etorkinen osasunean.
- Immigrazioaren eta kultur aniztasunaren ikuspegia sartuko da Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetzak urtean gauzatzen dituzten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak eta programetan.

#### **12. EKIMENA: Aniztasuna kudeatzeari eta kultura anitzeko aldeei buruzko etengabeko prestakuntzarako programa.**

- Aniztasuna kudeatzeari eta kultura anitzeko aldeei buruzko etengabeko prestakuntzarako programa abiaraziko da, Osakidetza langileei zuzenduta egongo dena. Arreta berezia jarriko da hurrengo ataletan: Lehen mailako arreta, Arreta espezializatua, Ospitale arreta, Buru osasuna eta Espetxeetako osasuna.
- Etorkinak gaixo aktibo gisa prestatuko dira, haien kulturako gaixo taldeekin harremanetan egon ahal izateko, horrela osasun heziketa eta autozainketak erraztuko baitira.

## 7. KONPROMISOA.

### ETORKINEI ARRETA EMATEKO POLITIKA BERRI PROPIOA GARATZEA.

#### 13. EKIMENA: Etorkinei harrera egiteko eta integratzeko sarea sortzea.

- Estatu, foru aldundi eta udalekin etengabeko elkarrizketa ezarriko da, immigrazioari lotutako politika guztiak koordinatzeko asmoz.
- Udalekin partekatutako lana sustatuko da, sareko lana gauzatuz, handituz eta bultzatuz harrera, integrazio eta kultura arteko bizikidetzaren alde.

#### 14. EKIMENA: Bakarrik dauden adingabe atzeritarrak hartzeko premiazko protokolo komuna sortzea.

- Esku hartzen duten erakunde guztiekin batera, bakarrik dauden adingabe atzeritarrak hartzeko premiazko protokolo komuna adostuko da, baita gazte horiei dagokienez jarraitu beharreko jardura lerroak ere, foru zentroen tutoretzapeko adingabeek 18 urte betetzen dituztenerako emantzipazio zerbitzua eta helduarora pasatzeko programak barne.

#### 15. EKIMENA: Integrazio Foroa sustatzea.

- Integrazio Foroa sustatzea bi aldetatik: topaketa, partaidetza eta elkarrizketarako organo gisa, etorkinen nahiak eta eskariak biltzea ahalbidetzen duena; eta etorkinak integratzeaz arduratzen diren erakunde, organizazio eta eragileen arteko gogoeta eta koordinazio gune gisa.
- Integrazio Foroaren osakerari, eginkizunari eta lanari buruzko gogoeta prozesua abiaraziko da; erakunde publiko, eragile sozial, eragile ekonomiko, komunikabide, elkarte eta hirugarren sektoreko erakundeek horretan parte hartzeko aukera izango dute.
- Integratzeko politika publikoen partaidetzako gobernantza eredia ezarriko da.
- Etorkinei eskaini beharreko arreta juridikoko eredu onena zein den hausnartzen duen gogoetari eta azterketari helduko zaie.
- 2014-2016rako Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren IV. Plana prestatu eta onetsiko da.

#### 16. EKIMENA: Errefuxiatuak hartzeko programa sustatzea.

- Foru aldundiekin eta udalekin batera, errefuxiatuei, asiloa eskatzen dutenei eta desplazatuei harrera espezializatua egiteko programa diseinatu eta abiaraziko da, laguntza praktikoa, aholkularitza juridikoa eta aholkularitzako beste zerbitzu batzuk, interpretazio zerbitzuak, jarraitu beharreko prozedurari buruzko informazioa eta asiloa eskatu duen pertsonak prozedura horretan dituen eskubide eta eginbeharrei b







## EUSKADI SOLIDARIOA

ADINEKO PERTSONEKIN

PERTSONA  
BEHARTSUENEKIN

ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN  
PERTSONEKIN

ETORKINEKIN

BERDINTASUN POLITIKEKIN

FAMILIEKIN

## PRINTZIPIOAK:

- Euskadi aitzindaria izan da berdintasun politikak sustatzeko orduan, EAJ-PNVko lehendakariak buru izan dituzten gobernuen bultzadari esker. Alde horretatik, lortutako arrakastak finkatzeko eta gure gizarte-garapenerako estrategikoa den arlo horretan beste aurrerapen bat egiteko konpromisoari eusten diogu.
- Gure ahaleginak pertsona guztien arteko berdintasuna bermatzera bideratzen dira, oinarritzko eskubidea den aldetik, haien sexua, sexu-orientazioa, erlijioa edo arraza edozein dela ere. EAJ-PNVren konpromisoa berdintasuna eta identitatea sustatzea da, bizikidetzarako proiektu sendoa eratzeko elementu nagusiak baitira. Aukera-berdintasunaren, emakumeen jabekuntzaren eta kultur aniztasunarekiko errespetuaren alde egin dugun apustua oreka sozialaren eta elkar-tasunaren eragilea da.
- Genero-desberdintasuna erronka sozial nagusietako bat da, eta indarkeria matxista desberdintasun horren adierazpen gorena eta basatierna da. Ahalik eta ahalegin gehienak egin behar ditugu indarkeria matxista desagerrarazteko, emakumeen aurkako indarkeria, eta bereziki gazteenen artekoa eta edozein adierazpide duena, baztertzeko gizarte kontzientziatzeko lana areagotuta. Hori lortzeko, beharrezkoa da abiarazitako ekimenak indartzea eta gazteei indarkeria sexista ezagutu eta antzeman ahal izateko eta horren aurka egiteko tresnak eta baliabideak emango dizkieten estrategia berriak eskaintzea, hezkuntzan eta jarrera sexisten prebentzioan lan eginez eta mota guztietako erasoen aurrean eginkizun aktiboa hartzera bultzatuz.
- Baditugu erakunde-egitura finkatuak eta jarduera politikorako gaitasuna; baina oraindik ez dugu gizarte aktibatu honakoa benetan sinestera eramango gaituen pentsamolde aldaketa lortzeko: zenbait baliok (adibidez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak) pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dute, eta gizarte bidezkoago, libreago eta iraunkorrago batera garamatzate.
- Euskadiren garapena aukera-berdintasuna oinari hartuta baino ezin da gauzatu, eta bereziki gizonen eta emakumeen arteko aukera

-berdintasuna eta lan-baldintzen parekatzea landu behar dira. Mundu honetan, ezagutzak eta talentuak ezartzen dute aldeak; hori dela eta, erakundeek ezin dute beren gaitasunen % 50 galdu besterik gabe. Emakumeek euskal enpresa-sarean zein jakintza sortzeko eta garatzeko eremuetan berdintasunez parte hartzen badute, gaur egungo erronkei eta lehieki ekiteko ditugun gaitasunak aberastu eta hobetuko dira.

- Garai zail honetan, ekonomia gure kezken ardatz nagusia da, eta guk Nazio Batuek ezarritako genero-berdintasunaren indizean Euskadi munduko herrialdeen artean lehenengo postuetan kokatzeko eta emakumeen eta gizonen artean soldatetan dagoen alde murrizteko gure helburu nagusia berri nahi dugu.
- Berriro ere sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko bazterkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa adierazi nahi dugu. Bazterkeria hori aurreiritzi eta ezjakintasunetik ondorioztatzen da funtsean, eta berdintasun-printzipioa urratzen du. Aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-identitatearen kudeaketaren zeharkakotasuna ezinbesteko elementua da berdintasuna eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko bazterkeriarik eza bermatzeko eta politika publiko integralak eta haien artean koherenteak direnak garatzeko lanean aurrera egiteko.
- Uste dugu beharrezkoa dela aniztasun afektibo-sexuala errespetatzeko eta onartzeko jarrerak gehitzen jarraitzea hezkuntza, osasun eta erakunde arloetan, garrantzitsuak direlako, zuzeneko harremana daukatelako euskal gizarte tolerantetagoa sortzeko helburuarekin eta lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen bizi-baldintzak hobetzen dituztelako.

- EAJ-PNVk berdintasuna sustatzea proposatzen du, hurrengo **KONPROMISO ETA EKIMENEN** bidez:

## 1. KONPROMISOA.

### **GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEA GARAPEN SOZIAL OREKATUKO EREDUAREN OINARRIZKO ELEMENTU GISA.**

#### **1. EKIMENA: Gizonen eta emakumeen arteko behin betiko berdintasuna bultzatzen duen estrategia garatzea.**

- Itun sozial handia sustatuko da ordainsarien berdintasunean aurrera egiteko. Izan ere, horren bidez, soldaten diskriminazioaren aurka borrokatuko da, emakumeak erantzukizuneko lanpostuetan egotea bultzatuko da, eta ekonomia- eta finantza-krisiak emakumeak neurri handiagoan kaltetzen ez dituela zainduko da.
- Euskal herri-administrazioetako sailtako eta horien mendeko gainerako erakundeetako zuzendaritza-karguetan emakumeak eta gizonak modu orekatuan ordezkaturik egotea sustatuko da.
- Emakumeen eta gizonen parte-hartze paritarioa sustatuko da erabaki esparruetan, publiko zein pribatuetan.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du zaintza eta babespe partekatuek dakartzaten berdintasun-balioak eta gurasoen erantzukidetasuna helarazteko udal organo guztiei eta, bereziki, Familia, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuen arloei.

#### **2. EKIMENA: Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea bultzatzea.**

- Erantzukidetasuna sustatuko da bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko modu bakar gisa, bereziki gizonak eta enpresak inplikaturik, horiek ere erantzukideak izan behar direlako.
- Aitatasun-baimena 4 astera eta amatasun-baimena 19 astera luzatzea pixkanaka-pixkanaka bultzatuko da, Erkidegoak horretarako baimena duen eremuetan.
- Ordutegien malgutasuna eta arrazionalizazioa sustatuko dira bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea errazteko, bai enpresa publikoen eremuan bai enpresa pribatuen eremuan.
- Langile autonomoei eszedentziak eta/edo lanaldi-murrizketak hartzea ahalbidetuko zaie, uztartzeko neurri gisa.
- Seme-alaben oporraldietan gurasoek borondatezko eszedentziak hartzeko kasuak gehituko dira.
- Haur-eskolen eta laguntza behar duten beste pertsona batzuentzako laguntza-zerbitzuen sarea finkatu eta dimentsionatu behar da, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea errazteko.

#### **3. EKIMENA: Hezkuntza-sistematik berdintasuna bultzatzea**

- Sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertzera bideratutako materialak eta programak indartuko dira hezkuntza-etapa guztietan.
- Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubideen berdintasuna aintzatesteko materialak eta programak berrituko dira.



- Erkidegoko ikastetxe guztietan, sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko programa abiaraziko da.

---

#### 4. EKIMENA: **Zientzia eta ikerketa eremuan aukera-berdintasuna sustatzea.**

---

- Genero-zeharkakotasuna gehituko da Berrikuntzarako Euskal Sistemaren eremuan gartzan diren politiken printzipio gidari gisa, emakumeak zientzia eta ikerketa eremuetan egoteko ekintza positiboak bultzatuta.

## 2. KONPROMISOA. GENERO-INDARKERIA DESAGERRARAZTEA.

---

#### 5. EKIMENA: **Genero-indarkeria desagerraraztera bideratutako sentsibilizazio- eta laguntza-jarduera berriak sustatzea.**

---

- Sentsibilizazio-kanpainak indartuko dira, gazteengan arreta berezia jarrita.
- Genero-indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntza guztiak organo bakar batean koordinatuko dira.
- Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabentzako laguntzak sustatuko dira, horiek ere zuzeneko biktimatza hartuta.
- Gizarte- eta osasun-zerbitzuen protokoloak egokituko dira, horietara jotzen duten emakumeei galdetzeko tratu txarren gertaerarik izan duten, horiek goiz antzemateko modu gisa.

---

#### 6. EKIMENA: **Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei buruzko Legea sustatu eta onestea**

---

- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei buruzko Legea onetsiko da. Lege horrek neurri zehatzak ezarriko ditu, maila ekonomikoan eta moralean ordaina hartzeko eta gizartearen aintzatespena bultzatzeko.

---

#### 7. EKIMENA: **Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta egiteko arloan efizientzia eta eraginkortasuna sustatzea erakundeen arteko koordinazioaren bidez.**

---

- Osakidetzan eta beste erakunde publiko batzuetan ISO 9001 araua eskuratu eta aplikatuko zaie emakumeen aurkako tratu txarren kasuetarako antzemate- eta arreta-prozesuei, egoera horietan arretaren kalitatea bermatzeko asmoz.
- Ertzaintzaren bidez eta epaitegien laguntzaz, tratu txarrak ematen dituztenak elektronikoki kontrolatzeko sistemak aplikatuko dira.
- Emakumeen aurkako tratu txarren kasuei buruzko espedienteen erregistro integrala sortuko da, prozesuan esku hartzen duten erakunde publiko guztiek duten informazio osoa barne hartzen duena, zerbitzuen koordinazio handiagoa eta arreta integralagoa eskaintzeko eta programa eta politika publiko eraginkoragoak diseinatzen laguntzen duten datu homogeenok lortzeko asmoz.

### 3. KONPROMISOA. BERDINTASUNA BULTZATZEA SENTSIBILIZAZIOAREN BIDEZ ETA JAKINTZA SORTUZ.

#### 8. EKIMENA: Enpresei zuzendutako sentsibilizazio-programa.

- Enpresei zuzendutako berriarazko programa abiaraziko da, haien jardueraren eremu guztietan genero-ikuspegia gehi dezaten eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko erantzukide bihur daitezten. Izan ere, gizarterako ez ezik, haien enpresa-garapenerako eta lehiakortasunerako ere onuragarria izango da.

#### 9. EKIMENA: Gizonen eta emakumeen berdintasunerako ikerketa-programa sustatzea.

- Gizonen eta emakumeen berdintasunerako ikerketa-programa sustatuko da, arloko jakintza aditua barne hartuko duena eta emakumeen jakintzak berreskuratzeko zein horiei balioa emateko (ikuspunktu ekonomikotik zein sozialetik) eta diziplina eta jakintza-arlo ezberdinetan (bereziki gizon gehien dituzten sektoreetan) emakumeak sartzeko eta genero-ikuspegia gehitzeko balioko duena.

#### 10. EKIMENA: Jakintzaren garapena sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren, aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-berdintasunaren arloetan.

- Jakintza sustatuko da genero-ikuspegitik, eta Euskadiko emakumeen eta aniztasun afektibo-sexualaren egoerari buruzko azterlan berriak gauzatuko dira.

### 4. KONPROMISOA. BERDINTASUN-POLITIKEN ZEHARKAKOTASUNA ETA KOORDINAZIOA BULTZATZEKO TRESNAK INDARTZEA.

#### 11. EKIMENA: Genero-berdintasuneko politikak koordinatzea.

- Berdintasuneko politiken koordinazioa indartuko da, zeharkako izaera emanez.
- Emakunderen lana sustatu eta balioa emango zaio.
- Dauden erakundeak erabiliko dira, berdintasun arloan sentsibilizazio-lanekin jarraitzeko.

#### 12. EKIMENA: Berdintasunaren eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko bazterkeriarik ezaren aldeko 2011-2013rako lan-plana nola gauzatzen den ebaluatzea, jorak zuzentzeko eta berrietasunak gehitzeko.

- Genero-identitateagatiko bazterkeriarik ezari eta transexualen eskubideak aintzatesteari buruzko Legea garatuko da ahalik eta neurri handienez.
- Jarraipenari eta gizarte-sentsibilizazioari buruzko adierazleak ebaluatuko dira, eta, bereziki, oso lehentasunezko zatik jo diren ekintzen betetze-maila.
- LGTB elkarte eta kolektiboaren laguntzaz, egungo plana garatzea eta 2013-2017rako plana prestatzea sustatuko da.
- Berdinduren (Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Arretarako Euskal Zerbitzua) arreta-mailak indartuko dira.

---

**13. EKIMENA: Aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-identitatearen kudeaketa hedatzea Eusko Jaurlaritzaren politika guztietara.**

---

- Enplegatu publikoak eta, bereziki, hezkuntza, osasun eta polizia arloetakoak, heziko dira aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-identitatearen kudeaketan.

---

**14. EKIMENA: Aniztasun afektibo-sexualari eta genero-identitateari buruzko Aholku Kontseilua sortzea.**

---

- Aholku Kontseilua sortuko da, lan-plana gauzatzeko nolabaiteko ardura duten Eusko Jaurlaritzako sail guztietako ordezkariak eta foru erakunde, udal, Ararteko eta Eusko Legebiltzarreko ordezkariak esku hartuko dutela horretan, LGBT elkarte eta kolektiboekin batera, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta politikak bateratzeko asmoz.

## 5. KONPROMISOA. ERAKUNDEAK INDARTZEA.

---

**15. EKIMENA: LGBT elkarte eta kolektiboak indartzea**

---

- Diruz lagun daitezkeen tresnak berrikusiko dira, LGBT elkarte eta kolektiboen antolaketa, plangintza eta ebaluazio, eta eragin politikoko gaitasunak indartzeko asmoz.
- Eragileen espezializazioa eta proposamenen osagarritasuna bultzatuko dira.



## EUSKADI SOLIDARIOA

ADINEKO PERTSONEKIN

PERTSONA  
BEHARTSUENEKIN

ETXEBIZITZARIK EZ DUTEN  
PERTSONEKIN

ETORKINEKIN

BERDINTASUN POLITIKEKIN

FAMILIEKIN

### PRINTZIPIOAK:

- Familiak, modalitate guztietan, gizartearen enborreko erakundeak dira, eta oso garrantzitsuak diren balioak transmititzen dituzte, besteak beste afektua, sozializazioa, norberaren errespetua zein elkarren arteko begirunea, hezkuntza, osasunaren babesa, zaintza, norberaren autonomiaren indartzea eta elkartasuna.
- Familiek aldaketa nabarmena izan dute kontzeptuari dagokionez, eredu "tradizionaletik" anizkoitzagoa eta pluralagoa den gaur egungo eredura. Familia horiek guztiek laguntza eta begirunea merezi dituzte, eta haietariko batzuen ahultasun berezia ere aintzat hartu behar da.
- Familiek, horrenbestez, oinarriko zeregin batzuk betetzen dituzte, ordeztu ezin diren eta ordeztu behar ez diren zereginak. Aitzitik, erakunde publikoek eta, oro har, gizarteak, babesa eta laguntza eman behar dituzte zereginok behar bezala betetzeko eta familiak behar bezala ahalduntzeko.
- Ikuspegi horretatik, EAJ-PNVren iritziz herri administrazioak familiei babesa eta laguntza emateko sisteman aitzindari izan behar dira, eta sistema hori finkatu behar dute, familia-politika indartzuz.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartu du familien laguntzarako politika orokorra garatzeko. Familia-politika Gobernuaren arlo guztietan zeharkako jarduera-estrategia gisa hartzen lagunduko du politika horrek, eta horrela familia guztien tratamenduan oreka eta berdintasuna bermatu ahal izango dira.



- **Printzipio horiek abian jartzeko, EAJ-PNVk KONPROMISO ETA EKIMEN hauek aurrera aterako dituela hitzematen du**

## 1. KONPROMISOA. FAMILIA-POLITIKA ZEHARKAKO POLITIKA GISA GARATZEA.

### 1. EKIMENA: **Familia Zuzendaritza indartzea.**

- Zuzendaritza horri eskumen berriak eta erakunde-egitura berria emateko, horrela Gobernuko gainerako arloekiko zeharkako politika sustatu ahal izango delakoan.

### 2. EKIMENA: **Familiei laguntzeko plan integral berria egitea, Familien Euskal Behatokiak ikusten dituen beharizan eta egoera berriei egokitua.**

- Familiei laguntzeko planak, sortzen diren beharizan eta egoera berriei egokitzen zaizkien tresnak izan behar dira. Gabeziak detektatzea eta Administrazioaren jardueratik abiatuta gabezia horiek betetzea funtsezkoa da familien bilakaera hobezina sustatzeko. Halaber, jaiotza-tasaren beherakada ikuspuntu orokor batetik aztertu behar da, familiek nahi duten seme-alaba kopurua edukitzeko erraztasunak izan ditzaten, jaiotzarako laguntza ekonomikoarekin ez ezik, bizi osoko hazkuntzarako, hezkuntzarako eta mantenturako erakundeen laguntza, lankidetzeta eta babesarekin ere bai.

### 3. EKIMENA: **Erakundeek familiei laguntzeko dauden neurri eta ekimenen diagnostikoa egitea, eta hobetzeko, informatzeko eta koordinatzeko proposamenak egitea.**

- Gaur egun familiei laguntzeko dauden neurriak gainerako euskal erakundeekin eta gizarte-eragile batzuekin zein besteekin batera aztertu behar dira; horrela, egon litezkeen gabeziak detektatu eta familiak ahalduntzeko neurri eta ekimen berriak sortu ahal izango dira.

### 4. EKIMENA: **Familiei laguntzeko ezarri beharreko neurri eta ekimenak behar bezala osatu eta koordinatzea, zerkusia daukaten elkarte eta erakundeekin lankide jardunik.**

- EAJ-PNVk gainerako erakundeekiko koordinaziorako tresna eta bide berriak bultzatu eta areagotuko ditu familien babes eta laguntzarako ekimenak behar bezala sustatze alderara.

## 2. KONPROMISOA. FAMILIARI LAGUNTZEKO POLITIKARAKO PIZGARRAK EMATEA, FAMILIA GIZARTE KOHESIORAKO ELEMENTUA DEN ALDETIK.

### 5. EKIMENA: **Familiari laguntzeko neurri egokiak garatzea, seme-alabak daukaten familientzat berdintasunezko tratamendua bermatzeko.**

- Legegintzaldiaren barruan jaiotza, adopzio edo familia-harreragatik dauden laguntzak eguneratzeko konpromisoa hartuko dugu.
- Laguntza ekonomikoak emateko gaur egun dauden epeak laburtuko ditugu.

---

**6. EKIMENA: Familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko politikak sakonago aztertuko ditugu.**

---

- Familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko dauden laguntzak sendotu eta eguneratuko ditugu.
- Semeak, alabak eta mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murizketak eskatzen dituzten gizonentzako laguntzetan diskriminazio positiborako pizgarriak eman-go ditugu, erantzukidetasunerako pizgarria emateko.
- Banantze eta dibortzio kasuetan, guraso biek uztarketarako laguntzak lortu ahal izateko egokiena den formula aztertu eta hartuko dugu.
- Laneko ordutegiak eskolaumeei egokitzea sustatuko dugu, gizarte eragileekin lankide jardunik.
- Eskolako oporretan aisialdi zerbitzu osoa eskaintzeko planteamendu orokorra egingo dugu, gainerako erakundeekin lankide jardunik.

---

**7. EKIMENA: Familia Ugarietzako berariazko laguntza**

---

- Familia-errenta estandarizatuaren aplikazioa hedatuko dugu, euskal erakundeetan famili errentaren baldintzapean eskatzen diren diru-laguntza eta laguntza guztietan familia eskatzailearen seme-alaba kopurua kontuan har dadin.
- Euskal erakunde batzuen eta besteen artean familia ugarietzako berariazko laguntzarako politikak koordinatuko ditugu, bizi diren lurraldearengatik desberdintasunik egon ez dadin.

---

**8. EKIMENA: Haurreskoletako izenematearen hobekuntzak.**

---

- Haurreskoletan izena ematea arautzen duen dekretua egokituko dugu, gurasoek seme-alaben izenematea jaio ondorengo edozein unetan egin ahal izan dezaten.

---

**9. EKIMENA: Zaintza partekatua familia hausten den kasurako.**

---

- EAJ-PNVk, arlo horri buruz Diputatuen Kongresuan hartu zuen jarrerarekin bat etorriz, zaintza partekatuaren figura modu murriztailean arautzen duen gaur egungo araudia aldatzearen alde egiten du, familia hausten den kasuetan alternatiba hori modu arruntean sustatzeko. Gure iritziz zaintza partekatuak seme eta alaben eskubideei on egiten die, aiten eta amen eskubide eta betebeharren berdintasuna sustatzen du eta familia hausten den kasuetan adiskidetzea bideratzen du.

---

**10. EKIMENA: Familia bitartekaritza indartzea.**

---

- Famili gatazkak modu baketsuan konpontzen laguntzeko, bide judizialera heldu behar izan gabe, zeharo garrantzitsutzat jotzen dugu gaur egungo orientazio eta bitartekaritza zerbitzuak hedatzea.
- Familia Elkargunek gaur egun ematen duten zerbitzuaren diagnostikoa egingo dugu, gatazka arazoak dauzkaten familietan egoera zailak ahalik eta gehien saiheste aldera.



EUSKADI BERPIZTU

## OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOAN AITZINDARIA DEN EUSKADI

---

22. PRESTIGIO ETA KALITATEZKO OSASUN SISTEMA BERRESKURATZEA  
23. BIKAINASUNA, HEZKUNTZA SISTEMAREN MOTORRA









## OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOAN AITZINDARIA DEN EUSKADI

PRESTIGIO ETA  
KALITATEZKO OSASUN  
SISTEMA BERRESKURATzea

BIKAINASUNA, HEZKUNTZA  
SISTEMAREN MOTORRA

### PRINTZIOAK:

- EAJ-PNVn beti sinetsi izan dugu osasun politikak eta geure osasun sistema garatzea lehentasun politikoaren artean zegoela; izan ere, bizi kalitatearen eta gure gizartearen ongizatearen oinarritzko zutabeetako bat da. Eusko Jaurlaritzan izan ginenean, osasun eredu erabat publikoa garatzea lortu genuen, estatuan eta Europan erreferente bihurtu eta beste zerbitzu publikoen artean balorazio onena jasotzea lortu zuena.
- Azken hiru urteetan, euskal osasun publikoari dagokionez herritarrek egindako balorazioak nabarmen egin du behera, baita osasun arloko profesionalak beraiek agertutako gogobetetze mailak ere. Bide-nabar, sistemari eusteko beharrezko inbertsio publikoak murriztu egin dira. Horrek guztiak eragina izan du euskal osasun zerbitzuaren kalitatean. Osasun sistema onena izatetik, gainerakoaren artean beste bat izatera igaro gara. EAJ-PNVren ustez, galdutako denbora berreskuratzea beharrezkoa da, eta euskal osasungintza prestigio eta kalitatezko kokalekuan jarri behar da beriz ere, beti izan duen eta inoiz galdu behar ez zukeen tokia baita.
- Jakin badakigu nolako erronka eta zailtasunei egin beharko diegun aurre. Badakigu gaur egun bizi dugun krisi ekonomiko eta finantzarioagatik, zerga bilketaren beherakadagatik eta, horrenbestez, baliabideen eskuragarritasunak ere behera egiteagatik osasun sistemari eutsiko diogula bermatzeko esfortzu handiagoa egin beharko dugula.
- Osasunari dagokionez itxaropen eta informazio gehiago duen gizarteari erantzuna ematea da gure konpromisoa; bidenabar, baliabide publikoak kudeatzean eraginkortasun eta efizientzia zorrotzagoz jokatuko dugu. Euskal osasun sistema osoari eustea bermatzeko, kudeatzeko metodoak berritu behar ditugu; izan ere, hala eskatzen digute osasun arloko profesional gabeziak, osasun arloko teknologiak garatzean gastuak gora egiteak, eta gizartean eta demografian ematen diren aldaketek (jaiotza tasak behera egitea, pertsona nagusien eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen proportzioak gora egitea, eta familia egitura aldatzea).
- EAJ-PNVk osasun arloko politikaren norabidea aldatzeko konpromisoa hartu du, baita Euskadiko Osasun Sistema bera eraldatzeko ere, pertsonak jarriz sistemaren ardatz nagusia gisa. Unibertsaltasuna, el-

kartasuna, berdintasuna, efizientzia, kalitatea eta herritarren parte hartzearen printzipioetan oinarrituko den sistemaren alde egingo dugu. Efizientzian maila gorena lortu nahi dugu, pertsonen osasun premiei erantzutea ahalbidetzeko; horretarako, sisteman lanean diharduten pertsonen garapen profesionala bultzatuko dugu, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatuz eta sistema emaitzak lortzerantz bideratuz; halaber, euskal gizartearen aurrean garatutako jardueren erantzukizun osoarekin lan egingo duten profesionalak eta erakundeak garatuko ditugu.

- Etapa berri baten aurrean gaude. Garai berriek erantzun berriak eskatzen dituzte. Euskadiko Osasun Sistemari eustearen eta indartzearen aldeko apustua egin dugu; horretarako, sistema berri eta eraldatu egingo dugu, modernizatzeko, bideragarria eta iraunkorra izateko beharrezko erreformak eta berrikuntzak eginez, betiere parametro egokien barruan kalitateari eta efizientziari dagokienez.
- EAJ-PNVk jakintza eta ezagutza onena eskaintzen dizkio euskal gizarteari, erantzukizun politikokoak izan ditugunean erakutsi duguna; horrez gain, Euskadiko Osasun Sistemaren bigarren eraldaketa garatze aldera finko lan egiteko konpromisoa hartu dugu gure gain, kalitate eta bikaintasunean berriz erreferentea izan dadin. Horretarako, gizarte- eta osasun-arloek eta gizarte zerbitzuek lankidetzeta estua izatearen aldeko eta gizarte agente guztien kolaborazioaren aldeko apustua egin dugu, publikoak zein pribatuak izan.
- Argi esateko, euskal gizartearekin genuen konpromisoa berri egin dugu bidean aurkituko ditugun erronkei aurre egiteko, eta kalitatezkoa osasun sistema iraunkorrari eusteko.



- Printzipio eta erronka berri horiei erantzuteko, KONPROMISO eta EKIMEN hauek garatzeko konpromisoa hartu du EAJ-PNVk.

## 1. KONPROMISOA. PERTSONAK OSASUN SISTEMAREN ARDATZ NAGUSI.

### 1. EKIMENA: Zerbitzua herritar guztien esku egotea eta estaldura unibertsala bermatzea

- Euskal herritar guztiek osasun estaldura izatea bultzatuko dugu, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legean ezarritakoaren babespean.
- Arreta pertsonalizatuagoa eta gertuagokoa izatearen aldeko filosofia berreskuratu eta bide horretan aurrera egingo dugu.
- Pertsona erabiltzaile bakoitzak osasun sistema baliatu ahal izatea eta gertuko izatea erraztuko duten informazio sistemak sustatuko ditugu.
- Desgaitasun fisikoa eta zentzumen desgaitasuna duten pertsonak osasun sistemaren zentro, instalazio, baliabide eta zerbitzu guztietara, publiko zein pribatu, iristea bermatzeko jarduketa plana garatuko dugu.
- Osasun sisteman erabakitzeko esparruetan herritarren parte hartzea zuzenagoa izan dadin bide berriak txertatuko ditugu.

### 2. EKIMENA: Osasuna zaintzean herritarren erantzukidetasuna bultzatzea

- "Paziente aktibo" programa abiaraziko dugu, pertsonak gero eta gehiago inplika daitezzen pairatzen duten gaixotasuna ezagutzen, prebenitzen eta kudeatzen.
- Herritarrek bizimodu osasungarriagoak izatea bultzatuko dugu, baita osasun zerbitzuak ongi erabiltzea ere.

### 3. EKIMENA: Osasun arretan berdintasuna bermatzea

- Osasun arretaren esparruan desberdintasunak murrizteko jarduketa programak garatzeko konpromisoa hartu dugu. Horren haritik, arreta berezia jarriko dugu eremu sakabana-tuetan edo beste autonomia erkidegoekin mugakide diren tokietan (esaterako Arabako Errioxan) bizi diren pertsonak pairatzen dituzten osasun arretako arazoetan.
- Osasuna eta Emakumeak Programa indartuko dugu, eta osasun arloko jardueretan genero ikuspegia txertatuko dugu emakumeen generoaren berezko gaixotasunetatik eratorritako premiei erantzun zehatza emateko.
- Osasun maila baxuagoa duten pertsona taldeentzako jarduketak garatuko ditugu, bereziki pertsona nagusientzat, desgaitasuna duten pertsonentzat, etorkinen komunitatearentzat, gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzat, espetxeetan preso daudenentzat, etab.

### 4. EKIMENA: Pazienteei ematen zaien osasun arreta hobetzea, ezaugarrien eta tipologiaren arabera

- EAJ-PNVk konpromisoa hartu du pazienteen eta erabiltzaileen premia aldakorreki modu osatuan eta eraginkorrean erantzuteko; hala, medikuntza pertsonalizatua bultzatuko du, eta Euskadiko Osasun Planeko xedeak hartara egokituko ditu.
- Arretari eustea bermatzeko, osasun eta gizarte zerbitzuen arteko beharrezko jarduketak bultzatuko dira, pazienteari eskainiko zaion arreta hobetzeko.

- Zaintza aringarrien arloko arreta hobetuko dugu, eta gaur egun dauden zerbitzuak berantolatuko ditugu, hobetzeko eta lurraldeen arteko oreka lortzeko. Halaber, inplikaturako pertsona guztiek jaso ahalko duten zerbitzuen gida osatua prestatuko dugu: osasun arloko profesionalak, psikologoak, gizarte langileak, boluntarioak edota gizarte zerbitzuetako langileak; arreta berezia jarriko dugu pertsona gaixoengan eta haien senideengan.
- Emakumeen aurkako indarkeria gaietan osasun arloko langileak prestatzen aurrera egingen jarraituko dugu, bereziki lehen mailako arretan, larrialdi zerbitzuetan, osasun mentaleko zerbitzuetan eta ginekologia, obstetrizia eta traumatologia espezialitateetan.
- Gaixotasun "ezohikoak", prebalentzia baxuko eritasunak dituzten pertsonen eta haien familiei eskaintako arretarako estrategia integrala planteatzen dugu. Horretarako, pertsona kaltetuen katalogoa osatuko dugu; gaixotasun arraroak dituztenei ematen zaizkien osasun produktuen eta sendagaien egoera aztertuko dugu, baita osasun publikoak estaltzen ez dituen produktuen premiak ere. Horrez gain, elkartegintza eta pertsona kaltetuekin eta haien familiekin etengabe harremanetan egotea bultzatuko dugu.

#### 5. EKIMENA: Informazio eta arreta pertsonalizatua, osatua eta kalitatezkoa eskaintzea

- Herritarrei emango zaien informazioa hobetu egingo dugu, osasun sistemak dituen baliabideen berri luze eta zabal izan dezaten, eta beharizanen arabera aukera onena hauta dezaten.
- Sistemarako sarbide aukerak dibertsifikatuko ditugu, eta Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak txertatuko ditugu herritarrek Osasun Sistemarekin kudeaketa lanak egin behar dituztenean harremana azkarragoa izan dadin.
- Izapideak sinpletuko ditugu, eta pazientea modu pertsonalizatuan tratatzea indartuko dugu.
- Osasun arreta ez presentziala bultzatuko dugu; horretarako, telefono zerbitzu pertsonalizatuak eta bestelako multimedia tresnak baliatuko ditugu, herritarrei osasunari buruzko aholkuak helaraziz eta, ahal den neurrian, osasun zentrora alferreko joan-etorriak egitea saihestuz. Horretarako, teknologiak pertsona erabiltzaile bakoitzaren profilerara egokituko ditugu, horrelako tresnak ezartzean zerbitzu eraginkorrak sortzeko, eta pertsona bakoitzaren eskaerari erantzun egokia emate aldera.
- Osasun sistemarekin izandako hartu-emanen historialera eta historia klinikora sarbide pertsonalizatua izatea bultzatuko dugu, segurtasun eta konfidentziaz osatuta.
- Gure profesionalak euskalduntzeko prozesua indartuko dugu, euskal gizarteak arreta bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea duelako eta eskubide hori bermatzeko.

## 2. KONPROMISOA. OSASUNA BULTZATZEKO KULTURA SUSTATZEA.

#### 6. EKIMENA: Osasun publikoari bultzada berri bat ematea, eta zaintza sistema integrala abiaraztea

- Zaintza Sistema Integrala abiaraziko dugu, erantzuna hobetzeko baldin eta Osasun Publikoan gaixotasunak agertu edo hedatzen badira, edota alertak pizten badira.
- Osasunaren ikuspegia politika guztietan aplikatuko dugu, osasunak gizartearen esparruan zeharkako izaera duela ulertzen baitugu.

- Osasuna sustatzeko kultura bultzatuko dugu; horretarako, bereziki landuko ditugu gaixotasunak prebenitzeko eta saihesteko faktoreak, besteak beste, ingurumena, lan baldintzak, elikagaien segurtasuna eta bizi ohitura osasungarriak hedatzea.
- Sektore politketan Osasuneko Eraginaren Ebaluazioa garatuko dugu.
- Osasun Publikoaren antolaketa garai berrietara egokituko dugu, Europako Markoa erreferentzia gisa hartuta eta arazoei erantzun azkarrak eta eraginkorrak emateko beharrezko baliabideak emanez.

---

### 7. EKIMENA: Osasuna sustatzea eta gaixotasuna prebenitzea indartzea

---

- Osasuna sustatzeko eta babesteko jarduerak indartuko ditugu.
- Bizimodu Osasungarriko Estrategia euskal gizarte osoan hedatuko dugu, bereziki herritar nagusien kasuan.
- Euskal gizartean gazte-gaztetatik hedatuko ditugu bizi ohitura osasungarriak; horretarako, alderdi hauek landuko ditugu:
  - Osasunerako hezkuntza programak garatuko ditugu.
  - Ariketa fisikoak erregularitasunez egitea, eta bizimodu sedentarioa saihestea.
  - Elikadura osasungarria bultzatzeko programak.
  - Alkoholaren, tabakoaren eta bestelako substantzia kaltegarri batzuen kontsumoa gutxitzea.
  - Gizentasuna kontrolatzeko neurriak hartzea.
  - Autonomia erkidegoko herritarrei nutrizioari buruzko inkesta egitea.
  - Elikagaien etiketatze prozesua kontrolatzea eta jarraipena egitea.
  - Osasun zentroak sustatzea ariketa fisikoa egitea bultzatzea, kontratu-programa bezalako tresnekin edo pizgarri zehatzak sortuz.
  - Erakundeen arteko elkarlana indartzea probintzia eta udalerrri mailekin eta osasun arlokoak ez diren bestelako inguruneekin, bizi ohitura osasungarriak bultzatzeko.
  - Osasun publikoan eragina duten gaixotasunak prebenitzeko eta garaiz detektatzeko programak garatzen segituko dugu.

---

### 8. EKIMENA: Erakundeen arteko elkarlana indartzea osasuna fase guztietan hobetzeko

---

- Osasun Publikoan esku hartzen duten profesional guztiek sarean lan egitea garatuko dugu, eta egindako lana aintzatetsiko dugu: albaitariak, farmazialariak, biologoak, kimikariak, ingurumen teknikariak, ingeniariak...
- Erakundeen artean koordinatzeko eta kolaboratzeko formulak ezarriko ditugu eragile eta maila guztien artean (Eusko Jaurlaritzako osasun publikoko zerbitzuak, eta foru eta toki administrazioetakoak), jarduketak integratu ahal izateko eta sektore desberdinen artean sinergiak sortzeko (hezkuntza arloa, herritarrek osatutako elkarteak, enpresak,...).
- Pertsona gaixoen eta haien familien bizi kalitatea hobetzeko jardueretarako elkarleen proiektuak bultzatuko ditugu.
- Elikadura segurtasuneko programak garatzea bultzatuko dugu.

---

### 9. EKIMENA: Arreta berezia droga mendekotasunaren aurkako borrokan

---

- Familia esparruan droga mendekotasunen aurkako prebentzio ekintzak bultzatuko ditugu.

- Hezkuntza arloan prebentzio ekintzak planteatuko ditugu; hala, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasketak egiten dituen pertsona orok eskola mailako prebentzio programa jasotzeko neurriak hartuko ditugu.
- Droga mendekotasunari dagokionez une honetan indarrean dagoen legedia berrikusiko dugu.
- Droga kontsumoak eragindako kalteak arintzeko esku-hartzeak garatuko ditugu.
- Erakundeen sektore eta arlo desberdinen arteko politika koordinatuak ezarriko ditugu.
- Esparru publikoak droga mendekotasunaren arloan esku hartzen duten elkarteekin kolaboratzea bultzatuko dugu.
- Kaltetutako pertsona eta familien elkarteak babestuko ditugu.
- Diagnostiko duala duten pertsonen sare bakarrean integratutako arreta integrala eskainiko diegu.
- Droga mendekotasuneko arazoak dituzten pertsonak baztertzea eta estigmatizatzea saihesteko ekintzak bultzatuko ditugu.
- Bizi estilo osasungarriak eta balio positiboak bultzatzeko lan egingo dugu, bizi estilo arriskutsuak eta balio negatibodunak baztertuz.
- Droga mendekotasuna duten pertsonak gizarteratzeko neurriak martxan jarriko ditugu.
- Drogei lotutako heriotzak eta lesio larriak ekiditeko neurriak hartuko ditugu.

---

#### 10. EKIMENA: HIESa prebenitzea

---

- Arlo honi dagokionez, honako xede hauei begirako esku-hartzeak garatuko ditugu:
- Sexu transmisio bidezko infekzioak prebenitzea, bereziki erreparatuz biztanle multzo ahulenei.
- Droga kontsumitzaileen artean GIBa kutsatzea prebenitzeko programak abiaraztea, baita droga kontsumoaren eraginaren ondorioz preserbatiboa ez erabiltzeagatik ere.
- Diagnostikoa garaiz egitea errazteko neurriak hartzea.
- Gaixotasunaren eragina pairatuko duten pertsona guztiei antirretobiral bidezko tratamendua bermatzea.
- Pertsona infektatuak baztertzea eta estigmatizatzea saihesteko ekintzak bultzatzea.
- Inplikaturako elkarteekin modu aktiboan kolaboratzea.

### 3. KONPROMISOA.

## OSASUN SISTEMA ERALDATZEA, IRAUTEA BERMATZEKO.

---

#### 11. EKIMENA: Euskadiko Osasun Sistemak beharrezko azpiegiturak, ekipamenduak eta teknologiak izatea bermatzea

---

- Lurralde historiko bakoitzeko dotazio eta azpiegituren premia sakon aztertuko dugu, pazienteen beharizanetara egokitzeko; arreta berezia jarriko diegu egonaldi ertain eta luzeko azpiegiturei.
- Teknologia berriak eta potentzialki zaharkituta daudenak sistematikoki ebaluatuko ditugu, Osakidetzaen parke teknologikoa etengabe eguneratzeko.

---

## 12. EKIMENA: Pazienteari arreta integrala eskaintzea

---

- Ikuspuntu funtzionaletik, bitarteko guztiak lerrokatu eta integratzea proposatzen dugu, zainketa lanen jarraipena bermatzeko, pazienteen etxeetatik hasita baliabide espezializatuen arte, gizarte- eta osasun-espazioa barne.
- Pazienteari arreta integrala eskaintzeko, diziplina anitzeko taldeak sortzea bultzatuko dugu.
- Gizarte- eta osasun-espazioa garatuko dugu, baliabideak, antolaketa, bertako paziente tributarioak, eta kudeatzeko eta funtzionatzeko eredua.
- Laguntza psikiatrikoari dagokionez, ospitale eta ospitaletik kanpoko baliabideak integratzea proposatuko dugu.
- Espezializazio altuko baliabideak erreferentziazko zenbait ospitaletan biltzea proposatuko dugu, bikaintasun klinikoan jardutea ahalbidetzeko.
- Osasun baliabide guztiak erabiltzea bultzatuko dugu, publikoak, pribatuak eta gizarte izaeradunak, premia zehatzen arabera eta osasun sistemaren efikazia eta eraginkortasun globala aintzat hartuta.

---

## 13. EKIMENA: Osasunean, lehen mailako arreta bultzatzea

---

- Sistemaren barruan, lehen mailako arretak eginkizun nagusia berreskuratzea proposatuko dugu; horretarako, osasun arazo gehientsuenak ebatzeko gaitasuna emango dioten baliabide teknikoek hornituko da, diagnostikoa egiteari, terapiari eta jarraipenari dagokienez.
- Pertsonen osasunaren kudeaketa integrala lehen mailako arretatik egitea bultzatuko dugu, osasun egoeraren ikuspegi globala izanik eta zaintza lanei eustea bermatuz, osasuna bultzatu eta prebentziorako jarduerak barne, baita familia eta komunitate mailako arretaren kasuan ere.
- Lehen mailako arretatik eta erizainen bitartez, mendekotasunaren gaineko arreta bultzatuko dugu, eta gizarte- eta osasun-espazioarekin koordinatzea.
- Erabiltzaileari arreta eskaintzeko administrazio unitateak berregituratuko ditugu, leihatila bakar bihur daitezten; sarean egingo dugu lan, eta informazio eta kudeaketa pertsonalizatua bultzatuko ditugu.
- Jardunbide Kliniko Egokien gidak sortzea eta ezartzea hedatuko dugu.
- Medikuntza arloko profesionalekin elkarlanean, errezeta elektronikoa kudeatzea eta aplikatzea berraztertuko dugu, administrazioko alferreko denbora saihestuz eta pazientearen kontsultaren denbora errealean aurrera eginez.

---

## 14. EKIMENA: Etengabeko osasun arreta bermatzea

---

- Ospitaleratze tradizionala baztertuz, beste aukera batzuk ezartzea sakon aztertuko dugu (etxean ospitaleratzea, eguneko ospitaleak, egonaldi laburreko unitateak...).
- Telemedikuntza garatuko dugu zenbait espezialitatetan eta osasun arazo jakin batzuetan: dermatologia, neurologia, elektrofisiologia, diabetesa eta bihotz gutxiegitasuna.
- Ebazpen altuko prozesuak bultzatuko ditugu, barne antolaketa hobetzeko alferreko kontsultak ekidinez, eta pertsonak jasoko dituzten onurak biderkatuz.
- Arreta espezializatuan arratsaldeko ordutegi eskaintza ezartzea bultzatuko dugu.

---

## 15. EKIMENA: Osasun sistemaren kalitatea areagotzea pazienteei eskainiko zaien zerbitzua hobetzeko

---

- Kalitate parametroek gidatuko dute laguntza hornitzaileekin eta profesionalekin izango den harremana, publikoak zein pribatuak izan.

- Pazientearen segurtasunerako sistema berriak garatzea sustatuko dugu.
- Itxaronaldiak kudeatzeko lehentasunen arabera sistema ezarriko dugu, osasunerako arrisku potentziala eta larritasuna aintzat hartuta, baita esku-hartzeen eraginkortasuna eta gizarteari eta pertsonen bizi kalitatea ematen dioten balioa ere.

---

#### 16. EKIMENA: Osasun sistemaren gobernantza eredu berria

---

- Sistemaren parte hartzen duten gizarte eragile guztiak bilduko dituen benetako parte hartze eredu garatzeko konpromisoa hartu dugu.
- Aplikatu daitezkeen tratamenduei buruzko informazioari dagokionez, gardentasuna areagotzearen aldeko apustua egin dugu, baita kalitate adierazleen eta osasun emaitzen kasuetan ere.
- Parte hartzeko kontseiluak martxan jartzea bideratuko dugu; bertan bilduko dira tokiko erakundeetako ordezkariak, herritarren eta pazienteen elkarteetako ordezkariak eta izaera profesional eta soziala duten beste erakunde batzuetakoak.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboari dagokionez, osasun sistemaren barruan eta bertako erakundeetan konpromisoak garatzearen aldeko apustua egin dugu.

---

#### 17. EKIMENA: Efizientzia politikak garatzea iraunkortasuna bermatzeko

---

- Sendagaiak zentzuz erabiltzeko eta preskripzioak printzipio aktiboen bidez agintzeko estrategiak garatuko ditugu; bidenabar, botika generikoen kontsumoa areagotuko dugu, Europako mailen parera iritsi arte.
- Arrisku partekatuko kontratuak txertatzea proposatuko dugu, sendagai sartu berrien arrakasta terapeutikoari lotuta, baita gizarte- eta osasun-espazioan sendagaiak banatzeko eredu berri bat ere. Gainera, errezeta elektronikoa modu egokian ezartzea planteatuko dugu.
- Une honetan eskaintzen ditugun prestazio, teknika eta prozedurei buruzko azterketa zorrotza eta sakona planteatuko dugu, eta horiek herritarren osasun egoeran duten eragin erreala ere xehetasunez aztertuko dugu, lehentasunak ezartzeko eta erabilera desegokiak saihesteko.
- Tratamenduen kostuari buruz pazienteak informatzeko sistemak finkatuko ditugu.
- Zerbitzu komunak kudeatzeko programak garatuko ditugu, baliabideak hobeto erabiltzeko eta eskala ekonomiak aprobetxatzeko. Halaber, eresketa integratuen prozesuak bultzatuko ditugu.
- Kudeaketan hobekuntza eta berrikuntzako proiektu integratuak sustatuko ditugu, betiere profesional guztiekin elkarlanean; hala, emaitzak motibagarriak izango dira, eta sistema osoa hobetzea eta eraginkorragoa izatea eragingo dute.
- Osasunean, emaitza bidezko finantzaketan sakonduko dugu, sektore publikoko zein sektore pribatuko erakundeekin kontratuak egiterakoan.

### 4. KONPROMISOA. PROTAGONISMOA ETA INPLIKAZIOA BULTZATZEA ETA SUSTATZEA OSASUN SISTEMAKO PROFESIOALEN ARTEAN.

---

#### 18. EKIMENA: Osasun profesionalen artean parte hartzea eta lidergoa garatzea

---

- Zentroak eta zerbitzuak kudeatzean osasun arloko profesionalak parte hartzeko bide eraginkorrak ezartzea eta lidergo partekatua bultzatuko dugu, sistema barrutik lehengoratzeko elementu gako gisa.
- Erabakiak hartzerakoan eta osasun sistema eraldatzean, profesionalak ahal bezainbeste inplikatzeko bultzatuko dugu, lagungarria izan dadin sistemari eusteko eta bikaintasuna eta kalitatea izan ditzan.

---

#### 19. EKIMENA: **Ibilbide profesionala garatzea**

---

- Berriz ere helduko diogu ibilbide profesionala garatzeari; horretarako, pizgarrien sistema motibagarria eta errealista abiaraztea aztertuko dugu.
- Profesionalak etengabeko prestakuntza jarraitura eta ezagutzara iristea erraztuko dugu, trebakuntza egokia bermatzeko.
- Langileen gaur egungo egoerari buruzko azterketa egingo dugu; horri esker, legegintzaldian zehar langileak egokitzeko eta berritzeko mailakako prozesua garatuko dugu, Osakidetzako langile taldea finkatzea eta egonkortzea lortzeko.

---

#### 20. EKIMENA: **Erizaintzako profesionalen autonomia eta eginkizuna bultzatzea**

---

- Erizaintzako osasun arloko profesionalen eginkizuna bultzatzeko konpromisoa hartu dugu, bai arreta espezializatuan, bai lehen mailako arretan; horrez gain, arreta sozio sanitarioa, osasun mentala eta etxez etxeko arreta ere indartuko ditugu.

---

#### 21. EKIMENA: **Osasun arloko langileen lan baldintzak, eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea**

---

- Lana eta familia uztartzeko neurriak eskainiko ditugu, eta lan baldintzetan hobekuntzak txertatuko ditugu, lan eraginkorragoa ahalbidetzeko.
- Osasun arloko langileen osasun egoeraren jarraipena egin, eta prebentzioari lotutako alderdi guztiak garatzeko konpromisoa hartu dugu; horrekin batera, Lan Arriskuen Prebentzioa kudeatzeko sistemak garatzea sustatuko dugu.

---

#### 22. EKIMENA: **Osasun sisteman euskara normalizatzeko aurrera egitea**

---

- Gure osasun sistemako profesionalak euskalduntzeko prozesua bultzatuko dugu, euskal gizarteak euskarazko arreta jasotzeko eskubidea benetan errealia izan dadin.

## 5. KONPROMISOA. IKERKUNTZA BULTZATZEA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA.

---

#### 23. EKIMENA: **Berrikuntza garatzea pazientearen onerako**

---

- Euskadiko osasun sistemak zientzian eta teknologian berritzeko duen ahalmena indartuko dugu. Emaitzak aplikatzea sustatuko dugu, bai osasun sisteman, bai antolaketan, bai pazienteekin klinikoki jardutean.
- Agente publiko eta pribatuekin akordio eta elkarlan eraginkorrak izatea sustatuko dugu. Horren haritik, Euskadiko zientzia eta teknologia sareko gainerako agenteekin estrategia bateratua finkatzeak garrantzia berezia hartuko du; besteak beste, estrategia hori Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarearekin, zentro teknologikoekin, unibertsitateekin eta industria eta zerbitzuen arloko enpresekin ere partekatuko da, herrialdearen lehiakortasuna eta garapen sozio-ekonomikoa hobetzeko bide lagungarri gisa.



---

**24. EKIMENA: Ezagutzaren kudeaketa sustatzea**

---

- Osasun Zientziei lotutako lanbideak garatzeko konpromisoa hartu dugu, bai hezkuntza sare publikoan, bai pribatuan.
- Gradu aurreko prestakuntza eskaintza areagotuko dugu Medikuntzan eta osasun arloko beste lanbide batzuetan, kuantitatiboki zein kualitatiboki.
- Osasun arloko lanbideetan gradu ondoko prestakuntzarako autonomia bultzatuko dugu.

---

**25. EKIMENA: Osasun arloko ikerkuntzaren aldeko apustu tinkoa**

---

- Autonomia Erkidegoko osasun arloko ikerkuntza eta berrikuntzako zentro eta fundazioen sarea arrazionalizatu egingo dugu.
- Euskal ospitaleetan Osasun Ikerketako Institutuen sarea martxan jartzeko prozesua osatuko dugu.
- Ikerkuntza bultzatuko dugu bioteknologiaren esparruan eta osasun arloko zientzietan, klusterretan, eta erakunde ugari osatutako partzuergoetan, publiko-pribatuak, I+G+b alorrean.
- Zahartzaroko ikerkuntza sustatuko dugu.
- HIESaren aurkako txertoa ikertzeari eta garatzeari babesa ematen jarraituko dugu.
- Gure profesionalek nazioarteko punta-puntako bikaintasun zentroekin harremanak izatea eta diziplina eta zentro anitzeko ikerkuntza

## PRINTZPIOAK:



### OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOAN AITZINDARIA DEN EUSKADI

PRESTIGIO ETA  
KALITATEZKO OSASUN  
SISTEMA BERRESKURATZEA

BIKAINASUNA, HEZKUNTZA  
SISTEMAREN MOTORRA

- Askatasuna, erantzukizuna, elkartasuna eta gizarte justizia dira EAJ-PNVk errealitate berrietara egokitzeko darabiltzan oinarriak. EAJ-PNVrentzat, Aberriaren gizarte eraikuntza ondorengo balioetan oinarritzen da: bizikidetasunean, bake eta gizarte adiskidetzean, aukera berdintasunean, ahalegin eta erantzukizunean, herritarren ongizatearekiko konpromisoan eta lurraldeen arteko orekan. Hein handi batean, honen guztiaren funtsa sustatzeko gai garen hezkuntza da.
- Euskal hezkuntzak egindako bidea goraiatzeko modukoa da, bai alderdi kuantitatiboetara eta baita alderdi kualitatiboetara dagokienez ere. Hiru hamarkada luzeotan barrena euskal hezkuntza elebiduna, eta baita eleanitza ere, lortu da, ezagutza euskarri, giza baliabide eta baliabide material onargarriekin. Hala ere, asko dago egiteke eta hobetzeke.
- Argi dago Euskadik indar handiko berrikuntzari ekin behar diola hezkuntza gaiei dagokienez, hezkuntza sistema guztiarentzat komuna izango den hezkuntza egitasmo baten bitartez. Bildutako ezagutza eta giza baliabideak, baliabide materialak eta funtzionalak partekatutako eta XXI. mendeko erronketara egokitutako proiektuaren zerbitzura jarri behar ditu. Hezkuntza sistema benetan bikaintasunaren eta berrikuntzaren eragile bilaka dadila behar du Euskadik, hezkuntzak XXI. mendean izango dituen erronkei bermearekin aurre egiteko.
- EAJ-PNVren aburuz, hezkuntza eta prestakuntza oinarritzko tresnak dira gure herriaren etorkizunerako. Beharrezkoak dira garapen pertsonal eta profesionalerako, lehiakortasuna hobetzeko eta gizarte kohesioa eta herritarren arteko bizikidetzaren erdieste aldera.
- Hezkuntzaren arloko inbertsioa egin beharreko inbertsiorik onena da Aberri gisa izango ditugun erronkei erantzun ahal izateko: pentsatzeko, ikasteko eta herri lehiakorra sortzeko gai den euskal gizartearen eraikuntzan lan egin behar da; gizarte euskaldun eta eleanitza duen gizarte; bizikidetzaren antolatze gai den gizarte; izateko, egiteko eta sortzeko gai den gizarte; komunikatzeko gai den gizarte; bai eskolan bai eskolatik kanpo ikasteko prest dagoen gizarte.
- EAJ-PNVk nahi duen eta bultzatuko duen hezkuntza sistema herritarren zerbitzura egongo da, gero eta bidezkoagoa eta solidarioagoa den eta kohesio handiagoa duen gizarte lortze aldera. Gure gizartearen eta gure Herriaren etorkizuna bideratzen ditugun hezkuntza politiken mende dago.
- EAJ-PNVk proposatzen duen hezkuntza politikak balioetan oinarritzen den sistemaren eraikuntzan dauka funtsa. EAJ-PNVk sustatuko duen hezkuntza ereduak bizikidetzaren, bakea, adiskidetzaren, elkartasuna, aukeren berdintasuna, tolerantzia, ahalegina, erantzukidetasuna eta herritarren ongizatea bultzatzen ditu.

- Gizartea aldatzeko eragilea da hezkuntza. Hori dela eta, herritarren garapen pertsonal eta profesionala eta lehiakortasuna, hein handi batean, hezkuntza mailaren mende daude. EAJ-PNVk kalitatezko hezkuntza sistemaren alde egingo du lan, bikaintasuna helburu duena, integratuta dagoen sistema anizkoitza, eraginkorra, eleanitza eta berritzailea, Euskadiren etorkizuna irudimenez eraikiko duena.
- EAJ-PNVk helburutzat duen Euskadi lehiakorra da, baina gizatiartua. Horretarako beharrezkoa da banakako eta gizarte alorrean eta bai lanbide arloan ere heldutasuna lortu duten pertsonekin eraikitzea gizartea. Pertsonak dira giltzarri, eta ikasten eta gauzak burutzen jardun nahi duten pertsonak behar ditugu, integratutako pertsonak, euren ingurugiroarekin elkarlanean aritzen direnak alegia. Hortaz, argi dago bizitzan zehar jasotzen den hezkuntza eta ikaskuntza –bai eskolan eta bai eskolatik kanpo ere– direla tresna nagusiak gure Herriaren etorkizuna eraikitzeko.
- EAJ-PNVren jomuga da euskal unibertsitateak oro har, eta sistema publikoak zehazki, irakaskuntzan eta ikerketan kalitate maila handiak eskuratzea, gure Erkidegoaren garapen mailarekin bat datozenak. Modu horretan, aurrerapenaren eta ongizatearen eta gizarte kohesioaren zerbitzuan dauden eragile eraginkorrak izango dira.
- Euskadik, gutxienez, maila hagitz altuko ekimen publikoko unibertsitate zentro bat eduki behar du. "Maila hagitz altua" adierazpenarekin irakaskuntza eta ikerketa kalitateaz ari gara, nazioarteko sailkapenak egiterakoan erabiltzen diren irizpideekin bat etorritik. Oso maila altuko unibertsitatez har daitezke munduko lehenengo 100 unibertsitateen artean edo Europako lehenengo 30 unibertsitateen artean daudenak.
- Hezkuntzaren arloko eskaintzak, bai gradu ikasketetan eta bai master eta doktoretza ikasketetan ere, unibertsitateen gaitasun akademikoaren erabilera egokia gauzatu behar du eta euskal ingurune ekonomiko eta sozialaren beharizan zehatzak ase beharko ditu.
- Euskal unibertsitateek eremu akademikoan euskararen erabilera sustatuko duten lehenengo mailako kultura eragileak izan behar dute. Honek bermatuko du euskara komunikazio eta kultura adierazpenarako garraiatzailea izatea, baita eskakizun handieneko erregistroetan ere.
- Unibertsitateko ikerkuntzaren ezaugarri bereizgarria kalitateak izan behar du, nazioarteko testuinguruan ezartzen den bezala. Garapen handiena bizi izan duten arloetan nazioarteko aitzindariak jarraitzea izan behar du Euskadik, kalitatezko ikerketa oinarria lantzearekin batera. Zeharo funtsezkoa da Euskadi ikertzaile onenentzako lantoki desiragarria izatea.
- Unibertsitateko erakunde-arkitekturak, –hezkuntzaren arloko administrazioaren mendeko alderdiei dagokienez behintzat–, aurreko puntuetan agertu diren printzipioen zerbitzura egon behar du.
- Unibertsitate sistema publikoak finantzaketa nahiko izan behar du eta finkatutako helburuei egokitu behar zaie. Horrez gain, Administrazioak egindako ekarpenak arrakasta sustatu eta bizkortuko duen faktorea izan behar du.
- EAEk gaitasun arauemaile osoa izan behar du unibertsitate esparruan.
- EAJ-PNVk hurrengo urteetarako hezkuntza sistema egonkorra eta kalitatezkoa diseinatu nahi du. Sistema honen orientazio, planifikazio eta egituraketak desberdinen arteko gutxieneko akordioak lortzea ahalbidetuko duen ahalik eta gizarte adostasun eta adostasun politikorik zabalena oinarri izango du.
- EAJ-PNVk sistema senda eta zorrotza defendatzen du, egoeraren arabera aldaketa politikoetatik salbu, malgua eta solidarioa, ikasle guztientzat aukera berdintasuna bermatuko duena. Marko egonkor eta iraunkorra proposatzen dugu, etengabeko erreformak alde batera utziko dituen markoa alegia. Hori lortze aldera, behar-beharrezkoa da egungo errealitatearen diagnostiko ona egitea. Diagnostiko hori sektoreko eragileek egiaztatuko dute, gainerako alderdiekin, gizarte eragileekin eta erakundeekin adostasunak lortzeko helburuarekin.

- Helburuak bete ahal izateko, ondoko konpromiso eta ekimen hauek proposatzen ditugu:

## 1. KONPROMISOA.

### IKASLEAK OINARRI IZANGO DITUEN BIKAINASUNAREN HEZKUNTZA SISTEMA SUSTATZEA.

#### 1. EKIMENA: Ikasleen garapen osoa bermatzea.

- Ikasleei euren dimentsio pertsonala eta gizarte eta komunitate dimentsioak garatzeko aukera ematea.
- Trebetasunetan oinarritzen den ikaskuntza sustatzea. Bai Euskal Hezkuntzak baita Europar Batasunak ere finkatutako trebetasunak landu eta garatzea, bikaintasuna helburutzat duten pertsonak prestatzeko eta bizitzan zehar jasotzen den ezagutzan eta ikaskuntzan oinarritutako gizarte eraikitzeko.
- Hezkuntza formalaren eta ez formalaren arteko zubiak ezartzea.
- Bizikidetza positiborako beharrezkoak diren trebetasun pertsonalen eta sozialen ikaskuntza sustatzea: pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen, erabakiak hartzen, arriskuei aurre egiten, ekimena gauzatzen, parte hartzen, arazoen/gatazken konponbideak aurkitzen, sormena eta jakin mina lantzen ikastea; taldean bizitzeko trebetasunak eskuratzea, hala nola lankidetza, elkartasuna, autoestimua, enpatia, eta bai justizia-sena garatzen laguntzea ere.

#### 2. EKIMENA: Hezkuntzaren alorreko administrazioa etengabeko hobekuntzaren eta bikaintasunaren zerbitzura jartzea.

- Hezkuntzaren arloko administrazioaren egitura denbora eta erronka berrietara egokitzea, etengabeko hobekuntzaren eta bikaintasunaren zerbitzuan jarriz.
- Hezkuntzaren arloko administrazioaren eta ikastetxeetako zein bere elkarteetako adituek parte hartuko duten hezkuntzako I+G+B egitaraua sustatzea.
- Kudeaketa argi eta gardena baliatuz, baliabideen erabilera eraginkorragoa bultzatzea, inbertsioen eta emaitzen arteko orekari eutsiko dion finantzaketa sistema egokiagoari eta, batez ere euskarazko eta ingelesezko eskola-material digitalen sorkuntza eta erabilera eraginkorragoari bultzada ematearekin batera.
- Hezkuntzaren arloko zerbitzuak ematean eta ezagueren transferentzian bikaintasuna egiaztatzen duten ikastetxeak aintzatesteko eta hezkuntzako praktika onak sustatzeko plan zehatzak abian jartzea.
- Egiaztatutako eta homologatutako ebaluazioetan eta kalitate kontrolatan lortzen diren emaitzetan oinarritzen den erreferentziako ikastetxeen direktorioa eratzea.
- Erreferentziako ikastetxeak zeintzuk diren behin jakinda, euren eredia hedatzea eta praktika egokien ezagutza bideratzea. Irakaskuntza, zuzendaritza eta kudeaketaren arloko praktika onak sistema osora zabaltzea.

---

**3. EKIMENA: Barneko eta kanpoko ebaluazioari irekita dagoen hezkuntza sistema sustatzea, etengabe berritzen dabilena eta hezkuntza komunitatearen esperientzia eta proposamenei adi dagoena.**

---

- Ebaluazio eta diagnostikorako adierazle-sistema antolatzea, hezkuntza eragile nagusien parte hartzearekin.
- Hezkuntzaren alorreko sistema osoaren ebaluazioa egitea (helburuak; bitartekoak; hurbileko herrien hezkuntza sistemekiko konparaketa; tokiko sareen jardueraren erkapen-ebaluazioa; giza baliabideen prestakuntza hezkuntza eleanitzaerako, teknologia berrien erabileraerako edo programa berrien garapenerako; eta premiazko beharrianak eta atzeratu daitezkeen beharrianak.
- Sistema osoan ebaluazioaren kultura ezartzea, helburua etengabeko hobekuntza izaki.
- Ikastetxeek eta gizarte sistema osoak kontuak ematea helburutzat duen kultura bultzatzea.
- Hautaprobeen beharri buruz hausnartzea.

---

**4. EKIMENA: Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzeari irekita dagoen hezkuntza sistema sustatzea, duen bikaintasunerako bokazioetik abiatuta.**

---

- Ikastetxeen autonomia bultzatuko duen hezkuntza eredu malgua sustatzea, horrela, gure berezitasunei eta gure erronka eta desireri erantzun egokiagoa eman ahal izateko, hala nola etekinaren hobekuntza oro har eta zientzia eta hizkuntza (eleaniztasuna) gaitasuna zehatz-mehatz; beti ere aniztasunean eta bikaintasunaren etengabeko bilaketan arreta jarritz.
- Ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitatearen sendotzea eta inplikazioa eragitea, bere hezkuntza proiektua, curriculum eta hizkuntza proiektua, IKT proiektua eta bizikidetzatza proiektua aintzat hartuz.
- Ikastetxe bakoitzari berezko nortasun juridikoa ematea. Honi esker, erabakiak hartu ahal izango ditu, barneko lankidetzaren eta beste ikastetxe batzuekiko lankidetzaren bitartez, eta bere ingurunekeo gizarte, kultura eta ekonomia sareetan jardun ahal izango du.
- Egungo ikastetxe ereduaren eraldatzeari ekitea, ikastetxea curriculum zerbitzuak eta curriculumetik kanpoko zerbitzuak eskaintzen dituen hezkuntza enpresa bilakatuz, bikaintasuna bilatzen duen kudeaketaren bitartez eta ezaguerak, materialak eta teknikak etengabe berrituz.

---

**5. EKIMENA: Komunitate hezkuntza eta osoko hezkuntzaren oinarrian dauden zeharkakotasun elementuak sustatzea.**

---

- Gizarte beharrian zehatzekin bat etortzen den erantzuna hobeto bermatzen duten ikastetxeen bereizketa positiboa egitea.
- Hezkuntza komunitatearen, osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen artean lankidetzatza lokarriak ezartzea, osoko hezkuntza material eta egitarauak sortu eta garatze aldera.
- Hezkuntza alorraren eta lan alorraren arteko bilguneak ezartzea, gizarte eta ekonomia arloen beharrianekei modu eraginkorrean aurre egiteko xedez.

---

**6. EKIMENA: Euskal gizartearen erronkei erantzuna emango dien eta mundura irekita dagoen hezkuntza sistema finkatzea.**

---

- Hezkuntza maila guztietarako, eta alderdi formal eta ez formal guztietan, euskal curriculumaren garapena laguntzea; ikastetxea baliatzea kudeaketarako eta erabakiak hartzeko erakunde natural gisa; eta euskal kultura, hezkuntza gaitasunen estrategia eta oinarrizko zientzia eta teknologia kulturaren transmisio eta sustapena kontuan hartzea ikastetxeen osagai nagusi gisa.
- Bizikidetzaren harmonikoa lortze aldera bideratutako baloreetan oinarritzen den hezkuntza eredua garatzea: begirunea, demokrazia, elkartasuna, diskriminaziorik eza eta indarkeriarik eza.
- Eskola curriculumetan bizikidetzarako beharrezkoak diren trebetasun pertsonalak eta gizarte trebetasunak eskuratzeko ikaskuntzak barneratzea, gure ingurugiroko erronka eta arazoari aurre egin ahal izateko.

## 2. KONPROMISOA.

### IRAKASLEEN LANA GARATzea ETA PRESTIGIOA EMATEA, BERE MAILA ETA MODALITATE DESBERDINETAN.

#### 7. EKIMENA: Irakasleen prestakuntza.

- Irakasleen, zuzendaritza taldeen, tutoreen eta euskal hezkuntza sistemako gainontzeko profesionalen hastapeneko eta etengabeko prestakuntza diseinatzea, hezkuntza sistemaren ezaugarriak eta EBk emandako gomendioak kontuan hartuz.
- Hezkuntzaren alorreko beharizan berriei dagokienez, profesionalen prestakuntza erraztea, ikastetxeak osotasunean kudeatzeko tresnak izate aldera eta bereizitako inguruneetara egokitutako curriculum, hizkuntza eta heldutasun teknologikoko proiektuen proposamenak edukitze aldera.
- Berrikuntza teknologikoa, metodologikoa eta kultura zientifikoa sustatzea.
- Hezkuntzaren arloko kudeaketako eta giza baliabideen zuzendaritzako lanbide karrerak diseinatu eta garatzea ikastetxe eta hezkuntza sareetan.
- Ikerketa aplikatua sustatzea eta garatzea.
- Banakako eta talde prestakuntza planak antolatzea, irakasleen foroekin batera, hezkuntza erronkei buruzko azterketa eta hausnarketa burutzeko.

#### 8. EKIMENA: Irakaskuntzari lanbide gisa prestigioa ematea.

- Unibertsitateaz kanpoko lanbide karrera ezartzea.
- Ezagutza sortu eta transferitzen duten, ereduak praktikak egiten dituzten eta hezkuntza prozesuko eta honen kudeaketako edozein arlotan egindako ekarpenengatik nabarmentzen diren profesionalak aintzatespenera sartzea.
- Zuzendaritza taldeen eraketa, funtzioak eta antolaketa berriz planteatzea eta lidergo eta kudeaketa profil betearazlea duten kudeaketarako zuzendaritza lanpostu berriak sortzea.
- Hezkuntzako profesionalen taldeen artean hezkuntza sistema eraldatu ahal izango duten egitasmo berritzaileak sortu, hedatu eta trukatzeko.
- Irakasleenganako gizarte aintzatespen handiagoa sustatzea.

### 3. KONPROMISOA.

## ELEANIZTASUNERANTZ AURRERAPAUZO IRMOAK EMATEA, ELEBITASUN ERAGINKOR ETA ERREAL BATETIK.

### 9. EKIMENA: Hezkuntza modernoa bultzatzea, mundura irekita dagoena eta eleanitza dena, gure nortasuna, baita unibertsaltasuna ere, garatzea ahalbidetzen duena, eta oinarri elebiduna duen herri eleanitzaren irudia islatzen duena.

- Euskara oinarrian izango duen hezkuntza eleanitza sustatzen jarraitzea, ikasketak amaitzean ikasleek euskaraz, gaztelaniaz eta hirugarren hizkuntza batean (ingeleza) komunikazio gaitasun nahikoa izateko.
- Hizkuntzen irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan hauen tratamendu integratua orokortzea.
- Komunikazio gaitasun oso bat eskuratzeko prozesura zuzendutako plan zehatza burutzea, ikaskuntza prozesua eta hizkuntzaren erabilera uztartuz.
- Inguruko eragile eta erakundeekin lankidetzan, hizkuntzak erabiltzeko aukerak errazteko egitarauak garatzea, egoera soziolinguistikoak kontuan hartuz eta ikastetxeko hezkuntza proiektuen barnean batez ere hezkuntza ez formalaren guneak erabiliz.
- Hizkuntzen irakaskuntzaren eraginkortasuna hobetzea, gure ikasleei kalitatezko hizkuntza prestakuntza eskainiz.
- Hezkuntzako egitasmo linguistikoaren eta hezkuntzako marko hirueledunaren ebaluazioa egitea.
- Hizkuntza bakoitzak azalpen ordu nahikoa izatea, egoera soziolinguistiko bakoitzarentzat hizkuntza helburu zehatzak ezarriz, familien nahia eta ikastetxeen autonomia oinarritzat hartuz.
- Pertsona guztiek eskuratu eta erabili ahal izango dituzten hizkuntza helburuak ezartzea, eta aldi berean, helburu hauek gainditzeko aukera ematea eta helburu aurreratuagoak finkatzea.
- Laugarren hizkuntza baten ikaskuntzan aurrerapausoak ematea, pertsonalizatutako hizkuntza ibilbideak ahalbidetuko dituen ahalik eta eskaintzarik zabalena erraztuz.
- Irakasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko plana garatzea eta sendotzea.

### 4. KONPROMISOA.

## LANBIDE HEZIKETAKO SISTEMA HOBETZEA, GURE EKOIZPEN SEKTOREEN BEHARRIZANEI ERANTZUTEKO.

### 10. EKIMENA: Lanbide Heziketa Sistemaren osoko hobekuntza.

- Berezko ezaugarriak dituen Lanbide Heziketa sustatzea, hauxe baita gure ekoizpen sektoreen lehiakortasunerako oinarritzako balioa.
- Lan munduaren eta bizitzan zehar jasotako ikaskuntzaren arteko ibilbide praktikoak zehaztu eta garatzea.
- Lanbide Heziketaren prestakuntza, bikaintasuna eta berrikuntzarako agenda estrategikoa eratzea.



- Ikastetxeen kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendua egokitzea eta ikastetxeen arteko lankidetzak bultzatzea.
- Lan munduarekiko elkarrekintza hobetzea.
- Erakundeen arteko lankidetzak koordinatzea eta ikaskuntza eta kooperazio maila altua eskuratzera zuzendutako lehiakorrak, berritzaileak, kalitatezkoak eta ekintzaileak diren ingurune estrategikoak bultzatzea, balioa sortze aldera eta beste ikastetxe eta enpresetara eraman daitezkeen egitasmoak abian jartze aldera.
- Lanbide Heziketak daukan euskarazko eskaintza sendotzea, izan ere, ekoizpen sektorea euskalduntzeko giltzarria da hau.
- Prestakuntza iraunkorreko egitarauen eraginkortasuna hobetzea, transferentzia teknologikoak eragin ditzaketen lankidetzak garatzean arreta berezia jarritz.
- Hezkuntzaren eta lanaren arteko zubiak eraikitzea, enpresak prestakuntzaren, ekoizpenaren, hobekuntzaren eta berrikuntzaren integrazioan sakonduz joan daitezkeen.
- Sareko lana indartzea, ikastetxeen autonomia handituz, egitasmo berrietako irudimena bultzatuz, ekintza berritzaile berriak garatuz, ikastetxeen eta enpresen, batez ere ETEen, arteko harremanak babestuz, eta bermeekin orientatuz eta gure biztanle aktiboak eraginkortasunez gaituz.

## 5. KONPROMISOA.

### **EUSKAL UNIBERTSITATEEK ORO HAR, ETA SISTEMA PUBLIKOAK BEREZIKI, EAE-REN GARAPEN MAILAREKIN BAT DATOZEN MAILAK ESKURATzea, AURRERAPENAREN, ONGIZATEAREN ETA GIZARTE KOHESIOAREN ZERBITZURA DAUDEN ERAGILE ERAGINKORRAK IZATE ALDERA.**

#### **11. EKIMENA: Euskal unibertsitate sistemaren eta bere tresna arauemaileen eta erakunde arkitekturaren egungo egoeraren azterketa eta ebaluazioa.**

- Europako unibertsitate sistema txertatu ostean unibertsitateetan ezarritako erreformak ebaluatzea, irakaskuntzaren eremuan hobe daitezkeen esparru posibleak eta ikasketa eskaintza identifikatzeko.
- Ebaluazio eta egiaztapen sistemen funtzionamendua baloratzea balizko erreformari ekiteko, esparru honetan unibertsitateko ikasleen egitekoa errazte aldera.
- Unibertsitateko/ikerketako erakunde arkitektura aztertzea eta sistemaren maila bere osotasunean hobetzeko, eta ondorioz gizarteari eskainitako zerbitzuak hobetzeko, alternatiba desberdinak baloratzea.

#### **12. EKIMENA: Kalitatezko eta euskal gizartearen beharrezanekin bat datorren unibertsitate ikasketen eskaintza azaltzea, ikasketetara sarbidea izateko ikasleen aukera berdintasuna bermatuz.**

- Euskal unibertsitateekin etengabeko elkarriketa eta akordioak bultzatzea, ikasketen eskaintza gizartearen eskaera eta beharrezanekin bat etortzeko.
- Anbizio handiko ikasketa laguntzen egitaraua mantentzea, laguntza hauek ikaslearen eta gizarte osoaren arteko konpromisotzat hartuz.
- Beste unibertsitate batzuekin ikasle eta irakasle trukea sustatzea, nazioarteko egitarauen markoan.

---

**13. EKIMENA: Ikerketa jardueraren sustapena, bereziki honen kalitatean arreta ipiniz eta euskal egitura sozioekonomikorako sarrera erraztuz.**

---

- Ikerketa jardueraren kalitatearen zehaztapen irizpideak hobetzea, nazioarteko estandarrekiko homologagarriagoa izateko eta munduko eta Europako testuinguruan lehiakoragoa izateko.
- BERC sistema sendotzea (erreformen beharra alde batera utzi barik), puntako ikerketa zentroen sare indartsua mantentzeko eta gure ikerketa jardueraren kalitatea eta nazioarteko ikuspena nabarmen handitzeko.
- Erakartzeko, atxikitzeko eta talentua lantzeko egitarau eustea, unibertsitateetan eta ikerketa zentroetan ikerketa gaitasunaren maila altua bermatzeko, egitarau hauek gure ikertzaileak atzerri joateko oztopo izan barik eta pizgarriak kendu gabe.
- Unibertsitateen, teknologia zentroen, ikerketaren arloko erakunde publikoen eta enpresen arteko harremanak babestea, erakunde desberdinen arteko profesional eta ikasleen mugikortasuna erraztuz.

---

**14. EKIMENA: Euskal unibertsitate sistema publikoaren finantzaketa sistema egokitzea.**

---

- Unibertsitate finantzaketaren tresnak berriro ere ezartzea adostutako helburuak lortze aldera, bere nahikotasuna bermatuz.
- Mota guztietako administrazio prozedurak sinplifikatzea, benetako unibertsitate egitekoen garapena errazteko.

## 6. KONPROMISOA. EUSKADIN MAILA ALTUKO UNIBERTSITATE ZENTROA SORTZEKO EGITASMOA DISEINATZEA.

---

**15. EKIMENA: Maila altuko unibertsitate zentroa eratzeke egitasmoaren bideragarritasun ekonomiko eta akademikoa aztertzea.**

---

- Maila altuko unibertsitate zentro bat eratzeak eragingo lituzkeen eskakizun ekonomiko eta arauemaileak aztertzea.
- Izaera honetako egitasmoaren bideragarritasun ekonomiko eta akademikoa ebaluatzea, bere neurriei (mugatuak eta tamaina txikikoak beti ere) eta erakunde arkitekturari dagozkion alternatiba desberdinak kontuan hartuz.
- Gogoan hartu beharreko erakunde alternatibak aztertzea: UPV/EHUren zentro elkartua (edo Euskampus eransketarena), Ikerbasque eta BERCen erakunde lankidetzarekin edo, aldizka, Ikerbasque eta BERC osatzen duten izaera juridiko pribatuko erakunde baten mendeko zentro autonomoa, eta UPV/EHUrekiko loturarekin (baina bere egituretatik kanpo).
- Gogoan hartu beharreko alternatiba akademikoak aztertzea: master eta doktoretza ikasketetara mugatzea edo, elkarren txandan, hauetatik hurbilen dauden gradu ikasketak sartzera. Aipatutako bi kasuetan, ikasketa aukera arlo bakoitzeko indar akademikoaren arabera izango litzateke, irakasleen hautaketa hagitik zorrotza izango litzatekeelako.

- Ikasketa hauek unibertsitate publikoko gainerako ikasketen kostu bera izango lukete euskal ikasleentzat, hala ere, finantzaketa formulak ikasketa laguntzak hartu beharko lituzke bere gain. Honen guztiaren helburua aukeren berdintasun abiaburua bermatzea da.
- Proiektuaren bideragarritasun ekonomiko eta akademikoari buruzko azterketek bideragarritasuna egiaztatuko balute, gure xedea Euskadin maila altuko zentro akademikoa abian jartzeko lehenengo urratsak ematea da, ondorengo helburu hauek erdieste aldera:
- Euskadin bizi diren ikertzailerik onenak munduko puntako erakunde akademiko honetara gehitzea, oso kalitate handiko ikerketa eta prestakuntza proiektuan euren ekarpena izateko.
- Erakartzeko eta talentua gordetzeko elementu gisa garatzea, horrela, bere ikerketa eta prestakuntza jardueraren ondorioz, nazioartean entzute handiko zentro bilaka dadila.
- Honen inguruan jarduera ekonomikoa sortzea, osagai berritzaile asko eta ezagutza trinkoak dituzten esparruetan.

## 7. KONPROMISOA.

### HEZKUNTZA AKORDIO ZABAL ETA EGONKORRA GARATZEA.

#### 16. EKIMENA: Euskal gizarteak eskatzen duen bikaintasunaren hezkuntza bermatuko duen eta nabarmenduko duen erakundeen arteko akordio zabala lortzea.

- Hezkuntzaren Euskal Lege bati buruzko adostasun politiko eta sozial zabala sustatzea. Lege hau biltzailea izango da eta hezkuntzaren egitura guztia gorpuztu eta koherentziaz hornituko du.
- Alderdi politikoen eta hezkuntza eragileen artean gune komunak garatzea, bikaintasunera bideratutako hezkuntza sistemaren egonkortasuna eta gaitasuna lortze aldera.
- Akordio bat sustatzea euskal hezkuntza sistemako egiturazko elementuak alderdien arteko lehiatik kanpo gera daitezen.





EUSKADI BERPIZTU

## **KULTURAREN ETA GAZTERIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUEN EUSKADI**

---

- 24. EUSKAL KULTURA IREKIA ETA PLURALA
- 25. GAZTERIAREN ALDEKO GURE APUSTUA
- 26. KIROLA, JARDUERA FISIKOA ETA GARAPEN PERTSONALA







## KULTURAREN ETA GAZTERIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUEN EUSKADI

EUSKAL KULTURA IREKIA  
ETA PLURALA

GAZTERIAREN ALDEKO  
GURE APUSTUA

KIROLA, JARDUERA  
FISIKOA ETA GARAPEN  
PERTSONALA

### PRINTZPIOAK:

- Garen hori ulertzeko partekatutako balio eta ideien multzoa da kultura. Beste kultura eta gizarteekin harremanetan egoteak etengabeko eraldaketa eragiten du; hortaz, herri baten talde nortasunaren garapenerako funtsezko elementua da eta beharrezkoa da hura babestu eta indartzea.
- XXI. mendeko euskal gizartearen erronka erreferenteak, ikurrak eta kultura ohiturak partekatzen ikastea da. Mundu mailako bihurtzeak, komunitate bizitzaren etengabeko ikaskuntza prozesu legez ulertuta, bizikidetza nabarmentzen du eta berezko zentzua ematen dio. EAJ-PNVn uste dugu kultura-bizitasuna, garapen ekonomikoa, elkartasuna, gizarte eta ingurumen iraunkortasuna eta ezagutza balio demokratikoak finkatzeko oinarriak direla; eta kulturaren politikak funtsezko rola dauka.
- EAJ-PNVren aburuz, kultura sorkuntza eta ekoizpena gizarte modernoaren balio erantsia dira. Kultura beharrezkoa da gizartearen garapenerako eta aberasgarria da pertsonen zein taldearen ongizaterako.
- EAJ-PNVrentzat kultura prozesu bat da, ez produktu bat huts-hutsik; harremanen eremua da, taldearen eta norbanakoaren nortasunaren ezagutza da, sormena da, ondare eta balioen hedapen eta transmisioa da.
- Euskadin, Europako beste nazio batzuetan gertatu den bezala, partaidetza eta komunikazio eremu desberdinak -errealak eta birtualak- gorpuztuz joan dira. Euskal kultura ingurune global horretan garatzen da. EAJ-PNVn uste dugu ingurune hori euskal herritarren itxaropen eta beharrianak asetzeko aukeren ingurunea dela. Euskadiren garapen sozioekonomikoari lotutako kultura hazkundearen alde gaude, gero eta zorrotzagoa den gizarte eskaera asetzeko ahalbidetzen duen lankidetzak publiko-pribatua sustatuz.
- EAJ-PNVk euskal kultura transmititu, garatu eta sustatu nahi du, euskal lurraldeen arteko loturak sendotuz eta euskal kulturari nazioarteko agertokian merezi duen lekua eskainiz, ezagutzera emanez eta zabalduz. Horrez gain, kultura harremanen markoa den heinean, kultura aniztasunari ateak zabaldu behar dizkiogu, gure kultura adierazpenetan, gure sorkuntzako eta kultura adierazpeneko hizkuntzetan, sormenean eta balioetan oinarrituz. Hori dela eta, EAJ-PNVk uste du euskaraz sortutako kulturari eman beharreko bultzadak ahalegin berezia behar duela, merkatu globalean bizi duen ahuleziari eraginkortasunez aurre egin ahal izateko.



- EAJ-PNVrentzat funtsezkoa da gizartearen sormena eta dinamismoa babestea eta sustatzea eta argi eta garbi onartzen du kultura lehenetsi beharreko sektore estrategikoa dela. Zentzu honetan, EAJ-PNVren aburuz, beharrezkoa da gazteen artean kultura sustatzeko osoko eta zeharkako planak garatzea, izan ere, gazteak izango baitira etorkizunean kultura gehien sortu, kontsumitu eta eskatuko dutenak.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du nazioarteko kulturaren panoraman Euskadi erreferente moduan finkatzeko erronkari aurre egiteko, sorkuntza eta talentua bultzatuz eta euskal kultura sektoreari eutsiz.
- Uste dugu politika kulturala gizarte kohesiorako eta herritarren, norbanakoen eta komunitatearen balioak eraikitzeko tresna dela; tradiziozkoaren eta berriaren eta berezkoaren eta unibertsalaren arteko elkarriketa emankorrerako gunea, hain zuzen ere. Komunitatearen zentzu berri honek eskatzen du gure memorian sustraitutako eta aldi berean XXI. mendeko kultura balio eta praktikekiko etengabeko elkarrengina duen euskal kulturaren garapena sustatzea, oraina eraikiz eta etorkizuna prestatuz.

## 1. KONPROMISOA.

**KULTURA POLITIKA BULTZATZEA, ELKARTZE, TRUKATZE ETA ELKARRIZKETAREN PROZESU ETA EMAITZA GISA ULERTUTA.****1. EKIMENA: Euskal ondare eta kultura azpiegiturak babestea eta indartzea.**

- Museoei eta liburutegiei buruzko legeak eguneratzea eta Artxiboen Legea onartzea.
- Zuzeneko zerbitzuak izango dituen eta urruneko sarbidea Euskal Liburutegi Digitalean zehar izango duen Euskadiko Liburutegi Nazionala garatzea.
- Foru aldundiekin lankidetzan, Euskadiko museoetan eta bilduma museografikoetan sartzeko online sarea ezartzea eta Euskal Kultura Ondarearen artxibo digitala garatzea.
- Euskadiko Museoen Aholku Kontseilua abian jartzea.
- Nazioarteko Kultura Erakundeak Erakartzeko Plana martxan jartzea. Erakunde berriak erakartzeaz gain, plan honi esker beste herrialde batzuetako erakunde artistikoekin lankidetzaren sareak ezarri ahal izango lirateke eta Euskal ARTS Hiria garapenaren alde jokatu ahal izango litzateke.
- Gasteizen Kultura Ondarearen Ikerketa Zentroa -ZAIN- sustatzea (kultura ondareari aplikatutako I+G+B) eta Santa Maria Katedralaren berritze faseekin jarraitzea.
- Kultura azpiegitura estrategiko berriak sustatu, eguneratu eta sendotzea, erakundeen arteko lankidetzaren bitartez. Esparru honetan, Guggenheim museoa handitzeko proiektuari eta Tabakaleraren proiektua zehazteari dagozkien erakundeen arteko adostasunak berreskuratzeko lan egingo dugu.
- Euskadiko kultura politiken Erakundeen arteko Kontseilua sortzea, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen eta EUDEL-en partaidetzarekin.

**2. EKIMENA: Oroimena etengabe zaintzea eta oroimenari etengabeko balioa ematea, ondare materialaren eta materiagabearen bitartez.**

- Gure konpromisoa honakoa da: iragana babestu eta oinarritzat hartzea (ohiturak, gizarte antolaketa, historia) oraina eraikitzeko (beste kulturekiko harreman motak, gizartearen dibertsitatea, autogobernu mailak, gizarte erabilerak, balioak, etab.) eta etorkizuna proiektatzea aldakorra den baina aukerez beteta dagoen geroari heltzeko tresnak dituen gizartean. Hori lortzeko ondorengo ekintzak proposatzen ditugu:
  - Egungo eredu gaindituko duen Euskal Kultura Ondarearen Lege berria lantzea.
  - Kultura interesa duten ondasunen katalogoaren eguneraketa.
  - Euskadiko Artxibo Nazionala abian jartzea.
  - Euskal kultura ondarea kudeatu, gorde eta babesteko teknologia berriak aplikatzea (artxibo digitala, online bilduma museografikoak...).
  - Kulturaren Euskal Behatokia sendotzea.
  - Kultura Ondarearen Aholku Kontseilua eraginkortasunez abian jartzea.
  - Beste erakunde batzuekin lankidetzan, izaera estrategikodun kultura azpiegituren mapa berria sustatzea.

---

### 3. EKIMENA: **Kultura eta honen adierazpenak haurtzarotik lantzea eta gazteria eta kultura uzartzea.**

---

- Haurtzarotik kultura adierazpen desberdinen eta sortzeko prozesuen ikaskuntza bultzatzeko plana garatzea, horiek curriculumera ekarriz.
- Ikastetxeetan arte dramatikoaren eta arte eszenikoaren presentzia eta baita ikus-entzunezko kulturarako prestakuntzaren presentzia ere eragitea (jabetza intelektualaren lapurretaren aurkako sentsibilizazioa, irakatsi beharreko ikus-entzunezko edukien sistematizazioa...).
- Kultura proiektu eta zerbitzuak gazteen esku uztea eta sorkuntzan eta kultura ekoizpean murgiltzeko gazteei zuzendutako sustapen programak erraztea.
- Beka Artistikoen Nazioarteko Plana ezartzea, euskal artista eta sortzaile gazteek nazioarteko akreditazioa duten ikastetxeetara joateko aukera izan dezaten.

---

### 4. EKIMENA: **Irakurketa sustatzea.**

---

- 2.0 online teknikak ezartzea Liburutegi publiko eta eskola Liburutegien Sarean.
- Ikastetxeetako lankidetzaren bitartez, 0 eta 6 urte bitarteko haurren artean irakurtzeko ohitura bultzatzeko egitasmoak sustatzea.
- Euskarazko literatura unibertsalaren katalogoa osatzea.
- Euskarazko liburuak eta literatura sustatzeko plana sortzea.

---

### 5. EKIMENA: **Gizarte eta kultura sarea indartzea eta herritarren prestakuntza eta parte hartzea sustatzea, kultura sektorearen iraunkortasunerako estrategia gisa.**

---

- Euskal kultura ekoizpenaren formatu motetan sakontzea, kulturaren sektorean komunikaziorako eta hasierako trukatzeko zirkuituak eta, horrez gain, sakonagoa eta zabalagoa den komunikaziorako zirkuituak ezarriz.
- Kultura aniztasuna eta herritarren adierazpen kultural desberdinak babestea.
- Sektore sortzaile propioaren aldeko politika aktiboak eta diskriminazio positiboa eragitea.
- Kultura ekintzetan parte hartzeko jarrerak eta prozesuak sustatzea herritarren artean.
- Arte Ederretako eta Arte Dramatikoko unibertsitate programa berriak eragitea.

---

### 6. EKIMENA: **Gure nortasunaren eta kultura ekoizpenaren proiektzioa.**

---

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta euskal kulturaren gainerako lurraldeen arteko kultura harremanak bultzatzea.
- Euskadiko azpiegituren sare zabala eta kultura ekoizpen aberatsa modu egokian proiektatzea, lehenengo eta behin Euskadin, baina baita kanpoan ere.
- Kultura ekoizpena nazioarteko bihurtzeko sustapen politika burutzea, Euskadi markaren ezinbesteko elementu gisa, batez ere Europako eta Amerikako kultura zirkuituetan, munduan zehar Euskadiko enbaxadore sarea sustatuz.
- Nazioartean gure kultura ekoizpena eta gure kultura sormenaren kanonak proiektatzeko programa berritzaileak garatzea, arte diziplina guztietan Europako beste herrialde batzuetako erakundeetako lankidetzaren sareak ezarriz.
- Nazioarteko mugikortasun plan berria sortzea, artisten eta kultura kudeatzaileen trukea ahalbidetzeko helburuarekin.

**2. KONPROMISOA.****EUSKAL HEZKUNTZA ETA KULTURA SISTEMA OSATZEN DUTEN ERAKUNDE ETA ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA SISTEMATIKOA SUSTATZEA.****7. EKIMENA: Hezkuntzako profesionalen eta kultura eragileen arteko lankidetzaren eragitea eta sustatzea.**

- Hezkuntzako eta kulturako ekintzen programazioa sustatzea, hezkuntza formal eta ez formalaren esparruetan.
- Kultura eta hezkuntzako profesionalen zuzendutako prestakuntza iraunkorreko ikastaro eta mintegien sorrera babestea.
- Kultura eta hezkuntzaren gune komunetan elkarri eragiten dioten harreman sareen sorrera bultzatzea.

**8. EKIMENA: Kultura eragileen arteko harreman eta lankidetzaren gune berriak sustatzea.**

- Kulturaren eta hezkuntzaren ordezkarien artean sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa eragitea.
- Ezagutzaren Aholku Kontseilua sortzea, erakunde publiko eta pribatuaren eta hezkuntza eta kulturako eragileen partaidetzarekin, hezkuntzaren eta kulturaren guneetan elkarri eragin ahal dioten proposamen eta ekimenak proposatu eta hauen jarraipena egiteko.

**9. EKIMENA: Hezkuntza esparruaren eta kulturako enpresen errealitatearen arteko hurbiltzea sustatzea.**

- Kulturaren profesionalen zuzendutako eta nazioarteko adituen presentzia izango duten udako ikastaroen eta unibertsitateetako beste kultura plataforma batzuen eskaintza sendotzea.
- Enpresetatik eta kulturaren profesionaletatik abiatuz, trukeen, praktikak egiteko egonaldiak eta unibertsitateko ikasleentzako beken sustapena erraztea.

**3. KONPROMISOA.****KULTURAREN INDUSTRIAK BULTZATZEA. ERREFERENTZIAZKO ELEMENTU IZANGO DIRA, EDUKIEN SORTZAILE, ETA ENPLEGUA ETA BERRIKUNTZA EKARRIKO DITUZTE.****10. EKIMENA: Kulturaren industrien eremuko enpresa berrien garapena babestuko duten programak sustatzea eta jada dauden enpresak sendotzea bultzatzea.**

- Industria Sailarekin eta foru aldundiekin lankidetzan, enpresa berriak sortzeko eta jada dauden enpresetako kultura proiektuak garatzeko neurriak ezartzea, Euskadin ikerketa, kultura ekoizpen eta kontsumoa eta lana sortzeko dituen elementu gisa.

**11. EKIMENA: Sektore publikoaren eta eremu pribatuaren arteko lankidetzaren indartzea.**

- Gizarte erantzukizunaren ikuspegia botere publikoaren, jarduera ekonomiko pribatuaren eta kultura aktore industrialen arteko lankidetzara eramatea, aldi berean eta era orekatuan epe laburreko beharizanak eta epe luzeagoko industria estrategiak landuz.

- Kultura ekoizpenaren dimentsio industrialia indartzea eta aldi berean kultura ekoizpenaren eta kultura kontsumoaren input ekonomikoa sustatzea (adibidez, bai Euskadi mailan baita atzerrian ere egindako ekarpenengatik balioa duten proiektuak eta produktuak garatuz eta prestigioa emanez).
- Kultura produkzioaren finantzaketa esparruan, Administrazioaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzak sustatzea (neurri fiskalak, partekatutako babesak...), bai egitasmo zehatzetarako dagokienez, baita, oro har, kultura produkzio osoari dagokienez ere.
- Kultura ekoizpenaren finantzaketa publikoan industria irizpideak barneratzea (inbertsioei eta merkaturako sarbideari lotutako ildoak, kultura enpresen azpiegitura indartzeko finantza eta enplegu programak, kultura ekoizpenerako kreditu sistema propioa...).
- Arteen eta Kultura Industriaren Institutua abian jartzea eta beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak erabiltzea Euskadin sormena, ekoizpena eta kultura-ko edukien -bereziki euskaraz- zabalkundea indartzeko.

---

## 12. EKIMENA: **Kulturaren esparruan, jabetza intelektualaren aldeko politika publiko eraginkorrak garatzea.**

---

- Kultura kontsumitzaileak diren heinean, herritarren artean ohitura osasungarriak sustatzea, "denak doakoa" izan behar duela dioten sasi-argudioen aurkako gizalegezko jarraera landuz.
- Jabetza intelektualarekiko errespetua eta babesak sustatzeko politika publikoak burutzea eta norabide honetan herritarren sentsibilizazioa lantzea.
- Jardunbide okerrak salatzea eta, gure eskumenen eremuan, hauek debekatzea edo zailago bihurtzea.

---

## 13. EKIMENA: **Sektorearen etengabeko berrikuntza eta modernizazioa sustatzea.**

---

- Berritzailea izango den sektore sortzailea garatzea (edukietan, baliabideetan, adierazpen moduetan, zabalkunde estrategietan...).
- Arteari eta ondareari eta baita euskarari eta hegemonikoak ez diren hizkuntzei ere balioa emateko teknologia berrien erabilera bultzatzea eta kultura eragileen ekipamendu teknologikoa berritzeko planak ekitzea.
- Euskal Kulturaren Behatokia indartzea, kulturako plangintzen eta ebaluazioen berri eta, oro har, kulturako politiken esparruaren berri emango duen tresna gisa.
- Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza zentroak bultzatzea, kulturako eduki berriak sortu eta hedatzeko helburuarekin.
- Kultura Enpresen Inkubagailu Sarea sortzea, euren garapen eta sustapenerako kultura industriaren abiapuntu gisa.

## 4. KONPROMISOA.

### **EKOIZPENA SUSTATZEA INDUSTRIA SORTZAILEEN ESPARRUAN.**

---

## 14. EKIMENA: **Musika eta Arte Eszenikoak bultzatzea.**

---

- Euskal musikaren Ataria sustatzea, euskal musikaren sorkuntza eta zabalkundea bultzatzeko; euskal musikari eta sortzaileen elkarteak sortzeko bideak errazteko; euskal abesbatzen koordinazioa eta baterako emanaldiak babesteko, horien biziraupena eta etorkizuna bermatzeko aldera; eta euskal musikaren ondarea berreskuratzen jarraitu ahal izateko bide berriak erabiltzeko.

- Egitasmo sortzaileak, ekoizpen proiektuak eta taldeak sendotzeari zuzendutako neurriak hartzea. Aipatutako azken horiek, besteak beste, dantzaren munduko taldeak dira; horrela, tradiziozko dantzaren, dantza garaikidearen eta klasikoaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartuko da "Dantza Etxe"en bitartez eta dantzari eta tradiziozko eszenari buruzko dokumentu artxiboaren sistema egituratuko da.
- Oinarrizko eta tarteko dantza zikloetan araututako zentroen Sarea osatzea eta goi mailako zikloa abian jartzea.
- Kalitatezko nazioarteko taldeen presentzia indartzea eta euskal taldeen partaidetza areagotzea, batez ere SAREAn, Euskadiko Antzoki Sarean, ikusle gazte eta nagusiei zuzendutako proposamenak eskaintzen dituztenak, eta aldi berean, euskal antzerkia eza-gutzero ematea estatu osoan zehar.
- Titulartasun publikoko antzokiak sostengatzea, antzerkia eta dantza ekoitz dezaten.

---

#### 15. EKIMENA: Ikus-entzunezko produktu eta zerbitzuen garapena sustatzea.

---

- Ikus-entzunezko Komunikazioaren Legea sortzea, euskal komunikazioaren esparruari dagokion proposamen oso eta koherentea egituratzeko.
- Nazioarte mailan lehiatzeko gai diren ikus-entzunezko euskal produktuen garapenerako plan berezia abian jartzea eta merkatuetan, foroetan eta atzerriko jaialdietan ikus-entzunezko lanak bultzatzea, herrialdeko ikus-entzunezko sektorearen laguntza izango duen marka bateratuarekin.
- Zine aretoetan, zein DVD edo euskarri berrietan, euskarazko zinea sustatzeko ekintza plana ezartzea.
- Euskarazko ikus-entzunezko edukia daukan kalitatezko bikoizketaren etorkizuna bermatzea.
- Zehazki haurrei eta gazteei zuzendutako azpтитuluak dituen zinea sustatzea, batez ere, ingelesa-euskara.
- Ikus-entzunezko sektoreak teknologia berrien aurrean bizi duen egoera aztertzea.

---

#### 16. EKIMENA: Industria sortzaileak babestea.

---

- Sormenari lotutako industriak -bereziki bideojokoei, ikus-entzunezkoei eta modari zein diseinuari lotutako industriak-, kulturaren dinamizazio eta berrikuntza elementuak dira eta, horrez gain, ekonomia eta lan aukera berriak sortzen dituzte. Honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzatik proposatzen dugu, foru aldundiekin elkarlanean, industria sortzaileen sustapen eta garapen lehiakorerrako programa integrala garatzea. Programa modu koordinatuan gauzatuko da kultura arloaren, industria arloaren eta ekonomia sustatzeko arloaren artean.

## 5. KONPROMISOA. EITB, EUSKAL AUTOGOBERNUAREN FUNTSEZKO OINARRIA.

---

#### 17. EKIMENA: EITBk daukan zerbitzu publikoko izaera mantendu eta indartzea.

---

- Zerbitzu publiko gisa duen izaera finkatzea eta garatzea, egokia eta neurrikoa den finantzaketa mistoaren bitartez.
- Ikus-entzunezko euskal sektore osoaren sareko lana sustatzea, aniztasun kulturalaren laguntzarekin eta lankidetzaren publiko-privatuarekin, jarduteko ardatz gisa.



- Ahalik eta ikus-entzulerik gehien aintzakotzat hartzea, jarraitasunik handiena eta estaldura geografiko, sozial eta kulturalik handiena bermatuz, programazioan ikus-entzuleen segmentu guztien ordezkari eta partaidetza ahalbidetuz (adin eta gizarte talde ezberdinak, gutxiengoak eta desgaitasunak dituzten taldeak barne); programazio mota desberdinak eta euskal biztanleriarentzat garrantzi gehien duten erakunde, gizarte, kultura eta kirol gertakizunak eskainiko dira, hori guztia, izaera ekonomiko, ideologiko zein kultureko interes pribatu berezien mende egon barik.
- Euskaraz eta gaztelaniaz kalitatezko programazioa eskaintzea, askotarikoa eta pertsonen duintasuna errespetatuko duena, ikus-entzuleen interesetara bideratutako edukia izango duena eta produkzio propioa hein handi batean, beste kate publiko zein pribatuak orekatzeko rola bere gain hartuz.
- Askatasun publikoen, gizalegezko balioen eta balio demokratikoen aldeko apustu argia egitea eta aniztasuna sustatzea, gutxiengoengan arretoa jarri eta aukera politiko eta kulturalen bazterketa saihestuz. Ondorio hirukoitza bilatuko dugu: gizarte kohesioa, autogobernurako gaitasuna duen gizartearen nortasun politiko kolektiboa eta dibertsitate soziolinguistiko eta kulturalaren aitortzea. Horretarako, oroimena berreskuratzean, justizian eta indarkeriaren biktimak izan diren pertsonen erreparazioan rol aktiboa izaten saiatuko da, euskal gizartearen adiskidetze sozial eta politikoa helburutzat hartuz.
- Hurbiltasuna mantentzea funtsezko aktibo gisa, horretarako, partaidetza, gizarte elkarrikeria eta praktika demokratikoa sustatuta. Gizartean gogoeta eta egokitzea bultzatzea aldatuta sakonak bizitzen ari garen garai honetan, bai teknologia, informazio eta kultura mailan, bai eta ekonomia, gizarte eta politika mailan ere.

---

#### 18. EKIMENA: Baliabideak erabiltzerako orduan efizientzian aurrerapausoak ematea ahalbidetuko duen bikaintasunaren kudeaketa bultzatzea.

---

- Gizarte errentagarritasunaren, kudeaketa efizientearen eta ahalik eta ikus-entzule gehien bilatzearen arteko oreka egokia gordeko duen kudeaketa programa eraginkorra sustatuko dugu.
- Bikaintasunera bideratutako kudeaketa eredu berreskuratuko dugu, bai kudeaketa ekonomikoari dagokionez -baliabideen erabilera optimizatuz eta ekarpen publiko eta komertzialen arteko oreka bilatuz-, bai eta pertsonen kudeaketari dagokionez ere, funtsezko aktiboak diren aldetik, profesionaltasunaren, sormenaren, lidergoaren eta talentuaren garapena sustatuz.
- EITBren misioak hobeto kudeatu eta planifikatzeko eta, konpromiso zehatzak oinarri hartuta, EITBren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko harremanak ordenatzeko, programa-kontratu formula sustatuko dugu.





## KULTURAREN ETA GAZTERIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUEN EUSKADI

EUSKAL KULTURA IREKIA  
ETA PLURALA

GAZTERIAREN ALDEKO  
GURE APUSTUA

KIROLA, JARDUERA  
FISIKOA ETA GARAPEN  
PERTSONALA

## PRINTZIPIOAK

- Neskak, mutilak, nerabeak eta pertsona gazteak "eragile aktiboak Euskadiren diseinu, eraikuntza eta garapenean".
- Pertsona gazteak, Euskadiren oraina dira, Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoaren protagonistak dira, eta beraz, herri gisa dauzkagun baliorik handienetakoak dira. Herri gisa aurrera egin eta garapen egokia jadetsi nahi badugu, argi eta garbi eta irmotasunez pertsona gazteen aldeko apustua egin beharko dugu, pertsona gazteak entzun, lagundu eta elkarrekin ibiliz. Euskadiren etorkizuna haiekin eraiki behar baita.
- Gazteria da aldaketei egokitzeko, ideia eta ezagutza berriak ekartzeko ahalmen handiena daukan gizarte-taldea.
- Gazteria da gure kapital sozialik onena. Euskadik belaunaldi-ordezkapena arintzeko premia handia dauka. Gazteriak "bat ez egiteak" dakarren kostu sozial, ekonomiko eta kulturala hagitik handia da. Gazteria gizarte eta lan eremuan benetan txerta dadila zenbat eta lehenago bideratu, hainbat eta arinago ekarriko dugu Euskadiren buruzagitza berreskuratzeko bizigarria.
- Emantzipazioa, autonomia, partaidetza eta EAJ-PNVren haur, nerabe eta gazteei buruzko Estrategiaren gako diren ekimenak bultzatzea.
- EAJ-PNVk proposatzen duen gazteria-politikaren abiapuntua da pertsona gazteak beren bizitzaren eta etorkizunaren benetako protagonistak direlako uste osoa. EAJ-PNVk planteatzen duen ereduak ez dauka asmo paternalistarik, eta ez du gazteria biktimizatu nahi ere. Proposatzen ditugun konpromiso eta ekimenak gazteriak bere eskura dauzkan tresnak dira, beren etorkizunaren eraikuntzako protagonistak izan daitezten. Hori da gazteriaren arloan aurkezten dugun proiektu honen filosofia: Gaztegitza. Bizitza-ziklo bakoitzeko interesgune, beharizan eta motibazioei doiturik dagoen proposamena da. Proposamen koordinatua, ikuskera estrategikoa daukana, koherentea eta gazteekin, eragileekin eta administrazioekin partekatua.
- Lana eta etxebizitza dira EAJ-PNVk Gaztegitza planteatzeko erabiltzen dituen lehentasunezko bi ardatzak, ikerketa soziologikorik fidagarrienen arabera pertsona gazteentzat horiek baitira oztoporik handienak emantzipatzeko eta bizitza-proiektu lokabea garatzeko.

- Oinarri horiez gain, Gaztegitzan deritzon egitarauak beste sei jarduketa-eremu aurreikusten ditu:
  - Osasuna.
  - Mugikortasuna.
  - Partaidetza eta elkartasuna.
  - Aisialdia eta kultura.
  - Balioak.
  - Euskadi - Europa - Planet identitatea.
- Gazteria politikak: apustu partekatu, koordinatu eta koherentea
- Gazteria-politika, diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen denetik gazteekin eta eragileekin (eragile publiko zein sozialekin) partekatzen den erantzukizuna da.
- Euskadik irizpide propioa daukan gazteria dauka, gazteria autonomia, ekimenduna, gazteria parte hartzailea, solidarioa eta Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoarekin konprometitua, eta Euskadirentzat beharrezkoa da hala izaten jarraitzea. Hori da erkidego bereizi gisa dauzkagun balio eta bermerik handienetako bat.
- Bizi garen egoeran, gizartearen eta gizartea demokratikoki ordezkatzeko dutenen artean ulermenerako bideak lehengoratzeko lan egitea beharrezkoa da. Hori da gure konpromisoa: GARDENTASUNA, ENTZUTE AKTIBOA ETA PERTSONA GAZTEEN AHALDUNTZEA.
- EAJ-PNVk euskal gazteriari buruz daukan helburuak betetzeko lan egingo du. Horretarako, begirunea eta gazteriaren heldutasunaren aintzatespena hartuko ditugu oinarri. Elkartutako zein elkartu gabeko pertsona gazteen lankidetzarekin, eta Foru Aldundi eta Udalekin ere bai. Batu egingo dugu, ikusmoldeak partekatuko ditugu, ahaleginak koordinatuko ditugu eta gazteriaren alorreko politikei koherentzia emango diegu arlo sozialean eta administrazio arloan, pertsona gazteak zein haien ordezkari diren erakunde eta kolektiboak eta gazteriaren eragileen multzoa entzuteko eta errespetatzeko jarreratik abiatu.

- EAJ-PNVk **Gaztegitzan** honako **KONPROMISO ETA EKIMENAK** planteatzen du:

## 1. KONPROMISOA. GAZTEEN EMANTZIPAZIOA.

- **Helduaroan burutzen den prozesu dinamikoa da, eta erakunde publikoak etapa batzuetan zein besteetan inplikatu behar gara.**

### HAURREKIKO KONPROMISOA

#### 1. EKIMENA: **Haurrei buruzko Gizarte eta Hezkuntza Agenda.**

- Hurbileko gizarte eta hezkuntza alorretako egitarauen euskal sarea sustatzea, neska-mutilen autonomia eta ekimena bultzatzeko, sare horretan arlokako jarduerak integratuz: aisialdiko jardueren eskaintza, genero berdintasuna, drogen prebentzioa, ingurumen-iraunkortasuna,...
- Sarearentzako esparru-eredua definitzea, ingururik hurbileneko hezkuntzako zentro eta eragileekin konektatuz alderdi estrategikoan zein operatiboan.
- Informazio eta laguntzarako eremuak bultzatzea familiei informazioa, aholkua eta laguntza emate aldera.

### NERABEEKIKO KONPROMISOA

#### 2. EKIMENA: **Hezkuntzako Aisialdi Plana Nerabeekin.**

- Euskadiko Hezkuntzako Aisialdi Plana bultzatuko dugu, ondoko ezaugarri hauek izango dituen:
- Garapen pertsonala, bizikidetzeta eta autonomia lortzen lagunduko duten hezkuntzaren arloko helburuak garatzeko jarduketara eta zerbitzuetan aitzindari izango da, apurka-apurka haur eta gazteen planekin konektaturik, eta halaber:
- Ekite-gaitasuneko prozesuak ardatz hartzen dituzten eta beren ekimenen ondorioz sortzen diren jarduerak sustatuko ditu, eskaintza/kontsumoa binomiora mugatzen diren jardueren aurrean.
- Hezkuntzaren alorreko aisialdia, hezkuntza arloko edukiak lantzeko aukera-eremu gisa ulertuko du.
- Bere arreta nerabeen bizikidetzeta-eremuetan -auzoa, udalerria, eskualdeak- jarriko du, eremu horietan jarduerara koordinatu eta kohesionatuak sustatuz.
- Komunikazioaren arloko estrategia eta ekintzak nerabeen eguneroko eremuetara eta euren berriarazko ezaugarrietara egokitzeko gai izango da.

### PERTSONA GAZTEEKIKO KONPROMISOA

#### 3. EKIMENA: **Gazteen lana eta ekite-gaitasuna bultzatzea**

- Beken egitarau bat garatuko dugu gazteen lehenengo lan esperientzia bideratze aldera.
- Prestakuntzako eta praktiketako berriarazko egitarauak bultzatuko ditugu, Euskadiko enpresa-sarearekin lankide jardunik.
- Kualifikazio eskasa daukaten gazteentzat berriarazko trebakuntza egitaraua ezarriko dugu, euskal enpresa sarearen beharizanak xede izango dituen, laneratze azkarra bideratu ahal izateko.

- Lanbide egokitzapeneko eta lanerako birziklapeneko egitaraua abian jarriko dugu, langabezia dauden pertsona gazteak euskal enpresek eskatzen dituzten kualifikazioetara hurbiltzeko.
- Langabezia duela 18 hilabete baino gehiagotik dauden pertsona gazte guztientzat trebakuntzako eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak landuko ditugu.
- Gazteriaren nazioarteko esperientzia indartzeko egitarau berezi baterako pizgarriak emango ditugu, hizkuntzen jakintzarako, atzerriko trebakuntzarako eta atzerriko esperientzia praktikorako laguntza planekin.

---

#### 4. EKIMENA: **Gazteen talentua sustatzea.**

---

- Bikaintasun eta graduondoko beken egitarau berezia goi mailako batxilergo zikloetan eta unibertsitatean gehien nabarmendu diren pertsona gazteentzat.
- Goi mailako Lanbide Heziketa zikloetan gehien nabarmendu diren ikasleentzako laguntzen plana, izen handiko ikastetxeetan trebakuntza sakontzeko eta atzerriko praktikak bideratzeko.
- Talentua sustatzeko jarduerak bultzatzea sormen, berrikuntza, ikerkuntza, kultura, etab. industriren testuinguru berriaren barruan.

---

#### 5. EKIMENA: **Laneratzeko lan-kontratuak bultzatzea.**

---

- Diru-laguntzen eta zerga-pizgarrien inguruko egitaraua, pertsona gazteen praktiketako kontratazioa eta trebakuntzako kontratuak sustatze aldera.
- Gizarteratzeko eragozpen bereziak dauzkaten pertsonen laguntzeko egitarauetan pertsona gazteen diskriminazio positiboa egitea.
- Erakundeei edu/eta enpresei laneratzeko lan-kontratuak sortu eta sustatzeko ematen zaizkien laguntzen eta diru-laguntzen gaineko egitarauetan pertsona gazteen parte-harztearen eta emaitzen jarraipena egitea: kontratuen kopurua, mota eta iraupena urtero ebaluatzea, emaitzak aztertzea,...

---

#### 6. EKIMENA: **Unibertsitateko gazteen lan-esperientzia bideratzea**

---

- Ikasketak eta lanak egiteko Unibertsitatearen eta Administrazioen artean hitzarmenak abian jar daitezela sustatuko dugu, gazterientzat lan-esperientziarako iturria diren aldetik.

---

#### 7. EKIMENA: **Gazteen ekite-gaitasuneko plana Foru Aldundiekin eta Udalekin lankide jardunik**

---

- Sustatzaile gazteentzako enpresa-trebakuntzako doako ikastaroen egitaraua.
- 35 urtetik beherako pertsona gazteek sustatzen dituzten enpresa berrien gastuetarako eta bideragarritasun-azterlanetarako diru-laguntza.
- Enpresa eta negozio berriak abian jartzeko inbertsioak egiteko abalen eta mikrokredituen arloko egitaraua.
- Kooperatibak eta ekonomia sozialeko enpresak abian jartzen dituzten pertsona gazteei laguntzeko plan berezia.
- Sustatzaile gazteek Aldundi eta Udalekin lankidetzan bultzatutako enpresen inkubagailuak sortzeko erraztasunak ematea.
- Sormenarekin zerikusia daukaten industriak garatzeko egitarau berezia: moda, diseinua, ikus-entzunezkoak eta bideojokoak.
- "Arrisku-kapital gaztea" izeneko funts berezia, 10 milioi euroz hornitua 35 urtetik beherako pertsona gazteek garatzen dituzten proiektu eta enpresetarako.

---

**8. EKIMENA: Ekintzaile gazteentzako leihatila bakarra**

---

- Laguntza, diru-laguntza eta azpiegiturei buruzko leihatila bakarra abian jartzea, ekintzaile gazteen eskura.

---

**9. EKIMENA: Gazteek etxebizitza eskuratzeko aurrez aurreko plana.**

---

- Legegintzaldiko aurrez-aurreko plana garatzea, Foru Aldundiekin eta Udalekin batera, familia-zamak dauzkaten 35 urterik beherako pertsonen taldeei etxebizitza sozialak eskuratzeko erraztasunak emate aldera. Bankuen finantzazioa errazago eskuratzeko berme publikoen arloko egitarau osagarria.

---

**10. EKIMENA: Gazteentzako alokairu-kontratuak bideratzeko neurriak.**

---

- Errentatzaileari pizgarriak emateko neurrien plana: Alokairuaren berme-funtsa.
- Gazteen emantzipaziorako pizgarriak emateko neurrien plana, bereziki langabezia dauden edo hilean 1.000 euro garbitik beherako soldata daukaten 21 eta 30 urte bitarteko pertsona gazteentzat.
- Beste herri batzuetan arrakastatsuak izan diren esperientziak sustatzea: alokairu sozial partekatua eta etxebizitza sozialen erosteko eskubide eta guztiko alokairua.
- Gazteen emantzipaziorako ibilbideak abian jartzea: bai erabilera partekatuko alokairua, bai alokairu soziala, erosteko eskubide eta guztiko alokairua, eta etxebizitzaren erosketak.

---

**11. EKIMENA: Etxebizitza hutsak merkaturatzeko pizgarrien alorreko egitaraua.**

---

- Etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko eta alokairurako erabiltzeko plan berezia: Alokairuko diru-sarreraren zerga-arinketa errentariarentzat, 35 urtetik beherako pertsona gazteei zuzendua.

## 2. KONPROMISOA.

### OSASUNA ETA BIZI-OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEA.

---

**12. EKIMENA: Gazteen Osasunerako jarduera-egitarau orokorra.**

---

- Gazteei bereziki eragiten dieten arazoaren prebentzioa, informazioa, sentsibilizazioa eta tratamendua: elikaduraren arloko arazoak; buruko arazoak: (depresioa); sexu-transmisiozko arazoak; nahi gabeko haurduntzak; trafiko-istripuak izateko aukerak; mendekotasunak (drogak eta alkohola).

---

**13. EKIMENA: Biztanleria gaztearentzako Jarduera Soziosanitarioaren arloko Plana.**

---

- Osasun zerbitzuak gazteriari egokitzea. Gazteentzako jarduera soziosanitarioaren alorreko egitarau orokorra.
- Jarduerako eta informazioko planak garatzea, ikastetxeekin eta guraso elkarteekin lankide jardunik.

---

**14. EKIMENA: Bizi-ohitura osasungarriak sustatzea**

---

- Kontsumo arduratsua sustatzeko egitaraua.
- Gazteen kirol plana, Aldundiekin eta Udalekin lankide jardunik.
- Kirol aktiboa gazteen artean gizarte harremanetarako eta bizimodu osasungarriko tresna gisa berreskuratzea.

### 3. KONPROMISOA. GAZTEEN MUGIKORTASUNA BULTZATZEA.

---

#### 15. EKIMENA: Barneko mugikortasuna indartzea.

---

- Garraio publikoko txartel bakarra.
- Garraio publikorako diru-laguntzen egitaraua langabezia dauden pertsona gazteen-tzat.
- Unibertsitateko garraioa finantzatzeko laguntza-neurriak.

---

#### 16. EKIMENA: Kanpoko eta nazioarteko mugikortasuna sustatzea

---

- Ekimenen egitarau zabala abiaraztea pertsona gazteak nazioartekotzeko, hainbat proiekturen inguruan: eskolakoak, kulturalak, akademikoak, kirol arlokoak, zientifikoak, elkartegintzakoak, solidarioak, hizkuntza arlokoak, teknologikoak... Euskaditik mundura eta mundutik Euskadira, gure nortasuna sakonduz, transmitituz eta aberastuz.
- Europar herritartasuna bultzatzeko egitaraua dinamizatzea trebakuntzako, sentsibilizazio-ko, elkartrukeko, eta abarreko askotariko ekintzekin.
- Nazioarteko berrikuntza eta erreferentzia eremuak kokatzea, eta nerabe, gazte eta eragileek eremu horiekin daukaten elkarreagina sustatzea.
- Kultura arloko lankidetzako proiektu eta prozesuak sustatzea Euskadiko, Europako nahiz mundu osoko hezkuntza, kultur, ekonomia, eta abarreko zentroen eta eremuen artean.
- Egoera geopolitiko ezberdinetako haur, nerabe eta gazteak Euskadira hurbiltzea, Euskadiko biztanleria gaztearen ikuspegia aberaste aldera.

### 4. KONPROMISOA. PARTE-HARTZEA ETA ELKARTASUNA BULTZATZEA.

- Gazteriarekin nahiz haur, nerabe eta gazteen politiketan esku hartzen duten eragileekin elkarriketarako bideak irekitzearen alde lan egingo dugu, ENTZUTE AKTIBOA ("ENTZUN+EKIN") sustatzeko. Helburua, gazteriaren arloan etengabeko ebaluaziopean egongo den kudeaketako sistema ezartzea da.

---

#### 17. EKIMENA: Gazteen partaidetzako bideak indartzea.

---

- Gazteen protagonismoa **Gaztegin** lantzeko.
- Gazteen erakundeen gaur egungo ordezkaritza-egiturentzat oinarri sendoak jartzea (CJE-EGK).
- Gazteria arloan esku hartzen duten sektore eta eragileek Gaztegin lantzen parte har dezatela lortzea.
- Parte-hartze eta informaziorako bideak sendotzea sare sozialen bitartez. Aintzatespena eta parte-hartzerako bideak pertsona "gazte elkartu gabeentzat"
- Euskadiko gazteria-politika-tako gobernantza parte-hartzailearen ereduaren ardatzak berri, ezarri eta sendotzea.
- Haur, nerabe eta gazteen parte-hartze herritarra bideratuko duten mota askotariko esperientzia berritzaileak sorraraztea.

- Parte-hartze arloko sustapen eta hezkuntza egitarauak garatzea EAEko ikastetxe eta udalerrietan. Elkartegintzako, boluntariotzako eta gazteen parte-hartzeko modu berriak indartuz.
- Tokiko eremuan parte-hartzeko egitura, eremu eta aukerak eta erantzukidetasuna sorra-raztea neska-mutil eta nerabeentzat eta pertsona gazteentzat.

---

#### 18. EKIMENA: **Gazte elkartasuneko egitarauak sustatzea.**

---

- Gazte boluntariotzako egitarauak bideratu eta bultzatzea.
- Pertsonarik behartsuenekin belaunaldi arteko eta lurralde arteko elkartasuna sustatzea.

### 5. KONPROMISOA.

#### **KONPROMISOA “EUSKADI – EUROPA – PLANET IDENTITATEA” MARKAREKIN.**

- Elkarri eragiten dioten, elkarren artean lehian aritzen diren edo elkar osatzen duten errealitate kultural, sozial eta ekonomikoetara irekita dagoen mundu batean bizi gara. Testuinguru hau aproposa da gauza hurbilak eta propioak balio gisa, nortasun marka gisa aldarrikatzeko. Kontua mundura ateratzea da, esperimintatzea, arakatzea, ikastea eta lortutako jakintza aplikatzea, gure aukerak hobetzeko helburuarekin. Testuinguru honetan, estilo propioa, euskal estiloa, munduaren aurrean agertzen dugun aurkezpen gutun gisa geure balioak ardatz hartzen dituen, bistaratzea merezi duen balioa da.

---

#### 19. EKIMENA: **Kultur garapen eta elkartrukea bultzatzea.**

---

- Sare sozialak sustatzea sormen, ekoizpen eta kontsumorako plataformak diren aldetik, oro har kulturarako, eta bereziki euskarazko kulturarako.
- Hezkuntza eta Kultura Sailekin nahiz unibertsitateekin lankide jardunik, beste herri batzuetako pertsona gazteekin –bereziki Europako gazteekin– kulturaren arloko elkartrukeko egitarauak sustatzea.

---

#### 20. EKIMENA: **Balioetan oinarritutako Hezkuntzako berariazko modulu eta planak bultzatzea**

---

- Hezkuntza Sailarekin eta ikastetxeekin lankidetzan hezkuntza moduluak garatzea, ondoko hauek sustatze aldera:
  - Konpromisoa.
  - Genero-eskubideen berdintasuna.
  - Gutxiengoaren errespetua.
  - Tolerantzia.
  - Elkartasuna eta boluntariotza
  - Kontsumo arduratsua.
  - Ingurumenaren errespetu ekologikoa.
  - Gazteen indarkeriaren prebentzioa.
  - Familia, garapen pertsonal zein sozialerako eremu gisa.



## 6. KONPROMISOA. GAZTERIA-POLITIKEN ZUZENDARITZA ESTRATEGIKOA, GOBERNANTZA ONAREN BERARIAZKO GUNE GISA.

### 21. EKIMENA: Gazteria-politiken zuzendaritza estrategikoa / Haur, Nerabe eta Gazteei buruzko Euskadi Estrategia

- Zuzendaritzak honako zeregin hauek hartuko ditu bere gain:
  - Haur, nerabe eta gazteei buruzko politika eta sistemen oinarritzko elementuak zein diren adostea eragile politiko, sozial, akademiko, etab. nagusiekin, politika eta sistema horien egonkortasun eta iraunkortasuna bermatzeko.
  - Haur, nerabe eta gazteen 2012-2030 aldiko estrategia sortzea. Estrategia honek politika horien xede, eduki, gako eta formak identifikatzen dituzten erreferentzien multzoa bistaratuko du.
  - Haur, nerabe eta gazteei buruzko euskal politikak planifikatu, antolatu, administratu, kudeatu, gainbegiratu eta ebaluatzeko sistema-eredu berritzailea diseinatu eta garatzea, erabilgarri dauden baliabide ekonomiko eta materialak modu eragingarrian administratzeko.
  - Ikerkuntzarako, gazteria-politiken etengabeko erkaketarako eta gazteria arloko eragileen trebakuntzarako dauden egitura eta baliabideak sendotzea.
  - Gazteen informaziorako euskal sistemaren birmoldaketa bultzatzea, gazteen erreferentziarako eremu gisa, gazteria-politiken dinamizazio, sustapen, koordinazio eta bultzadarako.



## KULTURAREN ETA GAZTERIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUEN EUSKADI

EUSKAL KULTURA IREKIA  
ETA PLURALA

GAZTERIAREN ALDEKO  
GURE APUSTUA

KIROLA, JARDUERA  
FISIKOA ETA GARAPEN  
PERTSONALA

### PRINTZIOAK:

- Kirola gizarte aurreratuenen adierazpen esanguratsuenetarikoa da. Estrategikoa da gizartearen garapen harmonikoan; eginkizun garrantzitsua dauka hezkuntza, ekonomia, aisia eta turismoaren esparruetan, herrien nortasunean, osasunean eta bizitza kalitatean dituen ondorio onuragarriak ahaztu barik.
- Kirola eta bere adierazpen desberdinak etengabeko bilakaeran dauden fenomenoak dira eta erakunde publikoek egokitu beharra daukate kirolak dituen ahal ugarietatik etekin handiena lortu ahal izateko. EAJ-PNVk badaki kirolean eta ekintza fisikoetan burututako inbertsio guztiek gizabanakoentzako zein gizarte osoarentzako onurak eragiten dituztela modu esponentzian.
- Euskadik kirolaren esparruan errealitate aurreratua dauka. Jarduera indize altuak, emaitza nabariak, kirol eragileen inplikazio eta partaidetza handia... duen Herrian bizi gara. Hala eta guztiz ere, hobetzeko aukerarik ez da falta: kolektibo behartsuenen artean jarduera tasak igotzea, kirol eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea, emakumeen artean kirolaren kultura sustatzea edota kirol jardueretan euskararen erabilera bultzatzea erronketako batzuk dira.
- Euskadik ez dauka hiru lurralde historikoentzako kirol oinarri komunik. Bereziki nabarmena da hau Eskola Kirolaren programetan edo errendimenduko eta errendimendu handiko kirolari eskainitako babesean. EAJ-PNVk uste du lurraldeen arteko eta erakundeen arteko koordinazio eta kooperazioa kirol politiken iraunkortasuna hobetzeko eta optimizatzeko aukerak direla.
- Horrez gain, beharrezkoa da indarrean dauden legeak egokitzea, egiturak errealitate emergente berrietara egokitzea eta jada daukagun kirol egitura sendotu eta finkatzea. Hortaz, kalitatea, bikaintasuna eta aukerak eskaini ahal izango ditugu, kirolaren bitartez sustatu ditugun euskal sustraiak, balioak eta nortasunaren ezaugarriak ahaztu barik.
- Kirolak, bere modalitate desberdinetan, arreta eman behar zaien hainbat aukera eskaintzen ditu:
  - atsegin hartzeko kirola edo jarduera fisiko erregularra; prebentzioaren edo errehabilitazioaren esparruan, edo ongizatera bideratuta, biderik onena dira osasuna hobetzeko eta ohitura osungarriak mantentzeko, degenerazio hipozinetikoaren (sedentarismoa) kontra borrokatzeko eta, azken batez, bizi-kalitatea hobetzeko.

- Lehiaketa kirolak norberak zein taldeak bere burua gainditzeko balioak, ahalegin balioak, hobekuntza eta berrikuntza balioak lantzeko aukera ematen du. Esparru honek aldi berean konplexua eta aberatsa den egitura dauka. Klubak, federazioak eta irabazi asmorik gabeko kirol erakundeak aintzat hartu eta indartu beharreko funtsezko oinarriak dira, horren beharrezkoa den eta bestalde gutxi aintzatetsita eta baloratuta dagoen lana egiten jarrai dezaten.
- Kirol arloan gizarteak daukan eskaria etengabe ari da eboluzionatzen: exigentzia mailara heltzen da eta modalitateak zein kirola praktikatzeko moduak dibertsifikatuz doaz. EAJ-PNVn uste dugu honek guztiak kirol eskaintzaren planifikazio dinamikoagoa eta irekiagoa eskatzen duela, kirol jarduera ulertzeko modu desberdinetara egokituko dena eta errespetu gehiago izango duena herritarren beharriari erantzuneko dien zerbitzuaren kalitatearekiko.
- Kirola, osasunari lotzeaz gain, hezkuntza balioekin uztartzen da (elkartasuna, ahalegina, errespetua...) eta gizartearen kohesioa sustatzen du. Kirolaren bitartez, asoziazionismoa eta borondatezko lana garatzen da eta aberastasuna sortzen da. Kirolaren garrantzi ekonomikoa handituz doa, Euskadiko BPGd-aren % 2 baino gehiago izatera helduz.
- Euskal kirolak, bere emaitza garrantzitsuei esker, Euskadiren irudia eta bere kultura islatzen du nazioartean eta gure nortasuna munduaren begien aurrean agertzea ahalbidetzen du. Hobetzeko grina, borondatea, ilusioa eta zenbaitetan arrakasta adierazten dituzten kirolari ugariak kultura proiektatzen dute bere zentzu errealean. Pertsona horiek gogorarazten digute ahaleginak eta hobetzeko grinak garrantzi handia dutela, kanpoko helburuen gainetik.
- EAJ-PNVk jarraitu egingo du euskal kirol-selektzio nazionalen ofizialtasuna defendatzen eta Espainiako estatuari selektzio horien ofizialtasuna aitortzea eskatzen, Euskadik tresna horiek baliatuko baititu errespetua eta nazioarteko proiektzioa lortzeko. Eskaera hori bateragarria da konstituzioak aldarrikatzen duen estatu plurinazionalarekin, selektzio nazional desberdinen existentzia onartzen duten Europako beste estatu batzuetan normaltasun demokratiko osoz gertatzen den bezala.
- Kirolaren proiektzioak paper garrantzitsua izaten jarraitu ahal du eta jarraitu behar du Euskadiren suspertze ekonomikoan. Kirol esparruan inbertitutako euro bakoitza gizartera itzultzen da esponentzialki, eta horrez gain, aberastasuna sortzen du.
- EAJ-PNVren helburua kirola praktikatzeari era naturalean lotutako balioak hedatzea eta sozializatzea da eta hori egin nahi du eskuragarri dauden baliabideak arrazionalizatuz eta, aldi berean, iraunkorrak eta kalitatezkoak diren kirol azpiegitura eta ekipamenduak bermatuz.

**1. KONPROMISOA.****KALITATEZKO EUSKAL KIROL-SISTEMA BULTZATZEA, EREDU OREKATU ETA MODERNOA GARATUZ ETA KOORDINAZIOTIK ZEIN BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOTIK ABIATUZ.****1. EKIMENA: Eragile desberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea.**

- Adostasunetatik abiatuz, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea. Bikoiztasunak saihestu nahi ditugu eta kirol plangintza hobetu nahi dugu, erakunde esparru bakoitzaren eskumenen markoa errespetatuz eta kirol eragileen inplikazioa bultzatuz.
- Erantzukizunak berrantolatzea eta lankidetzaren publiko-pribatua.
- Eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazio mekanismoak definitzea. Kirol politiken ebaluazioa, diagnostiko partekatuen eta adierazleen adostasunaren bitartez.

**2. EKIMENA: Kirolaren marko juridikoa eta antolaketa markoa eguneratzea.**

- Legeak errealitate berrira eta euskal kirolaren eskarierara egokitzea.
- Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea eguneratzea, egokitua izan dadin.
- Legegintza artikuluen estatutu eta arautegi garapena.
- Kirol eremuko lanbideak arautuko dituen Legea garatzea.

**3. EKIMENA: Euskal Batzorde Olinpiarra eragitea.**

- Joko Olinpiarrak helburu, euskal kirolarien prestakuntza, partaidetza eta ordezkariak sustatzea eginkizun nagusi duen Euskal Batzorde Olinpiarraren sorrera bultzatzea.

**4. EKIMENA: Euskal kirol sisteman kalitatea sustatzea.**

- Kirol azpiegituren plana lantzea, EAEko ekipamenduen eroldan oinarrituz.
- Kirol eragileen Gaikuntza Plana sustatzea.
- Kirol prestakuntza bultzatuz, Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez.
- Kirol titulu berriak garatuz, euskal unibertsitateekin lankidetzan.
- Kalitatea sustatzea, kirol kudeaketako esparru guztietako balio gisa.
- Baliabide publiko-pribatuen arrazionalizazioa eta erabilera efizientea kirol ekipamenduen plangintzan.

**2. KONPROMISOA.****PERTSONA GUZTIENTZAKO KIROLARI LAGUNTZEA, MAILA GUZTIAN.****5. EKIMENA: Eskola Kirolaren eredia sustatzea, arreta haurren jarriz.**

- Oinarrizko eskola kirolaren garapenari laguntzea, foru aldundiekin elkarlanean. Euskadiko Eskola Jokoak sustatzea.
- Euskadirako eskola kirolaren proiektua inplementatzea.
- Errendimendu handiko Euskadiko Eskola Txapelketak antolatzea.
- Eskola kiroleko programen diseinu, plangintza eta garapenean parte hartzen duten begirale eta eragileen prestakuntza eta trebakuntza sustatzea.

**6. EKIMENA: Kirol egokitua euskal kirol sisteman integratzen laguntzeko neurri berriak sustatzea.**

- Desgaitasunen bat duten pertsonen kirol jarduerako eta jarduera fisikoko esparru guztietarako sarbidea bermatzea.
- Kirol egokituaren plana garatu eta abian jartzea, horrela, desgaitasunen bat duten pertsona guztiek, nahi badute, jarduera fisikoa egin ahal izateko; aldi berean, plan horrek lana erraztuko die kirol egokitua antolatzen eta kudeatzen duten klubei eta federazioei.
- Euskadi kirol egokituaren erreferente gisa kokatzea, nazioarteko ekitaldi eta lehiaketak antolatuta, balioen sozializazio eta sentsibilizazio tresna moduan.

---

**7. EKIMENA: Kirol kultura sustatzea, pertsonen bizitzaren aldi desberdinetan bizimodu osasungarriak garatzeko tresna gisa.**

---

- Zahartze aktiboko programak bultzatzea, kirol praktikaren bitartez.
- Jolas eta kirol ekitaldiak antolatzea, batez ere integrazio, egokitze edo drogamendekotasun arazoak dituzten pertsona gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza osasungarri gisa.

---

**8. EKIMENA: Unibertsitateko kirola eta kirol federazioak sustatzea.**

---

- Unibertsitateko kirola indartzea, euskal unibertsitateekin elkarlanean.
- Euskal federazioen programei laguntzea eta kirol federazioen barneko eta kirol federazioen arteko hitzarmenak sustatzea.
- Kirol modalitate guztietan Euskal Ligen antolaketa bultzatzea, euskal federazioen bitartez.
- Administrazioaren aurrean euskal federazioen ordezkari indartzea, Euskal Kirol Federazioen Batasuna modu aktiboago batean erabiliz baliabideak optimizatzeko eta arlo hauetan ordezkari bateratua izateko: dopina, arbitrajea, diru laguntzen kudeaketa, euskal selekzioak, prestakuntza eta abar.

---

**9. EKIMENA: Errendimendu handiko eta eliteko kirolari emandako laguntza hobetzea.**

---

- Goi mailako euskal kirola eta *Euskadi Kirola Fundazioa* sustatzea, hurrengo Joko Olinpiarretan parte hartuko dutenen kopurua eta domina zein diplomen eskuratzea areagotzeko helburuarekin.
- Nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol klubei laguntza emateko programa zehatza garatzea.
- Entrenamenduari eta lehiaketari dedikazio nahikoa eskaintzen diotela bermatzen duten goi mailako entrenatzaile eta kirolariei beka ematea.

### 3. KONPROMISOA.

## KIROLA SUSTATzea, GIZARTE KOHESIORAKO ETA PARTE HARTZEKO ELEMENTU GISA.

---

**10. EKIMENA: Kirola sustatzea, bere balio tradizionalen defentsatik abiatuz: hezkuntza, berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, elkartasuna, indarkeriarik eza.**

---

- Kirolaren bitartez, balioen ikaskuntza eta gizarte praktika sustatzea.
- Jarduera fisikoa bultzatzea, Osasun eta Hezkuntza sailekin batera.
- Estamentu guztietatik kirol eragileen prestakuntza bultzatzea, kalitatezkoa eta etikoa den eta printzipioz zein balioz beteta dagoen kirola bermatzeko.

---

**11. EKIMENA: Kirol praktika osasungarria sustatzea eta dopinaren aurkako borroka indartzea.**

---

- Osasun, hezkuntza eta kirol esparruen arteko lankidetzak bultzatzea, programa integralen eta kirol programen bitartez, osasunerako eta segurtasunerako arriskuak txikiagotzeko.
- Kirola modu osasungarrian praktika dadila sustatzea, gehiegizko nekea eragiten duten praktikak osasunari egiten dizkieten erasoak mugatuta, gaitasun medikoko kontrolak eskatuta eta osasuna kalte dezaketen substantziak kontrolatuta.
- Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia garatzea nazioarteko sistemaren irizpideei jarraiki (Dopinaren Aurkako Munduko Agentzia); horrez gain, kirol autoktonoentzako (herri kirolak) arautegi espezifikoa egingo da.

---

**12. EKIMENA: Kirolean generoen arteko berdintasuna bermatzea.**

---

- Emakumeek egindakoa eta emakumeei zuzendutakoa izango den plana lantzea, jarduera fisikoa areagotzera bideratuta; batez ere kirola alde batera utzi ohi den adinean jarriko da arreta (nerabezaroa-nerabezaroa).

- Emakumeen kirola positiboki diskriminatzea, bai hasierako mailetan baita errendimendu mailetan ere.
- Kirolaren barnean, emakumeak erantzukizun eginkizunetara eta erabakiak hartzeko esparruetara sartzeko neurriak hartzea.
- Emakumei kirol jarduerara sartzeko aukera gehiago eta aukera hobek eskaintzea. Horretarako:
  - Ikerketa sustatuko dugu, emakumeek kirol modalitate desberdinak egin ditzaten.
  - Emakumeak kirol-estamentuetako erabaki-organoetara heltzeko neurriak sustatuko ditugu.
  - Euren jarduera emakumezkoen lehiaketetan garatzen duten elitako klubak eta taldeak babestuko ditugu.

---

### 13. EKIMENA: Kirolaren praktika sustatzea, gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen eta kolektiboen kohesio eta integrazio elementu gisa.

---

- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten adingabeak kirolaren bitartez integratzera bideratutako programa bereziak abian jartzea.
- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten kolektiboak kirol eta kultura ekintzen bitartez gizarferatzea bultzatzea.

## 4. KONPROMISOA.

### EUSKAL KIROLA BULTZATZEA, GURE KULTURA ETA GURE BALIOAK KANPORA PROIEKTATZEKO TRESNA GISA.

---

#### 14. EKIMENA: Euskal kirolariei emandako laguntza areagotzea.

---

- Euskal selekzioak babestea, kirol modalitate guztietan.
- Nazioarteko kirol ekitaldietan parte hartzen duten taldeak eta kirolariak babestea.

---

#### 15. EKIMENA: Euskal kirol autoktonoa bultzatzea, horren alde ludikoa, lehiakorra eta kulturala sustatuta.

---

- Kirol autoktonoa sustatzea, kanpora proiektatzeko eta euskal kultura nortasuna finkatzeko elementu gisa, Arraun, Euskal Pilota eta Herri Kirolen plan estrategikoak garatuta.
- Goi mailako kirol ekitaldi ugari egiteko neurriak hartzea: Euskal Herriko Itzulia, Donostia-Donostia Klasikoa, Euskadiko Ziklo Kros Sari Nagusia, Mundakako Surfa, Zegama-Aizkorri, Eskaladako Rock Masterra, Aulki Mugikorreko Orioko Jaitsiera, Hipikako Sari Nagusia, lasterketak Lasarteko hipodromoan, etab.
- Kirola Euskaraz:
  - Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan kirola praktikatzeko kirolariek duten eskubi-dea babestea.
  - Euskadin garatzen diren kirol ekitaldien emankizunetan euskararen erabilera bultzatzea.

---

#### 16. EKIMENA: Euskal selekzio nazionalen ofizialtasuna aitortzea eskatzea.

---

- EAJ-PNV izan da euskal kirol-selekzio nazionalen aitorten ofizialaren aldeko lege proposamena Diputatuen Kongresuan aurkeztu duen lehen alderdia. Defentsa hori legegintza-ekimen desberdinen bitartez egin da askotan, eta, berriki, 2012ko apirilko Kongresuaren osoko bilkuran eztabaidatu den Kirolaren Legea aldatzeko lege-proposamena aurkeztuta.
- EAJ-PNVn, euskal gizartearen aldarrikapen horri sendo eutsiko diogu eta aldarrikapen hori bere egiten duten euskal alderdi, erakunde eta elkarte guztiei dei egiten diegu gure indarrak batu ditzagun, desberdintasun politikoak alde batera utzita, Espainiako estatuak gure eskaera demokratiko hau onar dezan.







EUSKADI BERPIZTU

# EUSKARAREKIN KONPROMETITURIK DAGOEN EUSKADI

---

27. ELKARREKIN BIZITZEKO HIZKUNTZA-POLITIKA







## EUSKARAREKIN ETA HIZKUNTZA- BIZIKIDETZAREKIN KONPROMETITURIK DAGOEN EUSKADI

BIZIKIDETZARAKO  
ETA KOHESIO SOZIALERAKO  
HIZKUNTZA-POLITIKA

### PRINTZIPIOAK:

- Euskara, hizkuntza guztiak bezalaxe, identitate-faktorea eta komunikabidea da aldi berean. Euskal gizartea etengabe ari da erakusten euskararekiko atxikimendua eta borondatea. Euskara bizirik eta indartsu nahi du euskal gizarteak, eta euskal herritar askok eta askok euskaraz bizitzeko aukera izan nahi dute. Horregatik, hizkuntzak elkarbizitza sozialaren eraikuntzarako faktore garrantzitsua dira guztiak.
- Elkarbizitza dugu helburu. Ez edonolako elkarbizitza, ordea. Elkarbizitza ahalik eta armoniatuena. Horregatik, hain zuzen ere, hizkuntzen arteko elkarbizitza aukera-berdintasunean oinarritu nahi dugu, herritarrek hizkuntza-aukera benetakoak eta ahalik eta berdinkideenak izan ditzaten. Eta horregatik alboratzen ditugu jarrera baztertzailak edo eskluinteak eta jarrera homogeneizatzaileak edo hegemonistak. Euskal gizartearen aniztasunean sinesten dugulako eta Euskal Herria aniztasunean eraiki nahi dugulako.
- Gaur egun, euskara urrun dago erabateko normalizazio-egoeratik, urrun dago gaztelaniarekiko berdintasun soziala izatetik. Egoera desorekatu horretan, bada, bi hizkuntzen berdinkidetasun sozialera gertatzeko hizkuntza-politika bultzatuko dugu, euskararentzako hizkuntza-politika sustatzailea eta eraginkorra, helburutzat desoreka sozial hori berdintzea izango duena eta gure gizartean euskara gaztelaniaren parean jartzera joko duena. Eta jakina, gizartearen eskutik eta herritarren borondateari kasu eginez gauzatuko dugu hizkuntza-politika, gizarteak halatsu izatea nahi duela erakutsi digulako.
- Izan ere, euskarak hazkunde-ibilbide nabari bat urratu du, oro har, azken 30 urteetan. Euskadiko Autonomia Erkidegoan hazkunde oso nabarmena izan du (munduan zehar beste hizkuntza batzuetarako ere du izaten ari dena). Hazkundera, baina motelagoa eta desorekatuagoa Nafarroan. Eta atzerakada Iparraldean. Argi-ilunak gorabehera, oro har, euskararen ezagutza arrunt hazi da herritarren artean (batez ere belaunaldi gazteenen artean), eta sekula izan ez dituen erabilera-esparruetara zabaldu da euskara mende-muga inguru honetan.
- Ibilbide horrek argi erakusten du zein diren hizkuntzaren bilakaera positiboan eragiten duten faktoreak: lege-babes egokia, hizkuntza politika eragingarria, baliabideak eta herritarren borondatea eta atxikimendua. Faktore horien pisua nolakoa, euskara biziberritzearen

emaitzak halakoak. Faktore horiek ongi uztartu izanari zor diogu azken hiru hamarkada hauetan elebitasunak EAEn izan duen aurrerabide nabaria. Faktore horien desorekak, mugak eta gabeziak azaltzen dute, halaber, euskarak Nafarroan izandako biziberritze motelagoa eta Iparraldean izan duen atzerakada.

- Beraz, etorkizunari begira, EAJ-PNVk berresten du buru-belarri jarraituko duela euskarari lege-babes egokia ematen eta hizkuntza-politika proaktiboa bultzatzen, euskararen aldeko adostasun politikoa eta soziala oinarri hartuz eta berrituz. Gure egoera soziolinguistikoak, izan ere, ez du zilegi egiten herri erakunde nagusian atzerapausorik izatea. Benetakoak izan behar dute bi hizkuntza ofizialak -bata nahiz bestea- erabiltzeko aukera-berdintasunak eta askatasunak. Horrexegatik, hizkuntza politikaren helburua izan behar da euskararen erabilerarako aukerak ahalbidetzea eta euskararen erabilera egiazki bermatzea, kontuan harturik euskara erabiltzeko aukera dela egunerokoan baliatzerakoan zailtasunak dituenak, zailtasun gaindiezinak gainera zenbaitetan.
- Hizkuntza-politika eraginkor horren ardatz Euskararen Aholku Batzordeak 2008-2009 urteetan landu eta adostutako Euskara 21 dokumentua izango da. Dokumentu hori erabat gure egiten dugu, euskalgintzaren esparruan hizkuntzaren inguruan adostasuna berritzeko eta indartzeko azken urteotan egin den ahaleginik behienena delako eta etorkizunerako ditugun erronka nagusiak ongi asko definituak dituelako. Adostasun horren oinarriak jartzeko eta hauspotzeko ahalegin handiak egin ditugu euskalgintzaren esparruko hainbat eta hainbat lagunek bezalaxe, eta, horrenbestez, uste dugu Euskara 21-ek izan behar duela hurrengo urteotako hizkuntza-politikaren bizkarrezurra.



- Azaldutako helburuarekin, hau da, euskara gure gizartean normaltasun osoz eta bete-betean garatu dadin, EAJ-PNVk KONPROMISO ETA EKIMEN hauek hartu ditu:

## 1. KONPROMISOA.

### **EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA BELAUNALDI BERRIETAN HANDITU DADIN BULTZATZEA, EUSKARAK HIZTUN BERRIAK IZAN DITZAN ETA ORAINGO HIZTUNAK BERMATU DAITEZEN.**

#### **1. EKIMENA: Euskararen ezagutza bultzatzea, euskaraz hitz egiten duen pertsona kopuruak gora egiten jarrai dezan.**

- Euskara ikasteko programa zehatzak, malguak eta norberaren neurrikoak bultzatzea (herritarren eta kolektiboen beharrietara egokituta, betiere).
- Helduen euskalduntzean ikas-sistemak azkartzeko metodologia, material eta bitartekoe-tan aurrera egitea.
- Helduen euskalduntze sistemarako sarbidea errazteko bitartekoak eta laguntzak indartzea.
- Helduen euskalduntze sistemaren finantzaketa egonkor baterako aukerak bultzatzea.
- Hizkuntzen ikaskuntzarako Europako Markoa euskararen errealitatera egokitzeko eta euskararen irakaskuntza markora egokitzeko urratsak egitea

#### **2. EKIMENA: Euskara gizarte-esparru ezberdinetan erabili dadin bultzatzea, eta batez ere gazteei lotuta dauden esparruetan.**

- Euskararen erabileraren aldeko giroa eta gizartearen onarpena etengabe elikatzea.
- Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.
- Euskara hezkuntzaren ingurune ele anitzekoan erabiltzeko estrategiak definitu eta abian jartzea.
- Ikastetxeen banako eta berariazko hizkuntza-proiektuak egin daitezen bultzatzea.
- Lanbide-heziketan euskarazko eskaintza handitzea.
- Graduondoko ikasketetan euskararen presentzia bermatzea.
- Lan-munduan euskara normalizatzeko planak zabaltzeko sustapena egiten jarraitzea.
- Hezkuntza munduaren eta lan-munduaren arteko zubiak eraikitzea, praktika- eta prestakuntza-programetan euskararen aukerak normalizatzeko eta bermatzeko.
- Enpresa eta erakundeen esparruan euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko kalitate-sistema indartzea. (Bikain - Euskararen Kalitate Ziurtagiria egiaztatzen duen enpresa eta establezimendu kopurua handitzea.
- Aisialdiko eta kirol arloko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzea.

#### **3. EKIMENA: Euskararen arnasmuneak sendotzea eta euskararentzako esparru funtzionalak sendotzea. Euskararen familia-transmisioa bermatzea, bereziki gaurko ume-gazte belaunaldi elebidunek euskara ere etxeko hizkuntza izan dezaten eta guraso euskaldun berriek ere etxean transmititu dezaten**

- Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.
- Euskara herritarren lehen hizkuntza eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea.
- Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.



- Sentsibilizazio-ekintza berriak bultzatzea euskararen belaunaldi batetik besterako transmisioa, hau da, gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa, bultzatzeko, bai bikote euskaldunen artean bai bikote mistoen (hizkuntza aldetik mistoak direnen) artean.

## 2. KONPROMISOA. EUSKAL HIZTUNEN ERKIDEGOA TRINKOTZEA, ERABILERA SARE PRESENTZIALAK NAHIZ BIRTUALAK HEDATUZ.

4. EKIMENA: **Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, erabilera sare presentzialak nahiz birtualak hedatuz. Euskal hiztun mota berrien beharrak aseko dituzten eskaintzak eta aukerak sendotzea - bereziki hiri handiei, familia euskaldunei, gazte eta haurrei begira- eta elebitasun pasiboa prestigiatzea eta sustatzea, euskara erabiltzeko aukerak areagotzearen eta herritarren hizkuntza-integrazioa handiagoa izan dadin ahalegintzeko.**

- Euskararen erabilera suspertzea aisiaren esparruan eta nerabeei interesatzen zaizkien esparruetan.
- Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman-hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez).
- Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea.
- Euskara erabiltzeko eta gizarteak euskararen erabilera hori onartzeko aldeko giroa finkatzen laguntzea, modu jarraitu eta progresiboan.

## 3. KONPROMISOA. EUSKARA ETORKINENTZAKO HIZKUNTZA ERAKARGARRI ETA BALIAGARRI EGITEKO BIDEAK SENDOTZEA, GIZARTERATZEKO BALIABIDE GISA DUEN BALIOA HANDITUZ ETA ELKARBIZITZARAKO ETA ELKAR-TRUKERAKO BITARTEKOA EGINEZ.

5. EKIMENA: **Euskara etorkinentzat hizkuntza erakargarria eta erabilgarria izateko bideak bultzatzea.**

- Ikasle etorkinak euskarara hurbilduko dituzten programak diseinatzea eta garatzea.
- Etorkin helduei berariaz zuzendutako programak, baliabideak eta materialak sartzea helduak euskalduntzeko sarearen barruan. Horrela, ikaskuntza prozesuak jarraipena izaten eta gizarteratzeko benetako espazioetan parte hartzen lagunduko da.
- Kultura eta ezagutzak trukatzeko bitartekoak ezartzea. Horretarako, hain zuzen, besteen kulturara eta hizkuntzara hurbiltzeko oinarriak eta joerak sendotuko dira.

## 4. KONPROMISOA. HARREMANETARAKO HIZKUNTZA-ESTANDARRAK MALGUTZEA ETA DIBERTSIFIKATZEA.

6. EKIMENA: **Euskaren corpusean izaten ari garen itzelezko aurrerabidean sakonduz, komunikaziorako hizkuntza-estandarrak malgutzea eta aniztea, euskararen adierazkortasuna eta bizitasuna aberastea, bereziki hiztun gazteen eta hiztun berrien beharrak ase ditzan.**

- Hezkuntza esparruko irakasleen konpetentzia komunikatiboak hobetzeko hasierako eta etengabeko prestakuntza eskaintzea
- Euskararen corpusa osatu, garatu eta berritzea, Euskaltzaindiarekin, unibertsitateekin eta erakunde espezializatuekiko lankidetzan

## 5. KONPROMISOA. **AURRERAPAUZO SENDOAK EMATEA HERRITARREN, ERABILTZAILEEN ETA KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BENETAN BERMATZEKO.**

### 7. EKIMENA: **Herritarren eta erabiltzaile nahiz kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen urrats sendoak egiten jarraitzea.**

- Euskararen erabilera bultzatzea eta bermatzea administrazioetan.
- Hizkuntza-eskakizunen sistema egokitzeko prozesua sendotzea, helburu honekin: euskararen ezagutza eta ohiko erabilera bermatzea zerbitzu publikoetan.
- Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek beren lanean euskararen erabilera era progresiboan handitzeko eta normalizatzeko bideak jartzea.
- Herritarrek administrazioekin dituzten harremanetan, ahozko nahiz idatzizkoetan, nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko aukera egiazki bermatzea.
- Herri Administrazioetako kargu publikoek euskararen erabileraren aldeko jarrera eragin-garria izan dezaten bultzatzea.
- Administrazioan euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea.
- Herritarren hizkuntza eskubideak egiazki bermatzearen, indar berezia egitea osasun arloan, Ertzaintzan eta epaitegietan ari direnen euskara gaitasuna handitzeko.
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko araudia garatzea, bai esparru publikoan baita pribatuan ere.

## 6. KONPROMISOA. **EUSKARAREN MUNDUAK ERAKARGARRI EGITEA ETA EUSKARAREN IRUDIA PRESTIGIATZEA.**

### 8. EKIMENA: **Diskurtso politikoan euskara aniztasunarekin, elkarbizitzarekin, gizarte-kohesioarekin, modernitatearekin, ondare komunarekin eta gizarte-bizitzarako baliabide praktikoa izatearekin lotzea eta horren aldeko pedagogia soziala egitea.**

- Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.
- "Euskara 21" delakoaren printzipioak eta jarraibideak garatzea.

### 9. EKIMENA: **Euskara ikastearen eta euskara erabiltzearen balioak prestigiatzeko sentiberatasun soziala etengabe lantzea**

- Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita biztanle-dentsitate ugaria duten guneetan ere.
- Hizkuntzarekiko sentiberatasuna etengabe elikatzea gizarte eragile nagusiekin (enpresarien elkargo, langileen sindikatu, alderdi politiko, elkarte eta abar).

### 10. EKIMENA: **Gazteen arteko harremanetan euskara hizkuntza erakargarritzat eta erabilgarritzat hartu dadin lortzea.**

- Euskaraz egiten diren gazteentzako aisia-egitarauak lehentasuna ematea. Euskara erabiltzeko benetako guneak sortu behar dira modu naturalean eta erakargarrian.
- Gazteen aisialdiko eta astialdiko jardueretan euskarazko produktuen, gertaeren eta zerbitzuen eskaintza areagotzea.





## 7. KONPROMISOA. EUSKARAZKO KULTURA-KONTSUMOA SUSTATZEA.

### 11. EKIMENA: euskarazko sorkuntza eta ekoizpena indartu eta aniztu, komunikazioaren eta hedabideen munduari lehentasunezko arreta jarritz.

- Euskarazko kultur eta arte sorkuntza bultzatzea.
- Euskarazko kultur ekoizpenen kontsumoa sustatzea.
- Euskarazko hedabide idatzietan, ikus-entzutekoetan eta sarekoetan presentzia izan dezan neurriak bultzatzea.
- Euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzea.
- Gazteei begirako bitartekoak eta ekoizpenak sustatzea.
- Euskarazko publizitate sorkuntza bultzatzea.
- Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea.
- Irrati eta toki-telebistei lizentziak emateko prozesuetarako hizkuntza irizpideak finkatzea lurreko uhinen bidezko tokiko telebista zerbitzua arautzen duen urriaren 3ko 190/2006 dekretuan xedatuaren ildotik.
- Ikus-entzunezko edukiak euskaraz bikoiztuko direla eta kalitatezkoak izango direla bermatzea.

## 8. KONPROMISOA. EUSKARA TEKNOLOGIA BERRIEN ETA SAREKO HEDABIDEEN HIZKUNTZA GISA IRABAZTEN ARI DEN ESPAZIOAK HANDITZEA ETA SENDOTZEA.

### 12. EKIMENA: Euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea on-line komunikabideetan

- INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea.
- Euskarazko tresnak (telefonoen softwarea, gizarte-sareetako tresneria, nabigatzaileak, askotariko hiztegiak...) sortu eta sustatzea.
- Komunikazioaren esparruan ahalik eta euskarri gehienetan euskararen presentzia areagotzea, euskara komunikazioaren mundu modernoan erabilia eta erreferentea izan dadin.
- Hedabide publikoen euskarazko eskaintza gaur eguneko euskal hiztun askotarikoen beharrezanetara egokitzea.
- Euskarazko komunikabideetan hasi berri diren berrikuntza-prozesuei laguntzea, haien bideragarritasuna bermatzeko.

### 13. EKIMENA: Euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea teknologia berrietan.

- Euskara zabaltzeko ekintzak gauzatzea, batez ere sare telematikoaren eta informazioari lotutako teknologia berrien bidez, gizarte-hedabideen bidez eta ikus-entzunezko baliabideen bidez.
- Euskarazko esparru teknologikoan duen agerpena areagotzea: Internet, sistema elkarrengile aurreratuak (telefonía mugikorra, ahots-teknologiak, euskarazko softwarea, e-inklusioa...).
- Euskararen erreferentzia-corpusa osatzea, itzultzaile automatikoetan aplikatzeko.
- Parte-hartzeko prozesuak eta foroak dinamizatzea euskarazko eduki gehiago sartzeko.
- Euskarazko komunikabideetan hasi berri diren berrikuntza-prozesuei laguntzea, haien bideragarritasuna bermatzeko.

## 9. KONPROMISOA. EUSKARA NAZIOARTEAN SUSTATZEA.

### 14. EKIMENA: Euskara nazioarteko eremu akademikoan ikasi dadin bultzatzea.

- Euskararen irakaskuntza, azterketa eta erabilera bultzatzea nazioarteko eremu akademikoan, irakurleen programen bidez (gaur egun Europako eta Ameriketako unibertsitateetan dauden irakurle postuak baino gehiago sortzea) eta ekimen berriak bultzatuz, hala nola: katedrak, espezializazio programak, mintegiak, graduondokoak, etab.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuko dituen euskararen ezagutza frogatzeko probak abian jartzea.

### 15. EKIMENA: Euskara nazioartean aitortua izan dadin bultzatzea

- "Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua" bultzatzea, euskal kulturarako eta euskararako interesa zabaltzen jarrai dezan euskararen eta euskal kulturaren sustapenaren, hedapenaren eta proiektioaren bidez.
- Euskal elkarten eta Euskal Etxeen bidez euskara eta euskal kultura kanpoan ezagutzeko eta zabaltzeko egiten den ahalegina berritzea.
- Euskararen eta euskal kulturaren gaineko ikerketa sustatzea, batez ere goi mailako unibertsitateetan eta erakundeetan. Horretarako, katedrak sortuko dira erreferentziazko unibertsitateetan.

## 10. KONPROMISOA. HIZKUNTZAREN INGURUAN AHALIK ETA ADOSTASUN SOZIALIK ZABALENA LANTZEA ETA ELIKATZEA, HIZKUNTZEN ELKARBIZITZA GIZARTEAREN BERAREN ELKARBIZITZAREN ETA KOHESIOAREN EZINBESTEKO OINARRITZAT HARTUZ.

### 16. EKIMENA: Bakoitzaren lurralde-eremua eta eskumenak erabat errespetatuz, euskararen gainerako lurraldeetako (Nafarroa eta Iparralde) herri aginteekin elkarlana adostea, elkarren hizkuntza dugun euskara sustatzeari begira.

- Euskararen hizkuntza-normalizazioa xedetzat hartuta, denon arteko harremana eta lankidetzaren hobetzea eta sendotzea.
- Lankidetzaren protokoloak ituntzea euskararen sustapena eta hizkuntzari lotutako ikerketa, dokumentazioa eta plangintza bezalako esparruetan.
- Euskara nazioartean bultzatzeko jardueretan (azokak, Europako hizkuntzen gaineko sareko foroak eta abar) lankidetzan aritu dadin bultzatzea.

### 17. EKIMENA: Euskararen aldeko eta hizkuntza-bizikidetzaren aldeko adostasuna etengabe garatzea gizarte eragile nagusiekin (enpresarien elkargoekin, sindikatuarekin, hedabideekin, alderdi politikoekin, askotariko elkarteekin, etab.).

- Enpresaburuen elkarteekin eta sindikatu nagusiekin elkarlanean aritzeko bideak ezartzea, eragile sozio-ekonomiko nagusiek euskararen sustapenean parte har dezaten.
- Sektore bakoitzean egindako jardun onak identifikatzea eta tartean dauden eragileekin lankidetzan aritzea, jardun horiek zabaltzeko eta ezartzeko, eta jarduteko eredu hori hedatzeko.
- Pedagogia sozial egokia egitea euskararen erabileraren sustapena eta berme jarraitua bizikidetzaren eta kohesio sozialaren faktore gisa har daitezkeen, eta hizkuntza-erabileraren aukera berdintasuna benetakoa izan dadin. Euskarak gizartean duen prestigioa handitu behar da. Hau da, ahalik eta adostasun sozial handienarekin egin behar da aurrera, elebitasun sozial gero eta harmoniatuagoa, orekatuagoa eta berdintasun handiagokoa lortzeko.







EUSKADI BERPIZTU

## **BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN EUSKADI**

---

- 28. ADMINISTRAZIO ERAGINKORRA
- 29. EUSKADI PARTE-HARTZAILEA
- 30. HERRITARREN ZERBITZURA EGONGO DEN LURRALDE ARTIKULAZIOA
- 31. EUSKADI, EUROPAKO NAZIOA





## BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN EUSKADI

ADMINISTRAZIO  
ERAGINKORRA

EUSKADI PARTE-  
HARTZAILEA

HERRITARREN ZERBITZURA  
EGONGO DEN LURRALDE  
ARTIKULAZIOA

EUSKADI, EUROPAKO  
NAZIOA

### PRINTZPIOAK:

- EAJ-PNVren aburuz, politika egitea giza garapen justua, solidarioa eta erabatekoa lortzeko bide eraginkorrena da. Horren haritik, EAJ-PNVren iritziz, Administrazioak berezkoa duen eginkizuna osotasunean beteko du xede hori eskuratzen laguntzen duenean.
- EAJ-PNVk uste du Administrazioak gaur egun dituen kultura eta antolaketa balioak aldatu egin behar direla, zerbitzuak baitira Administrazioaren ardatz nagusia, eta horren ordez herritarrek egon behar dutelako erdigunean. Herritarrek Administrazioaren eskakizunetara egokitzeko kultura endogamikoa eraldatzean datza; horren ordez, herritarren premiei erantzuteko modu onena bilatzea oinarri hartuta artikulatuko den Administrazioa eratu behar da.
- Zerbitzu publikoak eta bere gain hartutako eskumenak modu eraginkorrean kudeatzeko tresna ez ezik, EAJ-PNVren ustez Administrazio publikoa funtsezko lanabesa ere bada gaur egungo eskumen markoan sakontzeko; hartara, transferitzeko lehentasun berriak ezarri dira, betiere indarrean dagoen estatutuarekin bat etorritz, estatu espainiarrek duela 30 urte baino gehiago betetzen ez duen estatutuarekin, hain justu.
- Estatuaren ordez euskal administrazioek kudeatu behar dituzten gaiei buruzko ikuspegi berriak geureganatu behar ditugu, baita euskal herritarren bizi maila hobetuko duten agertoki berriei aurre egiteko modu berriak ere; betiere, autogobernu handiagoa izanez gero, ongizate ere hobea izango dela pentsatzea abiapuntu gisa hartuko da.
- Euskal sektore publikoaren sarbideak (alegia, herritarren zerbitzura egotea) gero eta errazagoa izan behar du, premiei eta eskaerei gero eta modu eraginkorragoan eta efizienteagoan erantzuteko. Gure gizartea aldaketa sozial, ekonomiko, politiko eta teknologiko gogorak eta biziak pairatzen ari da, eta egokitzeko eta bilakatzeko botere publikoek etengabeko esfortzua egin behar dute.
- Pertsonen zerbitzu integrala eta gertuko eskaintzeak izan behar du Administrazioaren aldaketa gidatu behar duen zioa. Kalitatea, modernizazioa eta berrikuntza kontzeptuak ezin dira moda bihurtu; aitzitik, euskal zerbitzu publikoen kudeatzaileentzat eskakizun nagusietako bat izan behar da. Izan ere, euskal gizartearen bilakaera oso modu bizian eta gertukoan hautematen da, eta horrek geure espazio publikoa birdefinitzera garamatza.





- EAJ-PNVren aburuz, aurrera egin behar dugu ereduak gai hauek aurrez ikus ditzan: euskal herritar guztiei bermatzea eta aitortzea Administrazioak funtzionamendu gardena izango duela; prozedurei buruzko informazioa eta informaziorako sarbidea; Administrazioaren jarduna behar bezala arrazoitzea; ebazpenak funtzionalak, eraginkorrak eta sinpleak izatea; zerbitzu publikoen efizientzia justifikatzeko premia; eta Administrazioaren funtzionamendua eraginkorra izateko erantzukizun osoa eta eraginkorra.
- Teknologia berriak erabiltzea gertutasuna eta gardentasuna gehitzeko faktore bat da, eta herritarrei zerbitzu gero eta integralagoa eskaintzea ahalbidetzen du; horrenbestez, indartu egin behar da.
- Herritarrek zerbitzu publikoak jasotzean justizia eta berdintasuna izatea bermatzeko konpromisoa hartu du EAJ-PNVk. Zerbitzu publikoak erabili eta arreta eskaintzeko teknologia berriak erabiltzeak ez du "herritarren arteko haustura" ekarriko, ez eta herritarren zati handi batek sarbidea ezin erabiltzea eragingo ere.
- Nolanahi ere, arreta pertsonalizatu eta zuzenari eutsi behar zaio, aurrez aurre zein telefono bidez. EAJ-PNVrentzat, arreta pertsonalizatuak Administrazioaren eta herritarren arteko harremanaren oinarriko elementu izaten jarraitzen du, eta gertutasunean irabazi behar du.
- Herritarrek Administrazioan konfiantza izatea elementu erabakigarria da gizartearen kohesiorako eta aurrera egiteko. Konfiantza izatea, sinestea Administrazioak arazoak konpontzearen alde egingo duela, funtzionamendu gardena, objektiboa eta berdintasunean oinarritutakoa izango duela; konfiantza Administrazioaren eraginkortasunean eta efizientzian.
- Horren haritik, EAJ-PNVren ustez Administrazioan mailaka egin beharreko aldaketetan, tresnez gain (oso tresna modernoak izan arren), beste hainbat gai ere aldatu behar dira. Aldaketa horien testuinguruan, bidenabar, lege batzuk modu erretorikoan onartzeaz gain beste lan batzuk ere bete behar dira. Izan ere, Administrazioa gardentasunera eta parte hartzera irekitzeko, eta kontuak herritarren aurrean aurkezteko, kultura eta balio aldaketa sakona behar da, bai Administrazioan, bai herritarrek arlo publikoarekiko erantzukizunak haien gain hartzeari dagokionez.
- Euskal administrazio publikoek lankidetzaren sustatu eta bultzatuko duten prozesuak eta lanabesak sustatu behar dituzte, baita herritarrei zerbitzuak eskaintzean ikuspegi integrala izatea ahalbidetzea ere. EAJ-PNVk Administrazioa eraldatzen jarraitzeko konpromisoa hartu du, herritarren arazoak konpontzeko eraginkorragoa izan dadin, gardentasun gehiago izan dezan eta oreka sozialeko faktore bihurtu dadin.

- Printzipio eta xede horiekin bat etorritik, EAJ-PNVk honako KONPROMISO ETA EKIMEN hauek hartu ditu bere gain euskal Administrazio publikoa hobetzeko eta modernizatzeko:

## 1. KONPROMISOA. EUSKADIREN ESKUMENAK ETA FUNTSEZKO AGINTEA HANDIAGOTZEA.

- **EAJ-PNVren ustez, Espainiako Administrazioari eskatu eta exijitu egin behar zaio 1979. urtean adostutako konpromiso politiko eta legala erabat bete dezan; izan ere, eskumen eta autogobernu gehiago izateak euskal gizarteak ongizate gehiago izatea esan nahi du.**

### 1. EKIMENA: Gizarte arloan egin gabe dauden transferentziak erreklamatzea

- Gizarte arloko eskumenetan aurrera egitea proposatuko da; estatuarekin negoziatuko da Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa eskualdatu edo kudeatzeko, baita lan harremanen euskal espazioa bermatzeko ahalmena agertzen duten tresna ekonomikoak dagokienez ere, tartean Soldatak Bermatzeko Fondoa.

### 2. EKIMENA: Ekonomia eta finantza arloan egin gabe dauden transferentziak erreklamatzea.

- Ekonomia eta finantza arloko eskumenak garatuko dira; horretarako, Kontzertu Ekonomikoan bertan aurrerapenak egitea proposatuko dugu, zenbait zeharkako zerga erkidegoko araudi gisa arautzeko, nahitaez bete beharreko harmonizazio europarraren barruan.

### 3. EKIMENA: Kontzertu Ekonomikoa Europar behin betiko eta modu egonkorrean integratzeko eskatzea.

- Kontzertu Ekonomikoa Europar Batasuna eratzeko Itunean modu egokian integratzeko aurrera egiten jarraitzea. Horretarako, estatukide baten eskumenak banatzeko sistemaren ondorioz aldi berean zerga sistema bat baino gehiago eduki behar izanez gero, ez dira aplikatuko Europar Batasunaren Itunean estatuak emandako laguntzei dagokienez finkatutako arauak, betiere aginte eskudun batek hartutako zerga neurriek izaera orokorra baldin badute aginte horri dagokion arloan.

### 4. EKIMENA: Sektore ekonomikoak arautzean eta azpiegituren arloan egin gabeko transferentziak erreklamatzea

- Azpiegituren arloko transferentzietan aurrera egitea proposatuko da, EAEtik igarotzen diren lur gaineko bideak (autobideak) eta trenbideak (RENFE, FEVE) kudeatzea ahalbidetzeko.
- Estatuari euskal aireportuei dagokien transferentzia erreklamatzeko zaio, kudeaketa eredu deszentralizatua finkatzeko.
- Bilbo eta Pasaiako portuen kudeaketa Eusko Jaurlaritzari transferitzeko eskatuko da.
- EAEko sektore ekonomiko nagusien arloko transferentzietan aurrera egitea proposatuko da: arrantza ikuskaritza, nekazaritza seguruak...

---

#### 5. EKIMENA: Kreditu, banku eta aseguru arloan egin gabe dauden transferentziak erreklamatzeko.

---

- Gernikako Estatutua dela medio, EAeri kreditu, banku eta aseguru arloko eskumenak aitortu zaizkion sektoreetan eskumen aurrerapenak garatuko ditugu.

---

#### 6. EKIMENA: Espetxe politika eta udal hauteskunde arloan egin gabeko transferentziak erreklamatzeko.

---

- Espetxe politika eta udal hauteskunde arloan egin gabeko transferentziak erreklamatzeko zaizkio estatuari; izan ere, bi gai horiek kudeatzea ezinbestekoa da bizikidetzaren demokratikorako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde bizkarrezurra finkatzeko.

## 2. KONPROMISOA.

### IKUSPUNTUAREN ARDATZ HERRITARRAK IZANGO DITUEN ADMINISTRAZIOA ERATUKO DUGU, PERTSONEKIN GERO ETA GEHIAGO KONPROMETITUKO DENA.

---

#### 7. EKIMENA: Herritarrentzako zerbitzu prestazio integrala

---

- Zerbitzu integratuak eskaintzea, eta zerbitzu horiek diseinatzerakoan herritarrak jartzea erdigunean; eragin erreala, gogobetetze maila, aukerak, premiak eta emaitzak ebaluatzea izango da abiapuntua.
- Gobernuaren zerbitzuen ikuspegi horizontala indartzea, sailen arabera banaketa tradizionala eta bertikala baztertuz. Hala, pertsonak zerbitzu integratuak, bereizi gabeak jasotzea ahalbidetuko dugu.
- Zerbitzu estrategiak garatzea, arazo berdintsuak dituzten komunitateen arabera (familiak, gazteak, desgaitasuna duten pertsonak, ekintzaileak, etab.); horrela, beharri zanei modu integratuean erantzun zaie.

---

#### 8. EKIMENA: Herritarrak zerbitzu publikoen katalogora iristea erraztea

---

- Eskaintako zerbitzuak kanal anitzeko bideen bitartez eskuratu ahal izatea, herritarrek Gobernuarekin harremanetan jartzeko bidea edozein unetan hautatzeko aukera dutela bermatuz (aurrez aurre, telefono bidez, Internetez edo postaz).

---

#### 9. EKIMENA: Hizkuntza eskubideak eraginkortasunez betetzea

---

- Administrazioarekin harremanetan jartzeko, herritarrak hautatzen duten hizkuntza ofiziala (euskara edo gaztelania) baliatu ahal izatea bermatzea.

---

#### 10. EKIMENA: Sektore publiko eta pribatuaren artean kolaboratzeko formula berriak

---

- Sektore publikoaren eta pribatuaren artean aliantza eta kolaborazio formula berriak bul-tzatuko dira, bi arloen artean kudeatutako zerbitzuen eraginkortasunean aurrera egiteko; eragin sozialari erreparatuko zaio bereziki.

---

#### 11. EKIMENA: Leihatila bakarra administrazio guztientzat.

---

- Administrazioen arteko ikuspegia indartuko da; hartara, Administrazioen Euskadi Arreta Sarea sortuko da, eta horri esker herritarrei erantzun integratua emango zaie. Hala, euskal herritarrentzako benetako leihatila bakarra lortzea gertuango izango dugu.

## 3. KONPROMISOA.

**ADMINISTRAZIO BERRITZAILEA GARATzea, HERRITARREI ZERBITZU PUBLIKOAK MODU ERAGINKORRAGOAN ETA EFIZIENTEAGOAN ESKAINTZEKO.****12. EKIMENA: Administrazio publikoaren erreforman eta modernizazioan sakontzea, herritarrei eskainiko zaien arreta eta zerbitzua hobetzeko**

- Izapide lanetan eskakizunak ahal bezainbeste murriztea, baita Administrazioak espedienteak ebazteko behar duen denbora ere.
- Administrazio prozedura erregulatuko duen arau bat bultzatzea, lege maila izango duena; lege horretan prozedura elektronikoa eta eskatzen dituen bermeak bereziki jorratuko dira.
- EAEko Sektore Publikoaren Liburu Zuria prestatzea, dagokion dimentsioa egokitzea, berantolatzea eta arrazionalizatzea gaitzat hartuta hausnarketa egitea bultzatzeko.
- Administrazioen berrazterketa dimentsionala; horri esker, euskal administrazio publikoen jokatzeko agertoki beharrezkoenetara edo berezkoenetara egokitzeari buruzko hausnarketa egingo da, bereziki sektore publikoak hobekien landu eta garatzen dituzten agertokien kasuan. Horren haritik, prozedurak, izapideak eta protokoloak sinplifikatuko dira, sarbidea erraztuko da eta zerbitzuak herritarrei eta bezeroei gerturatuko zaizkie; izan ere, haiek dira zerbitzu publikoen bezeroak. Halaber, kostuak murriztuko dira eta kalitatea areagotu egingo da.

**13. EKIMENA: Teknologia berriak erabiltzea bultzatzea.**

- Administrazio elektronikoko sistemetan aurrera egitea; antolaketa, araudiei, prozesuei eta teknologiarri dagozkien alderdiak aurrez ikusiko dira.
- Administrazio zerbitzuen eskaintzan teknologia berrien erabilera normalizatua indartuko da.
- Interneten informazio eredu etengabe hobetzea: euskarriaren eta kudeaketarako tresnen azpiegitura egokituko da, baita erabilera eta irisgarritasun mailak ere.
- E-administrazio zerbitzuak gailu mugikorretako teknologia berrietara egokituko ditugu.
- Tresna eta protokoloak hedatzen segituko dugu, herritarrek eta enpresak euskal administrazioekin harremanetan jartzean segurtasuna bermatzeko, edozein dela horretarako baliatzen duten gailua.
- Udalerri guztietan Wifi espazioak garatzea bultzatuko dugu.

**14. EKIMENA: Informazio eta kudeaketa teknika berriak txertatzea eta berritzea**

- Berrikuntza Publikoaren Plana birbideratzea pertsonekin konpromiso estuagoa duen Administraziozantza.
- Langile publikoentzat prestakuntza prozesu berri eta integralak garatzea, gaurkotzeko eta gaitasun berriak eskuratzeko, planteatuko diren erronka berriei ekite aldera.
- Emakumeen jabekuntzaren aldeko neurri berriak hartzea Administrazio publikoan.
- Antolaketa eredu horizontalagoak bultzatuko dira, elkarrekintza maila gutxiagorekin. Hala, administrazio prozesuen kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoaren alde egingo da.
- Kudeaketa bikaineko teknikak txertatzea, funtzionamendua herritarrengandik gertukoagoa, efizienteago, eraginkorrago eta azkarragoa izan dadin; bidenabar, teknikek herritarren premiak eta asmoak bete beharko ditu.
- Etengabe berritzeko eta uneoro hobetzeko prozesuak bultzatuko dira; langile publikoen artean beharrezko kontzientziazioa sustatuko da.
- Herritarrei arreta eskaintzeko Zuzenean zerbitzua garatu eta hobetuko da (gobernuaren leihatila bakarra); herritarren premietara eta itxaropenetara doitu dugu.

#### 4. KONPROMISOA. ADMINISTRAZIO GARDENA, IREKIA, ZERBITZUDUNA, GIZARTEAREN AURREAN KONTUAK EMANGO DITUENA.

##### 15. EKIMENA: **Gobernantza Legea.**

- Euskal gobernantza arautuko duen lege mailako araua egingo da, gobernu onari dago-kionez; besteak beste, alderdi hauek jasoko ditu:
  - Gardentasuna kudeaketa publikoan.
  - Gizarte taldeek, erakundeek, eta erakunde ekonomiko eta politikoen politika publikoak diseinatzean parte hartzeko gaitasuna.
  - EAEko politiketan kudeaketa publikoa gardentasunez eta publikoki ebaluatzeko eredia.

##### 16. EKIMENA: **Herritarrentzako informazioa eta gardentasuna.**

- Gardentasun Legea birbideratzea, osatzea eta onestea.
- Informazio koherentea, egokia eta kalitate altukoa azkar eskaintzea, sarbide errazeko zerbitzu baten bidez eta herritarrak erabili nahi duen kanala baliatuz.
- Gobernuaren webgunean berariazko espazio nabarmendu bat sortzea, bertan, modu soilean eta multzokatuta, gobernu gardena izan dadin legez plazaratu daitezkeen datu garrantzitsu guztiak espresuki argitaratzeko (adierazleak, xedeak, planak, emaitzak, finantza egoera, kontratazioa, zerrendak, etab.).

##### 17. EKIMENA: **Herritarren parte hartzea.**

- Herritarren parte hartzea erregulatuko duen araudi bat onestea bultzatuko da, herritarrek interesatzen zaizkien gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea errespetatzeko eta aintzatesteko konpromiso gisa.
- Herritarren parte hartzea bideratuko duten espazio eta lanabes berriak sortzea eta baliostea bultzatzea.

#### 5. KONPROMISOA. ELKARRERAGINEAN ETA LANKIDETZAN ARITUKO DIREN EUSKAL ADMINISTRAZIOAK.

##### 18. EKIMENA: **Agiri sare bateratua eta bermatzailea**

- Informazioa trukatzeko sare informatiko bat eratzea; horri esker, herritarrek haien eskubideak baliatu nahi izanez gero, administrazio maila bakoitzean ahalik eta agiri gutxien eskatuko zaizkie, baldin eta mailetakoren batek agiri horiek aurretiaz baldin baditu; hala, herritarrek ez dituzte agiri horiek berriz aurkeztu beharko.
- Administrazio batean pertsona bati buruzko datuak aldatuz gero, gainerako euskal administrazioetan aldizka eta automatikoki eguneratzea, eskumena baliatzeko datu hori beharrezkoa denean. Hartara, herritarrek izapidea behin egitea nahikoa izango da.

- Datuak babesteko beharrezko mekanismoak garatzea, kasuan kasuko eskumenarekin loturarik ez izateagatik administrazio jakin batek ez dituen behar.
- Administrazioen arteko kolaborazio hitzarmenak sinatzea bultzatzea, ez dagozkien agiriak, espedienteak, eskaerak eta bestelakoak jasoz gero, administrazio eskumendunera lehenbailehen irits daitezzen.

---

#### 19. EKIMENA: **Administrazio eskumenen mapa bat definitzea.**

---

- Administrazio maila bakoitzaren eskumenen mapa egitea eta euskal administrazio guztietara hedatzea. Hala, pertsonak norabide egokian bideratzea bermatuko da.

---

#### 20. EKIMENA: **Udal legea.**

---

- EAEn udal arloko araudia erregulatzea eta behin betiko garatzea, osieran esku hartzen duten eragileekin adostutako ikuspegi bateratua aplikatuz. Araudi horretan koordinazio eta kolaborazio mekanismo garrantzitsuenak ezarriko dira.

---

#### 21. EKIMENA: **Politika Publikoen Kontseilua.**

---

- Politika publikoen kontseiluetan oinarritutako kudeaketa eredua eratzen aurrera egingo dugu, eta bertan bilduko dira Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalerrien ordezkariak, politika publikoak koordinatzeko eta plangintza bateraturako erakunde gisa.

---

#### 22. EKIMENA: **Kupoaren eta Ekarpunen Lege berria negoziatzea**

---

- Kupoaren Lege berria lehenbailehen onetsi behar da; une honetan indarraldia luzatu egin da, eta onetsiz gero, zenbatekoari buruzko balizko gorabeherak itxi eta finantza eta egonkortasun arloetan ikuspegi berriak bilatuko dira.
- Ekarpunen Lege berri bat negoziatu eta onetsiko dugu, datozen bost urteetarako, foru administrazioekin adostuta, datorren legegintzaldian aurrekontuaren eta erakundeen oreka bermatzeko.

## 6. KONPROMISOA.

### **ZERGA POLITIKA HARMONIZATUA GARATUKO DUTEN EUSKAL ADMINISTRAZIOAK, LURRALDE OREKAREN ETA EKONOMIKOKI BERRESKURATZEAREN ALDE.**

- Europan eta nazioartean zerga ordena berria ezartzeko, zerga politikak lortu beharreko ekitate eta efizientziaren ohiko helburuak indartzeaz gain, gaur egungo ekonomia eta finantza testuinguruan garrantzia berezia duten beste bi xederi erreparatu behar diegu: diru bilketa nahikoa izatea, eta ekonomia suspertzea.
- EAJ-PNVtik proposatzen dugun zerga sistemak oinarri finkoak ezarri behar ditu diru sarreren eta gastu publikoen arteko oreka egokia bermatzeko, eta horrez gain, ekonomia berriz piztea, aberastasuna sortzea eta enplegua berreskuratzea ahalbidetuko duen agertokia eskaini behar du.
- Zerga sistema orekatu baten bidez helburu horiek lortzea bermatzeko, behar-beharrezkoa da EAeko lurralde historikoak bertako zerga sistemak osatzen dituzten figura guztiak modulatzeko gai izatea, eta hala, indarrean dagoen eskumen markoa, Kontzertu Ekonomikotik eratorritakoa, gainditzea; izan ere, marko horrek galarazten du zenbait gairi dagokienez zerga politikako erabakiak hartzea, oro har zeharkako ezarpenari dagozkionak.



- Horregatik, funtsezkoa da lehenik eta behin **Kontzertu Ekonomikoa erabat aldatzea**; erreforma horren xede nagusia lurralde historikoen eskumenak areagotzea izango da, zerga sistemen erreforma integrala planteatzea galarazten duten mugak desagerraraziz, izaera orokorrekoak zein izaera zehazdunak izan.

### 23. EKIMENAK. **Kontzertu Ekonomikoa eguneratzea**

- Gaur egungo Kontzertu Ekonomikoa eguneratzea eta aldatzea proposatzen dugu, gaur egungo egoerara egokitzeko eta osatzeko; horri esker, ekonomia eta enplegua berreskuratzeko funtsezko tresna gisa izango duen eraginkortasuna hobetzea lortuko dugu. Kontzertu Ekonomikoa bera aldatzeko, araudiko zenbait gai ere aldatu egin behar dira, arrazoi desberdinak direla medio. Arrazoiak ez dagozkie soilik itundutako testua eguneratzeari edo hobekuntza tekniko hutsei; aitzitik, gaur egun lurralde historikoek euren zerga sistemak diseinatzea eta erabat kudeatzea galarazten duten eskumen mugak desagerrarazteari zor zaizkio.
- **Eskumenak areagotzeari** dagokionez, garrantzia berezia izanik, zeharkako zergak araudi komunean itunduta egoteari uztea nabarmendu behar da (BEZa, Aseguru Primen gaineko Zerga, Zerga bereziak eta sozietate eragiketak), kapital higigarriaren gainean aplikatutako atxikipenetan, jarduera ekonomikoak eta sariak, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, establezimendu iraunkorrik ez dutenean.
- Oraindik estatuaren esku dauden eskumenak desagerrarazteko eskatzeak, zerga figura berriak agertzeak, eta indarrean dagoen itun sisteman zenbait hutsune egoteak itunaren araudian zenbait **akordio berri** txertatzeko eskatzen dute; horien artean, nabarmenenak dira Zerga Berezien eta BEZaren esparruetan inportazio kargei dagozkienak, eta hidrokarburoen gaineko eta Joko Jardueren gaineko zerga berriei dagozkienak.
- Halaber, gaur egungo dokumentuan jasota ez dauden zenbait kontu ebatzi behar ditu, eta testua bera berraztertu egin behar da; izan ere, zerga sistemak eta horiek aplikatzen diren inguru ekonomikoak eboluzionatu egin dute, eta, horrez gain, Kontzertu Ekonomikoa idazmolde berarekin 30 urte baino gehiago indarrean egon ondoren eskuratutako esperientzia praktikoa ere aintzat hartu behar da. Jaso beharreko **eduki berriak**, proposatuko ditugunak, askotarikoak dira, bai garrantzia aldetik, bai izaera aldetik. Zenbait alderdi oso garrantzitsuak dira, esaterako, zerga arloko euskal erakunde eskudunetako ordezkariak ECOFINeko zenbait lantaldean eta tankera bereko nazioarteko beste foro batzuetan parte hartzea; bestalde, indar gutxiagoko beste alderdi batzuen artean zenbait **hobekuntza tekniko** ere aipatu behar ditugu (zenbait lotune argitu, Dohaintzen gaineko Zergan 5 urteko egoitza eskakizuna kentzea, BEZ eta Sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako eragiketa bolumena 10 milioi eurotan eguneratzea, etab.).
- Azkenik, eskumenen arloan zenbait hutsune antzeman dira, baita hainbat hutsegite ere esleitutako funtzioak baliatzerakoan; horregatik, **Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eta Arbitraje Batzordearen** gaur egungo araudietan zenbait egokitzapen egitea beharrezkoa da.

### 24. EKIMENAK . **Zerga sistema egokitzea**

- Aurreko puntuan deskribatu bezala, eskumen markoa aldatzearen ondorioz eskuratu daitezkeen lorpenak alde batera utzita, gaur egun bizi dugun krisi ekonomiko sakonak eragin du diru sarrera publikoen bilketa 2006. urtean lortutakoaren parekoa izatea; horrez gain, gastuei dagokienez goranzko premiak sortzen dira, ongizate estatuari eutsi ahal izateko. Hortaz, gaur egun zerga figura bakoitzak betetzen duen eginkizuna aztertzea beharrezkoa da, baita bakoitzaren izaera dela medio dagokien eginkizuna zenbateraino ari diren betetzen ere; hala, azterketa horretan agerian geldituko diren gabeziak konpontzeko hartu beharreko neurriak proposatuko dira, oro har zerga zuzenen arloan.

- Testuinguru horretan, eta betiere Foru Aldundien eskumen ahalmenak errespetatuz, EAJ-PNVtik gaur egungo zerga sistema egokitzeko prozesu bat planteatuko dugu, oinari hauetatik abiatuz:
- **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari** dagokionez, ekitate, aurrerakortasun, neutraltasun, gardentasun eta sinplifikazio printzipioak indartu egin behar dira, eta horien guztien artean oreka handiagoa lortu behar da.
- Xede horri jarraiki, EAJ-PNVn ulertzen dugu tarifa orokorra eta aurrezpenarena berrikusi egin behar direla, baita salbuespenak indarrean egotea, borondatezko gizarte aurreikuspenaren tratamendua eta kenkarien araudia ere.
- Horrez gain, jarduera ekonomikoen arloan, iruzurraren aurkako neurriak indartu egin behar dira, gaitasun ekonomiko errealekin bat etorritik zergak ordaintzea ahalbidetzeko. Horretarako, zenbait gastu kengarri izateko aukera berrikustea proposatzen da (ibilgailuak, aisialdiko itsasontziak, etxebizitza, ordezkaritza gastuak, etab.); horrez gain, oinari negatiboak konpentsatzeko kasuak mugatzea, moduluka kalkulatzeko sistemak pixkanaka desagerraraztea eta informazio betebeharrak areagotzea ere planteatuko dugu.
- **Sozietateen gaineko Zergari** dagokionez, eta aintzat hartuta bai enpresa globalizazioaren testuingurua, bai gaur egungo egoera ekonomikoa, beharrezkoa da zerga hori sakon eta erabat eraldatzea; hala, enpresa tributaziorako zerga neurri aurreratuenak txertatuko dira, gure ekoizpen sarea indartzeko eta lehiakortasuna areagotzeko; bidenabar, xedea aberastasuna eta enplegua sortzea ere bada.
- Horregatik, zerga berriak lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko elementu gakoiei eutsi beharko die, bereziki ETE-iei dagokienez, besteak beste ohiko aktibo finko berrietan inbertitzeagatik kenkaria, enpleguari dagokiona, garapena, berrikuntza eta ikerkuntza babestea, eta ingurumena; era berean, ezarritakoan eman zitzaizkien xedek betetzen ez dituzten kenkariak eta zergaren araubide bereziak berrikusi egingo dira, eta beharrezkoa izanez gero, kendu egingo dira.
- Gainera, EAJ-PNVtik ulertzen dugu neurri berriak sartu behar direla enpresa kapitala eta nazioartekotzea bultzatzeko; hala, kanpo merkatu berriak bilatu behar dira, eta industria jabetza garatu behar dira, besteak beste.
- Azkenik, zuzeneko zergapetzearen gainerako figurei dagokienez, ondare handiei aplikatuko zaien zerga arautzea proposatzen dugu, dohaintzen tributazio egokiarekin osatu beharko dena (gaur egungo Ondarearen gaineko Zergaren araudia eta dohaintzen tributazioa 2012. eta 2013. urteetako ekitaldietarako baino ez dago indarrean).

## 25. EKIMENAK. Iruzur fiskalaren aurkako borroka

- Diru bilketa nahikoa izan eta ekonomia berpizteko xedek aipatu ditugu, planteatu dugun zerga erreforma abiarazteko abiapuntu gisa; prozesu hori guztia **iruzur fiskala desagerrarazteko** premisan oinarritzen da. Xede horrekin, EAJ-PNVtik zerga sistema egokitzea proposatzen dugu, iruzur egitea baztertzea eta gutxitzea indartuko duten neurriak hartu eta horretarako ekintzak garatzea; izan ere, horrelako jokabideek herritarren bizikidetzarako funtsezko printzipioak urratzen dituzte.
- Horren haritik, EAJ-PNVtik zenbait neurri bilduko dituen araudia onartzea bultzatzen dugu; neurri horien artean, bereziki aipatu behar dira gaur egungo zehapen sistema berrikus-teari eta elkertasun erantzukizuneko kasuak, baita subsidiarioak ere, areagotzeari eta indartzeari dagozkienak. Hala, zerga zorra ordaintzea modu sendagoan bermatuko da, eta informazio betebeharrak berriak finkatuko dira, aitortutakoa baino errenta altuagoak izanez gero, horren berri izatea ahalbidetzeko; neurri hori orain arte salbuetsita egon diren zenbait taldetara hedatuko da.



## BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN EUSKADI

ADMINISTRAZIO  
ERAGINKORRA

EUSKADI PARTE-  
HARTZAILEA

HERRITARREN ZERBITZURA  
EGONGO DEN LURRALDE  
ARTIKULAZIOA

EUSKADI, EUROPAKO  
NAZIOA

## GURE PRINTZIOAK

- Gizarte konplexuetan bizi gara, eta, horietan, egokitu beharragatik, burokrazian oinarritutako kudeaketa ereduak gainditu eta horien orde bestereredu arinago batzuk ezarri behar dira, sareak sortzeko eta herritarren eskariak entzun, artatu eta konpartitzeko ahalmenean oinarritutako direnak. Gobernantza eraginkorrek berekin dakar kudeaketa prozesu horizontalagoak ezartzeko prestutasuna, beste erakunde batzuekin taldean lan egiteko eta herritarrak nahiz eragile sozial garrantzitsuenak erabaki politikoaren prozesuan sartzeko.
- EAJ-PNVk herritarrengandik hurbil dagoen Administrazioa bultzatzen du, herritarrek administrazio hori propiotzat har dezaten; eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta erantzukizun printzipioen arabera jardungo den administrazioa. Printzipio horiek gauzatzeko ezinbestekoa da Administrazio parte hartzaileagoa lantzen aurrera egitea. Gai publikoetan parte hartzaileagoa den Euskadi taxutu behar dugu, parte hartzea konpromiso kolektiboaren eragilea delako.
- Botere publikoak gizartearen ordezkari bidezko legitimazioari eusten diogu, baina herritarrekiko elkarrizketarako, negoziatorako eta akordiorako mekanismo iraunkorrek ezarri behar ditugu haiei zuzenean eragiten dieten erabaki garrantzitsueni buruz.
- EAJ-PNVren ustez, herritarren parte hartzea demokraziaren ideien muinean bertan dago. Antzina-antzinatik parte hartze soziala oso errotuta daukan herria gara. Horregatik, ondotxo dakigu balio demokratikoekin lotutako eta bizitza politikoarekin konprometitutako herritarrak sistema demokratiko osoaren indar bizia direla.
- EAJ-PNVk hitzematzen du demokrazia parte hartzailean sakonduko duela eta politika onbideratzeko prozesu batean aitzindari izango dela, elkarrizketaren era gardentasunaren printzipioa biziberrituz. Herritarrekiko elkarrizketa, arazoei ekiteko, entzuteko eta konponbideak konpartitzeko. Eta gardentasuna, herritarrek uneoro politika publikoei buruzko informazioa eduki dezaten. Elkarrizketak eta gardentasunak proiektuen zilegitasuna areagotzen dute eta prozesu demokratiko eta parte hartzaileak aberasten dituzte.
- Politika publikoak kudeatzeak autokritika egitea eta umila izatea eskatzen du. Gobernu eraginkorra garatuko dugu. Gauzak ondo egingo ditugu. Baina ondo dakigu hobetzea beti beharrezkoa dela, gauzak beti egin daitezkeela hobeto. Autokritikarako prest egongo gara eta herritarren ahotsa entzungo dugu zer eskatzen diguten jakiteko eta hori lortzeko modua aurkitzeko. Irrotasunez eta umiltasunez lan egitea, hori da bidea.



- Hitzetatik ekintzetara igarotzea beharrezkoa da, EAJ-PNVk iraultza demokratiko berriaren aitzindari izan nahi du herritarren parte hartzeko printzipio horiek bultzatuz honako KONPROMISO ETA EKIMEN hauen bitartez:

## 1. KONPROMISOA. BURUZAGITZA PARTEKATUA BULTZATZEA.

### 1. EKIMENA: **Gobernantzarako plataforma publiko-pribatua.**

- Gobernantzarako plataforma publiko-pribatu irekia eta malgua bultzatuko dugu, kontsulta- eta laguntza-tresna gisa gobernuia hobeto kudeatzeko, aukerak eta etorkizuneko proiektuak identifikatzeko, eta erreferentziako nazioarteko eskualdeetan antzeko erakundeekin lotzeko.
- Euskadiko erakunde sisteman politika ulertu eta egiteko modu berria egituratu, gauzatu eta hedatuko duten dinamikak sortuko ditugu. Modu berri hori buruzagitza partekatuan oinarrituko da, bai "erakunde publikoak-eragile pribatuak" ikuspuntutik, bai "erakundeak-herritarrak" ikuspuntutik.

### 2. EKIMENA: **Politika Publikoen Euskal Kontseilua.**

- Politika Publikoen Euskal Kontseilua sustatuko dugu. Kontseilu horretan herrialdeko erakunde eragile nagusiek ordezkariak izango dute. Kontseiluak modu bateratuan bultzatuko ditu datorren legegintzaldiko proiektu handiak. Kontseilu honek hausnarketa egingo du eta proposamenak planteatuko ditu eraginkortasuna eta koordinazioa hobetzeko, programa **publikoen** kudeaketan bikoiztasunak saihestuz.

### 3. EKIMENA: **BERRIKUNTZA PUBLIKOKO ESTRATEGIA.**

- "Euskadiko Berrikuntza Publikoko Estrategia" egingo dugu, sistema publikoa osatzen duten pertsona guztientzat irekita egongo den prozesu parte hartzaile baten bitartez, erakunde sistema modernizatuko duten neurri berriak txertatzeko eta kalitatezko zerbitzu efiziente, eraginkor eta seguruen eskaintza hobetuko duen Administrazio berritzaile baterantz aurrera egiteko.

## 2. KONPROMISOA. GARDENTASUNA ETA HERRITARRAK ENTZUN ETA KONTSULTATZEA.

### 4. EKIMENA: **Gardentasun konpromisoa.**

- Herritarrek herri administrazioen aurrean informazioa eskatzeko daukaten eskubidea berriro, egokitu eta sakonduko dugu. Herritar orok gobernuko edozein sailletara eta edozein arduradunengana jo ahal izango du, behar duen informazioa eskatzeko, eta hark gehienez 30 eguneko epean erantzun beharko dio.

### 5. EKIMENA: **Berrikuntza demokratikoko 2.0 plataforma.**

- Euskadiko Erakunde Publikoetan berrikuntza demokratikoko esperientziak garatzeko plataforma teknologiko berria bultzatuko dugu, komunikazioko eta on-line parte hartzeko



mota askotariko aukera eta formak eskainiz. Plataforma horretan eztabaida eta gogoe-ta prozesuak sartuko dira, baita herritarrentzako kontsultak, kudeaketa publikoari buruz-ko hezkuntza eta prozesu demokratiko berritzaileen udal eremuko proiektu pilotuak ere.

---

#### 6. EKIMENA: **Demokrazia Parte hartzailearen Behatokia.**

---

- Demokrazia Parte hartzailearen Behatoki independente bat sortzea sustatuko dugu. Behatoki horrek herritarren parte hartze prozesuak bultzatuko ditu eta urteroko jarraipen eta ebaluazio txostenak egingo ditu.

---

#### 7. EKIMENA: **Parte-hartzeko leiho elektronikoak.**

---

- Europako Batzordearen ereduari eta gomendioei jarraiki, parte hartzeko leiho elektroni-koak bultzatuko ditugu herritarrek erakundeen proiektu esanguratsuenei eta gizartean eragin handiena duten proiektuei buruz daukaten iritzia jasotzeko.

---

#### 8. EKIMENA: **Herritarrek Parte-hartzeko Legea.**

---

- EAJ-PNVk hitzematen du herritarrentzako kontsultak jardunbide, sakontze eta berrikuntza demokratikoko tresna gisa arautuko dituen legea landuko duela. Araudi horretan arau-tuko dira herritarrei, eskubidez, galdegin ahal zaizkien gaiak, eta kasu bakoitzean erabili behar diren prozedurak. Legegintzako herri ekimen bat bultzatzeko beharrezkoak diren sinaduren kopurua murriztea proposatuko dugu.

---

#### 9. EKIMENA: **Tokiko Demokraziaren Liburu Zuria.**

---

- Nazioartean –bereziki Europar Batasunean– jada existitzen diren tokiko demokraziaren eta herritarren parte hartzearen jardunbide batzuk eta besteak liburu zuri batean bilduko dira. Jardunbiderik onenak Euskadin egokitzeko ekimen gisa planteatuko dira.

---

#### 10. EKIMENA: **Euskadi 2025.**

---

- Prozesu parte hartzailea abiaraziko dugu Gobernantzarako dekalogo bat eta etorkizu-neko erronkak estrategikoki definitzeko, 2025. urtea jomuga izanik Euskadiren erronkak modu partekatuan identifikatuz.





## BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN EUSKADI

ADMINISTRAZIO  
ERAGINKORRA

EUSKADI PARTE-  
HARTZAILEA

HERRITARREN ZERBITZURA  
EGONGO DEN LURRALDE  
ARTIKULAZIOA

EUSKADI, EUROPAKO  
NAZIOA

### PRINTZIOAK:

- Euskal Herri osoaren artikulazio politikoa funtsezko helburua da herritar guztien interesak defendatzeko, Ebrotik Adour-eraino.
- Hizkuntza, kultura, ohiturak eta harreman ekonomiko-sozialak direla-eta, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa lurraldeek errealitate konpartitua osatzen dute, historian zehar Euskal Herri modura ezagutu izan dena.
- Historia horrek berorrek zehaztu du errealitate komun hori gaur egun hiru errealitate politiko-administratibotan egituratzea: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea.
- Gaur egun Euskal Herria antolatuta dagoen errealitate ezberdinak errespetatuta, lan egingo dugu iraganeko zauriak sendatzeko eta, apurka-apurka, Euskal Lurralde guztietan konpartitzen den nortasun-sentimendua eta harremanak hedatzeko.
- EAJ-PNVk adierazten du euskal gizarteak, bere osotasunean, bere etorkizunaren jabe izan behar duela. EAJ-PNVk xede hau dauka: euskal lurralde guztietako herritarrei eskubidea aitortu behar zaie libreki erabaki ahal izateko euren artean zein harreman-maila eta -lotura izan nahi duten. Erakunde-esparru bateratua eratzeko aukera ere jaso behar da, gehiengoaren nahia hori bada.
- EAJ-PNVren iritziz, herritarren nahia errespetatu egin behar da euskal herritarren eta euskal lurraldeen arteko batasunaren gaia jorratzeko. Alderdi gisa, gure xedea da etorkizunean esparru politiko komuna konpartitzea, Euskal Herriaren nortasun nazionala nazioartean hedatzeko. Hori da gure xedea, herriaren nahia errespetatuta. Helburu hori lortzeko erritmoa eta abiadura herritarrek ezarri behar dituzte, libreki.
- EAJ-PNVren xedea egunez egun lan egitea da, Euskal Komunitate guztien arteko harreman naturalak sendotzeko. Lan zintzo horren oinarria interes komuna da, eta premisa hauek ditu: erakunde- eta kultura-elementuak sarean jartzea, harreman pertsonala, enpresa- eta turismo-lankidetzeta eta mota guztietako azpiegiturak integratzea. Hori guztia eremu sozial eta ekonomiko bateratua sortze aldera.
- Helburu horrekin, gure bidea honetan datza: beharrezko oinarriak ezartzea, euskal herritarren eta euren erakunde-errealitateen arteko hurbilketa sustatzeko eta horien arteko elkarrizketa berritua eraikitzeko.



- Printzipio eta helburu horiei erantzuteko, hauek dira gure KONPROMISOAK ETA EKIMENAK:

## 1. KONPROMISOA. ERAKUNDE-HARREMANAK SENDOTZEA IPARRALDEAREKIN ETA NAFARROAREKIN.

### 1. EKIMENA: Mugan zeharko lankidetza sustatzea Iparraldearekin

- Mugan zeharko lankidetza indartzea Akitania-Euskadi euroeskualdearen bidez, Lurralde Lankidetzako Europako Elkarte den aldetik, bereziki azpiegituren arloan eta politika hauetan: garraioa, industria, turismoa, ikerketa eta berrikuntza, kultura eta hizkuntza.
- Nafarroa euroeskualde horretako kide egitea bultzatzea.
- Euroeskualdearen baitan, hau planteatzea: udal- eta lurralde-mailan lankidetza-organo bat eratzea, maila horietan lankidetza aitortu eta garatzeko.

### 2. EKIMENA: Nafarroarekiko harremanak sendotzea

- Nafarroarekin lankidetza-akordioak eta sektore-hitzarmenak formalizatzea bultzatzea, interes komunekoak diren arlo guztietan.
- Nafarroako erakundeekin elkarrizketa zintzoa hastea bultzatzea, 1996an bi Legebiltzarrek onetsitako lankidetza-organo iraunkorrean jasotzen zen kolaborazio-espiritua berreskuratzeko.
- Nafarroarekin lankidetzan aritzea, batera Kontzertu Ekonomikoa eta Europako Hitzarmena defendatzeko Espainiako eta Europako agintarien aurrean.

## 2. KONPROMISOA. EUSKAL LURRALDEEN ARTEKO HARTU-EMANA SUSTATZEA.

### 3. EKIMENA: Lankidetza-sareak eratu eta bultzatzea

- Lankidetza eta trukea sustatuko duten programak ezartzea, bereziki gazteen artean, arlo hauetan: prestakuntza, hezkuntza, kultura eta teknologia.
- Eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetza bultzatzea, interes komuneko programa eta proiektuen bidez, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberaren eta Gipuzkoakoaren artean ezarritako harremanak oinarri hartuta ("Bihartean").

### 4. EKIMENA: Basque Country sustatzea turismoaren eta inbertsioen destino bezala

- Lankidetza-programa bat garatzea kanpoan turismoa sustatzeko, BASQUECOUNTRY-PAYS BASQUE nazioarteko irudia zabaldua.
- Hemen inbertsioak egitea erakargarria dela batera kanpoan sustatzeko esparrua garatzea.



### 3. KONPROMISOA. KOMUNIKAZIOAK HOBETZEA ESTRATEGIA ATLANTIKOAREN ESPARRUAN.

#### 5. EKIMENA.- Lurralde osoa artikulatuko duten komunikazioak garatzea

- Kadentziadun trenbide-garraioaren proiektua artikulatzea bultzatzea Baiona-Donostia euskal eurohirirako.
- Salgaiak garraiatzeko Atlantikoko koridorearen proiektua eta Europa Atlantiko Hegoaldeko AHT bultzatzea, Europako lehentasunezko ardatza baita.
- Plataforma multimodalen sarea egituratzea efizientzia logistikoaren zerbitzura, eta natur inguruneak eta ingurumena errespetatzea.
- Lurreko eta itsasoko komunikazioen azpiegiturak sarean jartzea sustatzea, lurralde-ikuspegi integratu batetik.

### 4. KONPROMISOA. GIZADIAREN ONDAREA DEN EUSKARA GARATU ETA NORMALIZATZEA.

#### 6. EKIMENA: Euskara bultzatzeko jarduera komuneke esparrua garatzea.

- Jarduera-esparrua ezartzea Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Euskara-ren Erakunde Publikoaren (Iparraldean) artean, euskara defendatzeko, sustatzeko eta elkarri laguntza emateko, bai eta gure hizkuntza ordezkatzeko ere estatu bakoitzeko erakundeekin eta Europako eta nazioarteko erakundeekin aurrean.
- Euskara ikastea eta normalizatzea bultzatzea euskal lurralde guztietan.
- Frantziako Estatuari eskatzea Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari atxikitzeko.

#### 7. EKIMENA: Aberaste linguistikoa eta eleaniztasuna bultzatzea.

- Lankidetzeta-neurriak garatzea (hartu-eman linguistikoak eta praktika profesionalak), Iparraldeko eskoletan gaztelania hobeto ikasteko eta Hegoaldean frantsesa hobeto ikasteko, kultura-mugikortasuna eta hartu-eman artistikoak bultzatuz.



## PRINTZIOAK

### EUSKAL AUTOGOBERNUARENTZAKO ETORKIZUNA

#### BERE ETORKIZUNAREN JABEA DEN EUSKADI

ADMINISTRAZIO  
ERAGINKORRA

EUSKADI PARTE-  
HARTZAILEA

HERRITARREN ZERBITZURA  
EGONGO DEN LURRALDE  
ARTIKULAZIOA

EUSKADI, EUROPAKO  
NAZIOA

XXI. mendeko eta gaur egungo inguruabarrak kontuan izanik, eta Gernikako Autonomi Estatututik 1979tik gaurdaino sortu den autogobernu estatusaren garapena aintzat hartuta, EAJ-PNVk autogobernu sistema berria proposatzen du, gaur egungo gizartearen erronkei aurre egiteko.

Euskadiren etorkizunerako proiektu politiko konpartitu orok gizartearen legitimazioa beharko luke. Alderdi politikoek batez ere, eta gizarte eragileek, Euskadiren etorkizunerako proiektua bideragarri egin beharko dugu eta horretarako akordioak lortu beharko ditugu. Baina, zalantzarik gabe, zilegitasuna herritarrek adierazten duten borondateetik etorriko da.

Garapen sozioekonomikoko eredu propioaren oinarria izango den autogobernu sistema. Kode etiko ekonomiko baten aldeko apustu garbia egingo dugu, eta hortik abiatuta, euskal estrategia ekonomikoa hezkuntzaren bikaintasunean, berrikuntzan, gizartearen kohesioan eta bokazio globalean oinarrituko da.

Estatus politiko berri bat, Euskadi lehiakor eta aldi berean solidario baten alde lan egiteko aukera emango diguna, ongizatea eta gizarte integrazioa bilatzeko. Horretarako, lanaren kultura izan behar dugu gidari, zorrotasunez, erantzukizunez, zintotasunez eta konpromisoz.

Aldi berean Euskadiren nazioarteko dimentsioa bultzatu behar dugu. Erakundeetako, gizarteko eta ekonomiako parte hartzea bultzatu behar dugu nazioarteko sareetan, ikuspegi humanista batetik. Pobrezia eta azpigarapenean bizi diren beste herrialde eta kontinente batzuekin benetako elkartasuna garatu behar dugu.

Azken finean, Autogobernu sistema bat, bere nortasuna daukan, plurala den eta munduari irekita dagoen euskal komunitate baten garapena ahalbideratuko duena. Nafarroarekiko eta Iparraldearekiko harremanen instituzionalizazioa sartu behar da hemen, herritarrek hala eskatzen duten neurrian, "euskararen lurraldearen" oinarrian, hau da, konpartitutako kultur lurraldea, euskal komunitatea munduan kokatzen duena. Europar Batasuneko euroeskualde berria, Euskadi, Europako nazioa.



## AKORDIO IREKIA, XXI. MENDERAKO AKORDIOA

Bilatzen ari garen akordioa integratzailea izango da. Herritarren gehiengoak babesten duena izango da. Akordio eguneratua izango da; akordio horren arabera, aldeek elkar aitortuko dute, baldintza berberetan, eta edozein proiektu politiko gauzatzeko benetako aukera onartuko da, betiere euskal herritarrek demokratikoki, beren erabakimen librearen bitartez, adierazitako borondatearen oinarriarekin.

Euskal Herria, kultura ezberdinen nahastea, euskararen, kulturaren, tradizioaren, eta erakunde juridiko edo foral propioen bidez identifikatzen da. Haren presentzia eta adierazpidea EAEn, Nafarroako Foru Komunitatean eta Iparraldean aurki ditzakegu.

Euskal Herria Euskal Nazioa eratzen duten herritarren multzoa da. Esparru juridiko, ekonomiko, instituzional eta politiko berriarekin modu librean bat egitea aitortzen, instituzionalizatzen eta ahalbideratzen duen akordioa da, baldin eta herritarrik gehienek hala irizten badiote. Akordio honetan, herritarren borondate librea, demokratikoki adierazia, errespetatzeko printzipioaren onarpena sartzen da.

Nolanahi ere, lurralde guztien batuketa egiten ez bada, Akordio honek bermatu behar du lankidetzarako bide instituzionalak egongo direla. Gainera, euskararen komunitatea eratzen duten funtsezko kultur loturak bermatu beharko ditu.

Zentzu horretan, Nafarroan eta Iparraldean euskararen erabateko ofizialtasuna eta benetako sustapena lortzeko lanean jarraituko dugu, baita EAEn euskarak bizi duen gizarte minorizazioko egoera gainditzeko ere.

## KRISITIK IRTETEA. EREDU SOZIOEKONOMIKO PROPIO BATERANTZ AURRERA EGITEA

Krisiak ondorio bereziki latzak dauzka Europan. Baina ez herrialde guztietan berdin.

Batzuk denbora luzez aritu dira globalizaziotik eta euren dinamika demografiko eta sozialetatik sortutako aldaketei egokitzeko lanean; herrialde horiek krisiari hobeto egin diote aurre, eta aurrera egiten jarraitzeko prest daude.

“Bi abiaduren Europa” egia dela argi dago. Gauzak ondo egin dituzten estatuak, euren erronkak planeatuz eta erronka horiei ausardiaz aurre eginez, eta beste alde batera begiratu duten estatuak, gehiegi zorpetu direnak eta une honetan kateatuta daudenak.

Erronka hauei aurre egiteko modua, noski, ez da Greziaren eredua ezta Espainiar estatuarena ere: porrot egiteko zorian dauden sozietate eta administrazio publikoak, ekonomian eta finantzetan desoreka itzelak, eta arazoei heltzeko kapaz ez diren sistema politikoak. Sozietate horiek langabezia eta pobrezia izango dituzte urte luzez.

EAEn, berriz, autogobernuak krisiaren ondorioak arintzen lagundu digu. Gure eredua ona dela erakutsi dugu, baina eredu sozio-ekonomiko propioan sakondu behar dugu, aurrean dauzkagun aukerak aprobetxatzeko eta Europar Batasunean eta nazioarteko komunitatean posizio protagonista bat edukitzeko.

Euskal gizarteak, Euskadik, bere balioak dauzka, eta haiek edukitzen eta bultzatzen jarraitu behar du. Balio konpartituak dira: lana, esfortzua, elkartasuna, espiritu ekintzailea, lankidetzeta, elkartegintza, aukera berrien bilaketa, kalitatearen aldeko apustua, prestakuntza eta berrikuntza. Gizarte irabazle baten berezko balioak dira, bere bizi-mailak egonkortzeko beti aurrera begiratzen duena, oinarizko duintasun-muga batekin.

Balio horien artean, elkartasuna bereziki indartu beharreko aktiboa da.

- Lana galdu dutenekiko elkartasuna. Adineko pertsonetikiko elkartasuna.



- Gure gazteetako askorekiko elkartasuna, ikasteko ahalegin handia egin ondoren etorkizuna ilun ikusten dutenak. Eta, egoera honetan egonik ere, euren seme-alabak hazteko eta euren adinekoak zaintzeko ekarpen soziala egiten duten familiekiko elkartasuna. Azken urteotan lortu dugun Ongizate Estatu iraunkorrek ondorio negatibo batzuk ere izan ditu, batez ere belaunaldien arteko ulermen arazoek ondorioz. Daukaguna baino gehiago gastatuz bizitzeko modu horrek lehiakortasuna, elkartasuna eta balioen hierarkia kaltetu ditu. Gure ekonomia, batez ere industrian oinarritzen dena, arrakastatsua izango bada, gaur egungo testuinguru ekonomikoan beharrezkoa da antolaketa hobetzea, esportazio-ahalmena bultzatzea, kostuak murriztea, eta balio erantsi handiagoa duten produktuak eta zerbitzuak garatzea, berrikuntzaren eta kalitatearen bidez (haien lehiakortasuna baldintzatzen duten faktoreak baitira).

Horretarako, ez dugu ahaztu behar berrikuntzaren eta kalitatearen ezinbesteko baldintza bat, eredu sozioekonomiko propioa ezaugarritzen duen helburu estrategiko gisa, emakumeak eta gizonak euren produktu eta zerbitzuak garatzeko kualifikatzea dela.

## SUBIRANOTASUN ETA AUTOGOBERNU HANDIAGOAK

Geure helburuak lortzeko, mendetasun gero eta txikiagoa eduki behar dugu, independentzia lortu arte. Uneoro guk geuk erreakzionatzeko eta erabakitzeke gero eta gaitasun handiagoa izan behar dugu, independentzia handiagoa.

Espazioa geureganatzea, nazioartean erreferenteak diren gizarte eta herrialdea eratzera.

Euskadi proiektu sozial, ekonomiko eta politiko propioa da. Geure kultura, hizkuntza eta nortasuna daukagu. Euskal herritarren borondatean oinarritutako proiektua. Gu geu gara, eta gu geu izan nahi dugu.

Sendotu nahi dugun nortasuna konpartitzen dugu. Subiranotasunerantz eta autogobernurantz aurrera egitea herrialde-proiektu estrategiko berri batean planteatzen dira orain. Proiektu horrek etorkizuna erabakitzeke eskubidearen eta gaitasunaren aitortpenaren printzipio demokratikoak eta giza eskubide guztienganako errespetua hartu behar ditu barruan.

Gure Herriaren borondateak gure autogobernurako nahiak eta eskubideak legitimatzen ditu, baina ezin dugu ahaztu autogobernua ez dela hitz hutsa, baizik eta ongizaterako, bizi-kaliterako eta gure Herriaren eraikuntzarako egitasmoa. Euskadiren eraikuntza instituzionalak hazkunde ekonomikoa (giza garapena, batez besteko errenta-maila Europako batez bestekotik gora egotea) eta oinarritzko zerbitzu publiko eraginkorrek (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kultura, garraioa eta mugikortasuna) ekarri dizkigu, batez ere EAEn.

Gure bidea ez da okerra izan. Gure nortasunaren indarrari esker eta euskal gizartearen interes komunari esker, autogobernua sakondu dugu. Autogobernua aurrerapena, ongizatea eta bizi-kalitatea izan da eta da. Horregatik guztiagatik, geure nortasuna eta euskal gizartearen interes komuna sendotzen jarraitu behar dugu.

Ez diogu uko egingo lortutako autogobernu estatusari. Aitzitik, oinarri horretatik instituzionalki hazi nahi dugu, munduan dugun posizioa sendotzeko.

Euskadi ez dago (eta ez du egon nahi) "trenaren atzealdean". Gure lekua "europar lokomotoran" dago, Europa ekonomiko, sozial, kultural eta politiko aurreratuago baten eraikuntzan alegia. Horri geure hizkuntza eta kulturaren zeharkakotasuna eta balio erantsia emango dizkiogu, Euskal Herri gisa garatzeko.

Testuinguru horretan, Estatu espainiarra Hego-Euskadiren garapenerako galga are eragozgarriagoa da. Espainiar estatuaren desoreka ekonomiko eta instituzionalek mesfidantza handia sortzen dute nazioartean. Mesfidantza hori nazioarteko finantza-merkatuetara, eta euskal enpresen "bezero-merkatu" izan litezkeenetara ere, iristen da. Nazioarteko erreferentzia izan beharra dugu, ez bakarrik termino politikoetan, baita alderdi sozialean eta ekonomikoan ere, Euskadiren presentzia eta nortasuna munduan finkatuz.



Lortu behar dugun garapen erritmoa lortzea ezinezkoa da, hirugarren herrialdeen inguruabarren mende gauden bitartean. Horrek esan nahi du subiranotasunaren printzipioa politikoki aplikatu eta egituratu behar dugula, hau da, geure etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta gaitasuna. Ez norgehiagoka politikoa bilatzeko, baizik eta herritarren intereserako. Izan ere, euskal herritarrok etorkizun hobea nahi dugu, munduko gainerako nazioen eskubide berak baititugu.

EAJ-PNVk bere borondatea erakusten du bere planteamendu politikoetatik abiatuta akordio zabalak lortzeko eta haiek benetan gauzatzeko behar diren foro eta erakundeetara bidaltzeko. Balio horiek defendatu eta indartu behar ditugu. Eta nor hobe hori egiteko EAJ-PNV baino, guk Euskadiren interesak beti defendatu baititugu, eta ez bakarrik aldarrikapen politiko gisa, baizik eta herritarren interesarengatik.

EAJ-PNVk euskal estrategia nazionala gidatu behar du, eta eragile politiko eta sozialekin akordioak bilatu behar ditu, konpartitutako zenbait printzipio eta edukitan oinarrituta, Herri proiektu berri bat eratzeko. Herri gisa eskuratu ditugun erakundeetatik eta beste foro batzuetan, baita oposizioan ere, garatu beharreko estrategia. Beti ere geure Aberriaren alde.

Uniformitatean edota dagoeneko lortu ditugun botere-eremuetan gelditzea atzean geratzea da, datorkigun errealitatearen aurrean atzera egitea alegia. Egitura politiko propioa eduki nahi dugu, geure nortasun sozial, ekonomiko, kultural eta politikoa babesteko eta garatzeko. Euskaldunok hobeto bizi nahi dugu, enplegu eta ongizate arloan ziurtasunarekin bizi nahi dugu, eta punta-puntako gizarte zerbitzuekin. Sendotasun ekonomiko. Hori dena lortzeko, beharrezkoa da aldi berean garapen instituzionala lortzea, planteatutako erronken arabera gobernantza.

Gure strategiaren helburua Euskadiren hazkuntza bultzatzea da, ikuspegi politiko, sozial, ekonomiko eta instituzionaletik haztea, eta instituzionalizazio mailakatua lortzea, Euskadi nazioartean Nazio libre dela aitortzen duena. Hazkunde ekonomiko eta hazkunde instituzionala garapen eta kohesio sozial handiagoen oinarria izan behar dira. Aberastasuna sortzea eta ondo banatzea izan behar da gure alternatiba, Europan gizarte kohesionatua eta kementsua izateko. Subiranotasuna egunez egun gauzatzea, geureganatutako eremuak sendotuz eta urrats berriak eginez.

Euskadi berriztatzen eta indartzen den nazio zaharra da. Euskadik Nazioa izan behar du Europan. Dagoeneko badauden beste batzuen alboan, Estonia eta Kroazia adibidez. Bidea eskatzen ari diren beste batzuen alboan, Eskozia, Flandria eta Katalunia adibidez. Gure helburua "europar trenak" aurrera egiten duen lekuan ipini behar dugu. "Subiranotasun politikoa" eta "subiranotasun ekonomikoa" lotu. "Subiranotasun ekonomikoa" eta "protektionismo ekonomikoa" nahastu gabe, Euskadi independenteagoa nahi eta behar dugulako eta, aldi berean, munduaren aurrean irekiagoa.

Munduan sartzeko atea Europa dugu. Geure espazio geopolitiko eta ekonomiko naturala da, eta handik begiratzen diegu gainerako kontinenteei.

Europa guran eragina duen errealitate propioa da. Eta gero eta gehiago. Europar araudiaren %80a estatueta zuzenean aplikatzen da. Hego-Euskadiren komunitate politikoak, nortasun eta eskumen propioak dituztenak, ezin dira Europako erabaki-eremutik kanpo egon. Horretan ere ez dugu subsidiarioak edo mendekoak izan nahi, ezta lpar-Euskadin ere, non tokiko gobernantzako eredu berria nahi dugun, lurralde hori garatzeko behar diren eskumenak eta autonomia dauzkaten erakundeekin.

Uste dugu Euskal Nazioaren proiektuak etorkizuna duela. Eta etorkizuna du berez, Europako Batasuneko gainerako estatuen maila berean bere espazioa eta onarpena bilatzen dituen errealitatea den aldeetik. Horregatik guztiagatik, haratago begiratu behar dugu. Euskadi ekonomikoki, politikoki eta kulturalki nazioartekotzeko proiektua garatu behar dugu, geure eredu sozioekonomikoan oinarrituta, geure erakunde politikoetatik, eta Euskal Herriaren nortasun kultural berezia mantenduz.

Proiektu honen lehenbiziko destinoa Europa izan behar da baina agertoki global berriraino iritsi behar da. Euskadi, Europako eta munduko Nazioa. Gurekin lotura ekonomiko, kultural edo afektiboak (euskaldunen kolektibo garrantzitsuak dituztelako) dauzkaten herrialdeetatik hurbil. Baita ere, nahiz eta gurekin harreman esturik izan ez, gure enpresentzat aukera ona diren herrialdeekin. Haiengana irmotasunez hurbildu behar gara.

Gure herriak badaki gauzak ondo egiten, horretan ahalegintzen da. Horregatik, geure marka sortu, bultzatu eta kokatu behar dugu: "Euskadi marka". Euskal Herria ordezkatzeko duen marka, balio eta



nortasun propioekin. Marka ezberdina, plurala eta munduari irekia, geure herrian eragin positiboa duena, eta herrialdeen eta kulturen arteko elkarrizketari irekita dagoen mundu-agertokian parte hartzen laguntzen duena.

Hor "euskara lurraldea" (konpartitutako kultur lurraldea, euskal komunitatea munduan kokatzen duena) oinarri duten harremanen instituzionalizazioa sartzen da. Gaur egun ezagutzen ditugun muga politikoak gainditzeko duen lurraldea eta euren borondate librearen bidez euskaldun sentitzen eta aritzen direnei babesa ematen diena.

## ESKUBIDE HISTORIKOAK EGUNERATZEA, ERABAKITZEKO ESKUBIDEA INSTITUZIONALIZATZEA

Azken urteetan asko esan eta idatzi da euskal gatazka politikoaren existentziari eta ezaugarriei buruz. Badago gatazka hori ukatzen duen talde eta lider politikorik ere. Haren existentzia bera ukatzen dute, eta segidan esaten dute EAEn estatus politikoan aldaketak egin ahal izateko gure erkidegoan indarrean dagoen Autonomia Estatutuak baino herri-babes zabalagoa behar dela; Nafarroan, berriz, jarrera erabat itxiak dauzkate.

Hala eta guztiz ere, duda ezina da euskal arazo nazionala badagoela.

Euskal gatazka politikoaren hasierari data zehatza jarri ahal diogu: Foruen deuseztapena. Era berean, gatazka honen amaiera zehazteko eremu bat deskriba dezakegu. Foruak erabat berreskuratzea edo, gaur egungo terminologia erabiliz, euskaldunen eskubide historikoak eguneratzea, eta Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta gaitasuna aitortzea.

Urteak daramatzagu ezadostasun politikoan murgilduta. Ez gara kapaz izan adostasunak lortzeko, baina errealitatea zintotasunez eta objektibotasunez aitortu ahal dugu. Gure gizartearen gehiengoaren borondateen argazkiak errealitate-printzipio horren lau adierazle islatzen ditu:

- Euskal gizarteak erabateko Bakea exijitzen du. Elkarbizitza indarkeriarik gabe, eta giza eskubide guztien eta pertsonen askatasun guztien errespetuz eraiki behar da.
- Euskal gizarteak demokratikoa da. Arazo politikoaren tratamendua elkarrizketan, negoziazioan, akordioetan eta printzipio demokratikoetan oinarritu behar da.
- Euskal gizarteak Herri bat osatzen du, bere borondatez bere burua Naziotzat duena. Behin eta berriro, gehiengoak autodefinizio nazionalerako borondatea adierazi du, eta hori erabakitzeko eskubidearen bidez errespetatu behar da.
- Euskal gizarteak plurala da. Nortasun politiko, kultural eta nazional ezberdinetako pertsonak osatzen dute, elkarrizketan eta akordio bilaketaren bidezko etengabeko konpromiso baten bidez errespetatu behar direnak.
- Nolanahi ere, euskaldunen hizkuntza propioa euskara da. Euskarak minorizazio egoera pairatzen du. EAJ-PNV egoera hori gainditzeko saiatu da beti, eta hala jarraituko du, lortu arte.

Pluraltasun politikoa berreskuratu eta asmo politikoa duen indarkeria behin betiko desagertu ondoren, adostasun zabal bat artikulatu behar da, Euskal Herriaren borondate politikoa eguneratzen duena.

Nafarroako Foru Komunitateak osatzen duen erabaki-eremuari dagokionez, kontuan izanik bertan indar korrelazioa ezberdina dela, ez diogu uko egiten, agertoki berri honetan, lurralde honek (benetako subjektu politikoa denak) askatasun osoz erabaki ahal izateari bertako herritarrek egokitzat jotzen duten antolaketa politikoa. EAJ-PNVk, Nafarroako talde politikoa den aldetik, EARekin eta Iparraldeko Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa lurraldeekin lotzen gaituzten historia, kultur, hizkuntza, ekonomi eta gizarte loturak direla bide, esparru juridiko konfederal baten alde egingo du, hiru erabaki eremuetako bakoitzean erabakitzen denaren aitortpenetik eta errespetutik abiatuko dena.

Elkarrizketan, definizioko oinarrizko tresna, finkatzen den akordioa. Hortik formulazio juridiko-politiko berria sortu behar da, gehiengoaren eta gutxiengoaren eskubideak errespetatuz.

Egitate-bidean alde bakarrekotasunetik eta mendekotasunetik, zuzenbide-bidean alde bikotasunera eta berdintasunezko harremanera garamatzen akordioa.

Nortasun eta errealitate nazional ezberdinen arteko bizikidetza zaintzen duen akordioa.

Gure asmoa "lege zaharra" "lege berrian" eguneratzea da, estatus berria geureganatzea, zutabe hauekin: berdinen arteko ituna eta adostasuna eremu politikoan, eta aldebikotasuna eta bermeak eremu juridikoan.

Euskadin bizikidetza politikoko garai berri baterako akordio berri hau erdiestea lehentasun bat da, eta ondoko konpromisoak barneratzea exijitzen digu:

- Printzipio demokratiko oinarrikoenak aplikatuz gero herritarren gehiengoaren borondateari arau-balio esanguratsua eman behar zaiola konpartitzea. Horrek esan nahi du zerikusia duten eragile politiko eta instituzionalek beharrezko moldaketak egin behar dituztela, borondatearen adierazpen argia asetzeko.
- Euskal gizartea Herri bat dela konpartitzea, eta etorkizunaz erabakitzeke, kontsultatua izateko eta demokratikoki adierazten duen borondatea errespetatua izateko eskubidea eta gaitasuna dituela.
- Euskal gizartea nortasun pluralez osatzen dela eta agertoki demokratiko batean elkarrengana-ko errespetuz bizi behar dela konpartitzea.
- Gatazkak konpontzeko metodoa elkarrizketan, negoziazioan, indar politikoen arteko akordio zabaletan edo, hori lortu ezin bada, gizartearen gehiengoaren iritzia errespetuan oinarritzen dela konpartitzea.
- Prozesu demokratiko osoak, bazterketa beharrean, inklusioa behar duela konpartitzea, denok baldintza berberetan jardutea, mehatxurik ez egotea, eta tradizio politiko guztiek adierazpide legala eduki ahal izatea.

Loiolako Akordioa izan zitekeenaren oinarrietan jaso zenez, gure herriko sentsibiltate politikoen arteko akordio inkluyentea behar dugu, bizikidetza demokratikoa finkatzeko eta esparru juridiko-politiko konpartitua edukitzeko, egoera egonkorra bermatzen diguna. Alderdi politikoek konpartitutako, garatutako eta aberastutako akordioa, erakunde eskudunetan izapidetua, eta euskal herritarrek onesten dutena. Oinarri zabaleko gehiengoaren akordio batean, proiektu politiko guztiak gauzatzeko aukera berdintasuna sartu behar da. Baina hori ez da praktikan gertatzen: PPK eta PSOEek euren nazioa konstituzionalizatuta daukate, baina EAJ-PNVren gizarteak ez dauka bere nazioa konstituzionalizatzeko eskubiderik.

Autogobernuak ziklo aldaketa ahalbideratu du. Terrorismoari uko egitea ezinbesteko baldintza da jarduera politiko librean egiteko (alderdien eta beren arteko itunen jokoa) eta jarduera instituzionalerako (gubernantza praktikoa eta txandakatzea). Herritarrek eragile politikoak direla jakiteak eta autogobernuak Herriaren modernizazioan izan dituen emaitza bikainek ziklo berri hau ahalbideratu dute.

Zentzu guztietan hazi gara; euskal gizarteak hazten jarraitu nahi du eta hala eskatzen du. Une honetan eskuratu ahal eta behar dugu geure estatus berria. Borondate politikoarekin, bide eta tresna juridiko eta politikoak daude hori lortzeko; halaxe erakutsi genuen Euskarentzako Estatus Politiko Berriaren izapidetzearekin 2004tik aurrera, espainiar parlamentuak errefusatu zuena, bere arauak ere errespetatu gabe.

Estatuak euskal arazo nazionalean eragin duen blokeoa gaindituko duen estatusa, trantsizio politikotik aurrera ari baita egoera blokeatzen: prozesu eratzaille hartan euskal abertzaleak baztertuta geratu ziren, LOAPAren ezarpenaren bidez eta horrenbestez Gernikako Estatutua osorik betetzea denboran atzeratuz. Eusko Legebiltzarrak 1990ean autodeterminazio eskubidearen alde onetsitako ebazpena ez onartzea. Euskadirentzako Estatutu Politiko Berriaren proposamena izapidetzeko ez onartzea, nahiz eta Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onetsi zuen 2004an, eta Konstituzioa eraldatzeko 2011ko irailean aurkeztu den proposamena ere ez onartzea.

Euskal Nazioaren aitortzen politikoa eta juridikoa dakarren akordioa lortu behar da, euskal Herriak bere etorkizuna modu libre eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea eta gaitasuna baieztatuz.

Aro berri bat hasi dugu, eta erabakia, euskal herritarren borondatea, ibilbide demokratiko baten hasiera eta amaiera izan behar da. EAJ-PNVk lidergo estrategikoa garatu behar du termino politikoetan Euskadi sendotzeko, Akordio berri bat lortzeko apustu egiteko. Erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzen duen Akordioa, gizarte demokratiko eta libre baten erakusgarri.

## KONPROMISOAK:

- Euzko Alderdi Jeltzaleak, gobernu programa honetan euskal herritarrei aurkeztutako proposamenak betetzeaz gain, konpromisoa hartzen du HIRU AKORDIO NAZIONAL HANDI sustatzeko, elikatzeko eta bultzatzeko, arazo hauei erantzun bakarra eman ahal izateko:

### I. KRISITIK IRTETEA ETA OINARRIZKO KONTSENSU BAT FINKATZEA EUSKADIREN PROIEKZIO EKONOMIKORAKO ETA ENPLEGUA SORTZEKO.

- Lehentasunezko helburu estrategikoa denez gero, hurrengo gobernuaren eratu eta berehala beteko da. Lehendakariaren erantzukizuna EAJ-PNVko hautagaiak bereganatzen badu, ordezkari politiko eta sozialei elkarriketarako premiazko deia egingo die, lehiakortasunerako, jarduera ekonomikorako eta enplegurako euskal akordioaren oinarriak sortzeko xedearekin.

### II. BEHIN BETIKO BAKEA FINKATZEA, ETA BIZIKIDETZAREN ETA ADISKIDETASUNAREN ARO BERRIA HASTEA.

- Hurrengo hauteskundeetatik sortzen den "Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos" Euzko Legebiltzarreko Taldeak Bakea eta Bizikidetzaren ponentziaren bidez Legebiltzarrean hasitako lanei ekingo die. Ponentzia irekia eta plurala izango da. Haren ondorioek aro berri bat irekiko dute: errespetuarena, oroimenarena eta egindako kaltea ordaintzearena. Era berean, pertsona guztien giza eskubideak gauzatzeko beharrezko ildoak finkatuko ditu.

### III. EUSKADIRENTZAT ESTATUS POLITIKO BERRIA SORTZEA.

- Hurrengo Euzko Jaurlaritzaren proposamenez, Legebiltzarrean ponentzia berria eratuko da autogobernuaren etorkizunari buruz. Aldi berean, hurrengo legegintzaldi autonomikoan eta eremu horretan hasitako lanak babesteko, eta Euzko Jaurlaritzaren gidaritzapean, nazioarteko jardunaldiak eta parte hartze prozesu bat egingo dira, nahi dugun eredu eratzailer berriari lotutako proposamenak eta ekimenak adosteko.
- Legebiltzarreko ponentziak testu artikuludun bat egingo du, Legebiltzarri onartzeko bidaliko zaiona.
- Prozesuaren emaitza, 2015. urtean, jendeari aurkeztuko zaio, eta horri buruzko erreferenduma egingo da.





eaaj  
pnv